




KARDABERAZ BILDUMA 20



LEKUONTA TAR MANUEL JAUNTAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA II.

KARDABERAZ BILDUMA

- 1 **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**
(Zenbait idazle) 1972. 198 of.
- 2 **NEURRIZTIA**
(Luis Egia) 1972. 323 "
- 3 **SUGE GORRI**
(François Mauriac - "Uxola") . 1973. 169 "
- 4 **EZPALAK**
("Uxola") 1973. 191 "
- 5 **AITONAREN IPUIAK**
(Ramón Murua) 1974. 140 "
- 6 **ERREKA ZULOAN ETA...**
(Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1974. 339 "
- 7 **SHAKESPEARE - KOMEDIAK. I**
(Larrakoetxea'tar Bedita) ... 1974. 322 "
- 8 **LANDARE-JAKINTZA (Botánica)**
(Larrañaga, Gillermo) 1975. 183 "
- 9 **GARTZI-XIMENO, eta...**
(Anastasio Albisu Ayerdi) ... 1975. 258 "
- 10 **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**
(Anastasio Arrinda Albisu) ... 1974. 290 "
- 11 **SHAKESPEARE - KOMEDIAK. II**
(Larrakoetxea'tar Bedita) 1975. 271 "
- 12/13 **SHAKESPEARE - DRAMAK. I-II**
(Larrakoetxea'tar Bedita) 1977. 468 "
- 14 **SHAKESPEARE - TRAJEDIAK. I**
(Larrakoetxea'tar Bedita) 1976. 358 "
- 15 **SHAKESPEARE - TRAJEDIAK. II**
(Larrakoetxea'tar Bedita) 1976. 293 "
- 16/17 **GRAMATICA VASCA**
(Dos vols.). ("Umandi") 1976. 584 ta 208 of
- 18 **TXIRULIRUKA-OLERKIAK**
(Loidi'tar Paben) 1977. 145 "
- 19 **LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-
NEZKO IDAZKI-BILDUMA, I** 1977. 341 "
- 20 **LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-
NEZKO IDAZKI-BILDUMA, II** 1977. 323 "
- 21 **LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OME-
NEZKO IDAZKI-BILDUMA, III** 1977. 396 "
- 22 **EUSKAL-BETEKIZUNAK**
("Umandi") 1977. 222 "



Euskal Biblioteka Labayru



1021844
LITERATURA / N. 2891
v.2



KARDABERAZ BILDUMA - 20

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN

OMENEZKO

IDAZKI - BILDUMA

II



LEKUONA'TAR MANUEL
JAUNAREN
OMENEZKO
IDAZKI - BILDUMA

II



KARDABERAZ BILDUMA

Lenengo egunetik maixu

AGUIRRE, CECILIO

Apaiz izan naiz zuan mutillak LATINA ikasten asi bear zuan, lenengo egunetik. Latiñaz gañera, bakoitzak bere Aberriko izkuntza: Españian española, Frantzian frantsesa eta abar. Errialde guztietan olaxe izaten zan: EUZKADI-n ez izanik (izan ezik).

Gure Aberriko Apaizgaitegian ez zan Euskararik erakusten, milla bederatzireun eta amalau-garren urterarte: Urte ortan asi giñan Euskal ikasketak egiten D. Manuel maixu gendula.

Ara gauzak nola izan ziran: Ordurako ba-ziran apaiz asko eta apaizgai asko euskeraz "primeran" zekitenak, euren gisara eta gogo onez ikasi zutenak. Baña Apaizgaitegiko zuzendariak ez zuten izan sekula Euskera erakusteko asmorik: ez da burutik pasa ere: Eta Gotzaitegian are gutxiago.

Eskerrak kanpotik "tiroka" asi zirala, seminarioan Euskara zergatik ez zan erakusten galdezka. Emendik eta andik, egunero beti orixe galdezka eta itaunka izparringi, astekari, aldizkari guztiak. Eta jakiña: ixilduko ba'ziran, Euskal eskola bat jarri bear ko zala eta jartzea erabaki zuten.

Esandako urteko PAZKO EGUNA izan zan egun zoragarri txalagarri ori. Seminarioko Erretorea etorri zan, klasetarako autetsitako aretora, ikastaro berriari asiera ematera. Saiatzeko, bai, saiatzeko esan zigun, Euskera ondo ikasten, gero ondo mintzatzeko: Gure apaiz-lanak, danak edo geienak, euskeraz egin bear ko genitula-ta. "Temoso" xamarra zan gure Erretore ori: eta bere tema ori agertu zuan. Sasoi artan "euskara garbiaren" arazo ori gal-gal irakiten zegoan. Eta auxe esan zigun: Or badabiltza batzuk euskera berri bat sortu naiean: iñork ulertzen ez duan euskera bat. Ori ez da euskera: Nik dakidan euskera nere amak erakutsi zidana da; eta nik ulertzen ez dedan euskera, ez da euskera". Gure ama gaxoak ezin erakutsi guri euskera aundirik; eurak ere ez zekiten-da. Gure errietako kaleetan ere, erritar laguneren artean, ezin ikasi bear añako

euskerarik, apaiz lanak-eta bear bezela egiteko. Gaurko apaizak ezin jarraituko genduan, esate baterako, Jaungiokoa nor dan azaldu bear genduean... zera dala esaten "Jaun bat infinitamente poderoso, sabioa, justoa, prinzipioa eta fiña gauza guztiena" Olakoxea zan, elizetan, gure amak eta guri erakutsi ziguten euskera: ori eta orren antzeko beste puntu asko.

Artean "kontestatario" itza asmatu gabea zan eta danok ixillik entzun genitun gure erretoreak esan zizkigunak: D. Manuel an zegoan, baña au ere ixillik. Eta olaxe bukatu genduan gure lenengo euskal ikasaldia.

* * *

Urrengo eguna, Pazko Bigarrena: Bigarrengo ikasaldia: Au D. Manuel'ek eman zigun: Bezperan entzundakorik aitatu ere ez. Beste gauza batzuek esan zizkigun: oso besteak. Tolosa'ko artzipreste izaniko D. Patrizio'ren liburuxka batetik ainbeste gauza irakurri zizkigun: Euskera galtzeak euskaldun nortasuna galtzen duala: Kristau Fedea izkuntza guztietan bizi dala, baña EUZKADIN euskera galtzeak ez diola Fedeari mesederik egiten, eta abar. Aita Larramendi'ren Iztegiko sarreratik ere itz batzuek esan zizkigun. Auxe bat: Apaizak eta praile sermolariek euskerari egin izan dizkioten kalteak: Euskeraz gutxi jakin: obeto jakiteko alegiñarik egin gabeak: eta, alatagutziz ere, ausartzen ziralako, sakristian erderaz irakurritako sermoi bat, beste gabe, kulpitora igo euskeraz egitera!!! Euskera garbizaleen aurka ez zuan ezer esan; euren alde, bai: itz asko asmatu bearra ba-zegoala: oso ondo eta ederki asmatuak asko ziralako: Argibide bezela "OTEUNA" itza eman zigun: ederki egiña Ogi Sagaratua adierazteko eta abar.

* * *

Ara or nola izan ziran Euskal Ikastaroako lenengo bi egunak. Astero ikasaldi bat edo bi izaten genitun: Betiko irakasle D. Manuel. Guk, ikasleok, txandaka-txandaka, aldegiten genduan seminariotik: D. Manuel, ordea, antxen geratzen zan, zetozen ikasle berriei Euskera irakasten. Gero, zoritxarrez, guda txar bat ekarri ziguten, eta... dana joan zan ankar gora! Amaika kalte egindako guda, eta Euskerari berari ere, bai, pranko!!! Guda aurretik Euskerak artu zuan "martxa" artan gaur nun egongo ote zan gure izkuntz zar au? Agian "batasunetik" ez urruti! Dana dala: An eta beti D. Manuelek lan asko egin du eta EUZKADI osoaren bejonak eta zorionak merezi ditu! Bai, jauna.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- II -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Euskeraren aroak

AGIRRE'TAR KOLDO, "MIKELATS"

I.—LOALDIA

Soroak aro ona bear dute landu nai baditugu. Euskeraren soroak ere beren aroa bear. Noiz izan dute euskera-soroak aro onik? Galdetu Lekuona jaunari, euskal-lurretan goldea sartu zuanetik zenbat alditan gogortu zioten soroa egoaizeak.

Euskal-lurraren aroa goikoen eskuetan dago. Agintarien eskuetan. Euskalerriko elizaren euskal-lurrarena, gotzaien eskuetan izan da. Aro ona izan al dute elizaren euskal-lurrak gotzaien eskuetan?

Ona, edesti zugaitzetik iñausita, lengo azi-orrazi bat edo beste:

1.—Kalaorra'ko Lugo gotzaiak gure Iñaki Aundiari (eta onen lagunei), sermolari euskaldun eske egiñiko idazkiak aztuak bide zituzten geroko gotzaiak.

2.—Luko, Manso, González del Castillo ta Lepe, Kalaorra'ko gotzaiak, 1553, 1601, 1620 ta 1698'garrengo urtetan, euskal-sermoi eta euskal-dotriñari buruz idatzi zituzten "Constituciones Synodales" ziralakoak ere aztuak bide zituzten geroko gotzaiak.

3.—Euskalerriko gotzai euskaldunak:

Naparroa'k, 456 urtetan (1520-1976) BERROGETABEDERATZI (49) gotzai izan ditu. Auetatik BI (2) BAKARRIK euskaldunak (Irigoyen eta Mujika).

Gazteiz'ek, 115 urtetan (1861-1976) AMABOST (15) gotzai izan ditu. Auetatik BI (2) BAKARRIK euskaldunak (Mujika ta Lauzurika); onenzat ordea, besteren aginduz bederen, 'isiltzeko aldia' izan zan.

Donosti'k, 26 urtetan (1950-1976) IRU (3) gotzai izan ditu. Auetatik BI (2) euskaldunak (Bereziartua ta Argaya).

Bilbo'k, 26 urtetan (1950-1976) LAU (4) gotzai izan ditu. Auetatik BAT (1) BAKARRA, eta bera erdi-euskaldun (Zirarda).

Laburki: 456 urtetan, Euskalerriak 71 gotzai izan ditu. Auetatik

SEI (6) BAKARRIK euskaldunak (Mujika jauna Iruña'n eta gazteiz'en izan baizan gotzai). Gañera zenbat gotzai-ordeko (Bikario jeneral) izan dira euskaldun?

Eta zer?

"Matinek" (Martin Lekuona'k) ziona:

Eliz gauzetan orrelakorik gertatu zaigu. Gotzaiak erdeldun, Gotzai baranokoak ere, beraz, erdeldun, edo beintzat erderaz ari bearrak. Gotzain agiriak erderaz bear zuten. Gotzaiarekin artu-emanak zituztenak erdera bidez ari bear. Apaizak, nai ta nai ez, oraintsurarte gertatu danez, euskeraz baño erderaz aritzeko askoz ere gertuago irtengo ziran. (...) Ezta gañera arritzekoa apaiz irakasleak ikastaroan erdera-lateraz ikasitako gayak euskeraz erabili ta azaltzeko nagi biurtzea. Ondo dakigu geok ere zer dan ori" ('El Día'k 'Argia'tik artuta, 1934-VII-24).

Eskerrik asko Martin 'adiskide kutun, lagun zorigabe-azpildu gabeko biotzaren jabe' gau beltzean ('gau artzaz ilunbea yabetu bedi', Yob 3, 6 Olabide) ontzak etorri garaian aldegiña' (Lizardi).

4.—Gozzai-Agiriak (Pastorales): Aurrenekoak.

Bixenta Mogel'ek (Bilbo'n, 1820'ean) Toledo'ko Luis María de Borbón kardenalaren Gozai-agiri bat euskeratu zuan. Ale bat nerekin izan det. Gozai-agiri onek ordea ezta artu-emanik bat ere emen darabilgun gozai-agiri gaiakin.

Bayona'n (XI'garren gizaldikoa gutxienez eliz-barrutia) 1915-II-21'ean.

Gazteiz'en (1862'an sortua), 1923-VII-10'ean.

Iruña'n (589'garren urtean bazan eliz-barruti au), 1927'an.

Gerora, 1936'tik 1950'ra, erdera bakarrik erabili zuten Euskalerriko gozaiak: besteren aginduz eta norbere borondatez ere bai. Eta Donosti-Bilbo'ko eliz-barrutiak sortu zituztenetik, aldizka bakarrik erabili dute euskera urte luzeetan.

5.—Euskera Konkordatoetan:

Poloni (1923-II-10), Lituani (1927-IX-27), Itali (1929-II-11) ta Alemani'kin (1933-VII-20) Erromak izenpetutako konkordatoetan erri izkerei babesik eman zien.

España'kin izenpetuak (1851 eta 1953'ean) euskera bazanik ere etzioten.

6.—Euskal-irakasgua (Cátedra de Euskera):

Gazteiz'en, 'AGIRRE' apaiztegiari asi ziran euskera irakasten (1857). Gotzaiak ordea, 1880'ean apaiztegi 'konziliarra' sortu zuan, eta apaiztegi ontan uko egin zion euskerari.

35 urte geroago (1915-X-15'ean) asi zan Lekuona jauna euskera irakasten. Irakasgu au ere errotik atera zuten 1936'ean. Nunbait ('cathedra pestilentiae' zalako edo).

Egia al da Mujika jaunak 1906'ean ziona: "Nosotros, los sacerdotes, tenemos muchas veces la culpa de que se eche a perder el bascuence"? (Landa jaunaren 'Euskerazko Itzaldiyak' liburuxkari don Mateo'k ezarri zion itzaurrean).

II.—AMETS-BIDEAK

"Kardaberaz"

Badakite, lengoak beintzat, zer izan zan 'Kardaberaz' ('Academia Kardaberaz') ori. Lekuona'k sortu zuanean, ni gaztea nintzan ('quantum mutatus ab illo'). Andoain'en nintzan apaizgai. Ain xuxen ere, 'Kardaberaz' sortu zuten urte artan bertan (1924-IV) erre zitzaigun Andoain'go apaiztegia, 1924-XII-27'an (eta kito arrezkero Ustoa jaunaren parre-algarak Plauto'ren antzerkiak irakurtzean). Saturraran'en Bereziartua'k eman zigun aurreneko euskera ikastaroa. Inixio Maria Etxaide'ren "Sufijos" liburuxka bat azaldu zigun (1925-1926 kursoan). Gero, (1926-1927 kursoan), Gazteiz'ko apaiztegi zarrean, asi nintzan ni ere 'Kardaberaz'tarrekin biltzen. Ordukoa dala uste det minbizia baño ere itsaskorragoa degun euskeraganako eraspina. Zoritzarrez, buruko illeekin batean, oroimena ere murriztu egin zait nunbait eta ezin gogora ekarri zer eta nola egiten genduan eta zeintzuk euskal ikasle lagunak. Bakar-bakarrik Patxi Garmendia ta Garbizu ditut gogoan, urteen illunak gaizki ez banarabil beintzat.

Apaiztegi berrikoak argi geixego dute... nere paperetan. 'Kardaberaz' klaseak asterokoak ziran. Euskal lanak ordea ilean bein, txandaka irakurtzen genitun. Bi lagunek, orretarako aukeratuak, lanari buruz iritzia ematen zuten. Eta gero, beste lagunak ere eman zezaketen beren iritzia.

Arritzekoa: baditut oraindik ere apaiztegi berriko papel batzuk lan auek dirala ta. Luxio'ren 'Udazkena'ri eman nion iritzia (1931-II-1). Nik irakurritako bertso sail bat eta Sarasua'k (M.) eman zuan iritzia. Ertze'ren "Ezta ilgo" lanari buruz eman nuan iritzia. Nere beste bertso sail bat ere bai, eta azkeneko aapaldiari buruz bateonbatek nere papelean idatzi zuana: "Bertsoak al dituk auek?". Ona nere erantzuna, adiskide, 45 urte geroago: "Ez, alazankoa! Es dituk bertsoak". Baditut baitare Jaka lagunari, ama il zitzaionean irakurri nizkion bertsoak ere.

Zer zan 'Kardaberaz'? Kardaberaz giro berri bat zan. 'Kardaberaz'-ek kimu berriak ere izan zituan. Laburki: 'Kardaberaz' bide berriak artzeko aukera izan zan. 'Kardaberaz'en giro berri ortan sortu ziran:

"Eusko-Kristau-Yakintza' (E.K.Y.). "Yakintza-Bide-Batza". "Bide-Berri-Zaleak" (Txomin Irigoyen, idazkari). 'Euskaltzaindiaren Laguntzailleak' (Martin Lekuona, lendakari; ni, idazkari). Laguntzalleen aldizkaritxoak: 'DEYA'. Lekuona jaunaren ume-jolasak, erri abesti bidez. 'Kardaberaz'tarrak ere lagun izan zituan Lekuona jaunak Gotzai-Agiriak euskeratzeko. Lekuona'ri zor zayo jantokietan sermoyak euskeraz egitea eta gau-jaitxoak (Zubigar'en omenez...), abestiak, 'Kukulumerak', antzerkiak ('Eun dukat', 'Aterako gera', 'Matias gezurtzulo'...) euskeraz ematea.

Ona orain, apaiztegi berriko arazoak txikizka: euskera ta bestelako arazoak.

1930

XI-9.—"Euskaltzaleak 'Aula Magna'n bildu gera. Lekuona'k aditzera eman digu zer eta nola lan egin bear degun euskera gayetan. Euskeraz itz egitera beartu gera. (Egun ontakoa izango da, noski, euskaldunen artean erderaz egiten zuanarentzat boxentimoko isuna. Oar ordea: euskeraz itz egitera beartu giñan, euskaldunen artean, ez ordea erderaz ez egitera.

XI-20.—'Kardaberaz'tarren lenengo saillekoak batzarra.

XI-30.—Euskaltzaleen batzarra. Iñaki'ren (¿Larrañaga?, ¿Azpiazu?) ipui polit-polita. Bai daukala ugaria itza.

1931

I-5.—Apal ondoan 'Eun dukat' Lekuona anayena. Iratz-ebailleak. Bertsolariak ere poliki egin dute.

I-8.—Batzarra. 'Kardaberaz'.

I-15.—Batzarra. 'Kardaberaz'.

II-1.—Goizeko batzarrean ('Kardaberaz') Luxio'ren 'Udazkena'ren iritzia eman det.

III-26.—Gaeuan, gure jantegian, itzaldia euskeraz (!!!) Garmendia'k (Juan Angel Garmendia Aramburu). Zorionak Azkenik ere gure egin degu guk ere. Dirudienez, Jaka'k ere euskeraz egin zuan jantegiser-moya 1932-IV-4'e-an. Gero, nik 1934-II-14'e-an; Katarain'ek 1934-II-28'an; Lasa ta Luxio'k ere 1934-III-20'e-an. Aurrena, bakoizka ausartu ziran sermoyak euskeraz egiten. Erretorea bera ere (Lazpiur), Don 'Bildur', etzan iritzi batekoa euskaldunekin. Gerora, gure kursoan (1934) lortu genun, Lekuona'ri eskerrak, nai genunak euskeraz egitea, Enziso'k nai ez bazuan ere).

IV-4.—Goztai jaunaren itzalditxoak: Kaliforni'ko 10.000 euskaldunei apaizak biali nai. (Apaiz euskaldunak biali nai Ameriketa'ra eta emen bertan ikasi arazi ez euskerar'ik).

IV-27.—'ZUBIGAR'eri omena (Sarasua, Mitxelena, Loizate, Esnaola, Garmendi, Zuluaga, Amutxategi, Loidi, Agirre. (Badet oraindik esku-programatxo polita: 'Kardaberaz'tarrak dio bertan. 'Euskal-Esnalea'k ere azaldu zuan (330'garren alean, 107'garren orrian) programatxo ori).

V-17.—Goztaia Laburdi'ra bota dute. (Aurreko egunetan Segura kardenala).

X-4.—Euskera gayetzaz itz egiten asi gera.

X-12.—Goizean aurreneko batzarra ('Kardaberaz'). Bide berriak zabaldu ditugu.

X-18.—Atsaldean 'Kukulumerak': 1. Mixiolaria (Larrañaga'tar Iñaki); 2. Xenpelar Elorrio'n (Lekuona'tar Martin). Gauza polita. Pildain izan degu gure artean, baita itz batzuk esan ere... "Y ser vascos hasta las cachas".

XI-2.—Batzarra ('Kardaberaz'). Ederki; gogor-xamar.

XI-22.—Batzarra-Kardaberaz. Lana, Iñarrak.

XI-25.—Filosofoen Zaindaria. Euskeraz tutik ere ez dute egin jayetn.

XII-3.—(Xabier). 'Kukulumerak' (bost): Agurra; Oroitzak; Eriotza; Amezkilla; Balendin Martiri.

XII-5.—EUSKERAREN LAGUNDIA SORTU DA (!!!) (Ez ote da egun

au, eun eta sei (106) teologok euskeraren alde lan egitera beartu giñaneko eguna?).

XII-8.—Gau-jaitxoak: Abestiak: "Amezkillak", "Ituna", "Ikusten duzu".

XII-13.—"Kardaberaz"-batzarrean nere lana irakurri: "JAKA'RI". (Ama il zitzayon urrillaren 24'ean eta bertso aukeratuak ezkefiri nizekion. Badi-tut oraindik bertso oyek eta Jaka'k berak, ill orren 15'ean, bertsoetan eman zidan erantzuna ere).

1932

II-7.—Euskal-aditzaz itzaldia (Lekuona anayak).

II-8.—Gabeak, atzo bezela, euskal-aditza azaltzeko ikastaroa.

II-15.—Erretore jaunak (Lazpiur) sermoyak euskeraz esatea galazi laugarrengoei.

III-4.—Erretore jaunak akar Jaka'ri sermoia dala-ta (Agian, euskeraz egingo zuan).

IV-13.—Agirreurreta jaunak (don Eustakio) sermoitxoak: ez egiteko otoitzik euskeraz 'nihil innovetur nisi quod traditum est'. (Elizan errezo guztiak erderaz egiten zituzten. Batzuk euskeraz erantzuten asi giñan).

VIII-7.—Ernani'n olerki sariketa: Jaka ('Len Euskotarra'), Lekuona... (Badet 'Len Euskotarra).

IX-27.—Apaiztegira. Erretorea (don Roman Lazpiur), 'Maestrilloa' (don Lucio Asensio) —au azkeneko esamifietako istilluagaitik— eta don Dimas Sotes (politika arazotan sartzen zalako) bota dituzte Apaiztegitik. Erretore berria: don Eduardo Eskarzaga. Irakasle berri bat ere bai: don Juan Thalamas.

X-27.—Latiñeko laugarren eta bosgarrengoai euskera irakasle egin naute. Gaur bertan lendabiziko klasea.

XI-15.—Erretore berriaren jayoteguna. Euskeraz, abestiak bakarrik. Euskera kontuetan atzeraka gabiltz.

XI-17.—Euskeraren alde batzartxoak izan degu: Ezkurdia, Ayerbe, Azpiazu, Irigoyen, Añibarro, Iñarra ta nik.

XI-24.—Lekuona jaunarekin Azpiazu ta ni izan gera. Euskera arazoak.

XI-25.—Euskera alde ekin diogu berriz ere.

XII-6.—Xoxketa gaberako. Oarrak euskeraz jarri ditugu.

XII-11.—Batzarrak asi: euskera.

XII-15.—Martin Lekuona ta izan dira emen. Batzarra biarko gertatu dute.

XII-16.—Thalamas'en aretoan batzarra: Gantxegi, Azpiazu...

XII-21.—Gabeak 'Aterako gera'. Bazan garaya.

1933

I-3.—Thalamas'ekin bildu gera Azpiazu ta ni.

I-4.—Azpiazu'kin euskeraren alde lan egiten asi naiz.

I-8.—Batzarra (Euskera).

I-12.—Atsaldean Azpiazu, Martin (L.), Ganuza, Iñaki, Ibarra, Zunzunegi ta ni Thalamas eta Lekuona (Imanol)'ekin egon gera. Bigarren batzarra. Martin Lekuona 'EKIN'erauko aukeratu dute. 'Euzko-Kristau-Yakintza' (E. K.Y.) sortu degu.

III-9.—Martin (L.), Albizu, Gantxegi, Ganuza, Jaka... 'kin egon naiz Thalamas'en aretoan.

III-12 eta 23: Lizardi ta Bedoña il dira.

IV-17.—Gotzaiak itz batzuk. Jaitxoak: Azpiazu, 'Atzo', 'Ama begira zazu', Zuloaga...

VII-13.—"Euskaltzaindi-Laguntzalleak" batzarra. Naparrak; Lekuona (biak), Uriarte, Murua, Ezkurdia, Albizu, Zunzunegui, Atauri, bi irakasle, Gantxegi, Ganuza, Gorrotxategi, Zubeldia.

IX-12.—Donosti'n batzarra degu E.Y.S.L.'koak (?). Eusko-ikaskuntzan arratsaldekoak gertatzen. Arratsaldean. Eralguntza ta asmoak.

IX-13.—Goizean Guasch'ek eta nik. Arratsaldean Altzo aita.

X-23.—Errenderi'ko uroldea. Sei illak.

XII-3.—'Kardaberaz'tarren batzarra.

XII-28.—"Matias gezurtzulo".

1934

I-6.—Erregenak. Gabeak "Jesus'en jayotza" kuadrota (Marijesak).

I-11.—"Euskaltzaindiaren Laguntzalleak" bildu gaur ere.

II-14.—Gabeak latifioetan sermoya euskeraz izan det.

II-28.—Jantokietan sermoyak: Katarain'ek euskeraz.

III-4.—Euskal lan bateri buruz iritzia eman batzarrean ('Kardaberaz').

III-20.—Gabean jantokietan sermoyak: Lasa, Luxio ta Mendizabal'ek E. (dirudienez, 'euskeraz' esan nai du 'E.' orrek).

III-22.—Barandiaran'ekin egon gera "Eusko-Kristau-Yakintza" sortzeko.

IV-2.—Atsaldean Barandiaran'ek itz egin digu ('Bide-Berri-Zale-Batza').

IV-12.—"Bide-Berri-Zale" batzarra. Idazkari, Txomin Irigoyen egin degu.

IV-29.—'Kardaberaz'tarren azkeneko batzarra.

V-3.—Latiñoen euskal-esamiñak izan ditut.

V-6.—Goizean, udaran lan egiteko galderadia gertatzeko batzarra irugarren saillekoak (mapa lingüístico).

V-24.—Gotzaia atsaldean: itzaldia. Gogor xamar: Promitto, politika...

V-26.—APAIZ.

Orra zorioneko 'Kardaberaz'eri eta onek sortu zuan *giroari* dagozkion zeatz-meatz batzuk. Eztakit asko, gutxi edo naikoa bederen egin genun ez eta egiten utzi ziguten ere.

Oar ordea: Gure Mujika Gotzaia Gazteiz'era etorri zan urte artan bertan (1928) eta urrengoan, Erromatik bost 'agindu' izugarriak bialti zituztela Kataluña'ra, batez ere katalandarren izkerari esiak jarriaz. Gure gotzaiak ere laister izango zuan 'agindu' ayen zurrumurrua eta zertxobat geyago ere. Ortik atera, euskalduna izan arren eta euskalzaletasuna barrenberrean itsatsia izan arren, zer egin zezakean gure Gotzaiak euskeraren alde. Batez ere, oi zutenez, Madrid'era begira bizi ezkeru.

Eta zer esan 'kardaberaz'tarren gorazarrez? Arako 'Piztiyûn gerra'k diona bakarrik: "Mutillak! Tikiyak: biño, bai pixkorrak" (Ikusi 'Eusko-Folklore', 1928-III, 87'garren alea; Lekuona jaunak bialia).

III.—AMETS-ONDORENAK

1936'ean guda zitalak dana iruntsi zuan: gure ametsak eta gu ere bai. Oi danez, irabaztunak galtzailleen aurpegira jaurki-alako jaurti-bearrrak jaurti al izateko baimen osoa izan zuten. Zeñek bildu apaiztegi, apaizgai, irakasle, Gotzai eta euskeraren aurka esanak eta idatziak? Emen ere aiotza erabili bear. Idazle batek bakarrik atera zituanak ezarriko ditut. Erantzuna ere eman bearko.

Idazle au, Aita Constantino Bayle da, jesuita bera. Onen liburuak bi milla erraldeko zezentzarrak izan lezaken beazuna ere badu. Eztio liburuak nork egiña danik, baño badakigu Aita Bayle'rena dala. "A ella (a la cruzada) dedicó un libro publicado el año 1938. OTRO ('El Clero y los católicos vasco-separatistas y el Movimiento nacional', Madrid 1940) fue juzgado de diversa manera, pues mientras a unos les pareció se quedaba corto, a los interesados les escoció en lo vivo" (Ikusi 'Razón y Fe', 1953-III; Aita Mateos'ek idatzia).

Zer dio Aita Bayle'k? Eta zer erantzun?

1.—AITA BAYLE'K: "Al Seminario de Vitoria se le atribuye la fama de ser Centro activo de nacionalismo; fue voz común; se le llegó a llamar el 'batzoki diocesano' (...).

ERANTZUNA. GOTZAYARENA:

"CAMPAÑA DE CALUMNIAS: (...) D) En el Seminario faltaba tesón en desarraigar la semilla del nacionalismo...; la prensa que recibían los profesores era separatista, y de los profesores bajaba a los alumnos; sus academias y revistas eran excelentes órganos de propaganda y en ellas se aprobaban y confirmaban las ideas separatistas...".

"EL SEMINARIO CONCILIAR DIOCESANO... Arreciaba la tempestad, y hasta el Sr. Calvo Sotelo atacó al Seminario, calificándolo de batzoki donde se hacía política nacionalista vasca. Contra tales acusaciones respondo brevemente: 1.º Se dirigió al Sr. Calvo Sotelo una carta de protesta, firmada por todos los profesores internos y por mí, sin que recibiéramos después contestación alguna del Sr. Calvo Sotelo (q.e.p.d.)" ("Imperativos de mi conciencia" tik artua, 1945-IV).

2.—AITA BAYLE'K: "Más aún, debieron llegar quejas a Su Exce-lencia; y un día de Santo Tomás, después de la fiesta, reúne a los profesores y exige al Rector jurar, sobre el Misal, si se hacía o no propaganda entre los seminaristas. El Rector juró que no se hacía".

ERANTZUNA. GOTZAYARENA:

"2.º Por la importancia y gravedad del asunto, yo me atrevía a pedir al Sr. Rector, nada menos que un juramento, y en la fiesta de Santo Tomás de Aquino (1935'garren urtean izango zan), ante mí, y en

presencia de todos los profesores internos, el Sr. Rector D. Eduardo Escarzaga JURO que en el Seminario Conciliar de Vitoria no se hacía política, ni nacionalista ni otra alguna. Alma negra de réprobo ha de tener quien sospeche que dicho Rector fue un perjuro". "3.º Como a otros seminarios de España, vino a visitar el nuestro de Vitoria y a INFORMARSE un Delegado Apostólico, y yo supe de fuente autorizada que en aquel informe, enviado a la Sagrada Congregación de Seminarios, se decía lo que yo repito: que no se hacía política nacionalista en el Seminario".

NEREA: "1933. Azaroak 13. Gauean iritxi da 'Visitador Apostolico'a (don Jesús Mérida, Granada'ko kanonigoa). Azaroak 27. 'Visitador Apostolico'a joan zaigu. Meza berak izan du eta biarko jai eman digu".

3.—AITA BAYLE'K: "Sé de un seminarista que, cuando el Estatuto, se disfrazó en el Seminario cuatro veces y emitió cuatro votos en favor del Estatuto".

ERANTZUNA: NEREA: "1932. Garagarrillak 1. Etxeguren'ek Araudiaren aldeko iritzia eman du. Azaroak 5. Igandea. Araudia-autarkiak gaur Gipuzkoa, Bizkaya eta Araba'n. Ez digute utzi apaiztegitik ateratzen autarkia emateko eta ez degu eman. Azaroak 19. Aldunak aukeratzeko autarkiak. Gaur bai utzi digute autarkia emateko ateratzen".

Oarra: Bi Araudi atera zituzten garai artan. Aurrenekoak ('katolikoa') ez zuan autarki bearririk izan. Erriarenik beintzat. Madrid'en Constituzio berria bayetsi zutenean, ezin zitekean Araudi ura iñongo bidetik aurrera eramán. Bigarrena ("laikoa"), Constituzio berriaren arauz egiña zan: 'laikoa', beraz. Erriak azaroaren 5'ean bayetsi zuan (Gipuzkoa, Araba ta Bizkaya'k). Guri ordea ez ziguten utzi egun ortan autarkirik ematen.

4.—AITA BAYLE'K: "En el Seminario y algo al lado (secretariado de Misiones) funcionaba una especie de Agencia de colocaciones, que estudiaba cualidades y aptitudes de personas, ya antes de ser ordenados, para enviarles a los sitios que ellos designaban bajo el oprobioso nombre de "zonas y pueblos irredentos".

ERANTZUNA: GOTZAYARENA: "4.º Es pura fábula cuanto se dice de una agencia de colocaciones eclesiásticas establecida en el Secretariado de Misiones de Vitoria". "La Oficina de Misiones diocesanas —se ha dicho— ocupábase en elegir cuidadosamente candidatos nacionalistas

para confiarles cargos importantes eclesiásticos: párrocos, coadjutores, etc. ¡Cuánta mentira, cuánta maldad en los que escribieron y llevaron a libros impresos tan gratuitas, tan falsas, tan injustas afirmaciones".

NEREA: Apaiztegi berria, Gazteiz'tik kampora egiña, 1930'ean iriki zuten. Beraz, Aita Bayle'k diona, gertatu bazan beintzat, lenagokoa izan bear. Ez al zekian Aita Baylek erregeak aukeratzen zituala Gotzayak?

5.—AITA BAYLE'K: "En plena clase de segundo y tercero de Teología, hace dos o tres años (el informe es de 20 de enero de 1937), se insultó a un profesor, tildado de españolista y se le hizo llorar" (...) "No hubo sanción, a pesar de los insultos. El profesor vejado renunció a la Cátedra, y se la admitió la renuncia. Se trata de don Lucio Asensio".

ERANTZUNA: GOTZAYARENA: "MI PROTESTA... Es pura fábula... lo de que un profesor de Teología de aquel centro hubiese renunciado a la cátedra por cuestiones de carácter político..., acusaciones calumniosas que no tienen más base que el deseo de quien las inventa y las propala".

NEREA: "1932. Orrillak 11. 'Maestrillo'k (don Lucio Asensio) bealdiko asarre aldia Alberdi'ri. Onek ojezio bat jarri zion don Luzio'ri, eta onen erantzuna aitu zuanean: "Me extraña" esan zuan bere kautan. Ura izan zan ura, urik gabea! Orrillak 25. "Maestrillo'kin azkeneko klasea. Notak (bere ustez, kursoaren arauz merezi ditugunak. (...) ta batez ere Alberdi'ri esan zigunez esamiñetan ezer gutxi erantzutea aski genula kursoan merezia genun "sobresalientea" ateratzeko. Gorrotorik ez zuala guretzat. Urte osoan ojezioak bota ta bota ibilli giñakion). Orrillak 20. Azterketak. 'Maestrillo'kin berriz ere larritasunak. Onek eta Moralekoak 30'tik gorako suspenso eman dituzte (!!!!). Ez da beñere orrelakorik gertatu. Jende guziak dionez, 'Maestrillo'a kendu egin bearko dute". Agorrrak 27 Apaiztegira. Erretore (Lazpiur), 'Maestrillo'a (don Lucio Asensio) ta don Dimas Sotés kendu dituzte apaiztegitik".

6.—AITA BAYLE'K: "Me consta, muy a ciencia cierta, que en el Seminario funcionaba un grupo de alumnos y profesores que estaban como juramentados de no hablar nunca en español, y así lo hacían; ellos mismos se imponían a sí mismos la sanción de cinco céntimos por cada transgresión".

ERANTZUNA: GOTZAYARENA: "MI PROTESTA... Es pura fábula... lo de que los profesores y alumnos estaban juramentados de no hablar nunca en español... acusaciones calumniosas..."

NEREA: "1930. Azaroak 9. Euskeraz itz egitera beartu gera". (Egun ontakoa dala uste det boxentimoko isuna ezartzea *euskaldunen artean erderaz* egiten bagenuan. Oar ordea: apaizgaiak bakarrik baite-tsi genuan ori; ez genuan zin egtierik aitatu ere; irakasleak ez zuten zer ikusirik izan, geok bakarrik artu genuan erabakia; euskaldunen artean geure buruak euskeraz itz egitera beartzea ez da iñola ere erderaz iñore-kin ez egitera beartzea. Au esan duanak, maltzurkeriz esan du).

ERANTZUNA. GOTZAYARENA (Erroma'ra idatzia, 1936-X-21'ean): "Siguiendo las normas de la Iglesia se ha fomentado lo *conveniente* en el seminario el idioma vasco, lengua vernácula de la mayor parte de los habitantes de Guipúzcoa y Bizcaya, preparando a los seminaristas para la catequesis, predicación y para las confesiones que la inmensa mayoría del País hace en vascuence. Y esto, que es acatamiento a la *ley natural*, a la *legislación positiva de la Iglesia*, constituye ahora, en las presentes circunstancias, *nacionalismo*. ¡Cuánta injusticia y ridiculez!"

NEREA: Ikusi aurreko orrialdeetan, apaiztegian, euskeraren alde urratsez-urrats egin genituan lanak. Naikoa ote 'ley natural' eta Elizaren legeak bear bezela betetzeko?

8.—AITA BAYLE'K: "En la capilla, a los rezos se empezó —no por todos— a contestar en vascuence...; el Director espiritual acudió al Prefecto de disciplina para que lo remediara (??), y no se remedió; entonces él habló en una plática: la capilla no era un mitin, ni las oraciones tema de política; por tanto, habíase de seguir la costumbre tradicional".

ERANTZUNA: Egi-egia, batzuk euskeraz erantzuten asiak giñala. Egi-egia Agirreurreta jaunak, 1932-IV-13'an asarre antzean esan zigula ez erantzuteko euskeraz elizan. Arrazoya: 'nihil innovetur nisi quod traditum est'. Esteban Aita Santuak, orain 1720 urte, Kartago'ko Zipriano Gotzai-ari idatzi zizkion itz oyek ez dute euskerarekin zer ikusirik batere. Elizaren 'tradizio-dotriñak' noiztik agintzen digu euskaldunei otoitzak

elizan erderaz esateko? Ori gizonen agindua izango da. Galdetu gizon oyei Elizaren alde ala 'politika'ren alde egiña ote dan.

Irakurri batez ere 'Bidalien Egiñak' (2, 1-14) Pentekoste egunari buruz diona: "(...) orok, Jainkoa goستن geuron izkuntzetan ari zaiz-kigula entzun degu" (Orixe).

OARRA (SUKIA'TAR JOXE MARIK)

Mikelts'ek 1934'ko Lorailaren 26'an moztu digu Gazteizko Apaizte-giko Kardaberaztarren aria. Ari orrek, ordea, etentzeke ta gartsu jarraitu zuan, bere bidean, 1936'ko guda etsaikor ura jaio arte. Latíñekoen laugarren eta bostgarrengeon erakuslari Sukia'tar Joxe Mari; berdiñ eta Pilosopo ta Teolojikoen batzarrak eta lanak ere, On Manuelen babesean, lan eta langille, gero ta geiagoko ametsetan. Jantegi edo otordutegiko sermoitxoez gañera, Eleiz-Barrutiko Boletíñerako Gotzai jaunaren pastoral-idaztiak euskeratzea ta abar.

Gudate-zalapartak astindu zituan erabat batzar eta amets guztiak! Baiñan, udamillen ondoren, baita, berriz, ur-bizi txikian, jaio ere amorratxoak!... Leengo arripe guztiak miaturik, berriro-berriro asi egin bear!...

Gazteizko Apaiztegian ittota Kardaberaz...! Baiñan, On Manuel, egun sentiaren zain, maastian zear, leengo amets zaarrari lagun-arte berri bat esnatu naiean...

Eta, 1970'an, Kardaberazen 200'gn eriotz-urte-muga zala ta, aren Bazkunari izardi berritza jo zuan.

Apaiztegiko usaiak galduak zituanik, larre berriak jartzera erabaki ere: Naparro, Araba, Bizkai ta Gipuzkoako apaiz eta eleiztarrak izango dira bere zelai berri.

Gaur, sei urteen buruan, Batzarki ta Batzar Osoek ezik, Ikastaro ta izparringi-idatz-lan ugari ta ainbat liburu ta liburuxka jaio berrien ondoren, KARDABERAZ BAZKUNAK, Omenaldi-lantxo onetan dio esker On Manuel, euskaldun zintzo purrukatuari.

Un texto inédito de Joaquín de Lizarraga sobre el sacerdocio (año 1803)

APECECHEA PERURENA, JUAN

A D. Manuel Lecuona.

En homenaje a D. Manuel Lecuona, figura admirable por su dilatada y fecunda vida como sacerdote y escritor, me ha parecido oportuno publicar un texto inédito de Joaquín de Lizarraga (1748-1835), sacerdote navarro de larga vida y fecundo escritor en el euskara de la zona de Pamplona. Se trata de un sermón catequético sobre el sacramento del orden, entresacado de uno de los preciados códices que contienen la obra literaria del Vicario de Elcano. El referido códice está fechado en el año 1803 (1).

En el título que encabeza los sermones de este manuscrito declara el propio autor, que los escribió *laguntzeco Apex-Aitèi eracústen beren menecoèi labúrqui ta erráz*, y con la esperanza de que su obra sea *euscaldún-erri chipietán provechadezaquéna* (2). Su modestia personal resplandece en este juicio sobre sus propios sermones: *Eztút escrititu cergátic dauden óngui alá, baicic cergátic obe dén, naiz alá, ezi bateréz* (3).

Lizarraga fue ordenado de presbítero el 21 de septiembre de 1771 por el Obispo baztanés Juan Lorenzo de Irigoyen y Dutari. Cuatro días antes había cumplido los 23 años de edad. La ordenación tuvo lugar en la iglesia parroquial de Santa María de San Sebastián (4). A principios de octubre del mismo año aparece ya como Vicario interino de la parro-

(1) Título del códice en el lomo: *Doctrina Christinoarén explicacioa euscarás*, 1 tom. Se encuentra en la Biblioteca del Seminario Diocesano de Pamplona. El sermón que publicamos comprende los fols. 189v-191v.

(2) *Ibid.*, fol. 1 r (s n).

(3) *Ibid.*, fol. 1 v (s n).

(4) *Arch. Dioc. Pamplona*, Libro 1.º de Matrícula de Ordenes (Obispo Irigoyen y Dutari) fol. 44.

quia de Elcano, su pueblo natal (5). Dos años más tarde, el 8 de noviembre de 1773, fue nombrado Vicario titular de la misma parroquia después de haber superado el examen sinodal *ad curam animarum* (6). Allá ejerció su ministerio sacerdotal a lo largo de 64 años ininterrumpidos, hasta que el 20 de enero de 1835 falleció en su casa nativa llamada *Miguelena* (7).

El primer sermón que predicó el 1 de noviembre de 1771 lleva por título en uno de sus manuscritos: *De audiendo Verbo Dei et quomodo* (8). La predicación de la palabra de Dios sería en adelante la máxima de sus tareas pastorales, aunque este ministerio no es señalado con particular relieve en el texto que publicamos. Repetidas veces y con palabras apremiantes recordó esta responsabilidad a sus compañeros sacerdotes: *Etzaitela descuida óntan berére, emátean doctrinarén óguia bearradiña. Biz au Aitaguréac dión egunoróco óguia, bentzáit garizúman, ta gañarácoan iganderócoa berére* (9).

El texto que publicamos sobre el sacerdocio es una reelaboración compendiada de dos sermones anteriores del propio Lizarraga, pertenecientes al a. 1782 (10). En uno de ellos recuerda varias etimologías tradicionales del vocablo "sacerdote": "sacer dux" (*capitan edo quidari sagratua*), "sacris datus" (*gauza sagratuúi emána*), "sacra dans" (*ematentuéna gauza sagratuac*), "sacra docens" (*eracustentuéna gauza sánduac*). Citando luego en este mismo lugar el Catecismo Romano, recuerda que el sacerdote, por razón de su carácter sagrado, renunció ya desde su primera tonsura a la vanidad del mundo: *Ebaquició Obispoac biloa saiéts guciétáic, mostracéó botabeartuela beregándic munduco gauza váno ta supérfluac, ta debecaturic dágo ez azicéó biloa Apostoluen tra-*

(5) *Arch. Parroq. Elcano*, Libro de la Hermandad de Sacerdotes (a a. 1546-1881) fol. 18; *ibid.*, Libro de Difuntos (a a. 1601-1882) fol. 61 v.

(6) *Arch. Dioc. Pamplona*, Beneficiales sentenciados (Vicaría de Elcano) Secr. Almandoz (a. 1773) fajo 1, fols. 20-38; *ibid.*, Libro 10 de Títulos (reg. 1771-1779) fols. 85-86.

(7) *Arch. Parroq. Elcano*, Libro de Difuntos (a a. 1601-1882) fol. 94 r. Todavía se conserva esta casa, aunque deshabitada.

(8) *Arch. Gen. Navarra*, Fondo Bonaparte n. 7, fols. 1-6.

(9) *Doctrina Christioa euscarás exempluéqui* (a. 1811) fol. 4 (Biblioteca del Seminario Diocesano de Pamplona).

(10) *Arch. Gen. Navarra*, Fondo Bonaparte n. 7, fols. 409-414.

dicios (11). Todo sacerdote, dice, debe ser respetado y venerado. Y esto a pesar de sus limitaciones o pecados, al igual que veneraríamos una reliquia, aunque estuviera guardada en un vil relicario, o adoraríamos una custodia, aunque estuviese cubierta de lodo. Censura, en consecuencia, el comportamiento de quienes injurian al sacerdote, aunque lo hagan poniendo a salvo su carácter sagrado: *Coróna sálvo, diote bercebatzuéc, errátean cerbáit injúria, ta dirúdi cerbáit aténcio orden sagratuas, alaére está ongui* (12).

El sermón que publicamos comprende los siguientes puntos doctrinales:

- a) Naturaleza del sacerdocio y carácter sacramental que imprime.
- b) Ministerios propios del sacerdote, como mediador entre Dios y los hombres.
- c) Dignidad del sacerdote y consiguientes cualidades personales exigidas a quienes aspiren a serlo.
- d) Dos potestades ministeriales, como origen de todas las demás: celebrar la eucaristía y perdonar los pecados.

PARTICULARIDADES DIALECTALES

El dialecto que hasta principios del siglo XX se hablaba en Elcano y al que sustancialmente corresponde la obra literaria de Lizarraga es el que Luis Luciano Bonaparte denominó *alto-navarro meridional*. En el a. 1868 dijo sobre él el príncipe lingüista, que "hace 50 años todavía era este dialecto el de mayor extensión de la lengua" (13).

Señalamos a continuación algunas de sus características, ciñéndonos exclusivamente al texto que publicamos.

Acentuación

Un hecho de singular e inestimable valor fonológico en los escritos del Vicario de Elcano es su esmero y prodigalidad en la acentuación.

(11) *Ibid.*, fol. 411 (cf. *Catecismo Romano*, parte 2, cap. 7, n. 14).

(12) *Ibid.*, fols. 418-419. Insinúa en estas palabras la costumbre de las gentes que, al hablar mal contra un sacerdote, hacían una salvedad: *coróna sálvo*.

(13) Cf. J. DE RIEZU, *El Príncipe Luis Luciano Bonaparte*, "Príncipe de Viana" 19 (1958) p. 158.

Mientras uno lee su obra, parece como si estuviera escuchando la entonación del dialecto hablado de la zona de Pamplona, hoy prácticamente extinguido. Acentúa con meticuloso cuidado todos los vocablos que en el lenguaje hablado hubiesen sido pronunciados con intensidad tónica. Se advierte lógicamente una gran variabilidad, ya que un mismo vocablo lleva unas veces acento, otras veces no lo lleva y otras cambia de posición. Ello depende de las diversas funciones morfosintácticas del vocablo o de su distinta posición en el ritmo de la frase (14).

El verbo

El verbo, al ser un elemento de singular fijeza estructural, constituye en Lizarraga el campo del máximo interés lingüístico. Teniendo como punto de referencia hipotético las actuales formas verbales más comunes, señalamos algunas peculiaridades más notables, cuya valoración lingüística queda abierta a la opinión de los expertos (15).

1. El empleo de las formas sintéticas es en proporción más copioso que el que comúnmente se advierte en la actualidad. Solamente en este sermón aparecen las siguientes formas: *dacusáte, dagóquion, daráma, dagoláic, doaquizquióla, daquitelaic, dagozquionac, baitatorr, garénas, cióte*.

2. En cuanto a la forma perifrástica, y por lo que respecta al verbo auxiliar, utiliza toda la gama de tiempos del indicativo, subjuntivo, potencial, condicional, imperativo, etc., aunque prevalece el uso del indicativo. A título de ejemplo, extraemos algunas formas empleadas en el texto que consideramos: *guelditucequióla, apareciturécquio, confessaracizué, palacadáien, atracéien, itendúcién, barcatzentuzien, gogoralequió-*

(14) Cf. L. ETXEBERRIA, *El acento nominal en "Jesucristoren Evangelio Sandua Juanec dacarran guisara" de J. Lizarraga* (Obra dactilografiada, presentada como trabajo de licenciatura en EUTG, con sede en San Sebastián, en el curso 1973-1974).

(15) Cf. M. C. GARMENDIA, *El verbo auxiliar vasco en el Evangelio de San Juan de Joaquín Lizarraga* (1748-1835); A. ERICE, *Formas verbales no auxiliares en el Evangelio de S. Juan de Joaquín de Lizarraga* (Ambas obras están dactilografiadas y fueron presentadas como trabajo de licenciatura en EUTG, con sede en San Sebastián, en los años 1973 y 1974 respectivamente. Agradezco a P. Altuna, S. J., la amabilidad dispensada para la consulta de estas obras).

que, icusbález, aurquibalézqui, galcenbidediren, aguibalédi, escazágun, itzulizáite, eguinzázie. Limitándonos a los dos tiempos de indicativo del verbo auxiliar, advertimos las siguientes características:

a) En la forma afirmativa, el auxiliar va unido al nombre verbal que le precede: *uztendizut, icusicióla, ematenzaizquio, eldudire, itendá, ematendiotéla*. En una ocasión en que al nombre verbal acompaña el adverbio modal *ere*, éste se intercala entre el participio y el auxiliar que aparecen separados: *mantenitzen ere dá*.

b) En la forma negativa, por el contrario, el verbo auxiliar se halla separado del nombre verbal, al que precede, y generalmente va unido a la negación. Advertimos en estos casos, que la oclusiva dental sonora *d* del auxiliar se convierte generalmente, no siempre, en la oclusiva dental sorda *t*: *eztá icústén, eztút uste, estire asqui*. Notamos así mismo que algunas veces la oclusiva labial sonora *b* se convierte en la sorda *p*: *ezpada admititzen*. En las formas relativas, tanto afirmativas como negativas, el auxiliar va pospuesto al nombre verbal: *deitzendirénac, aítueztuenbátec, icusteneztirénac*. Sin embargo: *eztuténec desapegatunái*.

c) En el pasado de indicativo se omite sistemáticamente la *n* final: *guelditucéquio, deitucitue, izánce, mintzatució*. En las formas subordinadas, sin embargo, aparece sistemáticamente la *n*. Véanse en este ejemplo ambas formas: *naízánzuen becála ártu guizónen naturaléza ez ainguiruena, naízanzue alabér ártu...* Esta interesante diferenciación no existe en las actuales formas del pasado, aunque sí en las de presente.

d) Es frecuente la supresión de la oclusiva dental sonora *d* en el verbo auxiliar: *naute* (nai dute), *confessatzenbaitu* (confessatzen baditu). En este mismo sentido, la sílaba inicial *di* del verbo auxiliar sufre frecuentemente una síncope: *itentu* (iten ditu), *itentuen* (iten dituen). Con ocasión de la supresión de esta *d*, algunas veces tiene lugar una singular metátesis entre la *n* final del nombre verbal de presente y la *u* del verbo auxiliar: *iteunten* (iten duten), *éstimatzeunte* (estimatzen dute), *icusteunzulaic* (icusten duzulaik).

e) La desinencia *en* de algunos nombres verbales de futuro experimenta la mutación en *in*, a la que Azkue califica como "curiosa contracción" y que, por otra parte, es actualmente de uso común en algunos dialectos: *erraindut* (erranen dut).

Declinación

1. En los vocablos con función de sujeto agente, el activo plural acaba generalmente en *ec*, mientras el pasivo plural lo hace en *ac*: *alá estimatzeunte ainguiruec*; *cióte judioéc*; *cein gaizqui iteunten burátsoec*; *itsuac edercendirela*; *gauzak dire ebéc icusteneztirénac*.

2. Sistemáticamente se suprime la *n* final del sufijo *quin* del asociativo: *Jangoicoaréqui*, *cerucoéqui*, *andiaréqui*.

3. Muy raras veces el genitivo va pospuesto al sustantivo del que depende: *dignidáde sacerdoteéna*. Tal vez se trata de una servidumbre de la traducción.

Pronombres

1. Además de los pronombres demostrativos *au*, *ori*, *ura*, etc., y sus flexiones correspondientes, utiliza no pocas veces la forma *ebec*: *ebéc dire*. Cuando estas formas están en funciones de adjetivo demostrativo, casi siempre se unen a su vocablo correspondiente mediante una *g*: *guizongura*, *loigóiec*, *egungártan*, *potestadeguébec*. En este texto, sólo una vez se omite esta *g*: *guizonói*. Nunca se emplea, por el contrario, cuando las formas van solas en funciones de pronombre demostrativo.

2. El pronombre *cein* y sus flexiones aparecen frecuentemente en funciones de pronombre relativo, en lugar de recurrir a los sufijos relativos correspondientes: *orden ón admiráblea*, *cein deitzenbaita...*; *sacerdoteéc*, *ceñen escuetán encarnatzenbaita...* Se trata, según Azkue, de un barbarismo de influencia alienígena, muy frecuente en muchos autores. Sin embargo es evitado en otra ocasión: *zazpi dire ordenac*, *laur mené-coac deitzendirénac grado*, *ta berce irúrac...* *consagratzenduténac persóna*.

3. El pronombre *iñor* y sus derivados revisten la forma *niór*: *niór estaique izán*.

4. Lizarraga utiliza no pocas veces los pronombres personales *neuronec*, *zeuronec*, derivados de las formas *neu*, *zeu*, aunque en este sermón no aparecen. Aparece, en cambio, el adjetivo posesivo *zeure*: *zeure oñetacoac*. En cuanto a otros adjetivos posesivos, utiliza la forma *ene*, además de *nere*: *oná nere sémea ene entrañetan concebitua*.

Conjunciones

1. Es muy frecuente el uso de *ezi* con diversas acepciones:

a) Con sentido causal: *ezi lurr gau sandua dá*.

b) Con sentido comparativo: *O cémbat obeágo litzáquen joátea matrimoniaren vide celáias*, *ezi ez igán estado sanduarén cascora*; *chsaquitea yago ezi bérceac*.

c) Equivalente a la conjunción *que* de las oraciones completivas: *erránzue*, *ezi copetan icusicocióla*.

Del repetido empleo de *ezi* en muchos autores dice Azkue, que es de origen alienígena (16).

2. Uso de *ceren* con sentido causal, profusamente empleado también por Axular: *ceren becátuen barcátzea baita nola erchitzea infernuco atáriac*.

Otras peculiaridades

1. Una *z* final de palabra en contacto con otra *z* inicial de la palabra siguiente produce *tz*: *etzára* (ez zara).

2. Dentro de la tendencia general a convertir la fricativa *z* final de palabra en *s*, las formas gerundiales acaban en *s*: *emanes*, *ellegatus*, *ordenatuasgueros*.

VOCABULARIO

Este breve vocabulario se ciñe al texto que publicamos. El criterio fundamental que nos ha guiado en la selección de los vocablos ha sido el de su valor representativo del dialecto altonavarro meridional o por la forma o por el significado, sin que por ello se quiera decir que sean patrimonio o variedad exclusiva de este dialecto. Algunas palabras han sido seleccionadas también por prestarse a observaciones específicas sobre la obra literaria de Lizarraga. En el vocabulario damos exclusivamente el significado correspondiente al texto del sermón que nos ocupa.

(16) R. M. DE AZKUE, *Morfología Vasca* (Bilbao 1923) p. 491.

- acárr eguin*: reprender. Axular: *ahakartu*. *Akar*, como sustantivo, se emplea, según Azkue, en los dialectos bajo-navarro y alto-navarro; y dentro de éste último hace expresa referencia al de Elcano (17).
- aguerri*: a la vista, en público. Axular emplea *aguerri* y *aguerrian*.
- aguitu*: acontecer. El único testimonio que aduce Azkue es de Lizarraga.
- aisanai*: comodidad.
- alcin*: delante.
- amabichi*: madrina. En otra ocasión emplea la forma *amabuchi*.
- apezpícu*: obispo. En un sermón del año 1782 y en idéntico contexto emplea solamente *obispo*, mientras en éste que publicamos dice *obispo edo apezpícu*.
- ario*: manera, forma peculiar. El único testimonio aducido por Azkue pertenece a Lizarraga.
- arracio*: razón. Corresponde a *arrazoin*, *arrazoi*.
- atra*: salir. Variante de *atera*, según la tendencia a suprimir la *e* entre dos consonantes, de las que una sea *r*.
- aundinai*: orgullo, ostentación.
- aurqui*: encontrar. Forma indeterminada de *aurkitu*.
- becala*: como. Corresponde a *bezala*. Azkue cita a Lizarraga, como testigo del uso de esta forma en el alto-navarro.
- belaurico*: de rodillas.
- bentzait*: al menos, por lo menos. Variante de *beintzat*. Azkue acredita la forma citando las Coplas de Lizarraga.
- bitartéco*: mediador. En idéntico contexto de un sermón de 1782 dice *medianero*.
- bórcha*: por coacción, contra.
- burátsó*: progenitor. El único testigo citado por Azkue es Lizarraga.
- buru izan*: ser origen o fundamento.
- casco*: vértice, cúspide.
- chsakin*: saber. Corresponde a *jakin*. Obsérvese el singular grafema *chs*.
- dei*: vocación (*vocacioa edo déia*).
- ebéc*: éstos. Azkue hace referencia a Lizarraga, como testigo de esta forma.

(17) Las referencias que hacemos de Azkue corresponden a su *Diccionario Vasco-Español-Francés* (Bilbao 1905-1906).

- egunóro*: todos los días.
- emanzale*: dador, administrador.
- ene*: mío.
- erchidura*: angustia.
- escus escu*: mano a mano, cara a cara.
- escu izan*: tener facultad.
- ezaundu*: conocer. Variante de *ezagundu*. Azkue acredita la forma con un texto de Lizarraga.
- experén*: en caso contrario. Axular emplea *expere*.
- gañaraco*: lo demás, el resto.
- gauza izan*: ser capaz, valer.
- gizonqui*: varón. Azkue cita un texto de Lizarraga para acreditar esta forma, no como adverbio, sino como sustantivo.
- goragoco*: superior, mayor; *goragoco ordenac*: órdenes mayores (sagradas).
- goren*: el de más arriba, el más alto.
- gorénas*: a lo sumo.
- istargitu*: brillar. Azkue aduce un texto de Lizarraga, como único testimonio.
- jaintzi*: vestir. Corresponde a *jantzi*.
- laxatu*: soltar, aflojar.
- lequeda*: cola de pegar, viscosidad, suciedad.
- malda*: zarza, mata.
- manu*: mandato, orden.
- meneco*: inferior, menor; *meneco ordenac*: órdenes menores (sagradas).
- niór ez*: nadie.
- orci*: enterrar, sepultar.
- palaca*: aplacar. Forma indeterminada de *palakatu*. El único testimonio aducido por Azkue pertenece a Lizarraga.
- sollic*: solamente, exclusivamente. Azkue aduce un texto de Lizarraga en la variante *soillik*.
- tallu*: talla, estatura.
- urriñ*: olor, fragancia.
- urriñzu*: hediondo, putrefacto.
- yago*: más. Corresponde a *geiago*.
- zeure*: tuyo, de ti mismo.

ITZGAIA ORDEN SAGRATUAREN SACRAMENTUAREN GAIN (18)

Ordenarén ta matrimonioarén sacramentuac dire borondatéscu, cein naiduén bacóchac autatzécu. Dago paraturic órdena Jesu Christorén ordenácios, izatecó emén beiti bere elizan, bere eche ta familiagóntan bere ministroen gradoac, ta diferénciac, ala nola án goiti céruan diren ainguiruénac edérqui orden ón admiráblean, cein deitzenbaita Gerarquía. Cer dá ordena? Dá sacramentubát Christoc parátua consagratzécó elizaco ministroac ta sacerdotéac. Zazpi dire ordenac, laur menécoac deitzen-dirénac Grado, ta berce irúrac goragócoac, ta propioqui sagratuac consagratzenduténac persóna. Baña izanic ere zázpi guciác, ta bacóchac emánic ere potestáde propioa bere ariorá, zazpiác eldudire baterá azquenecó, ala nola escaléran naiz asco grada, gucietaic itendá escaléra. Goréna dá meascoa edo sacerdotécia. Sacerdoteetan ere badire inferioreac ta superioréac. Ebéc dire obispo edo apezpicu deitzendirénac, ceñéc apostoluen ondoréngoc becála dute potestade ordenátzeco ministro ta sacerdote inferioreac, confirmátzeco christioac, consagrázeco cembáit gauza beréchs, gobernátzeco ta guardátzeco Christorén eliza elizaco principe becála. Ordenátzea itenda bere dagóquion materia, forma, ministro, ta intencioaréqui. Sujétoa ordenadaiquéna dá guizónqui christioa destinatzendéna eguítécó officio espirituáleac ta sánduac alá Jaingocoarén nola guizónen álde. Ordenaréqui imprimitzenzáio caracter edo marca espirituáleac ariman, ezin daiquéna borrátu séculan. Errégue dá errégue ilárteo goréna, ezcóndua dá ezcóndua ilárteo, baña ordenátua eriotzetic alcina dá; eta erresucitabalédi, ezlitzáque ordenatubeárr berriro izátécó céna lén. Caracter edo marca espiritualegúra dacusáte Jangoicoac, ainguiruec, eta deábruec, ezta icústén araguísco beguis: ezaundu bai aguián cembait sanduec Jangoicoaren árguis. S. Felipe Neric aurquituric bein carrican mutilbát ez elizaguzon becála jaintziric, guelditucéquo beira beira; galdeguincio, aitzén, errázu éguia: etzára zú sacerdote? Arrituric arc confesatució haietz, ta bere gogoarén bórcha ordenaracizutéla. Galdeguinic sanduai guero, yá cértan ezaunduzuén, erránzue, ezi copetan icusicióla istarrigitzen caractér sacerdotála (19). Onen gain sollic erraindúgu

(18) *Biblioteca del Seminario Diocesano de Pamplona*, est. XXVIII-B, grad. 4, n. 18, fols. 189v-191v.

(19) Cf. J. MARTINEZ DE LA PARRA, *Luz de verdades cathólicas y explicación de la Doctrina Christiana* (Madrid 1775) p. 422.

cerbáit importadéna chsaquitea yago ezi bérceac. Ortáco escazágun gracia. Ave Maria.

Jesu Christorén ta elizarén ministro speciale consagratzendá sacerdotéa bere ordena sagratuan. Aldegóntaic itendá guizon baño yago, naiz berce alde guizon dén. Officioa dú Jangoicoaren ta guizónen bitartécó; Jangoicoai offratzeco sacrificioac, laudarioac, orációac, ta gauzac elizarén nómbrean eguítécó ta ematecó sacramentuac; bedecátzeco gauzac; pregonátzeco Jangoicoaren videa ta borondátea; eracústeco doctrina christioa, ta on dén gucia; guardátzeco, quida ta cuidátzeco Christoren ardiac ta achsuriac; barcátzeco becátuac; assistitzeco christioéi vician, iltzean, ta ilondórean: itz gutis, Christorén ministro urbilécoa izátécó, ta Nausi onarén mutil óna, eta eguítécó berarén nómbrean, ta berarén confórme. Ortáco alabér consagratzendá castidatearén voto perpetuo solemnearéqui, debecaturic matrimonioco estádoa, ta gauzac. Ortáco mantenitzen ere dá elizarén cóstua Jaunaren échean duéla gorputzarén manténua ére bere zervituzcoac becála. Ortáco daráma corona ere, ta soñecoac berceenganic distinto; izéna ere bai sandua, ezi sacerdote naidu errán quidári sagratua, gauza sagratuei emána, aién emanzálea, eta guciá sagratua. Ortáco iténtu officio sanduac ere. Icúsic egunóro yá ezta erreparrázen: baña errepára. Cer dá icústea jaintziric ornamenta sagratuéqui, niór ez becála, igáten aldaréra; guciác atzétic belaurico, bera chutiric lénean Jangoicoaréqui éscus éscu peléan becála palacadáien becatárien alde, offrázen, ártzen, úzten, ibiltzen achsúri divinoa? Cer dá icústea déla sacramentuen eguítéan, déla predicátzean, déla processio ta rogacioetan, déla berce officio sanduetán gucién pártes becála Jangoicoaren embajadore-guisa lecu principálean beti? Icúsi edo aitueztuenbátec béñere, icusibalez, dagoláic beteric eliza gendeés, atrátzen ura errevestituric, eguiten sacrificioa aldárean, guero igáten pulpitorá, ta andic guciéi eracusten, consejátzen, exhortátzen, acárr eguiten, cer pensalezáque? Icusbález guéro jarriric confessorarioan juez becála, doaquizquióla ellegátus humil confessátus culpánte berén buruac, ta arc ematendiotéla sentencia, ta parátzen penac: Guero icusbález bera bedecátzen gauzac, conjurátzen demonioac ta tempestadeac, eguiten gañaráco officio sacerdotearénac; bataiatzenbadire, ezcóntren, iltzen, orcitzenbadire, guciétan bera presénte assistitzen Jangoicoaren izénean. Nor dá au? erranlezáque. Guizon déla icusiric ezpáliz, gogoralequióque otedén ainguiruetáic bat jautsicéna Jangoicoaren ordes.

Ciérto deitzendá Escrituran Jangoicoaren ainguirua sacerdotéa, ta itentuen officioac itecó eztire asqui digno ainguiru cerúcoac (20). Sollic Jangoicoa guizon eguincéna dá digno gucis; eta naiizanzuen becála ártu guizónen naturaléza ez ainguiruena, naiizanzue alabér ártu ez ainguiruetáic, bai guizonetáic bere ministro sagrátuac. Ori daquiteláic ainguiruec assistitzendigúte atténto beti, ta mezácoan daude ingúruan erreverénte. S. Francisco Assiscoac erratzenué, aurquibalézqui bateo ainguirubát ta sacerdotebát, oni lenic apatu escua, ta guero arri eguincióla erreverencia. S. Francisco Salesec ordenatuondoan sacerdoté bat, icusizué au elizatic atrátzean cególa cortesia eguiten nori baiti atracéien lenic. Deituric, ta galdeguinic chsaquinzue cególa bere ainguiru guardiacoaréqui porfian, cerén lenágo atratzencelarié lénean, egungártan ordenatuasguéros gueldituzequióla atzétic, eta orgátic cela arren cortesia eguitegúra atracéien lenic (21). Alá estimatzeunte ainguiruec dignidadegáu guizonetan, pensa nola litzáquen arráicio estimátzea guizónec! Eta pénsa cémbat Jangoicoarén vocáicio bearden artzéco dignidadegáu, ta cein gaizqui iteuntén burátsoec elizaráco tiratzeas húmeac eztirénac artáco! Eta pénsa cémbat galcenbidediren eméndic salvatucocirénac estádo apalagócoan! Yaqueta guizonetáic artucituen bere ministroac Jesu Christoc, ta níór eztaiquen izán ásqui digno guizonetan, bentzáit cé arráicio mundu gucitic ere beréchstea artáco sollic escogituac, gucién obénttoac, Christo-urriñ duténac, cutsátu eztirénac lurréco loi ta usaiéqui. Pensa nola estadogortaráco dirénac acitzecó ongui, cuidádado gucía eztén ásqui, apartatzeco emastéquién vanidade ta divérsio urrinzuetáic beardirenac consagrátu castidatzen votos orden sagratuan. Beardire izán Jaunarén custódia, ta sagra-rio vicíac: guárda guárda inmundiciatic. Beardire izán munduarén gatz, eta árgui: guarda illumbeetáco gaitzquietáic. Beardute imitátu Maria Santissima officioan: cuida imitátzeas vicitzan. Noren Ama dén Maria Santissima, arren aurtzái becála dá sacerdotéa. Yágo diót, Christorén imagina vicia beárda izán, ta Christorén izénas deituberda, *nolite tangere Christos meos*, ez uquítu nere Christoac, dió Jangoicoac (22).

Ontan garénas gueros, ezdezátén uts eguin ordenatunaidirénec, ta berén cargudúnec, mostrazágun araráco vide zuzén erreála. Lenic dá iza-

(20) Mal. 2'7.

(21) Cf. J. MARTINEZ DE LA PARRA, o. c., p. 423.

(22) Ps. 104'15; 1 Par. 16'22.

tea Jangoicoaren vocacioa edo déia; ezauncecó ori, otoitz eguin Jangoicoai, ta consulta Jangoicoaren guizonéqui. Bigarrena da biotzesco inclináicio ta afficiónea estadogontára, ez aundináies, aisanáies, edo berce fin macúrres, baicic Jangoicoarén ta arimen amóres. Iругarrena izátea artaráco gauza, ezi erreguerén soldadotáco ezpada admititzen eztuéna tallu, indárr, ta gañaráco beardirénac, oroát sacerdotetáco eztuéna taléntu, prénda, ta condicio dagozquiónac. Laugarrena dire medio ónac artaráco. Cer medio? Vicimodu ona, honestidádea, modestia, erretiroa, applicáicio estudiorá, de manéra ezi ala nola professátzeco erreligióso, passatzenbaita noviciadoa, ala sacerdocioarén novicio-guisa beardire portátu arren pretendiénteac. Eztuténec desapegatunái munduco loigóien léquedatic, nola naute igán aldaréra? Moysesec izanic ere guizón sandua, naizueláic joán icustéra Jangoicoaren prodigiogura, malda sugarrétan nola etzen errétzen, oiueguincio bere Magestadeac, Moyses Moyses, ez urbildu onará, quen zeure oñetácoac, ezi lurr gau lurr sandua dá. Lurr sandua dá aldárea, sacramentugura dá malda sugarretan; oñetácoac lurreco afficióneac; quen quen oyéc, dió Jangoicoac, ellegatzecós. Ezperén, estadoa aggraviátu, ta deshonorátu, berac eta bérceac galdu. O cémbat obeágo litzáquen asco miserableendáco joátea matrimonioaren vide celáias, ezi ez igán estado sanduarén cascorá, erorcecó goragotic? Eztút uste, dió S. Juan Chrysostomoc, anitz diréla salvatzendirénac sacerdotetán, bai anitz yago galtzendiréac. Arracioa dá, ceren dignidadegónec naibaitu arimo gora (h. 85 in Joan) (23).

Bi potestáde principálic, berce anitzen buru dirénac, ematenzaizquio bati ordenátzean: bat, consagrátzeco aldaréco sacramentua; bércea, barcátzeco becátuac. Bigoien atzétic doáz gañarácoac. Lenic consagrácioan, cumplitus bere Magestádeac manátua, *haec quotiescumque feceritis, in mei memoriam facietis*, au itendúcién aldióro, eguinzázie ene memoriátan, obratzendá milágro andigura, convertitzeas oguia ta ardoa Jesu Christorén gorpútz ta odól preciosoetan (24). Obratzenúéna dá Jesu Christo bera, baña sacerdotearén 'medios; sacerdotéac errán itzac, eta Jaunac eguin milágroa. Ontas dió S. Agustinec, o *veneranda sacerdotum dignitas*... o dignidáde venerablea sacerdoténa, ceñien escuetán encarnatzenbaita Jangoicoaren Semea nola Virginarén entrañétan. Norc, dió

(23) Cf. S. JUAN CRISOSTOMO, *In Joannem b.* 86 (P G 59, 471-474).

(24) Cf. *Missale Romanum*, Canon Missae.

S. Gregorioc (dial. 4), norc christioetáic dezáque duda ordugártan sacerdotearén erranerá idiquitzendirela ceruac, ta Christorén mysteriogártan assistitzeuntéla presénte ainguiruen coroc, ta acompañatzendirela cerucoéqui lurrécoac? (25). Milágro izánce guelditzea irúzquia bere carréran Josuén manurá; andiágoa dá iruzquiarén Jaun ta Jabea emén presentázea aldárean, *obediēte Deo voci hominis*, obeditus Jangoicoac guizonarén itzari (26). Orgatic dió S. Chrysostomoc, icusteunzulaic sacerdotéa meza erráten, pensa ez sollíc agueridéna, baicic Christorén escua edaturic icusigábe. Sacerdotebát tentatzenué deábruac milagrogárren sinéstean: Bein meza errátean consagrcioas gueros desaparecituécúquo alcinetic hóstia consagrátua. Beteric affliccios encomendatucé Ama Virginái, ceñen devóto baice; ta goraturic beguiac icusizué Ama divinoa edérr amorósa beiratzencióla bere Seme Jaunaréqui besótan; mintzatució, torí, oná nere Semea ene entrañetan concebítua, zuc orái consagranteduzúna berbéra, ta egunóro jatenduzúna; orrá uztendizut, etzázula dúda. Errán ta desaparecitué gucia; guelditucé hostia sollíc len becála (Parra hic) (27). Aita Antonio Ruiz de Montoia ordenaturic sacerdote, meza berrian acompañatuzué errevestitzean Ama Virginac aguérri, ta aldaréra joátean, ta meza gucian amabichi becála. Pensa nolaco gozoaréqui!

Bigarren potestadea barcátzeco becátuac fundatzendá bere Magestadearen itz erreálean, *quorum remisseritis peccata...* noren becátuac barcázentuzien, izanendire barcátuac (28). Au comunicatzendá ordenátzean, orgatic deitzendá ordenarén potestádea: baña valiatzecós, bearzáio emán bercebát deitzendéna jurisdiccionearen potestadea: ezi nola barcátzea baita emánes sentencía, ta sentencía ezín emán baicic bere menécoen gain, bigarregói dá señalatzecó noren ta noren gain duén escu. Eriótzeco orduán edocéin sacerdoteéc ta edocéin becátu dezáque absolvi, gañarácoan ez baicic bacóchac bere menécoac. Norc dezáque barca becatu-ric, ezpada sollíc Jangoicoac? cióte judioéc; christioac errespóna, ezi Jangoicoac sollíc beréz, baña berarén potestádes ta commisios sacerdotéac ere bai, Christorén itz ta meresimentuen virtútez. O Jaunarén pie-

(25) Cf. S. GREGORIO MARNO, *Dialogorum liber IV*, cap. 58 (PL 77, 425-428 A).

(26) Jos. 10'14.

(27) Cf. MARTINEZ DE LA PARRA, o. c., p. 423.

(28) Jn. 20'23.

dadea! O sacerdoteén potestádea, ta becatárien fortúna! Eztá ezaunduco óngui ondasungáu aurquitardeo eternidadadeco atárian. Ederrqui deitucitue Christoc potestadeguébec ceruetaco erreinuarén guiltzac, *claves regni coelorum*, ceren becátuen barcátzea baita nola erchitzea infernuco atáriac, ta idiquitzea cerúcoac becatariari (29). Eta cer erraindut lazátzeas concienciarén laquioac, erchidúrac, eta congojac? Gauzac dire ebéc, erreálqui aguitzen bai, baña icusteneztirénac araguisco béguis. Alá aguibalédi gorputzean heriac sendátzen, itsuac arguitzen, itsusiác edercendiréla absolucioaréqui, oh nola estimaleiquen? Bada aguitzendá ori ere bearrdelaic, nola asco gaitz baitatorr becatuetáic. S. Franciscorén vician conatzendá, soldadobátec errecibitucituéla arren bi fraile caridade andiaréqui: ta itsu cé guizonói. Ayec conventurá itzuliric, batai aparecitzéquo S. Francisco ta erráncio, bada zuc sacerdote becála duzu potestade absolvitzecó, itzulizaite, guizongura dago itsu aláco becátuen penatán; confesatzenbaitu, absolvizázu. Itzuliric confesaracizué dolore fiñaréqui, absolvituordúco guelditucé vista arguiaréqui... (30).

(29) Mt. 16'19.

(30) Cf. MARTINEZ DE LA PARRA, o. c., p. 426.

«Vir sapiens et probus»

ARAMBARRI, SIMON'EK, "TXALINTXO"

Lekuona'tar Manuel jaunaren jakinduri-baratza, ez da nolanaikoa.
Baratza aundia, luzea ta zabala, ugaria ta aberatsa.
Euskalerrria'n, gutxi bezela zaindua ta landua.
Eguzki epeletakoen antzera, ongi arrotua ta mamitua.
Euskal lurrean, baratza ortan ez dagon lore-motarik ez dago.
Eta lore danak, banan-banakoak; ikusgarriak eta ederrak.
Jakinduri usai gozodun lorak: Lili zuriak eta oriak, arrosak, kra-
beliñak, laran-loreak...

Euskal lurreko baratza ortan, jakinduri usaidun lore billa ibilli ez
dan jakin-zale askorik ez dago: Edeslariak, arkeologoak, izkuntzalariak,
sikologoak, soziologoak; maixu-maillako lanak edo tesisak egiten ari
diran ikasleak; erti-munduak dituan ur sakonetan, —ori da, eraikitzañ,
zintzelkaritzan eta margolaritzan—, barrenago sartu nai duten irakas-
leak; jakinduri mailla guztietako ikasleak.

Eta danak, Lekuona jaunaren jakinduri-baratzatik, ostu artean edo
zugaitz artean izkaturik dagon loratxo bat edo beste, nundik eta nola
artuko.

Baiña, orra gure "vir sapiens et probus", jakintza ta ele eder alo-
rrean, maixu burutsua ta ona dan Lekuona jauna, jakin gose ta egarri
diran guztien artean, bere jakinduri-baratzatik, lore-xorta ugariak, esku-
-zabalez eman naiaz.

* * *

Egun batez, Lekuona jaunak, "tori zuri ere, lagun maite", —esan-
go zidan—, ainbeste irrika duzun edesti-baratzako lorea.

Aldi artan, Azkoitia'n, "Euskal erri-ertiar buruz miaketa saioa"
deritzan liburutxoa gertatzen asi nintzanean, era askotako zalantzak
etortzen zitzaizkidan burura: Erti-aldeetik, landare au, nola sustraitu?
Edesti-aldeetik beste nola landu? Eta izkuntza-aldeetik beste ura, orraz-
ketaz, nola apaindu?

Ortarako, biderik egokiena, Euskalerrri'ko jakintza-eremuan, enziklopedi antz-irudiko baratxelari bizia dan Lekuona jaunarengana jo-ta bere baratzako lore apaingarri diran idazlan batzuetan murgiltzea erabaki nuan.

Ala ere, beste batzuetan, zuzen-zuzen berarengana jo-bear izan nuan. Banekian jakin-gose guztien patriarka jakitun bat zala.

* * *

Nere sor-leku dan Azkoitia'ko errian, adibidez, gauza asko esan eta idatzi izan dira, Martiritako elizari buruz, batez ere bere jatorriari kon-dairari, estiloari eta elizako tailu-irudieri buruz.

Eta, beñere, ez dugu argi-bidez jakin, ipuia nun bukatu eta kon-daira nun azten dan.

Eta, Lekuona jaunak, iñork ez bezelako erantzun argiak eman ziz-kidan, "agur adiskide", esanaz.

Beste batez, Euskalerrri'ko foru-kentzearen eun urteko muga dala-ta, Olano'tar Valentin, azkoitiar izlari aipatuak, Madril'eko Kongresuan, euskal-foruen alde egin zuan itzaldiari buruz, lantxo bat egiten asi nin-tzanean, D. Manuel berak, "GOIZ-ARGI" euskal aldizkaritik, argi ta gar-bi uxatuko zituan nere kezka guztiak. Eta ori, eskolastikorik onenak bezin egokiago uxatu ere: Arrazoi sakonetan oiñarritutako dialektika zorrotz baten bideetatik.

* * *

Orregatik eta beste milla gauzogatik, KARDABERAZ idazle taldea, ongi merezitako omenaldi bat eskeintzera dijoakion egun oetan, guk ere, Euskaltzaindi'ko Lendakari izan zan Lekuona'tar Manuel jaunarekin, gogo ta biotzez, poz-pozik elkartzeko asmoa dugu.

Eta, iñoiz, Euskalerrria'n, euskal ikastetxe nagusi edo unibersidade-rik lortuko balitz, nere aldetik, lenengo "Doctor honoris causa" izeneko irakasle-kapela, Lekuona'tar Manuel jaunarentzat eskatuko nuke.

Bitartean, Iparragirre'ren itzak nereganatuaz, euskal lurretik sor-tutako "gizon jakintsu ta ona" zeran jaun agurgarria!, "Eman da zabal zazu munduan frutua". Eman da zabal zazu, Euskalerrria'n, jakinduri ta giza-lege kutsua.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- II -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Txantxetan Txarrantxetan

ARISTIZABAL'DAR LUKEN

Ipui au, atzo gertatua balitz bezela azaltzen bada ere, urte askoz atzera joan baar da bere aztarnak billatzeko.

Bertan azaltzen diran gizakiak, ez dira nere irudimenak sortuak; gabiroiaren begiak baño biziagoak; gaur oraindik, garai artako oitura ta egikera asko, iraunkor daude.

Ipuia ezur ta mami Oiartzun'darra dalako bertako mintzaerari orraz-tu bat emanta idatzi da; tarteka bertako esaera batzuek azalduaz.

Txantxetan, eman zaio asiera; ipuiak beti txantxetako gertaerak diralako. Baña txarrantxeta ez da txantxetako, Oiartzun'dik Irun'go bide ertzean, Arkaleko arkaitzen atze aldetik, gaur Andrearri dagon le-ku berean zegon Txarrantxeta.

Erdi baseliz erdi basetxea. Basetxe artan bizi ziran Katalin andre alarguna; bere senarra basetxean lan egiñaz gañera "kontrabandista" purrukatua zan, eta bein batéz lagun batzuekin lantegi artan zebillela, Brutus karabineroa bidera irten da igesi zijoala Arkaleko arkaitzetan amilduta bizia galdu zuan.

Emezortzi urteko seme bat zuan, Mikel bere izena; nekazari la-netan argi ta burutsua; gutxik eramango zion atxurrean eta laietan, gutxik belar ebakitzen; bazekizkien arto, babarrun eta basetxeko beste aziak erein ta biltzeko garaiak; sagar, udare, muxika ta beste zugatzak laudatu, txertatu ta iñausteko sasoiak; erri guziko nekazarien eredu artu zitekean.

Gorputz sendo ta lirafia zuan, gorosti-egurra bezin zimel, zumea be-zela biguñ. Oraindik etzion iñolako maitasunak begirik lausotu, baña Txarrantxetako aamabirjiñari jaiera aundia zion.

Mikel'en osaba, aita zanaren anaia zuten beste bizilaguna, "kontra-bandista" porrokatua; gabaz lantegi artan ibilli arren, egunez basetxean laguntzen zuan. Katalin'ek etxeko zeregiñaz gañera baseliza zaitzea bere gain zuan; oso estu etziran bizi, kontrabandoari esker, noizean bein Brutus'ek larri-aldi batzuek ematea kendu ezkeru.

Brutus aipatu degun ezkeru ikusi dezagun.

BRUTUS KARABINEROA

Ez dakit izengoitiz edo abizenez deitzen zioten Brutus, orduan Ergoien ballarako bide, ta gaur Lesaka'ko bideertzean dagon Muxuru, erdi basetxe, erdi kaletxe dan etxean bizi zan Brutus. Iru kana izango zan luze, basetxetako atea ainbeste bai zabal, sealla ta zimela, Arkale'ko arkaitzetako ontzak alako lan aundi bai begiak, sudurpeko bizarrak beatz muturrez biurtuta urteko biga baten adarren antzera jarriak, zapelaitzaren mokoan antzeko sudur kakotua, bi belarri ertzeraño iristen zitzion aboa, atxurra ainbatekoak bai belarriak. Laño gabeko gau illargitsuan ikusi ezker, impernuko gaizkiña zirudian.

Umerik negartiena ixiltzeko Brutus bazetorrela esatea aski zan. Ainbesteko beldurra sartzen zuan urritira ikusi arren.

Egundaño asegabeko gizona zan, bein batez ogeitamar kilo legatz jan baietz jokatura errez irabazi zuan eta gañetik dozena bat arrautza eskatu zituan eta jango ere bai iñork eman balizka. Ark jantako sator, arratoi, suge, musker eta igelak zenbatzezkeror orduak bearko lirake. Katotan jantakoak isatsetik elkarri erantsita Oiatzun'dik Irun'arañoko lokarri luzea egin zitekean. Bein batez Elorrondoko estratan barrena zijoala, mutil koskorrak arrika eman ziotela ta bateonbat irentsi ote zian esaten da.

Berak zionez, egundaño ezerk eta iñork beldurtu gabea zan, bañan etzan egia; elizari ikaragarritzko beldurra zion, azpian artzeko noski. Sabelaundi ikaragarria zalako, inguruetako arbi ta artu zelaiak bere mende zeuzkan, beren jabeak ikusiarren, etziran ausartzen ezer esaten, naiago zuten basurde batekin aurkeztu gizon arekin baño.

Utzi dezaiozun Brutus mameluari eta goazen txarrantxetakoak ikustera.

Esan degu Mikel mutil sendo ta liraña zala, batez ere bere arpegi ederrean zeukan berezitasuna. Ikustekoa izaten zan Luistarren elizkizunetara zijoanean, amaika neskatseek egiten zion agur esankorra. Batezere Erriberane jauregiko Agurtxok. Neskatx au, Maniz Indianoaren alaba bakarra zan. Manix aberats purrakatua, Ameriketatik ekarritakoaz gañera Oiatzun'go kontrabandista guzien burua zan, eta ortik diru asko zetorkion.

Agurtxo emezortzi urteko neskatxa, edertasunean berdinek gabea,

apala, esanekoa, oso elizakoia. Bere aita zikoitz xamarra zalako neskaamerik etzuan artu nai eta Agurtxok egiten zituan etxeko zeregiñak. Ala ere beste zenbait lanetarako astia gelditzen zitzaion, eliza antolatzen, Amabirjinari eta beste santuai loriak jartzen bera izaten zan beti aurrena. Ate ondora zetozen eskaleak, oso maite zuten, aientzat bere eskuak etzuten neurririk Aitaren ixilik, edo berak zekiela, amaika beartsuri urdalla bete zion; eta erriko zenbait ezbearretan malko asko legortu ere bai. Lan asko egiñ arren oso pozik bizi zan, etzitziaion iruditzen bere bizi guztian beste bizimodurik egin bear zuanik.

Baña auxe lana, biotza izan ark ere ta, ez nolanaikoa xamur ta biguña. Emezortzi udaberritako loreak ikusita, emakume itxurak artu zituanean, biotzak beste zerbait eskatu zion. Nola izaten da, ametsetan askotan ikusi izan ditugun, eta esnatzean ezerezen diran gauza atsegin, maitagarri ta gozoak, orrelako zerbait. Baña Agurtxo etzebillen ametsetan, bazekin biotzak eskatzen ziona etzala irudipena, egitazko gauza atsegin, gozo ta, maitagarria zala. Zerbait orren zintzotasun, jatortasun ta edertasunak biotza irabazi zion; geroztik noiz ikusiko eta itzegingo be-taren zai zegon.

Bein batez Mikel Luistarren elizkizunetara zetorrela, ederki zaitu zun Ollarrierre'ko aldapan bera noiz zetorren Erriberane'ko leiotik oso eroso artzen baita bide ori, eta Mikel bere etxe aurrera zaneke atetik atera ta.

—Zintzo zatoz Mikel...

—Egun on aurrena Agurtxo...

—Alaxen da, bai zuri ere.

—Nik uste nuan kale aldean beranduago jeikitzen ziñatela.

—Ori alperrena da, goiz jeikita ere billatzen da zeregiña.

—Nik beintzat bai.

Orrelako jardunetan zijoaztela. Castro'neko ardangelatik atarata, Pello berritsurekin topo egin zuten; eta an asi zitzaion Mikel'i txuriketant.—Polita duk ori Mikel, bejondeikela, aukerakoak zerate elkarrentzat.

Nik ez dakik zer gertatuko zitzaien bi gazte eri, baña bieri lotsak edo barrengo atximurrak aterata, bi arpegiak ampolaia bezin gorri jarri ziran, eta ondoren ixil unea; baña Agurtxo'k bereala urratu zuan.

—Entzun aldezu aiton erren ateraldia?

—Orrek edozer gauza, berritsua da ta.

—Eta, zer derizkiozu?

—Ipuia edo zerbait orrela.

—Eta ipua egia balitz?

—Zaude ixilik Agurtxo, ez ni zirikatzen asi.

—Gaizki iruditu al zaizu ba?

—Gaizki ez, oso ongi, baña sinisteak ditu lanak; noiz ikusi da; jauregiko neskatx aberatsa basetxetar beartsu batekin ezkontzen? Ipuietan ezpada.

—Alde ortatik ez izan kezkarik, Mikel, zu etzera beartsua, aberatsik aberatsena, erregearen semea banan geiago, neretzat lurreko zerrua bezela; eta gezurtizat ezpanaukazu, jakin, zurekin izateko zure naia beste aberastasunik ez dut bear.

—Eskerrik asko, Agurtxo.

—Ez didazu ori besterik esaten?

—Egongo gerala —(1) eta ori esatean begirada xamurbat— bat egin zion.

Begirada batek askotan, esanak baño indar geiago du, beintzat Agurtxo'k barrengo gozotasunak gañez eginta, bi malkoz busti zizkan masall zuri-gorri eder aiek; eta beste gabe bat besteen atzetik elizan sartu ziran.

Mikel amaika aldiz, pozik neurrigabeena biotzean zuala, sartu zegoen eliz artan, autxe esaten zion zeruko Aitari "aitagurea", igarotako illabetean egin zizkan mesedeakgatik eskerrak emateko, eta ezbearren bat izan bazuan "egin bedi zure naia" esanaz bere naigabeak gozaten zituan.

Baña egun artan beste poz eta alaitasun bat ere bazekarren, oroitu utsarekin kordea kentzeko añaakoa.

Jaiotzez beartsua zan, eta aberatsik aberatsena esan zioten... Jesus... Nondik datorkit neri orrelako zoriona. Nolako eskerrak emango zizkan Mikel'ek Jaungoiko'ari.

Agurtxo'k bere biziko egunik gozoena izan zuan. Azaldu zion bere goga, eta onartu Mikel'ek. Beti gauza bat zebilkien buruan. Zer zorionekoa izango zan Mikel'en ondoan, nola maitatuko zuan, zeñen bigun-kiro begiratu, zer pozak eman, zeñen gozo itzegin, nola lagundu bizitzen.

Elizkizuna bukatzean Agurtxo eliz atarian zai zegoen ixil-kontu batzuek esan ta agurtu ziran.

(1) Oyartzun'go esaeran: "itz egingo degu".

Zer esan zuten?... Esanak baño elkarri egin zioten begirada esankorrek indar geiago izango zuan noski; beintzat naiz batek, naiz besteak beren egunetan egin zuten lorik gozoena egin zuten gau artan.

Baña Satanasek ez du siestarik egiten, eta gazte aien erabakia etzuan onartu, bieri zion espa edo gorroto ikaragarria, biek baiziran egundano menderatu etzitanak.—Ez arraio, esan zuan —nik porrakatuko dizkit zuen asmoak— eta ekin zion lanari.

Lenbiziko Manix Indianoari adierazi zion bere alabaren asmoa, bere alaba errian zan neskatxik ederrena ta aberatsena, basetxeko mutil kankallu batekin ezkontzera zijean; a zer apaingarria eraman bear zuan jauregira; gañera Agurtxo'k erriko mutillik aberatsenak berari begira zeuzkan, eta etzan egoki, beartsu, basetxeko usaidun batekin ezkontzea.

Satanas beti gezurretan ba'dabil ere, ori egia zion, erriko mutillik aberatsenak ez ezik, ogei legua inguruko aberatsik aberatsenak pozik ezkontuko ziran Agurtxo'kin berak nai izan ezkeru, naiz eta onek errial bat ez izan. Ain eder, on, ta maitagarri zan Agurtxo.

Bere aitari ori jakitean biotza zikoiztu zitzaion; Agurtxo'ri etzian naigaberik eman nai, eta ixilik, Agurtxo oartu gabe azpijanak egiteko asmoak artu zituan; ortarako Satanasek berak asmatuko etzuana bururatu zitzaion.

Bein batez Mikel'i bere etxera etortzeko deia egin zion. Mikel gauza txarrik bururatu gabe aurkertu zan, eta onela mintzatu zitzaion Indianoa.

—Begira Mikel... Bazekiat mutil pizkorra ta indartsua aizena, ta ire bear nauk. Beste batzuen artean balio aundiko zama bat zeukat ekarri bearra; nere kontrabandistak pizkorrek izan arren ez nauk oso piatzen, eta iregañ uzten dit lan ori. Lorailaren amabostean nere beste mutillakin batera joan adi, eta beti aurretik ibilli; Brutus jarraika asiko balitz aurrekoak errezago iges egin al izateko. Ta entzun akiak ondo, ikusten duk Erriberane'ko jauregia?... Auxe galdu naiago nitek zama ori galtzea baño.

—Egon lasai esan zion Mikel'ek, ez izan bildurrik zama etorriko da.—Sari ona itxaren dezakek (esan zuan Indianoak).—Mikel'ek bere artean, Agurtxo bezelakorik.

Etzan egun egokia nakazariantzat kontrabandoan ibiltzeko, Isidro deuna, nekazarien zaindari eguna zalako; orregatik, gurutzeko ostatuan berebiziko billera egiten zuten basetxetarrak; urte guzian egiten zuten

bazkaririk onentxuena egin ondoren, asten ziran musean edo trukean, eta bestela txanpon baten okerra elkarri egiteko gauza ez izan arren, litro erdi bat ardo jokatzean, iñun diran iruzur eta azpijanak egiten ziozkaten alkarri; eta onela jarraitzen zuten, porroia eskuan, zerura begira, bigaramonean zer egualdi egingo zuan igartzen.

Bazijoazten kale aldera, eguna orrela igarota, gaba ere sartu xamarrara zala, Pello berritsu ta beste lagun bat. Zer esango zuten?... Irundarrari azpijan eginta irabazitako ardoa goxua zana, egun ederra bota zutena, txarrantxeetatik iñor azaldu etzana ta abar. Orrelako jardunetan zijoaztela —Allltoo; ikaragarrizko oin larri ta zorrotza entzun zan, eta aa, oo, erantzun zuten Arkale'ko arkaitzak eta inguruko mendien oiarztzunak. To, Brutus duk ori, esan zuten bi gizonak.

Bai, Brutus, ordainduko dik bateon batek larrutik eria (1) ez nikek orren atzaparretan erori nai.

—Ríndete; entzun zan beste oiur larri ta zorrotza.

—Ez zein geran geiena ikusi arte; erantzun zuan norbaitek.

Mikel duk ori esan zuten bi gizonak, bai Mikel, orañ ere bazebillék ori; orrelaxe ibilli bearra zeukak ba orretzek. Zer zeukak basetxeko lanetik?

—Baña ik ez alduk ezer entzun... Ez aldakik Erriberane'ko Agurtxo'kin ezkontzen dala?...

—Ire berrikerat dituk oiek, zerbaikatik esan ziten berritsu.

—Ezetz ba, neronek...

—Bai ipuetako gertaerak urruti oietan gertatzen dituk.

—Ni orrelako uretan pasia nak gero...

—Uretan ez ezik, ardotan ere pasatzen badakik, gaur bezela.

Bi gizonak berrikeretan zijoazten bitartean, Mikel'ek etzeukan berrikerarik gogoan. Arkale'ko arkaitz ondotik zear, Arkale basetxeko azpikaldetik zijoazten Manix en mutillak beren zamakin, agindu bezela Mikel besteen aurretik zijoala. Brutus'ek bular aurrean su-iskilua jarrita alto bota zionean. Barren guztia nastu zitzaion eta odolak jela biurtu; lobana sartuta ere etzitzaion odol tanto bat aterako. Buruko illeat gorosti-makilla baño gogorrago egiñak zeuzkan. Ala ere etzuan etsi. Txarrantxetako Amabirjiñari, estutasun artatik ateratze eskatu ta, ill edo

(1) Larrutik eria. Gaizkillereren bati zigorra ematea bezela da.

bizi, odol tanto bat zuan bitartean, borrokarik arrigarriena egiteko gertatu zan.

Lagunduko ote zion, egundaño atsekaberik eman gabeko seme ari, Txarrantxetako Amabirjiñak?... Lagundu zion. Brutus'ek, guriñezko mutiko ura menderatzeko bere atzapar latzak aski zituala uste zualako, su iskillua bazterrean utzi, lepotik eldu, ta rindete esanaz batera, lurrari erautsi zion. Mikel'ek su-ixkilua bazterrean ikustean lasaitasun arrigarri batek artu zuan, odolak bigundu zitzaizkan, indar guzien jabe zan; bizkarrakin lurra jotzeaz batera Brutus'en bularrean bi anak jarrita ostikada batez atzeko aldera bota zuan. Tximixtak bere lana egiten duan baño azkarrago altxea, su-ixkilua artuta, al zun urrutiena bota zuan.

Brutus'ek uste bezelako erraztasunik ikusi ezean, iñun diran biraurik beltzenak botatzen asi zan. Mikel'eri odol guziak irakiten jarri zitzaizkan.

Zer?... Nere zeruko aitaren izena zikintzen ari aiz, likiskeri ori... Lepo ondoko oialetik elduta, bi edo iru bira eman ondoren, azpikoaldeko errekarra bota, zama artu, ta anka egin zuan.

Brutus, su-ixkillua artuta.—Zentellas... birikak ateratze-asmotan zego; ordurako tokitara joanak ziran Mikel ta beste lagunak. An gelditu zan Brutus bazter guziak birauaz betetzen.

Zer astakeriak egiten diran askotan seme alaben ezkontzak dirala bide. Manix Indiano'ak, aurreko egunean Brutus deituta, arreta aundiz esan zion, nondik etorriko ziran bere mutillak kontrabando zamakin; eta aurretik zetorrena bizirik edo gabe beregana ekartzeko, ortarako sari ona aginduaz. Baña Jaungoikoaren eskua dabillenean, gizonen asmoak eta deabruaren maltzurkeriak alperrik dira.

Brutus'ek, gertatutakoa Indiano'ari esan zionean, lotsatu, umildu ta arrituta gelditu zan mutillaren azkartasunaz. Agurtxo'k igarri zion, gertatutakoa bere aitaren maltzurkeria zala, ta negar samiñak egin zituan.

Etziran orde alperrikakoak izan Agurtxo'ren negarrak Manix Indianoa bere alabaz kupiturik, eta Mikel'eri sari ona agindu ziola oroiatuaz, eta batezere bere pizkortasuna ikusita, ezkontzeko baimena eman zuan. Sari oberik ezin eman, Ezkõndu ziran, eta ezkonduak gelditu ziran betiko.

ORDUTIK URTE BATZUETARA

Gurutzeko ballaran, bazan nonbait gertakizun aundiren bat; arri-garrizko jendetzak zetozten alde guztietatik. Beribilletan, txirringetan, eta geienak oñez. Binde zabaletik, bidetxiorretik, mendi egaletik, baso ertzetik, zelai erditik; gizonezko, emakumezko gaztee, zar; oñez ordu batzuek ibiltzeko gauza zan guztia. Barrengo gozotasuna ezin gorderik, erleak loretara baño gogotsuago, umeak gabon gaba etortzeko baño zaltetan geiagorekin. Batzuek pardelxoak bizkarrean, umiltasun aundiz, baña esankor eta alai.

Bazebiltzan gizon ta emakume, Mikel erakusle zutela, bazterrak garbitzen, sarrerako bideak adar, ostoa ta lorez betetzen; zugatz batetik bestera lokarri luzez lotuta "ongi etorri" irakurtzen zan zapi zuria jartzzen, margo guztietako ikurriñaz bazterrak betetzen. Ballarako etxetako leioak oial ederrez apainduak agiri ziran, txorien txiruliroak beste egunetan baño alaigoak ziruditen.

Zer dala ta orrenbesteko alaitasuna?

Gurutzea... Ballarako biztanleen sinismen sendoak, ballarari zegokion erako gurutze bikaña jaso zuan, eta bera bedeinkatu bear zan.

Bazebillen an beste jaun bat ere, azkeneko prestaketak egiten. Nik ikusi nuanean, Gurutze basetxeko gela batean zan; ume polit, aingerua zirudien eta une batean iñun gelditu ezin zan bateri, azkeneko oalkoak ematen ari zan. Nik sarrera jotzean, len erakutsi bezela abestuko dezu, —zion apaizak—, Baibaña, oraindik ez dit eman agindutakoa zion umeak; eta naranja bat eman zion. Umeak tarte batean leiotik begiratu zuan, umea izan, Jesus..., zion on Pablo apaizak, "microbio" guziak estarritik sartzen esanak, barrura eraman zuan.

Eldu zan bedeinkapena egiteko ordua, gurutzea zapi ederrez estalia zegoen, on Pablo apaizak azaldu zuanean... Ene... zer zan ura?... Ango oiua ta deadarrak; gora, biba, bizi bedi; ango zalapartak. Erriko txistularien "Agur jaunak" eresiarekin naste. Orru alai ta luzea etzan berealakoan amaitu. Gurutze basetxeko leiotik eunka uso askatu ziran, inguru etxetako umeak, otarrak lorez beteakin, gurutzeari lorezko eraso bat zioten. Apaizak bedeinkapena ematerakoan, bat batean, denak tximistak jo balitu bezelako ixil ueña egin zan.

Handwritten musical score for "A la Virgen María". The score is written in E-flat major (one flat) and 4/4 time. It features a vocal line with lyrics in Basque and a piano accompaniment line at the bottom. The lyrics are: "A gur Mari... gre - zi az be te a Jai - na zu re kin da be - de in ko tu a ze ra zu - an dre - gu zi yen ar rion e - ta be den ka huda zu - re sa be le - ko fru - u tu a Je sus - ta Ma ri a San - ta Ma ri a Ma ri a Ja un - goi ko a ren a ma otu e gi zu gu ga tik gu - pe ka to riok - ga tik o - ran - o ran e ta gu re e ri o tze koor dion A la xe A la xe". The score includes various musical notations such as notes, rests, and dynamics like *pp*, *cresc*, and *dim*.

Bedeinkapena bukatzean, bazan antxe zer esana, era guztietako esamesanak baziran.

Nere inguruko emakume biri ara zer entzun nien.

—Aizu Antxoni?... Orrako ume ori aragizkoa alda?

—Bai, aragiz ongi jantzia gañera.

—Jesus..., Aingerua dirudi. Ori ume polita.

—Bere gurasoengandik bestelakorik eziñ atera.

—Zeñena da ba?...

—Ezaldezu ikusten zein daukan aldamenean?

—Bai Agurtxo, amaika lan egin du orrek jai au antolatzen, ez du gaur goizean lo askorik egiñ.

—Gaxoa umea, katarroa dauka, ara, apaizak keñu egin diota, lepo-oialakin estali du aboa.

—Mikel'en alaba gaztiena, Arantxa da ori; on Pablo'k dionez eguzkiak argi egiten duan lekuan ez omen da orrek bezelako abotsa duanik abesteko.

Bitartean apaiza agurtza esateko gertatu zan. Gurutze egin ta Jesuskristo nere jauna esan ondoren.

—Jauna, nere ezpañak iriki, esan zuan.

—Ta nere aboak zure goralpena esango du, erantzun zuten denak.

—Jauna, lagundu zaidazu.

—Neri laguntzera azkar zatozkit.

Aintza ta graziazko ama, esanta, aitagurea esan zuan apaizak.

Emaiguzu gaur... erantzun denak.

Ondoren organillo baten aurrean jarrita "Gounod"en "Abe Maria"ren sarrera jo zuan apaizak.

Orduan bota zituan umeak katarroak. Lepo oiala kenduta asi zan abesten.

Egundafio alako gozotasunik, ez du iñork ezagutu. "Gounod" ospetsuaren Agur Maria euskeraz ta nola?... Aingeru batek abestuko balu bezela. Amaikari busti zitzaizkan masallak, begietako malko gozoz. Abestu zuanean jarraitu zuan apaizak agurtza bukatu arte; eta onenbestez bukatu zan jai. Ipuia ere bukatu da, baña...

AZNENEKO BERRIAK

Azaldu gabe ezin ba gelditu. Badakizu irakurle, Txarrantxetan zein gelditu ziran; amaika alegin egin zioten Mikel ta Agurtxo'k beren amari jauregira eramateko, baña etzuan bere basetxe ta baseliza utzi nai izan.

Gero gertatu zan gertatzekoa. Satanas'ek Mikel ta Agurtxo'ren ezkontza buruz, bereakin atera etzanean. Ordainduko duk "larrutik eria" esan zuan. Esan ta egin. Ortarako Manu sorgiña artu zuan bitarteko. Atso madarikatu ora, bein batez baselizan sartu zan otoiz egiteko itxur-etan, kandelak egoten ziran kutxan jarrizuan errekiña, poxpolo batzuen tartean, abarketa lokarri legorrez lotuta, su eman zion lokarri muturrari, Amabirjiñaren arrosarioak lapurtuta bazijoan igesi.

Katalin eliz zaia, susmo txarrak artuta, baselizan sartu zanean, Amabirjiñak eskuetan zeuzkan arrosarioak etzauzkala ikusta, lapurraren atzetik joan zan, eta bere egikera gaixtoa arpegira bota. Onek ondoraño ukatu ondoren. Nik lapurtu badet, "arri biur nadilla" esan zuan, une artan arri biurtua gelditu zan.

Bitartean abarketa lokarria erretzen zijoan, poxpoloetara sua iritxi zanean, aiek su artu zuten errekinakin batera, ondoren kandelak, aiek baselizari su eman zioten, baselizak basetxeari, eta aitaren egiten dan baño azkarrago, dana auts biurtuta gelditu zan.

Ikusi zuanak esaten zuan, ango suaren keia, lenbizi mordollo lodiak, gorago ta zabalduago, beti ere gora ta gora, odeiak nastu arte. Ke artean, alako emakume itxurako zerbait igo zala zeru aldera. Bali-teke irudimena izatea baña gero jakin zanez, Txarrantxetako amaren irudia arrizkoa izan arren, bere aztarrenik etzuan iñork billatu.

Katalin etxe gabe gelditu zanean, Mikel ta Agurtxo'k jauregira eman zuten, eta esaten danez, aiek bezelako senar-emazte zoriontsurik ez omen da iñun ezagutu. Manix zebillen makal xamar, gizarajoa zartu, il bear, ta bere urre ta diruak, berekin nola eramango ezin asmatu rik zi-joazkion urteak; Agurtxo'ren arretari esker bizia luzatuaz.

Mikel'en osabak kontrabandoan irabazitako diruakin, Txarrantxeta zegon leku berean "Andrearri" basetxea jaso zuan.

Iñork uste badu gezurra dala, antxe daude lekuko, Gurutze ballaratik irureun metro gutxi gorabera "Andrearri", basetxe zabal patxara-koa, ta basetxetik berrogei bat ofiera, andre arribiurtua.

Pir... pir... pir...

AROSTEGI'TAR JOAKIN

Ura zalaparta... ango ukabilkadak ateari: dam... dam... dam... aiek oyu larriak: ideki atea..., ideki atea... Igeldoko tximinua zirudien... Ura zan ate goira igo bearra... Laister zan bere buru aundia atearen goiko leiotik kampa: I, izan aiz, Joakin, I izan aiz, ideki zak atea... ideki zak.

Kezkati eta eskrupuloso oietako bat zan gure Joxemari gizaajoa; garaian, garaiko pekatuak nunbait eta orain berrogei urte, ez zan txantxetako pekatua bi apaizgai gela barnean atearik itxita egotea. Gure Gasteiz'ko Seminarioan ala zan beintzat.

Kras, kris, kras eta nere aurrean nuen nere mutilla... Ez zan giro izututako tximinu arekin... Eskerrak bazituela sudur puntan betaurrekoak, bestela iges egingo zioten bere bi begi larriak.

Baretu bearra neukan mutilla; egoera artan zozokeriren bat egin zezakean: Maisu Prefeto bategana joan edo... Oa, esan nion, Espiritu Zuzendarigana (Diretore espiritualengana), oa Goikoetxeaundia'gana; Lasa, lasa, utziko au ta... bear bada, bere ezkerako poltxikoan izango dik neretzat ere kontzejutxoren bat.

Arratsalde artan, Goikoetxeaundia'ren erreguz, bere gelan arkitu nitzan. Ura kopet beltza... Ez zuten, ez, erri misiotan, sasoi batean, Impernuko zulora botatzen ginduzten praille potolo aiek berak ere orrelako arpegi illunik. Ekaitza zegok, Joakin, Kantauri Itxasoan, niotzan nere buruari. Bañan, laister igerrri nion Teatro puskat egin bearrean zegoela gure Aita Espirituala.

Orrelakoetan oi den sermoia bota zidan kolkora: Itxusia zala lagun urkoari adar jotzea... aien bizkarretik par egitea... Seminarioko diziplina txantxetan artzea... Bukatzerakoan, sermoia borobiltzeko, Isaías Igerle Profeta aundia zirudiela, pulliki eta itzak azpimarkatuz esan zidan: "*Bene benetan esaten diat, Jokin, "parre" eragiñazten deken bitartean, izango dituk ire inguruan lagunak; ezina datorkikanean, bakar bakarrik utziko aute*".

Tximista bezin pizkorra izan zuen ba nere erantzuna:

"Bapo, badakit zer egin sekula santan bakarrik geldi ez nadin: ill arteraño, azken arnasa bota bitartean, mundu guziari parre eragin asiko diet".

Eta... Goikoetxeaundia, Aita Espiritualak, mozolo arpegi triste ura utzita, alaitasun gozoz, algarari eman zion.

* * *

Ene D. Manuel, zure omenaldian, irakurgai aldrebes onekin nator-kizu. Asmo bakar bat dakartzut: Zure españetan irripartxo bat lertue-raztea. Ez da errex. Drama eta Trajediak idaztea ez omen da ain zailla; komikoa askoz ere zaillagoa. Komikoa baño milla aldiz geiago Trajikoan nunbait gizona. Orregatik elkar poztea baño maiteago dugu, elkar larrutu, elkar jo eta makiltzea. Zein zoroa dan gizona. Bizitza bera ere Trajedi bat dala, diote. Antzerkietan ere ordea, Trajediaren sar-goria arintzeko, aize piñ izan bear duen komika zatia bearrezko gerta-tzen da. An ditu zure *"Eun Dukat"* dramak, trajedi pisua arintzeko Je-ronimo Aztiaren ateraldiak: Jeronimo Artxintzar Azti pamatue, mundu guzian dago oso sonatue...

Gaur Euskal erriko azokan ez daude salgai irriparra... algara... go-zotasuna... Ta ene D. Manuel, pozarik gabeko Euskal erriak ezurrettara-ño izitzen nau.

Ikusten duzu, D. Manuel, zein erreki Trajikoan biurtzen detan nere burua...? Nere idaz lanetan errexago zait gai sakonetan murgiltzea, On Kosme parreragillea plazaratzea baño.

Natorkidan arira. Nere lan oni esker, zure ezpañetan irripartxo bat bedenik lertzen ikusi nai dut. Orixen izan bekit maitekiro eskeintzen dizudan erregalotxo apala, zure omenaldian.

* * *

Saturran'go apaiztegian zan. Udarako ango gure egonaldiak be-rea ematera zijoa: Urrengo egunean etxera. Ta... Nork burutu gure-kin etxera joateko aizeak jotzen ginduanean...?

Azkenengo loa gaurkoa... Biar etxera... Aui... Orrelako pentsa-kizunekin goaz berrogei ta amar apaizgai gure lo-toki zabalera.

Gau artan lo...? Bazitekean, baño... Pepito'ren diarrak oera sar-terakoan; piper eta tomate potoz betea zuen oe barne guzia... Ango txapa otsa gure Pepitok ostikoka oetik kampa jaurtikitzen asi zanean piper ta tomate potoak... Ez zen txikiagoa beste mutillen algara... Zoro etxea zirudien gure lo gelak. Emengo ta ango oyuak naasten ziran: "Ezin nauk oean sartu, petakea zeukeat... Zeñek arrapatu du nere ma-leta...? Izarak palta zaizkidak; naste borraste artan ezin zitekean elkar kompreni...

Itsas zakarra, ekaitzaren ondoren baretu oi den bezela, noiz edo noiz ixildu zan jendea eta lotarako prest jarri ere. Olatu tikiak banan banaka lertzen ziran Saturran'go ondartzan; bere ots mar-mara, loka-razteko izigarri ona zitekean.

* * *

Guzia ixil ixillik zegoela, "damba" abarketa pare bat iristen da Klaudio'ren oera. Onek Patxin'i erantzun dio; gerla guzietan oi den bezela, asieran bakar batzuen artekoa zana berrogeita amar apaizgaien artean zabaltzen da. Ura zan abarketa gudua, ura... Abarketak gora be-rra, ezker eskubi... aidean... Niork ez zekien nor zen lagun edo etsai... Ango zalaparta, kurriska eta oyuak ez ziren amaitzen. Nola amaitu...? Bazituzten betirako munizioak: auek ezpaiziran galdu ta lertzen... El-karri abarketak botata, berriro armatuta gelditzen ziran gudua aurrera jarraitzeko.

Toki onean gelditu ziran olatuen otz ta mar-mar gozoak gure mu-tillek lokarazteko...

Azkenik ordea, luzearen luzez, aspertu giñan. Nekeak eta loak ger-lari bukaera eman zioten eta gau artarako pakea ziñaturik gelditu zan.

* * *

Loaren itzala somatzen zan gure lo gela zabalean. Erio irudia zite-kean gure lo gela... Guzia zan beltz, ixil, illun. Ez zan ordea guzia erio. Izkin batean eta bestean, nabarmenak ziran apaizgai batzuen zurrunka-txoak; auek ere ez izan nunbait aingeru.

Abarketa burruka ondoren, ordubetxetxo bat daramaku lo gozoan. Urrengo goiza bitartean, pakeak egiñak ziruditen. Bat batean ordea,

pir... pir... pir... entzuten da. Pizontzi batera pipi egin oi daneko otsa zirudien. Ez zan pizontzi bakar bat ere gure lo gelan. Zer izan zitekean aldrebezkeri ura? Eten gabeko jario zan; pi... pir... pir otsa ez zan ixiltzen.

Apaizgaiek lo-zorrotik esnatzen asi gera; ez zegoen lengo umore-rik; lo bearrean zegoen jendea. "Bego beindik ixillik", oyu egin zuen norbaitek. Pir... pir... pir... otsa ordea ez ixiltzen. Mutillen mingaŕiak gorriak esaten asi dira: "Zein duk ordea asto zaar ori...?". "Mandoak baŕio pusika aundiagoak zeuzkek pizaŕero orrek". "Tikia duk Gasteizko Katedrala orren maskuriak jasotzeko". Bitartean, pir... pir... pir... otsa lo gelan. "Klaudio duk, Klaudio duk... norbaitek diar egiten du. Mutillen amorrua Klaudio'ren izena entzundakoa... Orduantxen bai ideki mutillen begiek... Gerla, Gerla Klaudiori, oyu dagi Patxin'ek. Bakararren aurka mutill guziek... Berritu da abarketa-gudua... Galdua dago Klaudio... Mutill guzien abarketak, an dijoazkio Klaudiori... Ango zarata eta istillu... Ainbeste abarketa artean ez du astirik Klaudiok arnasa artzeko... Ito larrian dago. Eziŕean bere burua ikusita, al zuen eran, itz majiko bat, larri larri irtetzen zaio eztarriko zulotik: *D. Manuel...* *D. Manuel...*

Nork esan bear zuan itz bakar batek, zakur amorratu aiek geldierazteko indarra izango zuenik. Apaizen konjuruak, arria zekarten laŕiu beltzak uxatzen zituela...? *D. Manuel* itzak ainbat indar izan du: Abarketa-zaparrada amaituta gelditu da. Gerla-leku zirudien lo-gela, kampo-Santu ixillean biurtu da. Arnas otsik ez da entzuten; bakoitzak bereari eusten dio *D. Manuelek* aldegin arte. Berrito guzia beltz, guzia illun, guzia ixill... Lo-giro gozoa sortu da.

D. Manuel ordea ez zegoan an; Bere burua salbatzeko Klaudiok asmatutako zerbeit zan. Orain duk nere txangoa, dio bere baitan Klaudiok; nere bendekua izigarria izango duk. Galduak dituk nere etsai guziek... Muniziorik gabe gelditu dituk... Nere oe inguruan zetiat abarketa guziek... Gerla galdu ditek, ni nauk Txapeldun, ni irabaztalle... Eta bein ta berriz zabaldu zan lo gelan ur-otsa, ots minkorra, ots mardarikatua: *Pir... Pir... Pir...*

* * *

Agur, *D. Manuel*; ni baŕio leenago joaten bazera zeru goira, ni ara joaterakoan, zakizkit nere bitarteko. Zeru atarian San Pedrok galde-

tzerakoan: *Zer dakarkik?* Ezin bada nik erantzun: Musean amarrekoak kontatzeko artaleak, Jauna. Une artan aurreratu zaitea Pedro'ri erantzuteko: Euskal Erriko egun beltzenetan, irripartxo bat sortuerazi zidan ezpaŕietan. Neri bezela, beste euskaldunei ere bizi-poza ta irriparra eman oi zien. Euskaldun batzuen pozaz beteak ditu bere eskuak.

Aldez aurretik, milla esker, *D. Manuel* eta *Zorionak*.

El escultor Domingo de Mendiaraz en Villarreal de Urrechua

ARRAZOLA, MADRE A.

A mi maestro, Don Manuel de Lecuona.

Una amable invitación para visitar la parroquia y cementerio de Villarreal de Urrechua me ha puesto en contacto con la obra del escultor Domingo de Mendiaraz, hijo de Villarreal y contemporáneo de nuestros grandes escultores romanistas.

Su obra está representada, en la iglesia parroquial, por el retablo de la Virgen, por los relicarios que ocupan la predela de un retablo lateral y por las imágenes de Santa Lucía y Santa Agueda, que pertenecieron a la ermita de San Sebastián y que hoy se guardan en el coro del templo. Unas pequeñas esculturas que decoraron el retablo de la Virgen están en la sacristía. En la capilla del cementerio, hay dos grandes imágenes exentas de la Virgen y de San Juan, que estuvieron en un humilladero próximo y que son obra documentada de Mendiaraz. En la ermita de Santa Bárbara, el retablo central, repintado posteriormente de una manera desdichada, es, asimismo, de este escultor.

La paternidad de toda esta labor, atribuida al imaginero de Villarreal de Urrechua, se encuentra ampliamente documentada. En efecto, en el Archivo de Protocolos, en Oñate, (A. P. O.) se dice, que con fecha del seis de noviembre de 1572, Domingo de Mendiaraz, escultor, y Martín de Echeverría, arquitecto, vecinos y moradores de la villa, se comprometieron a "fabricar bien" el retablo de Nuestra Señora, con la figura de María, en talla, y con el Niño, de buen nogal y del tamaño que Domingo de Mendiaraz hiciese. Martín de Echeverría iba a ocuparse del ensamblaje. Todo ello tenía que estar terminado para la Navidad de los dos años siguientes (1).

(1) A. P. O. Leg. 3970, fs. 143-45.

Aneja a la escritura, está la traza del retablo, firmada por el escultor y el arquitecto; este plano coincide con el actual, salvo el cambio de orden de los paneles superiores y la sustitución, muy posterior, del panel inferior del lado derecho, que, en un principio, historiaba la Anunciación (según traza) y que, ahora, representa una escena completamente fuera de lugar (2).

En 1595, el 5 de enero, Lope de Larrea y Ercilla, escultor de Salvatierra de Alava, yerno de Pierres Picart, escultor de la Universidad de Oñate, examinó el retablo de Mendiara, junto con Esteban Velasco, vecino de Vitoria, y con el arquitecto, Santuru de Viciola (3). Mucho tiempo había pasado desde el contrato.

En el *Primer Libro de Cuentas y Mandatos* (L. C. M.) de la parroquia, se hacen repetidas referencias, a partir de 1593, a los pagos realizados a Mendiara "para en parte de pago" y "para lo que a de aver en la obra del altar de Nuestra Señora" (4).

Según el mismo Libro de Cuentas, Mendiara trabajó también los relicarios de la predela o banco de otro retablo lateral, en 1611 (5).

En el Archivo de Protocolos, en Oñate (6), se dice, en 1580, que Domingo de Mendiara se obligaba "a hacer bien y perfección a la vista y examen de maestros del arte", un retablo de Santa Bárbara y a sus dos lados, historias del martirio. Se comprometió también a hacer el retablo de las figuras de Santa Lucía y Santa Agueda para la ermita de San Sebastián; todo en el término de dos años, habiéndosele de pagar del haber de los bienes de la ermita.

En el Libro de Cuentas, encontramos suficientes testimonios para atribuir a Mendiara "el hazer de los dos bultos de María y San Juan", que se corcertó con él, en cien ducados (7). Estas imágenes que se guardan en la capilla del cementerio, las había terminado hacia el año 1600,

(2) La revista *Aránzazu*, n.º 479, portada, trae *La Huida a Egipto* y en la contraportada el texto: ARTE VASCO: *La Huida a Egipto* (Parroquia de Villarreal de Urrechua). Foto: Ibarburu. No es éste el panel que, según traza, debía estar en el retablo.

(3) A. P. O. Leg. 3976, fs. 4.5, año 1595.

(4) L. C. M. fs. 70v, 82, 86.

(5) L. C. M. f. 126v.

(6) A. P. O. Leg. 3969, f. 104v.

(7) L. M. C. fs. 94v, 96v.

ya que a partir de las cuentas de la iglesia de 1601-1602, se habla de pagar, al pintor Martín Ochoa de Vicuña, de Salvatierra, el dorado y estofado de estas esculturas (8).

Me parece haber documentado la obra de Domingo de Mendiara en Villarreal de Urrechua. Si he tenido interés en poseer y exponer estos datos, ha sido porque desde el primer momento, en el que estuve en contacto con lo que Mendiara legó a su pueblo, me llamó la atención el parecido de sus esculturas y relieves con los de Ambrosio de Bengoechea. Evocan, sin duda ninguna, al gran escultor de San Vicente de San Sebastián, aunque la perfección de la obra es distinta, a favor de Bengoechea.

Los puntos de contacto del escultor de Alquiza con el de Villarreal de Urrechua son muchos; los detalles que se observan siempre en Bengoechea, se encuentran en Mendiara; así, es igual el modo de solucionar el corpiño de la Virgen y el remate de los vestidos en el cuello; constante, el modo de levantar, de algún modo, las túnicas y mantos; igual, la manera de esculpir los árboles, así como el tercio inferior de las columnas; inconfundible el "aire" de las figuras, sobre todo, de las pequeñas, que decoran la obra de Mendiara y los sagrarios de Bengoechea.

Ahora bien, ¿quién inspiró a quién?

Según la documentación que poseemos y que hemos indicado ya, Domingo de Mendiara hizo el retablo de la Virgen de Villarreal de Urrechua once años antes que A. de Bengoechea hiciera la primera obra documentada que tenemos de él: el retablo de San Vicente de San Sebastián, que contrató en 1583 (9). En fecha, también, anterior, en 1580, trabajó Mendiara los retablos de Santa Bárbara y el de la ermita de San Sebastián. Las imágenes de San Juan y la Virgen, hoy en la capilla del cementerio de Villarreal, presentan gran parecido con las del grupo del Calvario de la parroquia de Santa María de Tolosa, obra atribuida a Bengoechea (10); sólo que, aquí, la Virgen cruza los brazos sobre el

(8) L. C. M. f. 96 y A. P. O. Leg. 4017, fs. 78, 78v.

(9) M.^a A. ARRAZOLA, *El Renacimiento en Guipúzcoa*, II, p. 291.

(10) M.^a A. ARRAZOLA, op. cit., p. 333-34.

pecho y S. Juan los extiende, y en Villarreal, San Juan los cruza y la Virgen los abre. Pero si Domingo de Mendiara realizó estas imágenes hacia 1600, Bengoechea trabajaba el Calvario de Tolosa en fecha más tardía, ya que lo estaba haciendo, en 1605, para el retablo de doña María de Idiáquez, en la iglesia de los Franciscanos (11).

Una primera respuesta puede ser ésta:

Bengoechea conoció la obra de Mendiara y se inspiró en ella, superándola. Otra segunda, puede ser también:

Ambos fueron discípulos del mismo maestro: Juan de Anchieta. Respecto de Bengoechea, sabemos documentalmente (12) que tuvo por maestro al insigne azpeitiano y si la labor de Bengoechea no tiene la fuerza y garra de la de Anchieta, es, porque para poder continuar la tradición artística de éste, era necesario contar con un alma y un genio como el suyo, y Bengoechea, a juzgar por sus obras, trajo otro temperamento a su mundo del arte. Algo parecido le sucedió a Mendiara más cercano, en el carácter de su obra, a Bengoechea.

Anchieta trabajaba en Asteasu en 1572, el mismo año en que Mendiara contrató el retablo de Nuestra Señora (13). No impide esto, sin embargo, el que Mendiara conociera la obra anterior de Anchieta y estuviera en contacto con éste, ya que el escultor de Azpeitia parece que había trabajado en Briviesca hacia 1569 (14). Lo que no se puede negar es, que las características de Mendiara en Villarreal, se encuentran también en Anchieta; basta comparar la obra de ambos.

Algunas de las soluciones empleadas por Mendiara y Bengoechea, sobre todo, en la talla de la ropa de las imágenes, presentan Pedro de Gámiz, en Briviesca y Juan de Juni, en la capilla de la Natividad de la catedral de Burgos. Hemos indicado ya la probable intervención de Anchieta en Briviesca, cuyo maestro escultor fue P. de Gámiz; por otra parte, Juan de Juni fue el escultor de quien más recibió Juan de Anchieta (15).

(11) M.^a A. ARRAZOLA, op. cit., p. 333-34.

(12) M.^a A. ARRAZOLA, op. cit., p. 279.

(13) M.^a A. ARRAZOLA, op. cit., p. 229.

(14) M.^a A. ARRAZOLA, op. cit., p. 229.

(15) M.^a A. ARRAZOLA, op. cit., p. 238

Por todo esto, no es gratuito afirmar, que Mendiara y más tarde Bengoechea, continuaron, gracias a Juan de Anchieta, con la tradición romanista de la plástica castellana.

Ciñéndonos al retablo de Nuestra Señora, en la parroquia de Villarreal de Urrechua, dentro de la obra de D. de Mendiara, nos queda añadir que se trata de un retablo relativamente pequeño; se encuentra a mano derecha del retablo mayor. Sus tres calles y dos cuerpos se apoyan en un banco en el que se historian escenas de la Pasión. Llama la atención, en el panel central del banco, un personaje completamente desnudo que sigue a Cristo, en el camino del Calvario. Este detalle se repite exactamente en el retablo de Santa Bárbara.

En la calle central, en el primer cuerpo, el grupo de escultura exenta, que representa a la Virgen con el Niño, muestra la preocupación del artista por seguir los cánones de la plástica romanista. Es una hermosa escultura, pero en la que se observa desproporción en el tamaño del Niño, demasiado grande. La cabeza de la Virgen está bien trabajada; se cubre, en parte, con un velo; tal vez, el cuello es largo, lo que da a la figura un cierto aspecto hierático; no se puede negar, sin embargo, la categoría y dignidad de la imagen.

Sobre este grupo, a la altura del segundo cuerpo, Mendiara talló la Asunción de la Virgen; está bien lograda.

Mendiara trabaja mejor la escultura exenta que los relieves de los paneles. Hay, en éstos, una gran desigualdad en la calidad de la talla; son buenas la figura o figuras del primer plano, pero a las de los planos posteriores, les falta perspectiva, y su talla, poco cuidada, resulta tosca. Esto mismo se observa en el retablo de Santa Bárbara, en la medida en que allí puede apreciarse a través de su horrenda pintura.

Los paneles laterales historian escenas relacionadas con María: Nacimiento, Reyes, Purificación; falta, según la traza, el primitivo panel de la Anunciación.

La arquitectura del retablo denuncia la época de su construcción: la de transición del plateresco al romanismo. No hay conchas, grutescos, balaustres; sus columnas clásicas estriadas, conservan decorado el tercio inferior (16).

(16) Tengo que agradecer a D. José M.^a Izueta, sacerdote de Villarreal de Urrechua, la documentación que me ha facilitado.

Aralar'ko aizeak. San Migel'ko aldareburua

AYERBE, INOCENCIO, "ARTXUETA'KO UNAIA"

"Nafarroa'ko bitxirik baliotsuena, Excelsis'ko San Migel'go elizan dagon esmailezko aldareburu edo erretabloa da".

Itz auekin eman zion asiera erretabloari buruz idatzi zuen liburuxka bati Bitoriano Juaristi jaun ospetsuak, Iruñako sendagille ta esmailgille trebea zanak.

Aldareburu au ezagutzen dutenek badakite "bizantino" eran esmailez egindako oltz miragarri bat dala, ango eliz zaarrean (Euskalerriko zaarrena noski) edonork ikus dezakena.

XVIII'gn. gizaldiraño, balio aundirik egozten ez ziotelako edo, erdiko elizatxoan egondu zan, aldare-aurreko ain segur, illunpetan eta ixiltasunik aundienean. 1775'garren urtean elizatxo ontatik atera ta Iruñara eraman zuten garbitzera. Aldakuntza ta azal-ikutze batzuk ere egin zizkioten, ez oso egoki; baño zorionez esmailak ez zituzten ikutu ta ortxe daude, bere edertasun osoan, begien atsegingarri.

Nafarroa'ko bitxirik baliotsuena zala, zion Juaristi jaunak. Bai ote?

Esmail gauzetan maisu diranak oro, ao batez eta ao betez, gorai-patzen dute aldareburu onen edertasuna ta balioa.

Agian, Burgi'ko Tomás Aita Kaputxinoa izandu zan oltza ontaz lenengo aldiz idatzi zuna, 1774'gn. urtean. Bere esanari indarririk ez kentzearren, bere erdera ekarriko dut itzez itz, aipatuko ditutan beste guziena bezela. Ara zer dion: "Es digna de atención una dadiva preciosa... de poco vulto en la corpulencia, pero de mucha preciosidad en su materia y forma artificiosa". (Historia de San Miguel de Excelsis. Tomo II, lib. 3, cap. 3, par. 3).

Burgi Aitak ondo-mokor idatzi zun gai ontaz, baño bere fedeari ta biotzari, kritikari baño geiago begiratuaz.

Dom E. Roulin, Frantziako fraille jakintsu ta ospetsuak, kritika bidean Burgi baño mutillagoa, gure oltzaren bikaintasuna zeatz-meatz aztertu ta erakusi zigun 1921'garreneko "Revue de l'Art Chrétien" ze-

lakoan. Nekerik aski izandu omen zun gure bitxi au ikusi eta ikertzeko. Orduan San Migel'en zegon apezak (fidakaitz eta basati xamar izaki nunbait) ez zion erretabloa ikusteko biderik eman; eta Iruña'ko Apezpikuarengana jo bear izandu zun frailleak, baimena eske. Onen baietzkoarekin itzulirik, orduan bai, bearko ta, atari guziak ideki zizkion gure apez murrukutunak.

Naiko izerdi ixuri bide zun gure fraille gizagajoak Urruzegi'ko aldapan gora. Aldareburuaren edertasuna ta balioa su-ta-gar gorai patu zitun edaz. Gai oni buruz idatzi zitunak oro onera ekartzea berriz, luzeegi litzakela derizkiot. Ez dut ordea kolkoan atxikiko fraille aierkorrak gure apezaz esandakoa. Bereak eta bost itzuli zizkion, alajainkoa; eta orra-xaldi ederra eman ere bai. Ona emen bere itzak: "Nous ne raconterons point nos pourparlers avec un capellan méfiant et peu civilisé qui pretexta un voyage pour nous refuser l'autorisation de voir et d'étudier le monument confié a sa garde".

Pedro de Madrazo ospetsuak, 1886'ean, "España. Sus monumentos y artes. Navarra y Logroño" izen aundiko liburuan onela gorai patzen du gure oltza: "...uno de los más bellos ejemplares de la esmaltación incrustada de la Edad Media... sin rival en ninguna de las más famosas colecciones de antigüedades del mundo".

Biurrun'dar Tomás'ek, "El arte románico en Navarra". 1936'koan, onela dio: "esta imponderable pieza, que cuanto más se la estudia más importancia adquiere".

"Navarre Romane" izeneko liburuan, Dom Luis M.^a de Lojendio beneditar euskaldunak goratarre au egiten dio: "Une des oeuvres les plus importantes de l'art de l'émail en Europe". Eta aurreraxeago: "...cet ensemble de merveilles".

Eta Mañé y Flaquer, eta M. Arigita, eta Gómez Moreno, eta Kingsley Porter, eta abar, eta abar.

Gorai patze ontan danok batera datorz eta itz berdintsukoak dira.

Noizkoa da ordea? Nork edo nundik ekarria? Or zegok koxka!

Orain artio, ez dugu idatz-agiri edo dokumenturik arkitu galdera auei erantzuna eman lezaiekenik. Jakintsuen esanei egon bear beraz; baño auek, gai oni buruz erizpide geienetan oso bereiz dabiltz, nor bere alde. Buru ainbat aburu direla esatekotan nago.

Ointzat ar dezagun au: a) gure aldareburua bizantino tankeran edo estiloan agiña dala. b) esmailgintzak Sorkaldean dula bere asiera.

ertzeko.
ar izaki
o Apez-
ietzkoa-
on gure

gi'ko al-
oraipatu
, luzeegi
rak gure
eta orra-
onterons
qui pre-
tudier le

umentos
raipatzen
naltación
famosas

36'koan,
udia más


Lojendio
uvres les
raxeago :

ta Kings-

oak dira.
k koxka!
a galdera
r beraz;
nor bere

keran edo
era.





Bi esmailgintza mota ezagutzen ditugu: bata "cloisonné" izenekoa; "champlevé" deritzana bestea. Bietan egilleak, egin nai dun irudia arreta osoz metal orri batean marraztu bear du leenik. Gero, "cloisonné" moldekoetan, marra oiei jarraikiz, xafla luze ta me-me batzuk erantsi bear dizkio, ertz gora, utsgune edo ganbeltxoak egiten ditula, irudiaz bidena-bar. Azkenik ganbeltxo oiek esmailez bete. "Champlevé" erakoetan berriz, xixel edo punttako baten bitartez, metal orria (gurean bezela, kobre orria geienetan) emeki-emeki usttu, irudiaren antza eman artio; eta gero, egin diran utsgune oiek esmailez bete. Lan izugarri zalla, agitz etenbera danez, eskutan eta begitan trebetasun berezi-berezia eskatzen duna.

Ejipto'n, Mesopotamia'n, Kaukaso'n, zertxobait Grezia'n eta Persia Sasanidas'ean delako "cloisonné" esmailgintza ori erabili izan zan geien. Sarkaldean berriz bestea, "champlevé" deritzana, Jesukristo aurretik V'gn. gizalditik aitzina, Merobinjio aroraño batez ere.

Batean eta bestean bizantiotarrak izandu ziran maisuen maisu, eta, arian-arian, Europa'n zear zabaldu egin zan aien trebetasuna, beraiek maisu zirala. Venecia'ko San Markos elizan dagon "La palla d'oro" delakoa garai aietako esmailik aipatuenetakoa ditekete. Onako au, nere ustez, diru erakuskeri arrandi bat da, urrez eta zillarrez egiña bait-da eta arri-bitxiz josia. Gureari berriz, naiz diruz txiro ta urri, eskulanez eta endrezuz (arte aldetik alegia) eta frango zaarragoa delakotz, bestea baño askoz ohea derizkiot.

Zaarragoa esan dut. Baño noizkoa?

Galdera oni erantzuteko, nungoa dan jakin bear genuke aurretik. Baño, ontan ere, aburu oso berdiñezak erakusten dizkigute jakintsuak, len esan dutanez.

Burgi Aitak eta beste leenagoko idazle batzuk Sorkaldetik ekarria dala diote, Kruzadatakotan bear ba-da, eta gero Nafarroa'ko erregeren batek, Santxo Aundienak edo, San Migel'era ekarria, eskuikus gisa.

Pedro de Madrazo'k dionenez, Rhin ibaiertzetatik dator (Colonia, Verdun) ango esmailgilleak egiña, Bizanzio'ko ertilariak maisu eta buru ziztuztela.

Beste batzuk (Kingsley Porter, Gómez Moreno) España'ko lantegiren batean egiña dala uste dute.

Erizpide auek danak zearo jarki nai izandu zitun asieran aipatutako Juaristi jaunak. Ortarako, 1929'gnean liburu oso eder bat argitaratu zun, argazki politaz jantzirik, izenburu onekin: "El Santuario de San Miguel

de Excelsis (Navarra) y su retablo esmaltado". Onentzat gure aldareburua Frantzi'ko *Limoges*'koa da ez-bairik gabe, XII'gn. gizaldikoa, agian Iruña'ko Katedralerako ekarria eta gero Aralar'era eramana. Ez dakit bera ere ontan oso ziur zanik, zeren eta urte batzuen buru Donosti'ko egunkari batean (Unidad, 3-8-46) itz auek ezarri zitun: "Es una maravillosa producción del siglo XII, quizás la más completa, *mejor que las que salieron de Limoges*". (azpi-marra nere da).

Geroztik beste askok, frantzitarrak batez ere, Juaristi'ren urratsai jarraiki diete, bero-bai-bero, baietz, *Limoges*'koa dala egiztatu naiean. Alferrik. Beren argibideak ez dute indarrrik aski baietzkoari egoteko ta lengo illunpean gelditzen gara. Bat bakarrik aipatuko dut, ezagun zaidana: Madeleine Gauthier andrea, *Limoges*'ko "Bibliothèque Municipale" delakoaren zuzendaria, esmail gauzetan asko eta asko ikasia. Paris'ko 1963'garreneko "Art de France" aldizkarian erakusi nai izandu zigun gure aldareburu au *Limoges*'tik datorrela eta Iruña'ko katedralerako egiña. Ala dio: "...provenant sans doute de la cathédrale de Pampelune". Aurreraxeago ordea "sans doute" ori "vraisemblablement" bilakatzen da. Duela zenbait urte Aralar'ko San Migel'era etorri zan erretablea ikustera (ez bai-zuen artean ikusi). Bazkal-ondoan elaketan asperalditxo bat egin genun gai oni buruz, eta pilota eskura etorri zitzaidan. Nik ez diot erizten gure aldareburua Iruña'ko eliz-nagusian egondu danik, eta aotik ortzera galdetu nion: —Zertaz, edo zer oin artu duzu gure alreburu au Iruña'ko katedrallean egondu zala esateko? —Eta ona emen erantzuna: —Jauna, zuen bitxi au begiz ezagutzen ez nuela aitortu bearrean naiz, eta orain, ikusi ondoan, utsetik asi bearrean: "je dois commencer d'près zéro". —Ez da geroztik agertu eta jakin nai nuke zer derizkion gaur-egun.

Zeri atxik beraz? Nik nere motzean au esango nuke: Illunpetan gabiltz eta ezin deusik baietzatu oraiño. Ene aburuz, *Limoges*'tik baño, Bizanzio'tik urbillago dago gurea. Ara zergatik:

a) Aldareburuari berari begiz. *Limoges*'ko esmailgilleak geienbat sal-erosketarako egin zuten lan; ango langintza industri bat zala esan nai dut. Eta Juaristi'k berak aitortu zuanez, gurea angoak baño askoz bikañagoa da. Batzuek eta bestea elkarren ondoan jartzea litzake on, nolako aldea dagon ikusteko. Nik ikusi dituten *Limoges*'koak beñikbein (eta ez dira ain gutxi ere) gurearengandik oso azpian gelditzen dira:

aiek eskulangille on-onenak dirake, gurea berriz ertilari edo artista bikañenak. Beraz *artesano* eta *artista* artean dabil jokua.

b) Istori inguruari buruz.

1) "Ikonoklasta" taldeak indar aundia izandu zuen España'n eta baita Europa osoan Xgn. gizaldiaren bukaeraño. Arrezkero gure Pirineo'tan xixelgintzak, irudigintzak eta gañerako ertilanak (romaniko-pirenaiko delakoa batez ere) indar artzen asi ziran. Bisigotiko era izandu zan nagusi.

2) Andaluzia eta Bizanzio arteko artuemanak nabarmen izandu ziran Xgn. gizaldian. Esate baterako, Nizefora Fokas, Konstantinopla'ko erregeak, Al-Hakkan II'garrenari bere langillerik trebeenak bidali zituzkion Kordoba'ra, ango mezkitarako mosaiko miresgarriak antolatzerara.

3) Beste langintzatarako bezela, esmailgintzarako ere maisuak eta langillerik onenak Bizanzio'tik etorri ziran España'ra, eta, iparraldean bereziki, moldatu zituzten esmail-ol eta lantegi onak. Baliteke Silos'ko aldareburua ordukoa eta angoa izatea, España'koa alegia. Ba-liteke...

4) Esmailgintzak beste langintzakin zer-ikus aundia dauka. Auetako asko Sorkaldetik Andaluzia'raño iritxi ziran. An arrakasta aundia izandu zuten, eta, arian-arian, Iparralderaño etorri ta emendik Frantzia'raño joan ziran, Santiago'ra zetorzen beilarrien bitartez batikbat. Alanola:

a) Sedazko irungintza ta eungintza. (San Isidorok dionez, VII'garrenean kasullak eta bestelako eliz-jantzi bikañak egiten omen ziran beñartan).

b) Boligintza edo marfilgintza (Kordoba'n zabaldu zan au ere X'garrenean).

d) Liñabera edo algodoigintza (X'garrenean?).

e) Beiringintza (kristalgintza). IX'garrenean asi omen ziran Kordoba'ko aundikiak kristalezko ontzitan edaten, urre ta zillarrak aldera utzirik.

Esmailgintza Persia'n jaio ta Bizanzio'n azi egin zan, ez ordea *Limoges*'en. Ez ote da ba bidezko esatea, beste langintzak bezela, au ere Sorkaldetik etorri ta, España'n barna, Frantzi'raño iritxi zala? Eta *Limoges*'ko esmailgilleak España'ko iparraldekoengandik ikasi zutela beren esku-langintza?

Aralar'ko aldareburua, besteen aldean, auetan dagerkigu garai eta nagusi, nabari-nabari:

1) Beste guziak baño frankoz aundiagoa da.

2) Besteak baño marrazki askoz fiñagoak ditu, eta margo bikañagoak, bizantinoen antzekoak.

3) Xixeladurak milla aldiz obeak ditu, ertilarri bikañenak diranez.

4) Irudi-inguruko marrazkiak arabitarren "ataurique" delakoa gogorazten digute.

5) Irudien antza edo esan-naia (sinbolismoa alegia) apartekoa da: besteak "Pantocrator" erakusten duten toki berean, onek Amabirjiña ekartzen digu, bizantino era goxo-goxo batean, begi lore, irripar ezti, Pirineo aldeko Amabirjin xalo ta maitagarrien antzera.

Ez ote du onek esan nai gure oltza XI'gn. gizaldikoa litekela, "Iconoclasta" en ekiñari erasotzeko, Amabirjiñarenganako jaiera sortu eta baztar guzietaraño edatu zanekoa?

Or dago koropilloa!

Eta benetan bereizkaitza, alajainkoa!

Nork edo nola ebaki auzia?

Beste arlo askotan bezela, erti eta arkeoloji lanbideetan mutilla dugu gure Don Manuel Lecuona zaarra. Maisuen maisu!

Gai oni buruz ere, pozik artuko genioke bere eritzi baliotsua.

Betarik baldin ba-duzu, esaiguzu zure itza, Don Manuel maite-maitea!

ETA ZORIONAK AUNITZ URTEZ!!

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- II -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Pio Baroja'ren «El cura de Monleón»

J. M. BAZTARRIKA SAIZAR-BITORIA

Milla bederatzireun ta irurogei ta amabigarren urtean (1972), Pio Baroja Nessi jauna zanaren jaiotzaren eun-urtea zala-ta, beraren nobela bat argitaratu zuten, oroimenez: "El Cura de Monleón".

Liburu onek iru zati ditu. Lenengoan, Gazteiz'ko Seminarioan ikasten du apaizgintzarako. Javier Olan du izena. Onen aita ere apaizetarako ibillia omen zan bost-sei urteetan. Askotan gertatzen dana, bide ortatik ateratzeagatik, aurrena batxiller ikastera, bialdu omen zuten izeba batzuek; eta gero, Frantzia'ko kolejio batera, frantzesez ta inglesez ikastera.

Alaz ta guztiz ere, bereari eutsi zion. Eta, bere izeba Paularekin, "externo" bezela, Vitoria'ra joan zan. Eta bi seminario zarretan ikasiaz, apaiztu zan.

Barojak, bi seminario oetako berri ondo xamar ezagutzen zuala, agertzen du. Onen illoba Julio Caro Baroja'k, orain urte gutxi atera berria duan "Los Baroja" liburuan, 275'garren orrian, esaten digu nolatan ikasi zuan ango berri. Apaizgai izandako batek, eta orduan "guardia de asalto" zanak, Pio Baroja'ri Vitorian eman omen zion seminario'ko gora-beraen berri. Julio Caro jauna bera ere, ordurako don Jose Miguel Barandiaran'ekin ibillia zan arkeoloji-kontutan, eta arek berak ere zer-edo-zer erakutsi omen zion seminario'ko bizieraz.

Bigarren zatian, Javier'en Monleon'go bizimodua kontatzen du. Monleon, Euskalerriko iru probintzien muga jartzen du. Monleon, Mondragon omen da. Orregatik, nekazaritza ta lantegiolak dituan erria da.

Ogei ta emeretzi kapituluetan, Jabier'ek erri ontan izan zituan gora-berak eta joan-etorriak azaltzen ditu. Aren konfesio-lanak, erriko apaizakin ta gaiñentzeko jendearekin izandako artu-emanak, arazoak, tentaldiak... Baratzarako zuan zaletasuna... Itz batean, Jabier'en Monleon'go bizimodua.

Azkenean, politika dala-ta ez dala, sozialistak zirala-ta ez zirala, eta

bere arreba Pepita dibortziatutako mediku batekin ezkontzen dala-ta..., asarretzen da. Obispadura salatzen dute, eta leku aldatzea erabakitzen dute.

Eta auxe da irugarren zatia. Nobela'ko zatirik garrantzitsuena noski. Trebiño ingurura bialtzen dute. Kantabria'ko ta Vitori'ko mendien dagon erritxo batera. Ala bear-da, ba da inguru aietan, Baroja izena duan erri txiki bat. Zerbaitegatik bialdu zuan Pio Baroja jaunak Javier Olanan inguru aietara. Pio Baroja'ren familia, Baroja erri txiki ortatik zetorren. Aurretik, jatorriz, Martinez de Baroja zan Barojatarren abizena. Ta Barojak errixka ortakoak ziran. Alde aietara joan zan-ba gure Javier Olanan apaiza.

Bakardade artan aspertu, eta irakurtzeari ekiten dio beñere baiño gartsuago Javier'ek. Madrid'era, Londres'era ta Paris'era liburu ugari eskatzen ditu, eta iru milla peztaen gastua egiten du. Krisis-garaiak arrixku aundia du-ta, bere burua nastutzen asten da. Txorabiotzen. Eta libururik aldrebeseanak irakurtzea erabakitzen du. Adibidez: Salomon Reinach'en eta Chantepie de la Saussaye'ren, "Historia de las Religiones"; Voltaire, Strauss, Renan, Loissy, Frazer, Feuerbach, Waigall'en... liburuak eskatzen ditu. Eta, aldamenean notak artzeko kuaderno bat duala, irakurtzen ditu. Orrela, sinismenean naspillatu ta nastu egiten da. Oztu egiten da. Azkenean, fedea galdu ta sotana uzten du. Orixe da nobelaren gaia ta ardatza.

* * *

Don Pio Baroja'k irurogei ta amabost (75) bat nobela idatzi zituan. Orretzaz gaiñera, rapsodia batzuk, artikulo dexente, ensayok eta baita teatro, antzerki ta olerki batzuek ere. Barojaren lan guztiak, bederatzit bat milla orriko zortzi liburu aundi betetzen dituzte.

Ikusten danez, batere zalantzik gabe, "El Cura de Monleón" au, Barojak, bere nobeletan exkaxenetakoa du. Iya iñungo "Historia de la Literatura" n, naiz onenak izan, ez det arkitu nobela au. Ez dute aitatu ere egiten. Ona emen, liburu-nobela au aitatu ere egiten ez duten "Historia de la Literatura" batzuek: "Diccionario de Autores de todos los tiempos y de todos los países", Gonzalez Porto-Bompiani jaunak egiña.—Ramón D. Pares'en, "Historia de las Literaturas antiguas y modernas".—Angel Valbuena Prat'en, "Historia de la Literatura Española". Eta ori, amar orritan Barojatzaz itz egiten duala.—Gonzalo Torrente Ballester'en,

"Panorama de la Literatura Contemporánea".—Angel Lacalle'ren "Historia de la Literatura".—José Garcia Lopez'en, "Historia de la Literatura Española".—Ezta Martin Alonso Pedraz'en, "Historia de la Literatura Mundial" en ere.—Eta abar...

"Revista de Occidente" k ere, lau aldiz aterata dauka: "Diccionario de la Literatura Española". Askoren artean dago egiña. German Bleiberg eta Julian Marias'ek zuzentzen dutela. Barojari dagokiona, J. Marias'ek berak egiten du. Ta arrigarrigoa da emen gertatzen dana ta onek esaten duana. Asi 1900'etik eta, banan-banan eta errezkadan, urtetik-urtera, Barojaren lanak eta liburuak esaten ditu, Baroja bera, 1956'an, ill artekoak. Berrogei ta bost gutxienez aitutzen ditu. Ta "El cura de Monleón" ez du aitatu ere egiten. Bakar-bakarrik "El Cura de Monleón", nobela au, aitatu du, Barojaren ideak eta pentsakera esaten asten danean. Eta ara zer dion: "El cura de Monleón" nobela, Barojaren nobeletan txarrenetako bat da. (Es una de las novelas menos afortunadas). Baroja, dio Julian Marias'ek bertan, bere buruaren maixu da, au da, "autodidacta". Ez dauka Ikastetxetan artzen dan arnasik. Batere era ta ordenik gabeko jakintza ta irakurketakin egindako eziketa dauka. Nobela onek, bere eziketa ta pentsakerak azaltzeko bakarrik balio du.

Berdintsu diote DiezEcharri eta Roca-Franquesa maixuak euren liburu "Historia General de la Literatura Española e Hispano Americana" n. Erlijio guztien etsaia da Baroja, diote. Berdin kristautasunena. Baita Grecia'tik asita gaur-arteraiñoko filosofiaren oiñarrien etsaia ere. Bere eziketa exkaxa, orri guztietan azaltzen da. Bere burua, gaizki egositako liburu ta irakurketaen naspilla aundi bat da: Kant, Schopenhauer, Nietzsche... Erlijoaren aurka dakarzkian arrazoiak, modatik igarotakoak dira, eta teolojiako lenengo urteko ikasleari ere irriparra ateratzen diote, ta parragurea eman...

Areago oraindik. Barojaren bizitzak izan duan idazlerik onena, Sebastian Juan Arbó jauna da. (Pio Baroja y su Tiempo.—Premio Nacional de Literatura. "Miguel de Unamuno".—1964). Ta ara zer dion S. J. Arbó'k, liburu ortan, 612 eta 789 orrietan: "Barojaren "El cura de Monleón" nobela, Barojaren libururik "tamalgarrienetako" bat da. Naiz artetsu, bizi ta erlijio-jakintza itxurarekin egiña egon. Barojak, dio Arbó jaunak, ez du erlijio-sentimenturik. Ez du erlijio-griñarik. Jendeak salaketa au egin izan dio Barojari, alegia ez duala erlijio-sentimenik. Ba, jendeak Barojari egin dion salaketarik egiazkoena orixe da. Apika ikusi

deten beste idazlerik, erlijiorako ta Jainko-sentimenerako Baroja beziñ itxia danik. Kristau-katolikotasunaren etsai porrokatua izan zan. Schopenhauer, Nietzsche, frantziko enziklopedi-zaleak eta, batez ere, Voltairre'k bultza zioten iritzi ta egoera ortara"...

Berdiñ-berdiñ pentsatzen omen zuan sendagille ta idazle ospetsua izan zan Gregorio Marañon jaunak. Ala esan zidan il-aurretik, oraindik Donostian il-berria dan aita Vitoriano Larrañaga jesuita jakintsuak: "Marañon jaunak zeredozer egin nai izan zuan Baroja'rekin. Baiñan ez omen zeukan nundik eldurik erlijio-gaietan. Barojak etzuan erlijio-senik, esan zidan Marañon jaunak".

Baroja aifñ ondo ezagutzen duan Miguel Pelay Orozco jaunak, ala esaten du bere azkeneko "Baroja y el País vasco" liburuan, 138 orrian: "Baroja alorr guztietan agnostikoa ta sinisgabea da. Ez bakarrik filosofi ta erlijio alorrean, baita gizaketa edo politika, jokabide ta elerti edo literatura alorretan ere".

Kondaira oek danak-ba, Barojaren ainbeste nobela aitatu arren, Monleon'go apaizaren au izendatu ere ez dute egiten. Eta izendatu ezkerro, baztartu ta gutxiesteko.

* * *

Ala ere, Pio Baroja jaunaren jaiotzaren eun-urtea ospatzeko, Barojaren "El cura de Monleón" nobela madarikatu au argitaratu zuten. Eta argitaratu ere, ez beifñ bakarrik. Bi aldiz, gutxieneko. Seguru asko, "El cura de Monleón", Jabier Olan, eta Baroja bera bezela, nobela orren irakurlea ere Kristau-sinismenean naspildu ta fedea galduta gelditu zedin.

* * *

Barojak, bere nobela guztiak, bi alderdietara eratu zituan. Batzuk "trilogia" edo irukoetan batu zituan. Besteak, "Memorias de un hombre de acción" izenean sartuko lirake.

Eugenio Abiraneta, Barojaren urrutiko aide bat, frantzesen eta karlisten gerran ibillitako burrukari bat; orixe da azkeneko liburu oen guztien ardatza. Ogei ta bi liburu dira. "El escuadrón del Brigante", "Los recursos de la astucia", "El aprendiz de conspirador", "El sabor de la venganza", "La nave de los locos"... izango lirake onentxoetak pillan ontan.

Aurrenekoetan edo irukoetan, berriz, "Zalacain el aventurero", "La casa de Aitzgorri", "El mayorazgo de Labraz", "Las inquietudes de Shanti Andía", "Camino de Perfección", "La busca", "La mala hierba", "Aurora roja"...

Barojaren pentsakeran, zer-ikusi aundia izan omen zuan Schopenhauer'ek, bere etsipen illunarekin. Nietzsche'k, berriz, bizitza burruka bezela artzen erakutsi zion, eta indarra gurtutzen.

Nobelaren teknikan, Barojak berak aitortzen duanez, zer-ikusi geyena izan dutenak oexek izango lirake: Frantzitik, Stendhal eta Balzac. Inglaterratik, Poe ta Dickens. Eta Errusitik, Turgeniev, Tolstoi, eta geyenik (beraren illoba Julio Caro Caro Baroja jaunak, len aitatu degun "Los Baroja" liburuan, dionez), Dostoyevski, nobelagille aifñ ezaguna.

Barojaren idazkera, motza, bizkorra, gartsua, garbia ta "naturala" dala ez dakianik, iñor ez da izango. Pelay Orozco jaunak egun aietan esan zuan bezela, Donostiko Ateneoan, Barojaren idatzietan askotan olerkia ta sentipen fiñak arkitzen ditugu. Elestietan batez ere. Oiexek dira noski, Barojaren idaz-lanik onenak. Eta ba-dirudi, idazlearen nortasun sakona ortxen izkutaturik dagola, axaleko asarre-itxuraren azpian.

Aita Inazio Elizalde (Deusto'ko Ikastetxeko Españiko Elerti edo Literaturaren Irakaslea) urrengo egunean leku ortan bertan, esan zigunez, Barojaren nobeletan, apaizak 140 aldiz irtetzen omen dira. Jakiña, era askotara. Bost edo sei eratar. Gudalari bezela batzutan. (Merino, Santa Cruz, Gorostidi). Abade ta kanonigo liburu-zale ta jakintsu bezela bestetan. Beroien akatsak, oitura zuanez, gartsu ta maiz agertuaz. Jesuitengatik ere prankotan mintzatzen da.

Bañan ez ditu, Galdos'en modura, berarekin zer-ikusirik ez ba-lute bezela, ikutzen. Barojaren apaizetan, beste personajetan bezelaxe, Baroja beraren izaera ta kezkek dabilta dantzan. Baroja bera dabill aiengan sartuta barruan.

Au bai dala egia, "Cura de Monleón", nobela ontan. Baroja bera da Monleongo apaiza. Apaiz ontan dabill sartuta barru-barruan Baroja. Irugarren zatian batez ere. Javier Olan apaizarekin bizi dan Paula, berriz, Barojaren ama. Javier'en izeba da nobelan. Eta Barojaren amak berarekin izan zuan zer-ikusia, dauka Paulak bere illoba Javier'ekin. Aurreko urtean, 1935'an, ill zitzaion bere ama Barojari.

1936'ko ilbeltzean idatzi zan nobela au, Madriden. Barojaren azke-

netako nobela. Irugarren zatia, nobela ez baño, ensayo bat da. Barojaren batez ere erlijioko pentsakeraren testamentu edo azkenai bat da. Antxe daude bere iritziak erlijiotzaz, Bibliatzaz, Kristautasunetzaz, filosofiatzaz... Eun orri ta geyago betetzen ditu erlijiotzaz, Kristotzaz eta Bibliatzaz mintzatzen. Esan degu, bere maixuak "racionalistak" eta Frantziko ta Alemaniko protestanteak batez ere izango dira. Kristautasunaren oiñariak egiñala guztian erasotzen ditu. Ogei gizaldi auetan, Kristo, Eliza, Biblia, Ebanjelioen kontrako arrazoirik onenak dirala iruditu zaizkiotzen, an dakarzki. Kristok eta Ebanjelioak izan dituzten etsairik porrokatuenak. Asi bigarren gizaldian, Celso'tik eta, irugarrenean, Porfirio'tik igaroaz, 1936'ko egunetaraño: Lucrecio, Loysy, Feuerbach, Frazer, Strauss, Renan... Aita Elizalde dionez, antxen omen daude Itzea'ko liburutegian liburu auek denak. Asko, azpian marratuta ta oarrakin.

Arritzekoa dana: Harnack oso gutxi aitatzten du, ta ez omen dago Itzea'ko liburutegian. Unamuno'ren liburutegian geyena azpian marratuta dagona, ta Unamuno'ren sinismenean zer-ikusirik aundiena izan zuan idazlea: Harnack.

Baroja jaunak, nobela onen irugarren zatian, Ebanjelio ta Kristautasunaren aurka, klase guztietako arrazoi ta argibide erabiltzen ditu. Danak naspillan eta nastuta. Danak, gorago esan degunez, idazle ta maixu "racionalistatik" artuak. Au da, arrazoi ta izadia bakarrik onartzen dituztenak. Ta fedea, sinismena, zerua, mirariak, goiko-erlijioa... ukatzen dituztenak. Ta arkitzen dituan azalkizun danak artzen ditu. "Racionalistai", denbora guztietan, burura etorri zaizkien guztiak. Dozenaka ta dozenaka. Bat bakarrik aipatu dezagun. Ain zuzen, Barojarentzako garrantzitsuena dana.

Ala dio Barojak nobela onen 305 orrian: "Jesusen bizitzaren kritikorik gogorrena eta jakintsuena, Strauss protestantea da. Ez Renan bezela. Onek apaiz-kutsua ta sakristi-usaia dauka. Voltaire baño ere ohea. Elizak eta katoliku-jakintsuak, ondo egin dute kasorik berari ez egitearekin. Ez bai dauka erantzunik. Strauss'en Jesusen bizitza, bildurgarriko kritika da. Strauss, aari-buru bat da. Erruki gabeko gizona".

Ikusten danez, Barojarentzako Strauss da bikañena, Ebanjelioak ankazgora botatzeko. Ta, aita Elizalde dionez, Itzea'ko liburutegian, Strauss'en Jesusen bizitza, oso azpi-marratuta dago.

Zeiñ da-ba Strauss? David Federico Strauss?

* * *

Erdi-Aroa zear, Adan da Evarena jo-an gabe, bertagotik asi gaitezen. Bigarren eta irugarren gizaldian, Celso eta Porfirio ebanjelioen balioa ta siñisgarritasuna ukatu zuten. Origenes'ek eta beste kristauak erantzun zieten. Arrezkerotik, ebanjelioen kondairatasunaren aurkako idazki berezirik etzan agertzen.

Luterotarrak eta protestantek ere, Biblia bakarrik onartzen zutela, indartu egiten zutela zirudian. Baiñan zirriku bat uzten zuten ustekabean: Biblia irakurtzeko askatasun osoa. Orretzaz gaiñera, pentsakera berriak kanpotik sortzen ari ziran. Pixkanaka, erdi-arotik irtetzen zijoazen eran, Ingalaterran, adibidez, "deistak" sortu ziran. Herbert de Cherbury (1581-1648). Oek, berezko erlijioa bakarrik onartzen zuten. Goiko erlijiorik, izatez-gaiñeko gauzik etzuten onartzen. Onela, Toland, Tindal, Collins, Aslhey Cooper, Priestley, Woolston, Annet...

Iritzi ok denak, Frantzira igaro ziran. Eta Voltaire, Montesquieu, Bayle, Fontenelle, Rousseau, Condorcet, La Mettrie'k... askoz ere obeto zabaldu zituzten.

"Renacimientotik" onuntz, filosofi berri bat ere sortzen ari zan. Aurrekoak utzita, Bacom Verulam, Ingalaterran. Descartes, Franzian. Baruch Spinoza, Holandan. Locke, Hume, Berkeley, Hobbes...

Argi-Gizaldia edo "Aufklärung" iritxi zan. Erlijio aldetik beintzat, Alemanian, beste iñun baño, indartsuago. Leibnitz, Wolff, Kant, Fichte, Hegel, Schelling...

Itz batean esateko, arrazoi-zaletasuna leku askotan sortu zan, eta zabaldu zan, Arrazoi bakarrik onartzen zan. Izakera bakarrik. Izakerazko erlijioa bakarrik. Fedea, sinismena, mirariak, izakeraz-gaiñekoa, zerutikoa, zeru-erlijioa..., etziran onartzen. Baruch Spinoza izan zan aurrenekoetako bat, Biblia'ri goi-arnasa kendu ziona, ta beste edozein liburu bezela irakurri bear zala esan zuana. Luterok, "sola fides" esaten zuan. "Racionalistak", "sola ratio".

Pentsakera onekin berdintzekotan beintzat, bearrezkoa zan Biblia "soiltzea". Bibliatik, Ebanjeliotik goi-arnas guztia kentzea. Mirariak kentzea. Izakeraz gaiñekoa, kentzea. Auxe egin nai zuten "racionalistak". Katoliku askotxo ere kutsutu ziran pentsakera auekin.

Ikusten da-ba, kondairatik baño geyago, pentsakeratik geyago da-

torrela arrazoi-zaletasun au. Burutazio bat geyago dala, ondorio bat baiño. "A priori", "a posteriori" baiño geyago.

Berdin-berdin zioten Celsok eta Porfiriok bigarren-irugarren gizaldietan: Mirariak, Jainkoaren Gizakundea... eziñezkoak zirala. Orregatik, gezurrezkoak, "mitozkoak", ebanjelioak. Gaurko "racionalistak" bezelaxe. Zerbaitegatik esaten da-ba, "nihil novum sub sole".

Pentsakerak, burutaziok... bultza-ta, asi ziran-ba "racionalistak" ebanjeliotik mirarizko dana kentzen. Jakintzak eta kondairak baiño askoz geyago. Goi-arnasa, mirariak, izakeraz-goikoa eziñezkoak diralako erabat; burutaziaz, alde-aurretik.

* * *

Edelmann eta Reimarus alemanak izan ziran aurrenekotakoak ebanjelioak bitan banatzen eta zatitzen. Ebanjelioak soiltzen, eta zerutikako guztia kentzen. Gero Paulus.

Ondoren, David Strauss etorri zan. Barojaren Strauss. 1835'an, Itzea'n Barojak dana azpimarratuta zeukan Jesusen bizitza idatzi zuan. Zarata aundia atera zuan. Bere aurrekoen (Reimarus, Paulus) lanakin, etzegoan iritzkide. Traketsak iruditzen zitzaizkion. Ta baldarrak. Strauss hegeldarra zan. Ta gaiñera ezkerreko hegeldarretakoa. Orregatik, Hegel' ek zeukan erlijio-iritzia artu zuan, bere asmoak betetzeko. Hegel'en arnasa zuan "mitoa", artu zuan ebanjelioak soiltzeko. Mitoa, auxe izango litzake Hegel eta Strauss'entzako: Gertakizun baten bidez, pentsakera bat ezarriko litzaioke Jesusi ebanjelioan. Gertakizunak baiño, pentsakera onek askoz ere garrantzi geyago du mitoan, Strauss'en mitoan.

Mitoen bidez, lenengo kristauak Jesus "idealizatu" egingo zuten. Gogozko Jesus bat, buruzko ta ustezko Jesus bat sortuko zuten. Judioak Mesias baten zai zeuden aspalditik, eta itxaropen eta burutazio auk, mitoen bidez, Jesusi ezarriko zizkioten, onela mirarizko ta arrigarizko Jesus bat sortzen zutela. Ta auxe izango litzake ebanjelioko Jesus, Strauss'en iritzian, jakiña. Ta onelaxe pixkanaka sortuko ziran ebanjelioak. Mitoaz beteak. Lenengo kristauen gogoz, ustez, ta naiez beteak...

Jakiña, Strauss'en gogaketak eta "teoriak" denbora eskatzen zuan. Gauetik goizera ez dira gauz auk erutzen. Strauss'en iritzian-ba, ebanjelioak eratzerako, bigarren gizaldia aurrera joango zan. Bestela bere iri-

tziak ezin zitezkean bete. Etzegoan denborarik lenengo kristauak Jesus mitoaz kutsutzeko ta arrigarritzeko.

Gaur ez dago iñor ez dakianik, ebanjelioak askoz ere lenago egiñak daudela. San Mateorena, 50-55 urteen inguruan. San Marcos eta san Lucas'ena, 60 inguruan, gutxienez.

Strauss'en "inventoak"-ba beren kisa dijoaz ankazgora. Strauss'ek berak bere burua ta bere asmaketak urkatu zituan orrenbeste denbora eskatu zuanean bere gogoak betetzeko.

Ta auxe da Barojaren Strauss. Barojaren Strauss "bildurgarria". "Aari-burua". Au onelakoa baldin ba-da, besteak nolakoak ote dira?

Egia esan, danak antzekoak dira. Danak anaiak dira. Danak elburu bat, arazo bat besterik ez daukate: Ebanjeliotik arrigarri dan guztia soiltzea. Nola edo ala, ebanjeliotik Jaungoiko kutsua kentzea. Edozeiñ moduta, zerutikoa izkutatzea. Ori dana eziñezkoa bait-da. Mirariak eta gauz arrigarri guztiak ezin litezkeanak bait-dira. Jesus gizon-uts utzi bear da. Al dan bezela, baiño gizon-uts. Jesus-Jaungoikoa, ezin leike onartu.

Orregatik, Strauss'en ondorean ere, bide ortatik jarraitu dute, asma-keta-klase guztiak, eta amets-klase guztiak egiñaz, Jesus banatzeko, Jesus zatitzeko, Jesus gizon uts uzteko.

Ta jakiña. "Razionalista" bakoitzak, "maixu" bakoitzak bere era ta bere modura soiltzen eta iñ austen ditu ebanjelio santuak. Zenbat "razionalista" ta sasi-maixu, ainbeste Kristo, ainbeste sasi-Kristo, ebanjelio-ko Jesusekin antzik eta itxurik ere ez daukatenak. Pilatos'ek ez ezik, makiñabat "ecce homo" negargarri egin eta atera ditu jende onek erri tolesgabearen aurrera joan dan gizaldi ontan...

Strauss'en ondoren, Baur irten zan. Gero, Bauer. Tubinga'ko Ikastola. Gero protestante liberalak: Keim, Weiss, Holzmann, Welkauser, Harnack, Renan... eta abar... Gero, "eskatolojistak": Loisy, Wrede... Gero, erlijioen kondaira alderatzea: Robertson, Smith... eta abar... Oek ere, batzuk beintzat, Barojak ba-dabilzki nobela ontan.— Gero, 1921 inguruan, Ebanjelioko esaeraen kondaira. (Formgeschichtliche Methode): Dibelius, Bultman sonatua, Albertz... Oek ere, ibillian-ibillian, Strauss'en bideetara etortzen dira. Oek ez ditu Barojak aitutzen. Seguru asko, 1936'an, nobela au idatzi zuanean, etziran emen ezagunak.

Eta beste "erremediorik" ez dago. Ebanjeliotik arrigarri guztia kentzezkoetan, mitoak, ala ametsak, ala ipuiak, ala ezarketak, ala burutaziok... zer-edo-zer "inventatu" bearra dago.

Arrosari ostu guztiak kentzen baldin badizkiogu, arrosik gabe gelditzeko arrixkuan gaude. Berdin, ebanjelioarekin. "Racionalista" askok ainbeste soildu ta zatitu izan dute ebanjelioa, arrigarri guztia kenduaz, Jesus gabe, ez Gizon bezela, ez Jaungoiko bezela, gelditu izan dira. Ta Jesus'en izatea ere, gizon bezela, ukatu bearrean arkitu dira. Adibidez, Couchoud, frantzesak. Ta beste asko. Arian-arian, ebanjelioko Jesus deseginda gelditzen zaie eskutan.

Izan ere, Ebanjelioak osorik eta dauden bezela artzen dira, ala ez dira artzen. Sinisten zaie, ala etzaie sinisten. San Pedro, san Pablo, apostolu, ta milloika santu ta kristauekin batera, sinisten diegu Kristori, bere ebanjelioari, bere Eleizari..., ala, Judas, escriba ta fariseo, judio asko, ta racionalista ta sinisgabe askorekin..., ez diegu sinisten, ez Eleizari, ta ez ebanjelioari, ta ez ebanjelioko Kristori. Beste biderik ez dago. Ta au, Kristoren denbora ta egunetatik. Batzuk sinistu zioten. Bestek ez.

Baroja auetakoa dala dirudi. Bai, Pio Baroja jauna, sinisgabea, "agnostikoa" da. Barojak berak esaten du bere liburu-nobeletan. Baita, "El Cura de Monleón" nobelan ere.

Ama Xantalen

ESTOMBA, MANUEL

Nere maixu, On Manuel Lekuona-ri, biotz-biotzez.

Oyartzun'dik Irun aldera bazatoz, Arkale'ko menditik begiratuta, zerra bat dirudizu Ayako Arriak. Irundik begiratuta, berriz, Iru Erregeen koroiak. Eta itsasotik bazatoz, arranoaren buru tentea.

Arrano onek bi egal luze, ezker-eskubi: bat, Lapurdi aldera; eta bestea, Gipuzko'ra.

Eta mendimiñak eraginda, aren buru-tontorrera bazoaz..., aizeak arrotutako, aren lumak irudituko zaizkizu atzeko mendiak. Eta aren bizkar-ezurra, Auñamendi'ko mendikate luzea.

Arranoa, ain zuzen, Naparroa'ko Erresumaren leen armarría.

Eta Oyartzun'go ibarra, Naparro'ko zatia, leengo aroetan... Aren zati, moko ta kaia.

Eta Aya'ko Arri'n burua dizun eusko arranoak, zabal-zabal egalak..., aurreko itsasora abia nai bailun.

Eta aurreko itsaso orrek, beso luze bat Irun aldera, Txingudi deritzana.

Eta beso luzeko ukondoak, bi ezur kozkor, ezker-eskubi: Ondarraitz eta Amuitz.

Eta Ondarraitz orren inguruan, Hendaya..., baratzean aztarrika dabilen oillo aldraren itxura dizula.

Eta aren aurrez-aurre, Ondarrabi..., sapelatzaren bildurrez, arresi barruan kuzkur dagoan, txitaldia iduri.

Txingudi'ko beso luze orrek, Irun'era bere esku zabala.

Eta eskuak bost beatz, bear danez: Xubimuxu, Mendibil, Beraun, Ibaieta ta Blaya'ko muiñoak.

Beatzak zabal-zabal..., eta aien artean, iiez jantzitako ibarrak. Ortik, ain xuxen, Irun'go erriak bere izen ori ere: ii, ii-un..., Irun (erderaz Juncal).

Leengo ii-zelaiak, etxe-alderriak orain... Eta etheen artean, kale luzeak...; eta kaleen artean, automobillak mara-mara.

Behobia (Beko-ibia) ta aren alboko Pausoa'k..., Irun pasabidea dala, adierazi nai dizute.

Hendaya..., baratz. Ondarrabi..., kabi. Eta Irun..., pauso.

Eta Irun'go pausotik, bidariak mara-mara.

Bidariak mara-mara, orain.

Eta, leen...?

Bidariak mara-mara, orain, leen eta beti!

Eta Santillo'ren erromesak, mara-mara, Irun'dik. Ala diotela dirudizu, beintzat, SANTILLO'KO ERMITA..., SANTILLO'KO GAZTELUA..., SANTILLO'KO OSPITALA..., SANTILLO'KO KALEA... ta, deitura dizuten lekuak.

Orain zortzi gizaldi ere, bidariak mara-mara, beraz!

Eta, leenago...?

Beste lau gizaldi aurretik, WIKINGO izeneko gizon gorriak ere azaldu ziran.

Ez Pauso'tik.

Itsasotik etorri ziran oriek..., eta Bayona'tik abiatu. Artan kabi egin bait zizuten, eta bertan goxo ta luze lotu, Eskandinabia'tik, usoak bezela, egan egin ondoren.

Doi-doi kristautu berriak, orduan, gureak..., ostu zezateken komentu zaar eta katedral ederrik ez eta..., laister egin zizuten emendik anka.

Eta WIKINGO orien aurretik...?

Erromatarrek ere ezagun zizuten txoko au.

OIASSO'ren izenakin ezagutu ere.

Oyartzun'go erriak gorde dizu, orain arte, orduko izen xaar ori.

Irun'dik Oyartzun'era bazoaz, Andrerregia deitutako arri berexi bat ikusiko duzu, Arkale'ko aitz zorrotzen ondoan.

Eta arri berexi orrek..., zaldunaren irudia, ta latinezko idazpurua, aren oiñetan.

Eta arria..., irudia..., eta idazpurua... Erromatarren aro ta tankerakoak. Erromatarren gudaburu bateren illarria, nunbait.

Zertan ote zebillen baiña, gudaburu ori, bazterretan?

Arditurri'ko meatzen inguruetan, baserri batzuk GAZTELU izena...

Eta GAZTELU oriek, Erromatar gudarien gorde leku edo ta zain etxeak, dirudienez.

Zaindu bai..., baiña nortzuk...?

Inguruko mea gizonak, ziur!

Eta nortzuk ote ziran, mea gizonok...?

Bere gerratetan etsai mutillak atxitu..., meatzetara bota..., eta an jopu egindako katibu gixagaixo aiek, noski...

* * *

Oyartzun'go ibarrak, meatz asko...: eta Zubeltzu eta Elatzeta eta Mokozorrotz eta Meaka eta Arditurri'ko mendietan.

Eta Arditurri'ko meatz ori, danetan aundi ta ospetsuena. Eta au, leen esandako Aya'ko Arri, Arrano dalako orren mokoan kokatua.

Eta Aya'ko Arri orretaz, ipui eta elezar asko, ain xuxen, Oyartzun ibarreko etxe guztietan...:

Eta tontor orietako artzuloetan bizi dala Mari, eusko sorgin guztien Ama ori; eta Jaizkibel'go aitzetara aldatzen dala, udaberrero; eta ala, udara itsasertzean, eta negua Aya'ko Arri'n ematen dizula...

Eta an ere bizi dirala, Aya'ko Arri'n, alegia, Mayak edo ta Maitagarriak. Eta aien mutil, Intxintxuak, mendiaren erraiak landu zizkitela, eta leku ta bazter ederrak egin aientzako, an bertan. Eta antxe bizi zaizkizula, arrezkero, urrez betetako jauregi aberatsetan. Eta eguzkitara ateratzen zaizkizula, noizean bein, urrezko orrazi ta urrezko kilo ta ardatzakin...

Jentillen aroko gauzak adierazten dizkizute, beraz, elezarrok. Eta ala izan ere..., orduko tresna, ta aztarna asko aurkitu izan bait dizkizute, ipui oiek izendatutako, mendi ta artzuloetan.

Guztiok zirala ta, gizon bat ausartu zitzaizun bein, Arditurri'ko zuloen barna, soka luze bat gerrian, eta errexil makil bat eskuan.

Eta zuloak..., bide luzea. Eta bideak..., arpe zabalak. Eta arpe zabalak..., bide-kurutze ugariak. Eta bertoko utsarteak..., goi makodunak. Eta makodun ormatzarrak..., koskaz beteak.

Ai ibilbide aren luzea...!

Ai meabide aren ezin bukatzea...!

Mea-zuloak bait ziran..., eta ez sorgin-zuloak!

Ala adierazten zizuten, beintzat, arpetako zakar-pilloak..., ormetako tresna-koskak..., eta kearen arrasto beltzak.

Mea-zuloak..., eta Erromatarren meatzak!

Ala zioten, beintzat, Erroma tankerako makoak..., eta an aurkitutako xoxak..., eta bertan jasotako argiontzi ta pitxarrak.

Emen inguruan zetzan, beraz, Erromatarrek deitutako OYASSO'ko uri ta kai ura... Arditurri'ko meatz aberats onek eragindako uri aundi ta eder ura...

Emen inguruan..., baiña nun?

Oyartzun'en...?

Ondarrabi'n...?

Irun'en...?

Irun..., oraingo erririk aundiena..., Oyartzun'go ibar luze-zabalean. Orain, bai...; baiña, leen ere ala ote...?

Ken izkiozu, azkenengo urteotan, geiegi janaz, itsasi zaizkion gantzak..., eta etzanda dagoan, gizonaren antza dizu Irun xaarraren soin giarrak: ... Olazabal'go tontorrean, burua; San Juan-arriko plazan, gertia; eta oin bat, Irun'go Andra Mari'ren elizan, eta Ama Xantalen'go ermitan bestea.

Ez da bera..., gauza aundi!

Andra Mari elizaren plazako ormatzarra, orma zaarra ere... Erromatar arokoa, itxura danez.

Susmoak eman, eta ango lurrak zulatzen eta aztertzen asi. Eta orra..., susmoak egi biurtu: lurrarekin naasita, sekulako pitxar-pilloa aurkitu..., ontzi ugari ta ederrak...; Erromatarren tankerakoak, eta leenengo gizaldikoak.

Eta susmo berak jota, beste zangoaren oiña duzun, Ama Xantalen'go ermitan ere, lan beretan asi. Asi ta segi, segi ta jarrai..., gauza geiago ta bitxiagoak aurkitu emen.

Ermita barneko zola larrutu..., eta Wisigoten aro ta tankerako elizatzoa agertu.

Eta ona, egi biurtu..., Irun'en beti entzun izan duguna: Ama Xantalen'go elizatzoa, Irun'go Andra Mari baiña zaarragoa dana. Bai ote gero, beste zaarragorik, Euskalerra osoan?

Sakondu geiago, oraindik..., eta Erromatar jentillen beste elizatzoa bat aurkitu, aurrekoaren azpian.

Ekin geiago, oraindik..., eta eundaogei eltze agertu. Eta eltzeok, gorpu auskiñez beteak. Eltzeok..., danak buztinezkoak, eta naiko zarpaillak. Eta eltzeen artean, kristal urdiñezko ontzi eder bat.

Zulatu, oraindik, geiago..., eta beste orma bat aurkitu, aurreko guzti orien azpian, eta oriek baiña zaarragoa.

Aurki-maurkiok begietan jo bai..., eta asma ta asma utzi nauzute luzaro..., zer eta nola ta norenak daitezken, jakin nairik.

Aztertu dizkitzut lekuak..., irakurri zure idazkiak, on Manuel! Alper gaiztoan baldin bada... Alper gaiztoan, ez... Ez didate ez, gauza osoa adierazi ez eta izkutu-mizkutu guztia agerrezari... Bai, baiña zati batzuk, eta zati ederrak azaldu...

Orduan, irudimen, nere lagun sorgintxo oni deitu..., eta, or-emen bildutako zati bakan oriek, gantzu bereixi batez, elkar eratsiki bai..., eta ona, besteak beste, zer gorputz..., zer kondaira-gorputz egin eta jantzi dizudan, on Manuel!

* * *

Kristo'ren eundaka urtez aurreko Feniziarak..., geroko Wikingo aien antzekoak. Aien antzeko mariñel trebe bai! Aien alderantziz, merkatari trebe ta saiatuak, baiña.

Feniziarak, bada, Wikingoak gero bezela, itsaso guztien barna zabaldu, eta aien ertzeko erriekin arremanetan sartu. Arremanetan sartu, eta artarako bear beste kai ta tegiak jaso...

Berebat ere egingo zizuten, geroago, euskaldunak..., Terranoba, Canarias, Brujas, Rodas, eta orrelako beste lurralde askotan.

Bayona'n zizuten Feniziarak orrelako arremanen kai eta tegi bat. Eta Bayona..., Akitania, lur aberats orren irtenbiderik nagusi ta kairik ederrena.

Feniziar oriek sorkaldeko istarri, lurringai ta jantziak ekarri..., eta sorkaldeko urre, urraida, zillar, burni, estaiñu, berun, ots, meaki aberatsak eramaten zizkizuten.

Eta Bayona'tik Gaskuiña'ko kolkotik bee aldera zetozten bein..., Txingudi'ko beso ontan sartu zitzaizkizun, nunbait, itsasaldi gogor batek jota.

Eta aize-oial gorritz jantzitako ontzi aundi ta eder ura ikusitakoan, Oiassotarrak Bidasoa'ra, buruz beera..., zer eta nola ta zertara zeterren..., ikusi naiean.

Eta Bayona'n euskera lardaskatzen asitako Feniziarak, bere ontzian zekarzkiten, meaki aiek Oiassotarrei esku-ikusiz eman; eta an bertan, Oiassoko ibar artan alegia, alakoak aurki bide zitezkelara ere, adierazi.

Oiassotarrak begi onez artu, eta baita orrelako meaki aberatsak aurkitzen asteko prest zegoztela, agindu ere...

Bidasoa'tik urrean... Zubeltzu ta Elatzeta'ko mendiak.

Andik zear dabiltz gora ta beera bertako ardiak, uda ta negu.

Eta ALTZUBIDE izena, ain xuxen, bitarte ortako baserri batek.

Bi mendi orien bitarteko OLAKIÑETA'ko zokora eramango zizkizuten, bada, bertoko artzaiak bere lagun berriok; eta berton, aiekin saio-tan asi.

Zula ta zula..., eta ona!, burni, berun eta zillarezko mea-adar luzeak aurkitu...!

Oraindik, ageri diran, makodun zulo ugariak, lekuko.

Aien oraingo ZOLOZARRETA izen ori adierazle.

Ango JAROLAZAAR, JAROLABERRI, MENDIOLA eta OLAKIÑETA..., baserri orien izenak usnaille.

Gero, ALTZUBIDE orri berari jarraituz, Aya'ko Arri'ra abiatu bai, artzaien uda leku ortara...; eta aren oiñetako Arditurri'n zulatzen asi...; OLAKIÑETA'ko antzeko meatzak aurkitu...; ugariagoak baiña, aberatsagoak...

Orra, bada, berton, mea pitxi ta tresna eder aiek..., kanpotik garrarioan ibilli bearrean.

Kanpotik..., ekarri bearrean, leen, bai!

Kanpora..., eraman bearrean, orain!

Nun eta nundik, baiña...?

Olakiñeta'ko bidea, Urune'ko zabaldira... Urune'tik, Ibaieta'ra, Olaberria'ko ballaratik barna... Eta Ama Xantalen'era emendik, tontorrez-tontor.

Arditurri'ko ibarretik Pikoketa'ra, bidea zearka... Emendik, Gantzamuiño'ra... Eta Altzi'ko zabaldira, andik goitik-beera... Eta Altzi'tik Urune'ra..., leen azaldutako bide zarrari loturik geldi arte...

Eta emen..., Ibaieta'ko oiñetan, oraingo Ama Xantalen egon dagoan lekuan egin Feniziarrek, arreman berri orietako bear zizuten kai egokia.

Araño zoazkizu, orain ere, itsasaldiak, bere urgoretan.

ESTRATA izena dizu Ibaieta'ko bide arri-suak.

Eta sorkaldeko bide orretara begira ere duzu, orain itxita daukazu, ermitatxoaren ate xaarra.

* * *

Andik laister, Asurtarrak Feniziarren lurralde ura artu..., sakail-

du..., eta ondatu bai..., eta betiko alde egin zizuten emendik merkatari trebe aiek.

Aiek joan..., eta besteak etorri!

Feniziarrek joan..., eta Erromatarrak etorri!

Noiz eta nola...?

Kristo jaio baiño berrogei ta sei urte aurretik, Julio Cesar'ek, Akitania'ko lurraldean burrukan ibilli ondoren, Bayona'ko uria artu zizun, eta Lapurdun izena jarri.

Feniziarrek emendik alde egin, eta Erromatarrak agertu ziran emen, lareun urte bitarteko orretan, Oiasso ta Bayona'ko euskaldunak bere leenengo arremanetan jarraituko zizuten, ziur aski, eta ala lortuko ere noski emen, Akitania'ko jangai ugariak, beren meatzetako emarien truk...

Erromatarrok Feniziarrek baiño meazaleagok..., laister ikasi bide zizkizun Julio Cesar orrek, Bayona'ko kai ortan..., ikasi ta ikusi ere bai, noski..., Oiassoko meazati ederrok.

Beste Cesar ere agertu zitzaizun geroxeago, Augusto zeritzana..., gure alboko Kantabro'en gerrate artan agertu ere. Baita, Mindio, mendi zut aren bizkarretan ere, betiko galduerazi Kelte'n azken ondakin setati aiek.

Gerrate gogorra izan zan, izan ere gerrate luze ura; eta katigu asko ere egin zizkizun berton, eta alako geienak meatzetara bota, eta an betiko lotu.

Meatzetara bota bai..., baiña nungo meatzetara?

Inguruetako euskaldunen meatzetara, noski!

Meatzok, aien ondoan..., eta itsas-inguruan gaiñera..., itsasoz eta laister ekarri bide zitezken bertora, nai aiña katibu. Ez zegoan ere, andik iges egin zezatekenen bildurrik. Euskaldunak Keltan etsai amorratuak agertu..., eta aiekin, urte luzeetan, burruka latzean ibilliak bait zenituzun.

Euskalerrira, bada, bota...!

Nungo bazterretara, baiña...?

Ona emen, Euskalerriko orduko iru kairik nagusienak, Erromatarren aitormenaz: Flaviobriga..., oraingo Bilbo'ko inguruan.

Oiasso..., Bidasoa'ren ertzean.

Eta Bayona'ko Lapurdun..., Akitania'ko ate aurrean.

Eta Somorrostro'ko Triano'n, burni-meatz ederrak aro artan asiak, ain xuxen...; Flaviobriga ori, Triano'ko meatzen kaia, beraz.

Oiasso..., Bidasoa'ko meatzena.

Eta Lapurdun..., Akitania'koena.

Bazter orietara botako zizkizuten, bada, Erromatarrak, Kantabria'ko gerratean egindako, katibu pilloak.

Eta Oiasso'ra bota, batez ere.

Ala adierazi bide dizute, Erromatar oriek Arditurri'n egindako lan gaitz eta ikaragarriak. Lan oriek ikusi dizkizuten jakintsuak diotenez, SEIREUN langille bear izan zizkizuten, BERREUN urte luzetan, ainbeste ta orrelako zulo luze-zabal oriek egin aal izateko.

Alako zerbait ere esan dizute, Oiasso ontan agertutako ainbeste ondomoko ederrok.

* * *

Pozik artu bide zizkizuten euskaldunak, ordurarte etsai izandako Kantabro zital aiek, bere meatzetan katibu.

Pozik ere bide zitezken bertoko artzaiak bere ardilarreak, sasi, ote, iñar eta egurrez garbitzen ikusi zizkizutenean...

Pozik, batez ere, Bidasoa'ren erribera ta zabaldietako baserritarrak, beren baratzetako ale, arnari ta barazkiak, aiei saldu aal izateko.

Beti iraun aal zizun baiña, bertakoen pozaldi au...?

Ez da orrelakorik sifisterik errax!

Katiguekin bat, Erromatar gudariak ere etorri zitzaizkizun bertora, aien zai ta agintari. Arazoetan arro, eta arremanetan zikoitz..., makiña bat liskar sortu bide zitzaizkizun aien eta bertakoen artean.

Ba zenun au baiño okerragorik ere.

Latza..., oso latza zenun, ango orduko mea-langintza ori.

Sekulako egur-pilloak egin bear zizkizuten, egunero, aizkora utsaz egin gero...! Zama gaitz oriek, mea-zulora eramane, urren... Su aundiak egin, ondoren, zulo-barnetan... Eta ango ormatzarrak naiko berotu izan aal zizkizutenean, suillaka ekarrirako ur otza bota, gero, aien gaitzeta-ra... Eta ala egindako artezietan ziri luzeak sartuta, maillutzarrekin jo ta jo jardun, atertu gabe jardun bai, bertoko arritzarrak, ra-ra..., jalkierazi arte.

Eta suaren lanbidea, beste lanbide guztiak baiño okerragoa, oraindik!

Suaren gar biziak, zulobide luzeetako arnasgaia iraungitzen...; eta meagizon gaixoak ke ta meatz-auts arnas lodi ta zikiña artu bear, eguratseko aize garbiaren ordez.

Laister galduaz joan zitzaizkizu, orrela ango mea-gizonak, bata bestearen ondolik.

Galduak galdu..., galdu onen zoritxarra!

Eta nun billatu, billatu ere, galdutako oriei txanda artu legien gizon berririk?

Ingurako gerrateak bukatu, eta ezin, ba, ekarri orain katigu berririk, iñungo aldetik. Leengo jopu zaarrak ere gutxitzen ari, eta geroago ta garestiago aiek erosi ta onaraiño ekartzea.

Bertokoak deitu bide zizkizuten, orduan, aien lan bitxi orietara sartzeko, arren bai arren eskatuz.

Gogoz artuko zizkizuten Bidasotarrok atari zabaleko aizkora-lanak, sari ederraren truk. Nekez baiña, zulo barneko erio-usaiñeko lan iguin-garri aiek.

Gaitz gaiñera, Erromatar arro ta zikoitz aiek euskaldun xume ta kidezaleekin bat etortzea... Eta ardi bat galdu zala, mea-zati bat falta zala ta..., maiz agertu bear alkar arteko liskarrak.

Orrelako lapurketak zirala ta, gogor artu zizun, bein, gudalburu batek inguruko artzai aierkor bat.

Artzai ori, gudalburuak emandako zigorrez, agitz asarretu bai, eta aren mendekuaren eske ta zai gelditu sukoi.

Arkale'ko mendian, Erromatarrak beren gaztelua, Peloaga deritzanan, Altzi ta Gaintzurizketa'ko muiñoen erdi-erdian.

Arkale'ko mendi onek zati bi egiten dizu Oiasso'ko ibar ederra...; Bidasoa'ko zabaldia ipar aldera, eta Oyartzun'go muñaskak ego aldera bananduz.

Eta Peloaga orren ikustoki orretan, Erromatarrak bi alderdi orien joan-etorri guztien adi.

Eta gaztelu orretatik ere zabaltzen Elatzeta, Zubeltzu, Erlaitz, Beliz eta Mugarriluze'ko tontorretara, ango meagizonen gudari-zaiak.

Ori danen jakin gaiñean, Altzi ta Arkale bitarteko Andrarregi'ko zokoan gorde zaizu aierkor dalako artzai ori. Eta an, bere etsaiaren zai geratu.

Ba dator au, tapa-tapa, bere zaldi gaiñean, arratsaldeko illunabarran, Altzi'ko bidetik beera, Arkale'ko gaztelu orretara.

Zalduna agertu..., ta artzaia gorde!

Gorde..., eta bere ustai ta geziak ager!

Eta bere ondo-ondotik dizunean..., zast!, gezia jaurti..., eta zintzur ezurretik gudariari sartu.

Sartua sartu..., gudari ori, plaust lurrera, txintik ere atera gabe...; eta artzaia laisterka batean, otsik atera gabe.

Urrengo goizean, zaldizko gudariak..., Erlaitz eta Pagogaiña'ko zabaldeen zear.

Artzaien atzetik datoz... Eta bideetan aurki aal izan dizkizuten guztiak, geziz txautzen joan dijoazkizute. Amar artzai ala garbitu..., eta Erkale'ko Peloaga'ra, berriro.

Gau artan, Erromatarrek Andrerregi'n negarrez, bere lagun bakarren illetetan.

Eta Euskaldunak Erlaitz'ko gaiñetan, bere amar artzai laguneren erostetan. Eta ikusi ere, ikus bide zaizkizu aien itzal beltzak, sugarren inguruan, dantza larrietan...; eta entzun ere, aien adar-soiñuak entzun, aizearen egaletan.

Urrengo egun batean, Erromatarren gudaritariko batek, jaizkibel-arritzar bat artu, eta ildakoaren irudia bere idazpuruakin xilkatu zizun bertan...; eta aren gorpu-auskiñen gaiñean, illarritzat jarri gero.

Ez zaie baiña Oiasso mendiko artzaiei bat ere atsegin izan Erromatarren BATEKO AMAR, lege zital ori. Eta beurek ere lege ori berari jarraitzeko asmoa artu dizute, eta mugonaren zai geratu zaizkizu.

Eta ona, mugona etorri, noizbait.

Gudari-talde bat etorri zaizu Txingudi'tik barna, Ama Xantalen'go kaiera. Eta Arkale'ko lagunetara joan gero, bertoko gudari zaarren txanda artzeko asmotan.

Jai aundi bat antolatu dizute zaarrak, gau artan, etorri berriei ongi etorri bero bat emateko gogotan.

Eta gauaren gauean..., erdi moskortuta dagozten unerik makurrenean, adarsoiñu eta geziaren txixtua, gazteluaren inguruetan... Maiatik altxa, ba, iskilluak artu..., eta danak kanpora, anak arin...

Eta ona, itzal batzuk beuren aurrean, Oyartzun aldera, laisterka bizian. Bai...? Aien atzetik eriosuar, erromatar gudariak.

Andik ez urruti, Antzillaitz'eko zelai gaiñean dituzunean..., ona mozoluaren antzeko oiua negargarria! Oiua entzun, eta igesleak tenk egin bertan; eta Erromatarrei gogor erasotzen asi.

Ustegabeko itsupustu artan, Erromatar batzu albotara zabaldu; eta atzera egin beste batzuk, an datozenekin topo, pillo ta bat egiñik...

Inguru guztietako sasi ta larrak, basakatuaren antzeko begiz beteak. Eta andik eldu diran gezi, xabalin eta aizkorak! Eta Erromatarren istillu, karraxi ta estutasun larria! Etorri berrikoen larria, batez ere, leku basati, illun eta ezjakin artan pausorik ere eman eziñean...!

Atzera, beren Arkale'ko gaztelu aldera, jo dizute aietako gudari zaarrak. Ango bidea ere itxita ordea..., eta ango lana, mutillak! etsaiz jositako bide estu ura ezin garbiturik.

Arkale'ko gazteluan geratutako gudariak, beretarren istillua sumaturik, beren egonetik irten, eta atzeko bideburuko artzaiei erasoka asi...

Eta gure artzai oriek..., naikoak, bateko amar bai, garbi dizkizute la ta inguruetako baso beltzetan bat batean galdu.

Urrengo egunean, Olakiñeta'ko zokoan meatzetarako metatutako, egurpilloak Arkale'ra lerro luzeka..., barteko erasoan jausitako, Erromatarren EUNDA OGEI gorpu aiek erretzeko.

Eta gau artan, Arkale'ko tontorrean ikusi zan suaren aundia, suaren dirdira! Eta andik alde guztietara eldu ta zabaltzen zan erre-usaiña!

Artzaiak bitartean, inguruetako menditik, ara begira, eta bere artean, solasean:

—"Ori duk arragoa ori...! Ori agoia... Or bai, totxo ederrak!".

Andik egun batzuetara, Arkale'ko Erromatar gudariak Irun'era lerroz-lerro... Lerroz-lerro, eta ixil-ixillik, ibilgune luzean..., eltze bat baikoitzak eskuetan gora..., eta aien eunburu edo zenturionak, kristal urdiñeko ontzi ederra.

Eta Ama Xantalen'era iritxitakoan, bertan tenk. Eta ango lurra arrotuaz, bertako zuloetan eortzitzen dizkizute bere laguneren gorpu-auskiñez betetako buziñezko ontzi aiek. Eta urrengo egunetan..., aien gaiñetan..., eta aien omenetan..., elizatxo bat eraikitzen asi.

Eta an egon zaizkizu orain arte, BURRUKA-ZELAIAN (izen ori dizu, ain zuzen ere, Antzillaitz'eko baserri batek), burruka zelai orretan erori ta ildako gudari taldea eta aren eunburua...

An egon bai, mende ta mendetan, jentillen eta urrengo kristauen otoitzak entzun eta entzun.

Don Manuel de Lecuona en Calahorra

FERNANDEZ OGUETA, JESUS

OBISPADO DE CALAHORRA
LA CALZADA Y LOGROÑO

Calahorra, 23 de octubre de 1976.

Rvdo. Don Juan José Garmendia
Tolosa

Estimado compañero :

Cumplimentando su amable escrito de fecha 15 de los corrientes, puedo manifestarle que mi querido profesor de Vasco, Griego bíblico, Hebreo y Arte, don Manuel Lecuona, estuvo establecido en esta ciudad desde el año aproximadamente de 1945 hasta cerca del año 1960, dedicando todo su tiempo al estudio en los archivos diocesano y catedralicio, tomando importantes datos de las actuales diócesis de Vitoria, Bilbao y San Sebastián, puesto que venía "pensionado" por la entonces diócesis de Vitoria y siguieron posteriormente ayudándole las otras dos.

Su tarea fue importante porque desempolvó escritos antiguos importantes, de los que llevó sus copias cuando marchó de aquí. Aprovechó su estancia para cuando topaba con escritos relacionados con esta diócesis, se prestaba muy humanamente a dejárselos patentes al Canónigo Archivero, incluso publicó trabajos en BERCEO sobre la Catedral —pienso que es el mejor trabajo que sobre esta Catedral se haya publicado hasta ahora, orientando no poco en muchos trabajos que se han ido haciendo y que han dejado regusto en su lectura.

Puedo manifestarle que estuvo a punto de quedarse por aquí al ofrecerle una canonjía en esta Catedral, con el fin de que hubiera seguido trabajando con esa competencia suya excepcional y esa intuición que ha tenido siempre en toda clase de trabajos de investigación. Investigador muy ordenado, pulcro, exquisito, prudente, dejó una estela de afecto sincero entre quienes le tratamos aquí.

Influyó no poco en la investigación de la historia de Calahorra, orientando a investigadores que pudieron hacer estudios importantes por su perfecta orientación.

Sacerdote cien por cien en todo momento, delicado con todos, dio testimonio de su virtud y exquisita formación de la que tuvimos la suerte de recibir en el Seminario de Vitoria.

Es cuanto puedo decirle al respecto.

Saludos a mis queridos condiscípulos en Tolosa, Mons. Irulegui, Arrillaga, etc.

Si es usted pariente de don José María Garmendia, condiscípulo de estos amigos, dele un abrazo muy fuerte y dígame que le recuerdo muchísima y con alegría y contento.

«Xenpelar»

XIX'garren gizaldiko bertsolaria

GARMENDIA'TAR ION, "ZELETA"

Orain 40 urte, gure Lekuona'tar Imanol apaiz jaun agurgarriak argitara eman zigun bere "LITERATURA ORAL EUSKERIKA" bertso-gaiezko liburu mardul guztiz irakurgarri ta jakingarrian argiro azaltzen digunez, "XENPELAR" izan zan Euskalerrria'k XIX'garren eunki edo gizaldian izan zuan bertsolaririk bikaiñenetaikoa; eta Lekuona jaunaren esan au egiztu eta indartzera ba'letorkigu bezela, ara zer digun, Jauregi'tar Koldobika "Jautarkol" olerkari goretsia zanak, geroago, aren bertsorik txalogarriekin, ederki orniturik, argitaldu zuan "XENPELAR" liburuan:

"Xenpelar, bertsolaria dezu, soil-soillik, burutik oñetara bertsolari. Bertsolari erritar eta errikoi-uts. Ortik datorkio bere izenari gure erriak erantsi dion dirdira. Irudipen biziko ta biotz-xamurreko erritar olerkaria, euskal-gizartearen biotz-taupadak igarri ta bertso borobilletan abesten yayoa, erri-xearen alde, nun nai eta beti, bere abotsa jasotzen kementsua, plaza-gizon trebe, atsegin eta guzien begikoa".

Eta "Xenpelar" zana, Pernando Amezketarra baño bertsolari osoa, bertsolari doai eta bikaintasunez ornituagoa izan zala oarrarazi ondoren, Jauregi jaunak aberaski ta bereziki sendotzen digu bere aburua, esanaz:

"Emeretzi'garren mende edo gizaldian beintzat, bertsolaririk ospetsuena, Xenpelar degu. Aren bertsoetako iturria, aren edozein gaietaz eta iaz-neurtu zaillenez mintzatzeko erreztasun arrigarria, geroztik ere bertsolari gutxitan aurkitu izan ditugun doai bereziak dira. Inñundik ere orrengatik Xenpelar'en bertsoak pranko entzun oi-dira gure egunetan ere, ainbat bazterretan; eta "Xenpelar" izenaz, alako oroipen maitekorraz, gure agure baserritarrak oroitzen dira".

"Dana-dala, —dio Jauregi jaunak—, Xenpelar bertsolari-malla goi-goienetakora igo zitzaigula, ezin ukatu beintzat. Ezagutu zutenak esan

digutunez, 12 urte zituenerako bertso jatorrak botatzen asi omen zan. Bertsolari jaioa nunbait".

Ala izan bear, ain gaztetatik bertsoak kantatzen asteko. Oraindik oso gazte zala, bere lagun kuttun "Muxarro"-kin lantegian izan zuan bertsozko eztabaidako bertso au, ezagunenetaikoa-da, euskaldun bertso-zaleen artean:

"Aizak i, mutil mañontzi,
nagusiari goraintzi:
ez-alekian or pipa artzea
ez-dala lizentzi?
Jenio txar oiek utzi,
bestela ezurak autsi;
Giza-legea nola bear dan,
ezin erakutsi!".

Aipagarria ta kantagarria da, "BETROI BATEN TRATUA" deritzaion sailleko bertso luze ta esanai aundiko au ere:

"Oraindik gaztea da,
—ogeita sei urte—,
ernari omen dauzka
bost illabete.
Nik, ez diyot igartzen;
ala esan dute.
Gezurra baldin bada,
engañatu naute:
ezurak txit torpe,
zañak dauzka fuerte,
—aragia aparte—,
zeñek nai-du merke?
Zikiro baten truke
salduko nuke!".

Guda edo gerraren aurkako bere bertso-sailleko au ere, ez da txantxetakoa:

"Ez naiz ni, gerraren-zale,
baizik pakearen alde:

zeñek nai-duen galde,
berari tira alde.
Bala bat sartu buruan,
aspertuko-da orduan!".

Xenpelar'ek, berezko gogo ta jakinduriz, oso zuan maite EUSKAL-ERRIA. Onako bere aapaldi biotzkoi onek, zer besterik adierazten digu?

"Gu gera, iru probintzi,
lengo legerik ez utzi;
oieri firme eutsi,
naiz anka bana autsi...
Jayoko dira berriyak:
Gu gera EUSKAL-ERRIYAK!".

Tamala, pena aundia, Xenpelar bertsolari ikasia edo eskolatua ez izatea! Baldin ala izan ba'litz, noraño igoko ote zan gure bertsolari arrigarria?

Liturji-euskeralpenen kondaira

GAZTAÑAGA'TAR JESUS'EK

*Lekuona'tar Manuel jaunari
bere gidaritzaren aitopen-opari.*

SARRERA

Esaten ez da erraza, noski, Lekuona'tar Manuel jaunari zenbateraiño zorra dion Euskalerrri'ak LITURJI-EUSKERALPENAK dirala-ta. Liturjia euskeratzeko langintza ori bere zabalean arturik, Lekuona izan dala esan bear gidari ta biotz, iraupen-indar eta arnas, arduradun eta buru. Urtez-urte beraren ondoan elkar-langintzan jarduteko zoria izan dugunok, ba-dukegu esatekorik aski arlo ontan.

Ongi dakit, Lekuona berari ezer gutxi erantsi ta geitu dezaiokedala, emen idatziko ditudan xeetasunen bidez; aalik geien txalotzen saiatuko ba'nintz ere, gutxi jasoko nuke. Izan ere, or dago bere bizi guztiko lanik pozgarriena, sakonen eta bikaiñena; lana or dago egiñik eta nik ez dezaioket ezer erantsi ta geitu. Baiña gutxienaz ere, burutu duan langintzaren alderdi batzuk izendatzea, garaitu dituan zailtasunak gogoraztea, lortutako aurrerapenak bereziturik adieraztea, zor diogun aitopena dala, ezin ukatu; omenaldi izateraiño irixten ez ba'da ere, bedi esker onezko aitopen bederen.

LEKUONA'REN MAIXUTASUNA

Euskera landutzen bai itz-neurtu edo olerkiz eta bai itz-lauz, beti maixu izan da Lekuona, Gasteiz'ko Apaizgaitegi zaarrean "KARDABERAZ BAZKUNA" sortu zuanetik asi-ta. Gauzak euskeraz ongi esaten, argi ta garbi idazten, benetan idazle-eskola bikaiña izan zan "Kardaberaz" ize-neko ura. Ortaz gaiñera, gerora ere zenbat eta zenbat idazlek ez ote dizkiote Lekuona'ri eraman beren idazlanak, berak irakurri ta aztertu ta txukundu ditzaizkien bere ikutuz! Zenbat "itzaurre" ez ote ditu idatzi euskal-liburueri bideak irekiz eta idazleak plazaratuz!

Oso gogoan gordetzen duan beste langintza bat ere burutu zuan: KRISTAU-IKASBIDEA. Ain zuzen, Gasteiz Eliz-barruti osorako berritu egin zuten Astete'rena. Lekuona'k euskeratu zuan, gero ORIXE'ri iker-tu-erazi, ta urrena arzipreste-talde baten esku ipiñi; talde onek aste be-teko elkar-langintzan aztertu zuan. Azkenik, Euskaltzaindia'ri aurkeztu zion Lekuona'k, Azkue ta Altube'rekin elkar-izketan eztabaidatzen zute-larik. Eta au guztiaren ondoren, Eguzkitza'ri eman zioten, egitura bera gordeaz, bizkaieratu zezan.

Beste era batera adierazten ditu gauzak A. Villasante'k (Hist. Lit. Vas. 393'gn orr.), baiña Lekuona berari ikasita dakizkidanez, goian esan bezela izan ziran lanak. Bestalde, A. Villasante'k betiko akatsak eta "terminachos" egozten ba'dizkio ere, iñork ez lezake ukatu, aurrerapen aundia lortu zutela euskera garbiagoa, ohea, argiagoa egiten. Euskeraz bes-terik ia ezer irakurriko etzuten ainbeste ta ainbeste euskaldunen ikasbi-derako benetan garrantzi aundikoa izan zan KRISTAU-IKASBIDE berria.

Ortan egindako elkar-langintzak, eta euskera errikoi ta elizarakoa lantzeak, mesede aundia egin-bide zion eta gaitasun berezia eman Le-kuona'ri, gero burutu bearko zuan itzulpen-lan bikaiñerako.

BEREZIARTUA GOTZAIAREN ERAGIÑA

Batikano Bigarrenak Liturjia'ri buruz erabakia, 1963'go gabonilla-ren 5'ean onartu ta sendoturik eman zuan Paulo VI'gnak. Bereala asi ziran itzulketak, Liturji edo elizkizunetarako itzak erri-izkuntzetan eman aal izateko. Igandetako Irakurgaiak euskeratzen beintzat oso goiz asi ziran Bellok'eko Beneditarrak. Andik laister asi ziran baita Franziskotar batzuk eta Pasiotar zenbait ere Lekuona'tar Manuel tartean zutela, "Epis-tolak" eta Ebanjelioak euskeratzen, euskeralpenen azterketak taldean elkarrekin egiten.

Aldi artan Gipuzkoa'ra etorri-berria genduan Bereziartua'tar Lo-rentzo gotzai jauna. Batikano Batzar-Nagusiko erabakiak bere eskuz au-rretera atera nai zituanez, Bereziartua gotzai jaunak berak izendatu zuan talde aundi bat euskeralpenak egiteko. Gutxi gora-beera onela ziran go-tzaiaren asmoak: bere ordezkari, Yarza'tar Franzisko izendatu zuan Li-turji-itzulpen eta argitalpenen arduradun nagusi. Baiña aldi berean, eus-keratzaileen bateratzaile ta burutzat, Lekuona'tar Manuel jauna. Guz-

tira ba-ziran 33 lagun izendatuak, aurrez eskura emandako itzulpenak aztertu ta beren oarrez aberastu zitzen; gero, elkartean bildurik eta zuzenketa-oarren arabera lortu bear zuten euskeralpen egokia.

"Mezaren eguneroko zatia", Bataioa ta Gaixoen igurtzia, orra az-terketarako barreiatu zitzaizkigun gaiak. Gogoan dut, 1964'go azillaren 7'an eman zitzaizkidala, zenbaitzuen artean aztertzeke orriak eta gero illaren 13'an bildu giñala Donosti'ko "Fuero-kalean" Guraso-Elkarteko gela nagusian. Egun asko baiño leen aldatu giñan Apaizgaitegira gure asteroko langintzari an jarrai genezaion.

EUSKERATZAILLE-TALDEA

Gotzai jaunak asmorik onenaz izendaturiko 33 laguneren azterketak benetan mesedegarri izan zitezkean, zalantzarik gabe. Baiña ba-ziran tar-tean bat baiño geiago, iñola ere ezin zutenak onelako lanetan sartzea, lan geiegiz zebiltzalako e. a. Bestalde, ainbesteko taldearen oarrak berriz aztertu ta danak batera biltzea, aldi luzeegirako langintza zitekean. Bi-tartean, aalik laisterren argitara eman nai zituzten itzulpen batzuk, aldi labur baterako bederen.

Askok murriztu zan, beraz, gure itultzaille-taldea. Aste oroz biltzea-ri ekin genionen arteko, auek giñan: Lekuona'tar Manuel arduradun, Gaztañaga'tar Marzelo kalonjea Idazteunetako irakasle, Ansorena'tar Jose Luis gerkeraz ongi ikasia ta euskal-sen aundikoa, Zugasti'tar Ani-zeto aspaldiko idazle trebea, Arrue'tar Jose Kristau-Ikasbideko arduradun eta itzulpenetan ari izana, Azkue'tar Jesus euskeraz ongi ikasia, Aran-buru'tar Bizente euskeraz lan asko egiña, Sarasola'tar Antonio Liturji-gaietan asko ikasia, Iruretagoyena'tar Juan asko idatzia. Azkenik, lau gazteago, Elustondo'tar Axintxio, Dorronsoro'tar Lukax, Aranalde'tar Joxe Mari ta Gaztañaga'tar Jesus, meritu geiegirik gabeak. Zenbait aldiz Pagola'tar Jose Antonio ta Basurko'tar Xabier ere tarteko izan oi ziran.

LENENGO ARGITALPENAK

Aalik laisterren argitaratu bear ziranez itzulpenak, jo bear izan zuan taldeak aztarririk aski. Ala, 1965'go Urte-Berri egunerako argitaratu-rik ziran IRAKURGAIK, Garizuma bitarteko jai-egunetarakoak beintzat.

Eta auekin batera ziran baita jai-egun bakoitzerako otoitz bereziak ere.

Gutxi gora-beera aldi ortan bertan agertu zan argitara beste liburuxka bat ere: BATAIOA ta GAIXOEN IGURTZIA emateko bear ziran otoitz osaturiko liburuxka, alegia. Orra, gerora urte luzez jarraituko zuan langintzaren asikiñak, Liturji ta elizkizunen berritu-aldiaz batera.

Bereala euskeratu bearrekoa zan MEZAREN EGUNEROKOA deritzaion zatia. Ain zuzen ere, zati au noizean beingo bakarrik etzanez, egunero-egunero esan eta erantzutekoa baizik, ardura berezia izan zuan taldeak. Ala, beste euskalkietako norbaitzuk deitzera iritxi giñan: Bizkai'ko norbait edo beste ta Bellok'en lapurteraz egin zuten euskeralpena eramana Amundarain beneditarra, gutxienaz ere.

Asierak ziranez, gauzak etziran ain borobildurik gertatu. Geroago etorriko ziran baterapenerako oinkada sakonagoak, euskalki geiagotako itzultzaileak elkarrekin laneratuz.

SAGARA TA BATERAPENA

Geroago etorri zan Mezaren Sagara-aldia edo Mezerdi ingurua ere euskeratzeko egokiera. Urte askoz ez-ezik, mende askoz itz bakarrik ere ikutu ta aldatu gabe latiñez esaten genituan Mezatako itzak. Ain zuzen, zati au guztia zan euskalki guztietarako aalik berdiñen euskeratu nai zana. Baiña aldi berean aalik entzule geienek erraz eta atsegiñez artze-ko eran antolatu nai zuan taldeak.

Ori dala-ta, bi maillatako jardunak egin bear izan zituan euskertzaile-taldeak, Lekuona buru zuala:

1'go: Donosti'ko Apaizgaitegian biltzen zan Gipuzkoa'ko taldeak elkar-lanean aztertu, eztabaidatu, argitu, zuzendu ta bear zan guztia egin ondoren, aurrez norbaitek egindako oiñarri-itzulpena borobildutzat utzi zuan 1967'go loraillean. Txantxetan ere lau jardun-aldi, lau egun osotako jardunak bear izan zituan taldeak bizkaitar eta napar batzuk ere tarteko zirala.

2'gn: Baterapenerako jardun bereziak egin genituan, talde zabala-goan estuago aztertzeko. Urretxu'ko Pasiotarren etxean egin genituan zenbait billera, azkenengoa ekainillaren 5'ean zalarik. Ondoren beste iru egun osotako jardunak Donosti'ko Apaizgaitegian 1967'go uztaillaren 6'an, 12'an eta 19'an.

Luzeegi gerta daiteke, noski, bakoitzean nortzuk bildu ziran izen-

datzea. Esan dezagun, bada, lan-billeraotara agertu ziran guztien zerrenda osoa, nor noizkorik bereizi gabe:

Bizkai'tik: Akesolo, Etxenagusia, Garitaonaindia, Retolaza, Gallas-tegi, Juaristi, Zarate, Antxia, Barturen, Agirre, Mallona...

Naparroa'tik: Sarobe, Azpiroz, Satrustegi, Otxandorena, Plaza, Goi-koetxea, Mujika...

Ipar-Euskalerrit'ik: Andiazabal, Narbaitz, Lafitte, Iratzeder, Larre, Iriart-Urruti...

Gipuzkoa'tik: Lekuona, Zugasti, Arnalde, Dorronsoro, Amundarain, Orbegozo, Osa, Artola, Mendizabal, Gaztañaga, Basurko, Lekuona J. Mari, Ansorena...

Guztiok lan-egun guztietan izan etziralarik ere, guztiok tarteko izan ziran bein edo geiagotan. Guztiok (eta agian norbait geiago ere bai), tarteko izan ziran "Canon Romanus" edo Sagara zaarra euskeratzekoan.

Elkar-lanean eta baterapen billa, asierak ziran, eta apurka eman nai izan ziran oinkadak edo urratsak. Gerora ta urteen joanean, ezin ukatu, geiagotara iritxi dirala. Nola-nai ere, bi ondorio atera genituan, gauzak argi ta garbi alaxe erakusten zuanez:

Batetik, ez-berdintasun eta alde txikiak gelditu dirala euskalki bakoitzerako. Geien-geiena bateraturik eta berdindurik ematea lortu genudala.

Bestetik, gure lenengo jardunetan gipuzkeraz landutako euskeralpena, askoz borobillago, gozoago, biziago ta atsegiñago, aberatsago gertatzen zitzaigula. Beste euskalkietan ere, gauza bera gerta daiteke, noski. Bateratu ta berdindu bearrak, zenbaitetan murriztu ta gogortu egiten zuala, otzago ta beartsuago biurtzen zuala gure euskeralpena.

EUKARISTI-OTOITZ BERRIAK

Urtebete geroago, 1968'go ekainilletik dagonillera bitartean Sagara edo Eukaristi-otoitz berriak euskeratu zituan taldeak betiko gisara lan egiñaz. Dagonillaren 21'eko billeran borobildurik eta azken-begiratu emanik gelditu ziran iru Sagara berriak.

Esatekoa da, Etxeberria'tar Patxi jesulaguna ere tarteko ibilli zala oraingoan, Formosa'tik etorrira atsedeen-aldian zebillenez. Olabide'ren

IDAZTEUNA oarrez aberasturik argitaratzeko bideak egin zituan jaunari zor diogu orrenbeste aitoren.

Aurreko urtean bildu giñan antzera, urte ontan ere talde ugaria bildu giñan, gutxi gora-beera lagun ber-berak. Bestalde, aurreko jardunetan baiño berdintasun geiago ta zeatzagoa lortu zala, esan bear. Ez, noski, ordu luzez eztabaidatu ta landu gabe.

Aztertzekoa litzake, nere ustez, iru uskalkitarako argitalpen bereziak ziralarik ere, zenbateraiño berdindurik burutu ziran eta elkarren artean zer-nolako ez-berdintasunak gelditu.

Beste oinkada bat aurrerago ta 1969'go dagonillaren 25'etik irailaren 11'gna arteko lan-aldi berria dator, Estibalitz'en bertan sarturik burutua. Mezaren EGUNEROKO ZATIA deritzaiona era-berritu bearra zan lanik nagusiena. Zergatik, ordea? Batetik, Liturji-Batzorde nagusiak ere erraztasunak eman zitualako, itzulpenak giro-berritzeko. Bestetik, berriz, egokiera ori ain zuzen euskeralpen obearen billa erabilli nai gendualako: leenagoko ekiñaldian baiño bateratuago ta berdiñago borobildu nai genduan, Euskalerrri osoan doiñu berdiñez abestu aal izateko eran.

Jardun berriotara langille berririk ere agertu zan: Kerexeta Bizkaï'tik; aita Baztarrika ta Apaolaza beneditarrak Estibaliz bertatik; baita Etxaniz'dar Nemesi ta Pierre Charriton ere egunen batzuetan.

AINZA, SINISTEN, SANTU, JAINKOAREN BILDOTS eta GURE AITA izan ziran lanik luzeenak eta sakonenak eman zizkigutenak.

LAN OSOA

Euskeratze-lan osoa aipatzekotan, zeazki izendatzekotan beintzat, luzeegi jo bearko genduke. Labur-zurrean adieraz ditzagun, bada, geiagorik gabe, urtez-urtekorik ere zeaztu barik.

Esanik ditugun MEZAREN EGUNEROKO ZATIA, SAGARA erromatarra, JAI-EGUNETARAKO IRAKURGAIK eta OTOITZAK, leengo Meza-liburutik artuta. Baita aste-egunetarako IRARKUGAIK eta OTOITZAK ere liburu beretik.

Liturji-berritzearen ondorioz, EUKARASTI-OTOITZ berri irurak eta IRAKURGAIK. Jai-egunetako Irakurgaiok, ordea, iru sorta osoak dira, iru urtetatik bein txandatzeko eran egiñak.

Meza-liburu berriak dakarrenez, otoitz-sail osoa ere euskeraturik da aspalditxo. Sagara-aurre edo "prefazioak" ere berriak asko diranez, da-

nak gertutuak dira. Aste-egunetako otoitzak, eta bi urtez bein txandatzeko Irakurgaiak ere ez dira lan gutxiren buruan euskeratuak, oraindik argitaratu ez ba'dira ere.

Zergatik atzerapen ori? Argitara emandako guztiak, jakiña, leenago esan dugunez, "ALDI BATERAKO" argitaratuak dira. Egiteke dagona, beraz, azken-argitalpena da. Eta au... ongi antolaturik egin nai, luzarorako eraturik eman nai, azken-itza bailitzan burutu nai. Baiña ori guztia, nola egin, euskeraren inguru-marian dabillen borrokak bizirik dirauan bitartean? Orra, bada, luzapen edo berandutzearen arrazoietakoa bat.

SALMUAK ere elkar-lanean azterturik dira, ORIXE'renak oiñarritzat artu ta zenbait ikutu egin ondoren. Eguneroko Apaiz-otoitzak egiteko liburua ere bere otoitz eta irakurgai, aurrera daramate azken-aldi ontan.

Aipa ditzagun Sakramentuak emateko otoitz eta jardun berriak ere: BATAIOA ta EZKONTZA nagusienik, baiña AITORTZA, SENDOTZA ta APAIZGINTZA ematerakoak ere euskeraturik dira. Azkenik, baita ILLETA elizkizunetarako bear diran guztiak ere.

Esan dugunez, 1964'gn urtean asi ta gaur 1976'go iraillaren 14'an orain ere jarraitzen du euskeratzaille-taldeak jo ta ke bere lanean. Iraupena bear du, noski, beste doai bikain askoren artean, orrenbeste urteren buruan itzulpen-lanari jarraitzeko, etsi gabe ta eten-gabean jarraitzeko. Eta ontan beste iñork baiño areago ta iraupentsuago jarraitzen du gure maixu dan Lekuona'tar Manuel jaunak.

Bein ontara geranez, aipatzeko da Etxezarreta'tar Eustasio jauna ere, azken-urteotan bera bai-da taldearen biltzaille, argitalpenen arduradun eta beste gauza asko.

Esan dezagun, azkenik, gutxiago biltzen dirala gaur elkar-lanera. Izan ere gisa ez-berdiñetako eragozpenak dirala-bide, Dorronsorora, Elustondo, Gaztañaga biok, Ansorena e. a. ez dira talderatzen lanerako.

EUSKERALPENETAKO LAN-EGIKERA

Bearrezkoa dala esango nuke, arlo ontan zenbait zeaztasun ematea. Batetik, tartean ibilli ez danak ere zerbaiten berri izan dezan, laburki bederen; bestetik, Lekuona jaunaren eskua ta trebetasuna nagusienik ontan agertzen diralako.

Edozein zati euskeratu bear zalarik ere, lan-tresna asko ipintzen genituan esku-eskura: Idazteunetako zatiak ziranean, gerkerera ta latifnezko

zenbait itzulpen ez-berdiñez gainera, EUSKERAZ ditugun guztiak, gazte-lerazko ta frantzerazko zenbait itzulpen, bear-bearrezko tresna lagungarritzat unetik unera erabilli ta ikuskatuak. Bestelako zatiak ziranean, naiz otoiitz eta naiz oar, orduan ere latinezkoaz gainera, EUSKERAZ ditugun guztiak eta beste auzo-izkuntza bietako itzulpenak genituan lan-tresna argigarri.

Zenbait iztegi ere tarteko ziran beste liburuen multzoan, Euskerazkoak lenengo ta beste izkuntzetakoak urrena.

Azkenik, aldian aldiko zatia elkar-lanean aztertu ta lantzen asi aurretik, taldeko norbaitek (geien-geienetan taldekoak, baita beste norbaitek ere) egiñiko itzulpena artzen genduan bakoitzak geure esku. Oinarriztat jotzen genduan beti eskuarteko euskeralpena. Ez, ordea, etxagintza oinarrinari lotzen zaion eran estu ta gogor berari atxikirik eta loturik gure elkar-lana mugatzeko eran; gutxiagorik ere ez. Oinarriztat bai, baiña asikin edo asierako zirriborro tankeran.

Ori orrela izaten zala ikusteko, begiratu besterik ez, zer-nola aldaturik eta asierakoaren itxurarik ere gabe antolatuak gelditzen ziran azkenean. Eta ortan edonork makurtu bear izaten zuan bere iritzia taldearen esanera. Asierako itzulpena egiten zuanak beti etsi-etsian azaldu bear bere lana, gero ez bai-zezakean berak ere ezagutu berak egindakotzat.

Taldearen lenengo lana, normaik uler lezakenez, euskeratu bearreko zatiak bere jatorrizko izkuntzan daraman muiña guztiok jakifneko era bakarrean artzea izaten zan. Eta ez beti oso erraz aurkitutako ulerkera bakarra, noski. Ori lortu ondoren, erarik jatorrenaren billa jotzen zituan taldeak bere saiaketak: itzak, kendu batzuk eta besteak sartu; esaldia luzatu, laburtu bestea; itzak tokiz aldatu, izenaren orde aditza jarri, izen-lagunaz aditz-laguna trukatu e. a.

Zenbat eta zenbat atzera-aurrera! Amaika aldiz gertatu zaio D. Manuel'i, naiz berak egiñean eta naiz besterenean, taldearen esanera idatzitakoa, zirri-zarra urratu bearra, leengoaren orde beste zerbait idazteko. Baiña baita ez gutxitan bigarren jarri-aldia urraturik, osterala lenengoa bigarren aldiz idatzi bearra ere.

Nola-nai ere ikustekoak dira Lekuona'k eskuz egindako aldaketak, beti gorritz idatzitako zuzenketak: Giltzak eta mako-arteak, itzen toki-aldatzea adierazten duten lerro biurriak; lerro-arteak bete ondorengo deiak zenbakiz edo-ta izkiz, eraskiña non sartu adierazteko. Ikustekoak dira ainbeste ta ainbeste orri, txukun askorik kartoizko azal berezietan

sailka bildu ta gordeak, idaz-makinazkoa baiño gorritzko zuzenketak nabarmenago dirala.

Eta gero, etxeratu bezain laister, "Olivetti" idaz-makina aundiari eragin eta eragin, elkar-lanean aztertu ta borobildu aifnean gorritz tartekatua, makinaz garbiro idazten zituan Lekuona berak. Eskerrak, langille asper-gaitza dan!

Langintza onek gaztetu egin duala esaten ausartuko nintzake, gainera. Mai luze bikaiñaren inguruan elkar-laneko jarduleok; zaarrena bera, askoz gazteagoak beste guztiok; eta ala ere, zenbait aldiz gu nekaturik eta buru-beroturik, zutitu ta ibillian asi oi giñan tarteka. Lekuona, berriz, beti bere artantxe: eserita, bururik ia altxa gabe, errekiñik ez ezpainetan, gorritz idaztekoa eskuan, jarrai ta jarrai.

Atsedetik artzekotan, itzak itz-bidea ekarrira, ifioiz edo bein ipuiren bat edo-ta gertakizun bitxiren bat jalki oi zigun. Eta orrelakoetan ere, bera atsedentzeko baiño areago, gure jardunaren aringarri gertatzen ziran, berari entzunaz ikasi ditugun zenbait gauzatxo jakingarri.

Euskeralpenetan irakasle ta gidari trebea, zuorra izan dugu. Ain zuzen ere, ez bai-da "datorrena bide" egiten duten oietakoa. Esaldiak argi ta garbi, euskal-senaren agindura, entzumenerako doifuz atsegin izango diran erara tajutzen yayoa da. Elkar-lanak asko laguntzen du, esan bear dana egoki esateko bideak aurkitzen. Asko irakasten eta aberasten du, bai, elkar-lanak eta zorrozten ere bai itzulketarako sena. Baiña guztion artean, zalantzarik gabe, Lekuona'ri zor diogu geiena.

Zenbat aldiz esan ote digu, ARGI TA GARBI idaztea dala idazlearen doairik bearrezkoenetakoa! Erraz eta aixa uler dezaiguten eran idaztea, irakurlearentzat idaztea, laburregiz eta trinkoegiz ez illuntzea, e. a. Lekuona'ri maiz entzun genizkion. Eta ortara eragin izan zigun talde osoari. Eta... elkarrekiko jardunearna naikoa lortzen genduala esan bear, gero bakarka idaztekoan ainbesteraifio ez ba'da ere.

Bi begik baiño lauk eta seik geiago ikusten dutelazkoa, elkar-lanean bai garbiro ikus-erazi zigula Lekuona'ren gidaritzak!

BATERAPEN-BIDEAN

Euskalkietan banatua dugun Euskera baterapen jatorrera ekartzearen elbururik nagusia, nere ustez, AALIK GEIENEK ERRAZ ULERTZEA da. Liturjiaren itzultzaile-taldeak ere kezka orixe izan du beti begien au-

rrean, eta oiñarri-legetzat eduki ere. Kezka orrek, jakiña, bitariko leialtasuna eskatzen zion: euskaldun entzule-irakurleekiko leialtasuna bate-tik, euskera berarekiko leialtasuna bestetik.

Aldi berean, ordea, bitariko beste leialtasuna ere zaindu bear izan du taldeak: Sinismenaren muiñari dagokiona, ta aldi berean, jatorri-izkuntzetan zegonari dagokion leialtasuna.

Zaindu bearreko leialtasun oiek naiko mugarik jarri ez ba'liote be-zela itzultzaile-taldeari, ba-da gogoan artu bearreko beste esi bat ere: Liturji-gaiak elizkizunetarako dirala, alegia. Eta Liturji-ospakizunetan, bat edo beste bakarrik izaten dira irakurle; beste guzti-guztiak ENTZULE izaten dira. Entzule izateak, berriz, beingoan ulertu bearra dakar: bestek irakurria bein entzun eta besterik gabe entzun aiñean ulertu bearra.

Irakurtzeko diran idaztiak ematen dute egokiera, ulertu artean bein eta berriz irakurtzeko. Entzuteko diranean, ordea, ez dago bein baiño geiagotan entzuterik.

Euskalkietako Euskera bateratzeko oinkadarik eta egiñaalik aski egin dan arren, itzulpenak entzuleentzat eratu bearrak ez dio zailtasun gutxi ekarri izan taldeari. Bestalde, izkuntza baten izkelgiak bateratzea baiño leenagoko da Liturjia'rentzat, AALIK ENTZULE GEIENENTZAT ULERGARRI izatea, beingoan entzunaz batera jaso bear dutelako dana.

Au guztia dala-bide, beraz, oraingoz eziñezkoa gertatu da Liturji-itzulpenak baterapen osoz argitalpen BAKARREAN ematea. Nagusienik iru argitalpen egin dira, bada: bizkaieraz, gipuzkeraz eta lapurteraz.

Iru argitalpen diralarik ere, bata besteetatik urrutiratzeko ordez, urbiltzen eta elkartzen jotako egiñaalak onelatsu maillakaturik adiera-ziko nituzke:

1'go: Euskeratu bearreko zatiak beren jatorri-izkuntzan era ez-berdiñetara ulertzeko ordez, euskalki guztietarako era berdiñean ulertzea. Ori dala, nik uste, baterapen jatorrerako oiñarria, jakitunen ainbeste iri-tzi ez-berdiñen artean bat aukeratzea, oso zaila dalarik ere.

2'gn: Euskeratzekoan, berriz, esaldieri egitura bitxi ta ez-berdiñak emateko ordez, euskalki edo argitalpen guztietarako egitura ber-bera ematea. Bi mailla auetan beintzat, entzuleen onerako zitekean batasuna lortu dala esan bear.

3'gn: Euskal-itzetan ere aalik geienetan batera biltzen saiatu zan taldea, guztientzat ezagunak diran itzen billa jokatzuz beti. Ontan, jakiña, ez da berdintasun osorik lortu, euskalki batean ulergarri diran itzak, bes-

teetan ez-ezagun gertatzen diralako zenbaitetan. Berdintasunik ez, baiña saiaketa aundia bai, elkarrengana urbiltzeko.

4'gn: Idazteunetako Irakurgaiak, orixe, IRAKURGAI diralako, entzuleentzako begirune aundiz euskeratuak dira, euskalkieri geixeagotan amor emanaz. Baiña Mezaren EGUNEROKOA ta SAGARAK edo Eukaristi-otoitzak, leenago ere esan dugunez, askoz bateratuago ta elkarren berdiñago euskeratuak dira.

Au guztia onela burutzekoan, ezin ukatu, Krutwig eta beste zenbaiten jokabidearen zearo alderantzizkoa artu zuala asiera-asieratik Euskeratzaille-taldeak: Aiek, tamalez, BATASUNAREN izenean euskaldunon arteko zatiketari eragin ba'zioten, Liturji-itzultzaileen taldeak euskalki bakoitzaren nortasunari begirunerik aski gordez batera, euskalki ta euskaldun banatuon baterapena lortzearen billa jokatzuz.

Ori guztiaz, zenbateraiñoko baterapena lortu dan?

Krutwig, Aresti, Kintana, Haranburu-Altuna ta lagundiaren asmoe-tako batasun-berdintasun presazko ta ezarria alde batera utzirik, elkarrengana urbiltzea ta elkar ulertzea naiko ongi lortu dala esan bear. Batetik, euskalki bakoitza zertxobait besteetara irekitzea lortu da, soil-soillik euskalki bakarrekoa izateko ordez. Bestetik, berriz, nork bere euskalkian ematen zaion Liturjii-euskeralpena ulertzen duanak, naiko aixa ta erraz ulertuko du beste edozein euskalkitako Liturji-itzulpena ere. Ezin esan, beraz, aurrera-oinkada ez danik elkartze ta baterapenerako bidean.

AITORPEN BATZUK

Arazo oni buruz ari galararik, gogoratzekoa da Mitxelena jaunak zer zion Arantzazu'ko billera aietan:

"Liturji-izkuntzan orain ez iñqlaz... Azken-azkenekoa liturjia... Eskola leendabizikoa". (Ikus, EUSKERA XIII, 1968, 247'gn or.)

"F. Yarza jaunak bidali dizkio Euskaltzaindiari, Donostia'ko Apez-pikutegitik, argitara berriak diren euskerazko Epistola-Ebanjelioen leen zatia eta Bataio-Azken-igurtziarekiko idazkiak emendik aurrera Liturjian erabil ditezen itzuliak. Euskaltzaindiaren eskerrak eta zorionak eman be-kizkio, berari eta lan eder orretan ibilli diren guztiei". (EUSKERA, XIII, 1968, 302'gn or.)

Aitorpen ori Euskaltzaindiak 1965'go otsaillean egiña da ta Mixelena idazkariak izenpeturik dago.

Ala ere egiña egiñik dugu ta izan dira zenbait aitorpen. Bi aldatuko ditut onera. Dionisio Amundarain'ena bata, "Zeruko Argia"n nik idatzari erasoz egin zuan idazlanean bi gauza aitortzen dituanekoa:

"Arrazoi osoa du nere lagunak, azken bost urte hauetan, liturji-itzulpen barrutian, lan beltza egin dutela esatean. Ez da txantxetako gauza egin dutena".

Lan neketsu ta aundia dalazkoa aitortuz gaiñera, ona emen beste aitorpena, datorrenagandik datorrelako naiko arrigarria:

"Arrazoi handia ere, batasun bidean, urratsik asko egin dutela aitortzean. Ezin ukatu. Lau begiek batek baino gehiago eta zabalago ikusten, eta hala gertatu dala uste dut liturji-euskeratzaileen arazoan" (Zeruko Argia, 1969'go gabonillaren 21'ean).

Garrantzi aundikotzat jotzen dut beste aitorpen bat, BASERRITARRERAK beren eredutzat artzen dutenekoa, GOIZ-ARGI-ren bidez egin zuten deadarra, alegia. Euskerari aurrerakoan bizirik eusteko, apalki aitortzen dute, beraiek ez dirala naikoak: euskaldun guztion laguntza bearko duela Euskerak. Baiña orain arte eutsi ta iraun-erazten ikuskizun aundia izan dutenez, aurrerakoan ere, nai dutela artukizunik beste guztiakin batean. Guzti onek ematen dien eskubidez, aitorpen bat eta irrintzi bat egiten dituzte baserritarrek beren aldizkariaren bidez.

Lenengo, Talde-lana goraiatzan digute onela:

"Orra euskal-idazle talde bat. Bakarka ez-baiña, elkarrekin batzarreran eztabaidatuaz egindako lanak argitaratzen dituan taldea: Napar, Giputz, Lapurditar eta Bizkai'ko, euskeratze-lanean elkarrekin ari dan batzordea, alegia.

"Beste talderik? Ez da, noski, Euskalerrri guztian besterik, elkartuta euskal-lanean ari danik: euskalki ez-berdiñetakoak elkarrekin aurrez aurre batzartuta euskal-langintzan ari diranik, alegia. Askoz gutxiago, berriz, bost urtez orrela elkar-lanean diarduanik eta bere lanak galbae estuan aztertu ondoren argitaratzen dituanik". (GOIZ-ARGI, 1970'go loraila, 125'gn alean).

Bost urtez lanean ari izan eta seigarrenean ari ziran unean aitorpen ori egin zuan baserritar-aldizkariak, zer esango ote luke gaur, beste SEI urte ta geiagor lan berean jarraitzen dutela ikusirik?

Eta ondoren dator baserritarren irrintzia:

"Ori dala uste dugu guretzat biderik egokiena, ori dala batasun-bidea. Aurrerako ere itxaro-bide zaigun talde-lana, urte luzez ari dan elkar-lana.

Zillegi bekigu baserritarroi itza ateratzea: guk "EUSKERATZAILLE-TALDEA" artzen dugu eredutzat eta gidaritzat Euskeraren batasunera bidean.

Osotuta? Ugarituta? Ikustekoa litzake. Baiña nola-nai ere, talde ori artzen dugu jarraibidetzat. Geroak esango, arrazoi dugun ala ez". (GOIZ-ARGI ale berean).

Eta... aitorpen eta irrintzi ori etziran uskeritzat baztertuak izan aldi artan. Adibidez, ZERUKO ARGIA asterokoak ere argitaratu zuan idazlan ori bera 1970'go lorailaren 24'ko alean.

Jose Artetxe zanak eta Julio Caro Baroja idazle ospetsuek ere baidituzte zenbait aitorpen, beste idazle geiagoren artean, Liturji-itzulpen auen alde ta gorasarrez, baiña ontan eteten dugu aria, iñorentzat aspergarri ez gertatzearren luzeegiz.

ONDORIOZTAT

Erdal-aizeek ezker-eskubietatik gogorki erasotzen diguten aldi ontan benetan itxaropengarri gertatu zaigu Lekuona'ren euskal-sena, iturburu garbitik euskaltasun jatorra oparo jariotzen digularik.

Modakeria aldakorren astiñaldi indartsuetan, berriz, bere 82 urte bete-beteen gaillur ongi oiñarrituaren gaindegietatik ziurtasun sendoa kutsatu izan digu noiz-nai.

Eta azkenik, presakako azkar-bear larriaren bultzada dardaragarrietan, zurrunbilloaren erdian gerta oi dan orbelaren antzeratsu aurki gindezkenerako, patxada ta zentzu ona eskeintzen dizkigu Lekuona jaunak, kondairaren ezagutze zabalak eta kondaira-senak berari eman izan dioten baretasunetik.

Eta besterik ez. Lekuona jaunarekiko adiskidetasunak gauza asko idaztera eragin ba'dit ere, ez dut uste beroarena kendu bear aundirik izango danik.

Errezil'en 1976'go irailaren 14'an, Gurutze Santu egunez.

Arrasate'ko apellido-abien zaarrak

IÑARRA'TAR JOSE LUIS (†)

Gure D. Manuel'entzat lantxo bat eskatu didate.

Luzeegi ez egiteko. Ez beldurrik eduki, ez bait dut asti geiegirik lan luze eta sakonetan murgiltzeko. Eta gaiñera, ni baiño iaioagorik, pizkorragorik, buruz jantziagorik ugari ezagutzen ditut, orrelako alo-rretan sar ditezkeanik.

Aspalditxotik kolkoan darabilkiten asmo bateri elduko diot, D. Manuel aitzaki-maitzki, orain bertan.

Arrasate'ko apellido-abizen zaarrak. Denak ez; aittu eta galdu diran abizen zaarrak. Emen eta gaur zearo aittu eta galdu diranak, naiz-eta beste alderdi batzuetan oraindik bizirik iraun.

Asi nadin bada. Orretarako XVI-garren gizaldiko Bataio, Eskontza eta Ildakoen berri ematen duten Elizliburuez gaiñera, aurreragoko beste iskribau idaztietan aurkitu ditudan abizenen sortatxo au eskeiñi nai diot gure D. Manuel'i.

Ez du, agian, xorta onek maiteñoari eskeintzen zaion lore xortaren usai goxorik izango; baiñan bai lore xorta orrek erakutsi eta adierazi nai duan maitasunaren garra. Esker onaren gar bizi bizia.

Esan oi danez, maitasuna esker oneko biotzen lorea omen da; eta maitasuna lore bezela eskeintzen diot. Eusko usmatzaille bizkorra denez, usmatu ere apika usmatuko dio.

A

Abendaño	Aguirregoyena	Altamira
Abraen	Aguirreolaeta	Aluiztegui
(Abraín	Agurain	Alzaiibar
Abrahin	Aizpitarte	Alzate
Aurain	Alaba	Alzarte
Aurrayn	Albistur	Amaeza
Avrain)	Alcibar	Amaortu
(Abarain esan nai ote?)	Aldaeta = Aldeta	Amarita
Adames de Unzaeta	Alquiza	Amezaga

Amezqueta
Amezua
Anchia
Anchico = Anchixo
Anchietta
Andicana
Andicano
Andichana
Antrecina de Elexoste
Anzueta
Anzuota
Aorreta
Aperegui
Apozaga
Apraiz = Aprayz
Aqueso = Aquixo
Araiz
Aramaga
Aramain
Aramayo
Aramayona
Arando
Arangoitia
Arangutia
Arangutis de Amezaga
Aranoa
Aranondo
Aranziaga

Araoz
Arauna
Arauz
Arbe = Arbee
Arcaso
Arcarasso = Arcarazo
Areaga
Arenzana
Arespi
Arizpe
Arizpi
Aretaiz
Arexnao
Aresso = Arexo
Arezcunaga
Argomaniz
Argandoña
Arguinzones
Ario
Aristizabal
Aroca
Arostegui
Arquiza
Arraga
Arratia
Arrazola = Arraxola
Arriaga

B

Balda
Balza
Basurtu
Bañez
Beaza
Bedoia
Bedoña
Bedoya
Beistegui
Belaostegui

Beneditua
Bengoasacona
Bergara
Beumond
Beyzama
Bicuña
Bidasolo
Bidaur
Bidaurreta
Bidazabal

Arrigoitia
Arrigorriaga
Arrizuriaga
Arroa
Arroca
Arroga
Arrue
Arta (Martinez de...)
Artazubiaga (Yañez de,
Bañez de...)
Arunna.
Arzubi
Ascasibar
Ascasua
Assurdi
Assurduy
Aulestia
Aurain
Avrain
(Ikus Abrain)
Axpel
Aya
Azube
Aassube
Ahasube
Asube
Assube

Bitoria
Bizalza
Bolibar
Bolinategui
Borgoña
Borinaga
Boriano
Brajoen
Busturio
Bustinza

C

Camara Zamalloa
Cataide
Casconategui
Castañedo
Cegama

Celaa (Celaha)
Celayeta
Cerbera
Cercaalde
Ciarduy

Cibay
Cigarrondo
Ciorla (Perez de)
Cordova, Cordoba
Cortazar

CH

Charaalde
Charco

Charcoaga
Charroalde

D

Daroca
Diasco

Durana
Durango

E

Ecibay
Echegoen
Edur
Eguiguren
Eleazarraga
Elesabe
Elexcaray-Elexgaray
Elexerarzu
Elexoste
Elgueta
Elguiza
Eloa

Elorduy
Elorregui (Perez de)
Elorreta
Elorriaga
Elquiza
Eraso
Erayano
Eremusqueta
Erenchun
Erenusqueta
Erleaga

Ernani (Perez de)
Erquiza
Errecondo
Errexil
Errigoitia
Essibay
Esteibar
Estella
Estrada
Etura
Eyxarte.

F

Fica (Martínez de)

G

Gaceaga
Gaistua
Galdacano
Gallaistegui

García de
Garibay
Garita
Garras - Garraz

Garraistegui
Gascon de Urrola
Gastamiza
Gaxaegui

Gazalita	Goxendi	Gueteria
Gaztelumendi	Guebara	Guillano
Goicoa	Guesalibar	Guraa
Gomistiano (Gomixtiano)	Guezalibar (Ximenez de)	Gurao (Pérez de)
Gordoba (Ikus Cordoba)	Guerra	Guraya
Gorostorzu	Guerriko	Gutiola
Gorriti		

H

Hecibay (Ikus Ecibay)	Heredia	Hoaragoitia
Henriquez de Oleaga	Herhaba	Huici

I

Ibarbia	Insaurbe	Issassi
Ibarlucea	Insauz (Insaur?)	Issassigaña - Isasigaina
Ibieta	Irala	Issibay (Ikus Ecibay)
Ibilaga	Iramain	Istegui
Ibinarri	Iramendi	Isurieta
Igeribar	Irasu	Ituarte
Igoa	Iraurqui	Iturmendi
Igueleta	Iruleta	Iturrieta
Iguria	Iruna	Iturrioz
Ibardi	Irunaga	Ixona
Ibarduy	Iruzubieta	Izmendi

J

Janguas	Juinaga (Jainaga?)
---------	--------------------

L

Lacuaga	Larrinaga	Legazpia
Lagustegui	Larrino	Lenta
Landazabal	Larriñeta	Leorraga
Langara	Latuxtegui	Lapaza
Lapaza	Leariartu	Leyba
Lara	Lecaran	Lezcano
Laris - Lariz	Lecumberri	Lexargarate
Larraguibel	Legarre	Liaiz

Lianiz (Pérez de)	Lizarza	Loyarte
Liaza	Lo. Loo. Loho	Loyola
Ligár	Loa (López de)	Lugun
Lili (Pérez de)	Lora	Lupiana, Lupidana
Linzo (francés)	Lordi	Lupidano
Lirbona	Lorza	Luzuriaga
Lixorate	Loydi	

M

Madian	Mendía	Monasteriobide
Madianbeitia	Mendibee	Mojategui, Monjategui,
Malax	Mendiechebarria	Munjategui
Mallea	Mendigorri	Mugagozo
Marquina	Mendigoyen	Mucibar - Muxibar
Martínez de	Menditarte	Murusarraz (López de)
Mascayaga	Mendraca	Murube
Mascayano	Mercado - Mercader	Murueta
Mauritegui (Martínez de)	Miguel de Guraa	Musacola
Maya	Miñano	Musacola-garraz
Mazquiarrain	Mitarte (Ortiz de)	Muxica
Mendaro	Muniategui	

N

Nabarria	Narriondo	Nuarbe
Narbaxa	Navarro	

O

Oa	Olaechea	Orensarri
Oarriz	Olaeta	Ormaese
Ocariz	Olandiano	Oro
Ochoa de	Olariaga	Orosco
Oguenerreca	Olaun	Orozco
Ojanzu	Olauri	Ortiz
Olaalde	Ona	Ospitaleko
Olabarri	Onagutia	Otaza
Olabarria	Oña	Otaola
Olabarrieta	Oñate	Oxarondo
Olabee	Oquendo	Oxona
Olabiaga	Orduña	Oyanzu
Olacea	Orenain	Oyarzun (Pérez de)

P		
Plaza Placencia	Platero y Larieta Platero y Oquendo	
Q		
Quadra (Ochoa de; Pérez de)	Quintal y Arrazua	
R		
	Ruiz de Olalde	
S		
Sabarte Sacona Sagarna Sagarriga Sagastizabal Saint Antolín Saint Cristóbal Salas Salcedo Salinas	Santsol Saola Sarassaga Sarraga Sarralde Sarrau Sasquitazabal Sasifrances Satustegui	Sierra Sigorondo Sodas Sologaxtoa Sopuerta Sorais Sorozar Sudupe Sustaeta
T		
Tallador Tamborin	Tolosa Torre (Pérez de)	Traball Tramil
U		
Ucaza Udala Ugara Umabide Umandi Umandia Umendi Umendia Unai	Ucella Unzuetabalda Uralde Urbina Urdinguio Urduia, Urduya, Urduña Urguchi Uria Uribarri	Uribelarrino Uriburu Urigarri Urigoen Urigoenmeaza Urigoitia Uriondo Urisarri Urisaur

Urizar de Nargueaga Urquizu Urrabura Urraburu	Urrain Urriola Urritia Urrupain	Urtaza - Urtazaá Urtichi - Urtichia Uruburu Urugaña
V		
Venburri Vergara-oña Vicuña	Vidasolo Vidazabal Vidarte	Vidaur Vizalaza Vizcaya
X		
	Ximenez de Guesalibar	
Y		
Yerategui	Yurri	
Z		
Zabaarte Zalguibar Zaloña-Zaloya Zamalloa Zamudio Zaola - Saola	Zara - Zaraá Zarasaga - Sarasaga Zarrasqueta Zarauz (Ruiz de) Zuazqueta	Zuazu Zubiaur Zubiga Zumarraga Zuri

IV.—Godor-Lahomor

(Arbasoen gurasoak)

Etor. 14, 18

IRATZEDER

(Hiri-sartze bat. Lau-pabortz soldado lorietan).

- | | |
|-------------------------|---|
| DENEK
(kantuz) | Bi mila kamelu, berrehun behor
Takata-takata, taka-takata.
Joan da eskapo Godor-Lahomor
Takata-takata, hau tarrapata! |
| BATEK | Erregen-errege Godor-Lahomor
Nausirik munduan ehuen nihor...
Abramen ezpata agertu baita
Takata-takata, hau tarrapata! |
| DENEK | Bi mila kamelu... |
| BATEK | Airos hintzen joaki Godor-Lahomor
Zodom hartu-eta bai eta Gomor...
Abramen ezpata agertu baita
Takata-takata, hau tarrapata! |
| DENEK | Bi mila kamelu... |
| BATEK | Espantu gaitzeko Godor-Lahomor
Nahitez Abrami eman duk amor.
Abramen ezpata agertu baita
Takata-takata, hau tarrapata! |
| SOLDADO 1
(solasean) | Akabo ginen akabo
Ez balitz Abram etorri. |
| SOLDADO 2 | Laster baitio harek eginarazi eskapo
Godor-Lahomor arto-bizar horri. |

- SOLDADO 1 Ai, ei, ai! (denek irri)
- SOLDADO 3 Bai espantu guti dikek orai.
- SOLDADO 2 Alta! aspaldian
Hura zikan denen jaun, toki hautan;
Eta bazter hautako
Lau erregeak asaldu orduko,
Hor ginikan
Sekulako karraskan.
Bertze lau erregekin:
Nor den nor
Godor-Lahomor
Ginezan jakin.
- SOLDADO 1 Nausitu baituk ordean:
Erregeak eta oro ditik ereman.
- SOLDADO 3 Ba!... bainan Abram hebrearra
Gauetz gau gainerat erori zaio
Eta zanka sartu dio
Gibel-aldian aztaparra.
- BATEK
(*kantuz*) Espantu gaitzeko Godor-Lahomor
Nahitez Abrami eman duk amor.
Abramen ezpata agertu baita
Takata-takata, hau tarrapata!
- DENEK Bi mila kamelu...
- SOLDADO 2
(*solasean*) Hiru ehun ta zonbeit gizonekin
Zer jokoa duen, haatik, Abramek egin!
- SOLDADO 3 Bere iloba Lot eremana zela, jakin orduko
Mugitu dela fitexko.
- (*Zilarrezko turruta-soinu bat... Soldadoak zalapartaka*.)
- SOLDADO 1 Hor ditugu: Abram, Lot, Erregeak eta guziak.

- SOLDADO 3
(*4-ri*) Mugi ba, zozoa.
- SOLDADO 4 Bai eta hi urde tontoa.
- SOLDADO 2 Utz orai tetelekeriak.
-
- (*Abram Lot-en sorbaldari jo*)
- ABRAM Ai! gizona, gizona
Norat ari zinen hola Godor-Lahomorrek, in,
Haren mutila egina?
- LOT Bainan nolaz duzu jakin?
- ABRAM Manbreko haitzetarat
Etorri zait artzain bat hatsantua:
"Berri izigarri bat:
Godor-Lahomor nausitua...".
"Beude, beude!, erran diot. Antola ditela
Zelai zoko hoitan".
Ai! haatik, ereman zintuztela
Adu dutanean...
- LOT Mendietan utzi zintudan
Eta uzten ahalko ninduzun.
- ABRAM Alo! alo! ez holakorik erran.
Jainko Jaunari eskerrak ditzogun.
Errazu eta... Zodom ta Gomorreko Erregek
Nor dute hor lagun?
- LOT Melkhizedek
Zalemko apez erregea.
- BI ERREGEK (*turrutariekin*)
Abram! Abram gure salbatzailea.

- ABRAM Jaunak, dakizuen bezala,
Zeruko Harek emaiten du nausitzeko ahala.
- KANTARIEK
(*kantuz*) Goikoaren gizona
Abram Hebrearra!
Jaunak dio emana
Zeruko indarra.
- (*Turrutariak*)
MELKHIZEDEK Eskerrak Abrami,
Diren guzien
Egilea den
Jaun Goikoaren
Izenean.
- Eskerrak, eskerrak
Jaun Goikoari,
Harek baitauzkitzu
Etsaiak eman
Eskupean.
- KANTARIEK Jainkoaren gizona
Abram Hebrearra
Jaunak dio emana
Zeruko indarra.
- ABRAM
(*solasean*) Melkhizedek apeza,
Entzun zaitzala Jaunak. Amen! amen!
Eta onhar: egun hartu guzien
Hamargarrenaren eskaintza.
- MELKHIZEDEK
(*eskua kopetarat*) Jaunak ongi dagizula
Orai arte bezala.
- ZODOMEKO ERREGE Abram, atxik: gaur hartu ontasunak;
Eman bakarrik jendeak: libratu ditutzunak.
- ABRAM Zeru-lurrak egin dituenaren
aintzinean zin egiten dut hemen,

(alixatuz eskua):

- Ez ari
Ez oinetako lokarri
Deus ez dut zuenatarik hartuko;
Eta ez dute erranen ahalko
"Nik dut Abram aberastua"
Deus eta deus neri.
Nere mutileri
Eman zerbeit sari;
Bai eta nerekilako Eskhol, Aner eta Manbreri
Emozute merezi duten hori.
- ZODOMEKO ERREGE Nahi duzun bezala.
Bainan Lot zure iloba ez dagola
Hiriz kanpoko bazka-toki hoitan.
Zodomeko toki ederrenean
Badaukat harentzat etxea.
Agur eta ongi izan.
- (*badoatzi denak*)
ABRAM Zuekin dagola Jaunaren bakea!
-
- KANTARIEK Goikoaren gizona
Abram Hebrearra!
Jaunak dio emana
Zeruko indarra.
- JAUNAREN MINTZOA Ez beldur izan, Abram, ez beldur izan:
Zure indarra naiz behar-orduan,
Zure saria
Zoin handia!
- ABRAM Ai Jainkoa!
Zer sari eman neri
Zer sari?
Haurrik gabe noa...
Hara ez dautazula semerik igorri
Eta sehi bat dut ene ondoko ezarri.

JAUNAREN MINTZOA

Ez! nik dautzut: izanen duela
 Zure ondokoak zure odola.
 Begiak altxa
 Zerurat beha
 Eta neholaz ahal bada
 Izarrak konda.
 Heien parekoak
 Zure ondokoak. (*Oibala*).

Jaunari dena fede
 Abram egon baitzen,
 Hargatik mendez mende
 Jaunak dauka zuzen. (*G. 15, 6*).

Jainkoa nere Jauna
 Nola jakin nola
 Zuk hitzeman guzia
 Gertatuko dela? (*G. 15, 8*).
 "Joan ergi, ahuntz, aker
 eta uso bila". (*G. 15, 9*).

Jaunari dena fede
 Abram egon baitzen,
 Hargatik mendez mende
 Jaunak dauka zuzen.

Jaunak nahi eskaintzak
 Zituen ekarri,
 Ergi, ahuntz, akerrak
 Zatitan ezarri,
 Zatiak odoletan
 Eta so elgarri.

Iduzkia zeruan
 Itzaltzerakoan
 Sartu zen tanpez Abram
 Lazgarriko loan.

Iduzkia zeruan
 Itzali ondoan,
 Hara nun su handi bat
 Itzindika doan,
 Zatiz zati erditik
 Joaterainokoan.

Jainko Jauna bera zen
 Su-garra iduri,
 Abramekin batasun
 Hor egiten ari:
 "Zure ondokoeri
 Nik erran lur hori".

Iduzkia zeruan
 Itzaltzerakoan
 Sartu zen tanpez Abram
 Lazgarriko loan.

Parrokietako zinemak

IRIGOYEN'DAR TXOMIN'EK

Zinemak gizarteari eragin aundia eman diola edozeinek daki. Eragin aundia, onerako ta txarrerako, asiera-asieratik. Eta orren kezka Elizak bere erakutsietan sarritan agertu izan du, batez ere zinemak zekarzkin kalteak ikusi-ta.

Egia esan, zinemaren ondorio onak baiño txarrek ardura aundiagoa sortu izan diote Elizari, eliz-gizonai.

Ikus, adibidez, "Divini illius magistri" deritzan Entziklikak 1929-go abenduaren 31-an ziona. Ta andik urtebetera egindako "Casti connubii" beste Entziklikak ere berdintsu zion: zinemak zekarren kalteari jarki bearra zegoala: kaltearen bildurra aundiago, on-egiteari bide berriak zabaltzeko ardura baiño.

Alare, ba-ziran an-emenka zeinbait gizon jator eta apaiz ausarta, gizarteari on egiteko, zinema bide egokia zitekeala argi ikusten zutenak eta artarako beren zer guztiak eskeiñi zituztenak.

An-emenka esan det eta angoen jokabide osoa itz bat esanarekin adierazi nai det: O.C.I.C. aipatzearekin, alegia. Zinema-bazkun ori baita gai auek kristau-giroz ondoen erabilli dituan elkarrea.

* * *

Angoak ango, gure emengoen ardura, aletin eta asmoak ager ditzagun. Gure errietan zinema-aretoak, irabazpide bikaiña zirala-ta ugaltzen asi ziranean, parroki-babesean sortutakoak ere erne ziran. Geiengetan, umetxoak eta gazte-jendeak nun-bildu ta arratsaldean igaro izan al zezaten eta, bide batez, kalte-gutxiagoko ikuskaiak ikus zituzten.

Garai artan, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa-ko kristauek eliz-barruti bakarra gendun, gotzai-barruti bakarra, Gazteiz-koa. Zinema-arazoari buruz, Gipuzkoa-ko jokabideari emango diogu alako gain-begiratu bat.

Parroki-inguruan sortutako lenengo zinema-aretoen izenak ona emen: "Onbide", Errenderi-n; "Igarondo", Tolosa-n; "Soreasu", Az-

peiti-n eta "Novedades", Donostia-n. Azkeneko au, izan, ez zan parroki-babesekoa, baiño bai eliz-gizonen ardurapean sortua.

Zinema-areto oien zuzendariek, zinema-ikusleai aal zitekean kalterik gutxiena ta onik geiena egin nairik —eta dirurik galdugabetanik— ba-zuten buruusterik eta zailtasunik asko. Irabazpide utsari begiratu sortutako zinema-aretoetako zuzendari ei'zernai" ikustaraztea bidezko iruditzen bait-zitzaien. Zakela bete ezker, "konprome". Orregatik, parroki-babesean sortutakoak, diruz, indar gutxitxokoak ziran eta beste aien aurkakoak.

Orrela, elizgizonen babesekoek, baturik, alkaturik, indar geiago izango zutela-ta, elkarte bat sortzea erabaki zuten. Ta asmo orrekin, Donostiako "Círculo de San Ignacio"-n bildu ziran Aita Otaño, josulaguna, ta Yarza'tar Frantzisko apaiz jauna buru zituztela. Baiño ez ziran batera etorri ta, berriz ere, bakoitza bere bidetik, aldapa-gora zaillean.

Bitartean, zinema-aretoak ugaritzen zijoazen, bai irabazi utsari begiraten ziotenetakoek eta bai zinematik irabazia baiño kalterik eza ta gizarteari on egitea nai zutenetakoek ere. Garai artakoak, Zumarraga-ko "Itzalon", etabar.

Giro ortan sortu zan Gazteiz-ko gotzai gogoangarri Muxika-tar Mateo jaunak egindako gotzai-karta. Ala ere, ez zan aurrerapide aundirik izan. Ta gero, laister etorri zan etortzekoa: guda gorria, senide artekoa.

* * *

Parroki-babesean sortutako zinema-arazoa bere artan zegoen. Bere artan, ez, okerrago; estutasun larriagotan sarturik bait-zegoen. Ta, berriz ere, alkartu-bearraren ametsa, ta amets utsaren bildurra.

Bildurra-bildur, ekin zitzaion, orratio, noizpateko batean: 1948'go urtea zan. Yartza'tar Frantzisko jauna buru dala, Donostia-ko "Novedades" zinemako zuzendari Marin jauna (G. B.) ta Solana jauna (G. B.) kontsejatzaila zirala, egin genduan gure lenengo batzarra. An azaldu ziran ederki asko leen aipatutako zailtasunak: filmak akuratzeko (—alkilatze—) eragozpenak; saillean artubearra, txar eta on, alegia; iñolako gure baldintza edo kondiziorik ez onartzea; parroki-babeseko zinemak aintzakotzat ez artzea; auen aurkako salaketak edonundik eta zernaigatik ugaritzea. Lege-barruan ibillinai ta ere, legearen argitasunik

iñork ematen ez, ta nora jo jakin ez. Ez zan erraza bide berriak urratzea.

Indar pixka bat izatekotan, zinemak alkartu bearra zegoen. Zinema txiki asko batuta, indarra, batasunaren indarra, agertuko gendulako uste garbian geunden.

Zinema txiki oietakoen elkarte bat Lapurdi-n, Orthez'en ba-zala jakin gendun eta ango araudia jaso ta ikasteko lana Irigoyen-dar Txomin'i eman zitzaion. Orrela, Orthez'en Candau apaiz jaunak "SANOKY" izeneko eliz-zinemaetarako egiña zeukan araudia oiñarri artuta, aurkeztu zan gure lenengo araudia. Elkarte berriari, F.I.D.E.S. izena ezarri gendun.

Arrezkero gero ta garbiago ikusten zan bakarka jokatzearen kaltea ta legetik kanpo ibiltzearen arrixkua. Ta gure arteko goraberak errazteko ta aurrera bear bezela eramateko, "ofizina" bat lantegi berri bat sortzea erabaki genduan. Baiño ez nolanaikoa, gaurkotua nai gendun, teknika berriz egiña, zinema-gaietan gizon ikasiekin eratua ta elizaren erakutsietara jarria.

Bizkaia'en ere asi ziran Sestao'ko Patronato dalako zineman, gure arira etortzen. Gure berri laister jakin zuten Oviedo'n ere ta ango eliz-zinemak elkartzeko lanak bereala asi genitun.

Alde batera ez da arritzekoa baiño, ez uste asitako danok beti aurrera egin genduanik. Asi ta gero atzera egindakoak ere askotxo izan bait-dira. Asi ta buka, erabat iraun dutenak Tolosa'ko ta Zumarraga'ko zinemak izan dira. Urrena Azpeitia-ko "Soreasu" zinema, ondotik beste batzuk dirala. Alare, asiera zailari eutsiak ondorio onak ekarri ditu.

1952-ean, O.C.I.C.-ek batzarre bat eratu zuan Madrid-en. Antxe nintzan, ain zuzen. Zinema-aretoak elkartu egin bear lutekeala: orixe zan zekarten asmoa. Gu ba-genbiltzan, nai bezain irmo ta pizkor ez izan arren, ibillian beintzat. Battzarre artatik banatu zan toki askotara elkartu-bearraren garrantzia ta indarra.

Aukera ona zala-ta, dei berri bat egin zitzaion parroki-zinemak ziztuzten apaizei. Zumarraga'n batzartu giñan, 1952-go Urrillaren 6-ean. Eta egun artan itz-emandakoak, andik urte-betera FIDES VASCA S. L. elkarte sortu gendun Donostia-n Castells notario jaunarenean. Naparroa-koak ere gurekin ziralarik, talde ederra osatu gendun.

Gure ametsak egi biurtzen, gure asmoak indartzen zijoazen. Arrezkero, Araba, Burgos, Santander eta Logroño-ko parroki-zinema geienak

elkartu zitzaizkigun. 1958-gn. urtean 121 giñan, aundi ta txiki, naiz-ta noizbeinka, bat edo bestek alde egin.

Gerora, FIDES S. L. zana FIDES COOPERATIVA biurtu zan, lege-aldetik erraztasun obeak zirala ikusirik. Ortan dago ta ortan diardu, gaur ere.

Baiño elkartearen onurak ez genitun gure-guretzat bakarrik nai, ta beste bazter askotara edatzeko alegiñak egin izan ditugu. Madrid, Barzelona, Valentzia, Sevilla, Coruña-urietan gurearen antzeko elkarteak sortuak dituzte. Ez degu uste, ordea, egiteko guzia egiña dagonik. FIDES oiek duten indarrari etekin guzia eman-arazi arte, ezin giñezke egonean egon. Egindakoari eusteak ba-ditu bere lanak eta gaurko gizarteari bear bezelako zinema-giro bat emateko zailtasunak eun-da-alakoak dira. Gaiñera dirutza aundiak bear dituzten lanketak.

Iñor gutxik erabiltzen ditun filme-gai egokiak bear-bearrekoak dira parrokien zinemaetarako. Batik-bat, umeentzakoak. Onelakoak oso gutxi egiten dira ta diran aletxoak gure eskuetaratzeko, JUVENSA filme-banatzaille-ekinza sortu du FIDES'ek. Alare, bear-izanak ugariago, banaketarako filmak baiño.

Beste ardurarik ere bearko da gaur eguneko giroan. Ez du lan xamurra izango ortaz kezkatu ta lanari ekin nai dionak. Batzorde bat egiñik dute iritzi ta asmorik jatorrenak aurrera-aterazteko.

Ogei-ta-bost urte luze egiñak ditu guzti oien zuzendaritzan Garmendia-tar Juan Jose apaizak. Espaiña-ko Gotzai jaunak goraiapatu dute egiten ari dan lan onuratsua. Ez da gutxi. Baiño Jaunak eman dezaiola geiagorako argibide ta kemena.

Peru Abarka

"KAMIÑAZPI"

XVIII mende azken aldean agertu zan eibartarra jaiotzaz eta Markiña'ko erretorea zan Jose Antonio Moguel abadearen PERU ABARKA baizen begiko egiten diran liburu gitxi arkitzen dira euskal literaturan. Gauza asko erakusten dituana da, bera irakurtera milla errezoiz bultzaten dabena. Orain ia berreun urte idatzitako idazti onetan argi ta garbi ikusten da orduko mundua. Orduko pentsaera, orduko oitura, orduko sendakintza ta abar jakiteko Peru Landeta'ko diñozanak entzutea besterik ez dago.

Peru eskolaua ez izan arren bizitzeak irakatsita gauza asko ekiana zan eta biziera zuzeneko zanez moral kontuan edozeiñeri arpegi ematekoa. Bein uste barik andi usteko ederto jantzitako Maisu Juan barberuagaz tope egin eban eta gizarajo au arrituta laga eban. Baserritar batek ainbeste jakin eikeanik ezin eban sinistu. Bear ebanari bear zana esateko bildurrik ez eukan Peru'k. Nozbait bere iritxietan gogorregia be bazala irudiarren nekez asarratuko zan. Maisu Juan'ek eta biak naikoa eztabaida gogorrean asi ziran baiña denpora asko baiño len lagun andi egin ziran.

Berbeta ta gramatika aldetik begiratuta be atsegiñez irakurten da PERU ABARKA. Beti ez gara batera etorriko auzi onetan, baiña osotara begiratuta kontu onetan be jakingarri asko dagerz.

KRISTIÑAUA

Peru, gure asaben antzera kristiñau sutsua zan. Goizeko, bazkaldu aurreko ta apaldu aurreko otoitzak eta gabean errosariua erresau barik ez zan geldituko. Baiña, otoitzak marmarran esatea ez zan bakarrik bere kristiñautasuna. On guztia Jaungoikoagandik etorkigula ta orregatik eskerrak zor geuntsazala esaten eban. "Eztago bake iraunkorrik ezpadago Jaungoikoaren bildurrik; baiña bildur, donga egitetik atzeratuten gaituana".

Kristiñautasuna, Jaungoikoa gauza guztien gaiñetik eta lagun-urkoa

geure burua lez maitatzea da ta Peru'k be olantxe artzen eban eta bere pamilikoei irakatsi. Ondorengo Peru'ren berbetan olako zerbaitegaz oartuko gara :

"Alaba bijen artean gazteenak eztaukaz amazortzi urte baño gejago, ta ez bakarrik susmau, baita bere ziur jakin deusats, gordeten dabela sarri bere gosarija, emoteko eskutuban, bere buruari kenduta, Jan-goikuaren deiko lenen datorkonari, esaten deutseela ez iñori ezer adierazoteko. Baru barurik dago alanguetan eguberdiraño, ta eztago orregaitiño atserena biarrik gogorrenetan. Bere amak diño, topau dabela belauluniko gabak orduak emonda, burubari luba kenduta, baztertxu baten".

Beste kontutxo polit bat be badiño Peru'k, bere alabearen Jaungoiko zaletasunaren barri damoana :

"Etorri zan ona, neu etxian ez nenguala mutil lotsa gaistoko bat. Oles egiebanian, urten eutsan atera esan deusudan alaba onek. Bere itxura ederrak beste baga, zoraeraso eutsan mutillari ta zabaldu zituan besuak laztanen bat egiteko; neskatiñla onek atzeratu eban gorputza, baña bai prestau bere besua emoteko belar-ondoko ain sendo ta zolija, zein da ikariaz ta uste bagako esku ezartiaz, jausi zan beera; itxi eutsan atia neskatiñliak, zirautsala : juaadi, lotsa baga ori etorri asan bideetati".

Au sinistuteko kontua da, berak diñoan lez, orduko baserritar neskatillak beso banatan kaleko neska bat eroateko ainbat indartsuak baziran. ¿Zein mutil ausartu alako neskatiñlai ikututxuak egiten?

¡Semeak be gaurko mutillen tertijokuak ba ziran! Entzun deiogun berari :

"...mutillok bere ez ditu inok ikusiko neskatiñla atzian, ez eurakaz berba egiten. Egunak dakaz etxera. Esan daruaket nik : mutillak, aurrena da Jangoikuaren bildurra; baña zuben munduko on izatiari begirata bere, gorde biar zaree neskatiñlietarik. Katuba sagubaren zain legez dagoz bat baño geijago, nundi ta zelan atrapau aldajen mutillen bat".

Gure Peru zintzoa gaur biztuko balitz ta gazteen agiriko alkarrideldute ta musu emoteak ikusi zer esan edo egingo ete leuke!

EUSKALDUNA

Peru euskaldun osoa zan. Euskaldunak bagara asabak irakatsitako oiturretan bizi bear garala esaten eban. Baita beste au be : "Galdu gai-

tube arrotz ta erdaldunak, ta tximino eginik jarraitu gura deutsegu aren asmuei".

Berbeta arazoan ez eban begiko euskera mordoillua. Ara zer iñoan : "Euskaldun utsak ezin aitu eikeezala berba oneik; Poderosua, kriadoria, konzebidu, poderiaren beian, errezuzitatu, katolikua, komuninua, errezurrezinoia, sekulakua...".

Berari entzunda, "Agur" berbia, bilbotar erdaldun eusko abertzaleen kontua bakarrik danik iñok ez dau esango.

"Agurra da euskera garbi ta ederra, esaten dana sarrera ta juarean. Agur jauna, agur andria esaten jakee lotsiaren kalte baga andikijai bere".

Dirudianez "basko" berbeak, olantxe, Bidasoa andiko berbeta-edo esan nai eban orduan. Peru'gaz jardunean dan abadeak au diño :

"Erosiko ditut, topau aldaidazan, basko ta giputzeko liburuak bere, euskera guzti guztietara aituteko".

Babel torreko nastearen ondorengoak España'ra ekarri eben berbetia izan zeinkeala euskaria uste dau Peru'k. Peru, (Moguel), bere aldiakoa zan ta orduko pentsamodua eban. Zenbait abereen izenai emoten dautsazan azalpenik gaur iñok ez leuke ontzat emongo. Dana dala, alan asmauteko be burua bear da. Nik beintzat atsegiñez irakurri izan dot atal ori.

GIZARTE MAILLA

Gizadia mailla bitan banatuta egoan aldi aretan (aberats ta andikiak leiñargi ta eskubide guztien jaube ta langilleak edo erri xumea ezereen eskubide barik) Euskal Erria'n andikia izan bearrrik ez zan leiñargi izateko; edozein langille izan eikean jatorriz euskalduna izan ezkeru. Euskaldunen leiñargi izatea ez zan andinaikeria bardintasun naia baño. Peru'k olan esan eutsan Maisu Juan'eri, au, beste barberu ezagun bat baño asko apañago jantzia ta andi naikoagoa zala ikusirik.

"Bizkaitarra zarian aldetik eginda daukazu idalgija; ez baña Bizargin, Odolateratzalle ta zauri osatzallia zarianetik".

Arrokeri bakoa zan Peru. "Ni naz iru etxaguntzaren jaube; buruba larregi urratu baga, badaukat zer jan ta zegaz jantzi, ta ez dot oraindino jaunaren izenik enzun neure semeen aotik bere ta gura bere ez dot". Ori bai, bere abizena bizi zan baserriaren izen bera izateak asko poztuten eban. "Eldu gara bada gabiltzan gabiltzan, o adiskidia, neure etxa-

guntzara; ta jakin egizu deritxola Landeta, landa eder baten dagualako. Ezta, gizon aldi dakigunian, etxe ontara ezkondu mutil arrotz edo beste etxetakorik; belaunik belaun gizon etxeko semeetati eldu da nigana; agaiti aldatu ezta niganafio neure izen ondokotzat etxe onen izena; alan derist Peru Landeta-ko".

Baserria ondatu ez eitean oso osorik oiñordeko bakar baten gain laga bear zan (gaur be bai). Onetzaz ara zer diñon Peru'k:

"Bizkaiko porubak emoten deust eskubidia aututeko zuben artian gura dodana oiñordekotzat. Guztiak bardin diriala, autuko dot semeen artian lenen jaiua. Zubek buru dongakuak bazinee autuko neuke alaba nagusija".

Baiña orretarako, alabea oiñordekotzat aututeko, gauzak txarto joan bear ko ziran semeen artean. "Beti da ondo berez semeren batek eruatia, arrotz ta beste izeneko bat jaubetu baga" —iñoan berak.

JANTZIAK

Peru'n jantziak zelangoak ziran berak esanda dakigu ta gaiñontze ko baserritar ta langilleak be bere antzera jantziko ziran kontixu:

"Ez naz ni Jauna, abarkak oiñetan, txapel bat buruban, gerreztuba gorputzian".

Beste baten diño: "Sartu dira kapela kerizgarriak ta egal biribil eta luzedunak. Nik enzun neutsan aita asaba bati, antxiñako andikijak bere ebiltzala abarkakaz, txapel batubaz, zeintzuk obago dirian buruba ta belarriak berotuteko kerizgarri zuk sombrellubaren izena emoten deutseezunak baño. Jagiko balira lurpetik antxiñako asabak, ez leukee sinistuko bizkaitar ta euren ondorengiak diriala gaurko jaun andiki ta andikigurak".

Jakiña, baserritarrak eurak be, jai edo olakoetan, bera Peru'n antzera, obeto jantziko ziran. Beintzat, bazituen "zapatak zotutxubetan, ta kalzerdijak kakuan esegita".

Baiña, ondorengo bere berbak entzunda, ezin asmau dot zer zapata modu ziran sutotxubetan gordeta eukezanak: "Eztozu emen idoroko oiñetako zorrotzik bai abarka edo zapata zabal edo motza".

Peru'n ustean "zapatia" berbea euskalduna da: "Zapatia esaten jako oiñetako zoru sendodunari, zapala dalako edo zapalduteko zerbait,

txito adjutuba. Zapua bere esaten deutsagu piztija atsitu zapalari. Auxe dakit, ez zer geijago".

Ortozik be noizbait ibilten ziran dirudiane: "Barriz gure neskatillak, euri ta aterri, eguraldi on edo txar, ortozik edo abarka zulatubakaz dabilzanak ¿zein desbardiñak besteetatik?".

Ez dakit zer praka modu ziran eurak jazten zituenak, baiña gaurko pantaloiak, orduan, gauza barriak ziran, modakuak eta ziur, baserritarak ez zituen jantziko. "Praka odolestubak (odi estubak, tubo estubak? nire oarra), abarka ta dagokazan kalzerdi marragazkuak ta buruban txapela". "Ni nas jutzizijako aguazilla. Artu dot arrastuba, ta esan jaku onuntz etorri dala barberu ondo apaindu bat, pantaloeduna ta moda-modara jantzija".

Buruko ule ta orrazkeraz olan diño, antxiñako kontuak esatean:

"Mutillak beti erabillen buruba mutildurik, ta emendi etorkeen euren izena. Gizonak azten eben ulia lepotik beera ezarteko, ta agertuko bazirian gizon artian. Neskatillak erabillezan uliak agirijan euren garbisunaren igargarriztat. Neska zantar jausi ta garbitasuna galdubak, zapijakaz estalduta burubak, lotsaturik, atzeratu ditezan bestiak dongaro egitetik. Andra ezkonduak estaldu eruezan burubak, batzuk orain legez, ta etxanderak jira askogaz. Aztu dira asko gaurko egunerako antxiñako gure mutil, neskatilla, gizon ta andreen jaanzi iraunkorrak".

Buruko ulea olan edo alan eroan zer ikusi andia eukan emakume ezkongaietan, goian irakurri dogunez eta baita ondorengo berbetan oartuko garanez be:

"M. J.—Neska, atera egin azumbre bat ardao, ta esaijon ugazaba andriari ipiñi daigula zerbait bazkaitarako.

La moza.—Ez nas ni neskia, neskatilla utsa baño. Ikasi egizu beste berbeta bat.

M. J.—¿Au zer da? ¿Guztiak nire kontra? Ozta egin ditut bakiak gizon onegaz, ta esesten deust neska batek. ¿Zer don bada neskatilla neskia baño onradago?

La moza.—¿Zer dan? Neskatillak urten lei nora nai bere ule trenza ederragaz; baiña ez neskiak. Aituko dozu onenbestegaz". "Zuk zeure soñoko bitxidunok baño nik geijago estimetan dot buruko ule trenza gerrirafio elduten jatana ta zapi baga nun bai erabilli daikedana".

JAN EDANA

Peru'k jan edanari buruz emoten dituan barriak guztiz politak dira. Uste barik kanpoko gizona apaitara andreari eroan eutsan ta au zan euken apartia:

"Badakizu, Maisu Juan, zelangua oidan baserri etxeko jan lekuba; txisilluban zamauba zabaldu, subaren ondoan egon, lapikua eraz ta aurrian euki; ¿nun Erregeen jauregietan bere, mai egoki ta adjutubagorik? Uste bagian legez artu ditugu. Jakin izan baleu Marija nire emaztiak etorteko ziniala zu, ipiniko eutsun aparti galanta. Gaur igaroko gara zelan alan. Urdai zielgati ta lukainka-solomuakaz egingo dogu koipatsu; gura badozu erregutakaz, gura badozu arto berozkuakaz. Zeure aukeran eukiko dozu. Erreten dagoz kastañak; egosten dago beisejijaren ezne txito mamintsu ta koipatsuba; lapikuan dagoz urdai ta zeziñaz eginiko azaak; erreten sagar mueta asko... Burduntzijan dakutsuz ollanda ta usakumiak. Eztozu etxeti urten ezereen billa; usuak azten ditugu emen ez geuk jaateko, ezpada eruateko artu emona daukagun andiki edo abadeen etxera, ta bai nor edo nor baletor geurera uste uste bagian". "Idi gizen ta zezin egitekuak eruatzen ditugu olagizon ta aberatzen etxeetara, diru ederrak artuteko, ta gulanguen etxeetarako gordetzen ditugu txaaltxu, idisko, bei zar edo aketirenak. Gose onarentzat ez dago jaaki dongarik. Aberatsen maijetan etxakee ain gogoz ekiten geeli gizen ta egaztijai, zelan baserri etxeetan arbi, aketiren ta aza lurruna darijuenai. Ogi zurija aentzat baño, gozuago da guretzat arto arregutada galanta. Talo ondo egiña auspian, morokilla, eznia, gaztañak ta sagarrak daukazan nekezalia, dontsuago da andiki guztiak baño. Milikerijen artian ez dago aragi sendorik egiten".

Taloaz gaiñera iru ogi mueta egiten zituezan; bat txakurrentzat berariz. ¿Ez ziran edozein orduko txakurrak!

"Egin oi dira batzubetan iru ogi mueta; bata garbija, bestia tremesa ta zantarrena ta txakurrentzat obia, birzaizkua".

Ikusi daigun orain zelan jaten eben:

"Erretilluba da euskaldunen platera. Ekarriko deuskuben platerak euko ditu gitxienez berrogei urte, ta iraungo dau beste ainbeste urtian. Zure bestelango platerok austen dira egunian bein lurrezkuak badira, ta bestelanguak, edo urtu oi ditu subak, edo ausita saldu edo trukau biar izaten dira. Zurezko kollara bat ekarten badeusku, ezta gitxi izango.

Barriz alperrak dira nik etxe batzubetan ikusi ditudan oratzalle, zubek tenedoren izena emoten deutseezunak. ¿Zetako emon euskuzan Jangoikuak amar atzak edo atzamarrak? Askoz gozuago dira aza ta okela zati eskuz ebagi, atzakaz eta ogiz batu ta jaten dirianak. Ondo izango da zamau lodi bategaz estalduten badeuskube mai ardao zetakaz zikinduba. ...Serbilleta orainguen ordian eztaukagu imiñi baño aus zapi edo marrats bat loitu etzaitian".

Euren janarietan ez dau patatarik aitatuten orduan emen ez zalako ezaguna. Ta indaba edo babarruna be geroagokoa al da ba? Beintzat au be ez dau aitatuten.

Peru ez zan edalea. Arda gitxi edaten eban, geienetan maian be ura. Baiña ez ziran egoten etxean arda barik, norbait bajoakien be. Maisu Juan'eri iru arda mueta atera eutsezen: txakoliña, klareta ta naparra. Edateak Euskal Erri'ra edo Bizkaia'ra ekarren kalteak minduta egoan. "¿O zorigaiztoko ardandegijak! (iñuan). Eta ¿zenbat kalte egiten dozuben! Bizkairik geijenak Erriojara darua dabena ta eztabena".

Orduan sagarra ba zana ba dakigu, baiña sagardorik eta sagardotegirik ez al zan ba? Beintzat orduko sagardorik ez dau aitatuten. Bera baño lenagoko denporakua bai:

"Len ozta ezagututen zan matsardua. Sagasti asko zirian, ta erriko ardao ta sagarduaz igaroten zirian bizkaitar ta beste euskaldunak. Diruba geratuten zan bertan. Eztago ikusi baño zenbait tolara topetan dirian etxe zaarretan, ezertako eztirianak".

LUA

Baserritarren orduko oiak gozo-gozoak ziranik ez dirudi. Peru ta Maisu Juan'en onetzako jarduna entzun daigun:

P.—...guazan oera; ni logura naz; ez dot eunezko, ez miesazko izararik biar, ez artulezko burkorik. Marrageruben izara latzen artian atserengo dot goisartian. Ez nabe iratzartuko ez ardi, ez imitxen zirikak.

M.J.—Gurago dot nik orrelango oera etzun baño sutonduan egon eguna argitu artian".

Biaramonian Peru'k diñotsa: "Obeto egingo zenduban zeuk bere lo egin bazendu, gaba alperrik igarota, ardi ta imitxa txatxar batzuk gora bera. ¿Zelango mutilla zu arratoetzarrez beterik dagozan toki edo gletan lo egiteko!".

Ardandegiko oira ez eban sartu nai izan baiña urrengo egunean pozik lo egin eban Peru'n etxean Maisu Juan'ek.

"Sartu nintzarian egin neban luma artian toki eder bat; eztot jira bat egin gau guztian. Bentako imitxa guztiak bere ez ninduben iratzar-tuko". Orduko politena au zan, zera... lotara aurretik su ondoan beroal-diak artzen zituela. Ori neguan izango zan kontixu.

LANGINTZAK

Peru'k azalduten dituan langintzen artian nekazaritzako ia ezer ez dau aitauten; olari buruz jardutean aitauten dau basoa. Guk emen lenengo aitatu nai doguna, orduan bat batean adiskide andia egin eban Maisu Juan'ena da: barberutza. Onek, bera Barberuba, Sangradoria, ta Zirujauba zala esan eutsan Peru'ri. Ta onek, bera Arotza, Argiña, Itzaña, Atxurlarija ta Baso-azterlarija zala erantzun. Baserritarrak, obeto edo txartuago orrek danok egin bear izaten dituelako.

Egia, orduan barberuak, bizarra kenduaz gaiñera sendakintzan be ekiten eben geiago edo gitxiago. Sendakintzako euren egitekoak azur auzi ataraak konpondu ta gaixotasun batzutan gaixuari odola ataratea izaten zan geien bat. Ta bear bada agin ataratzea be bai. Neuk be neure errian agiñak ataraten zituan barberu bat ezagutu neban orain ia irurogei urte; ta ziur inyezio barik.

Ara Peru'k Maisu Juan'eri onen langintzari buruz esandako batzuk:

"Odola ateratia, eskutur ikara bagia ta begi zolijak ditubenentzat, ez da orren gauza gatxa. Amabost egungarreneko ikasiko leuke edozein andrak, ta zuk baizen ondo edo obeto iminiko litukee txaplatatxubak, ta eraatsi zauritxuban lokaarrijak askatuko ez diran gisaan iñoren esku baga. Barriz, nok igarri zubei dakizuzan edo ez osatuten zaurijak, ezagututen bedar onak?

"Ez diñot nik dongarik zure biargintzagaiti; gizon biarrak zaree zelan bait; bizarra kendu baga ezin egon geindez; atera biar da odola gatx askotan, baiña neure ustez, ez ainbestetan, zelan ateratzen dan; eta nik agindu biar baneu, odola ateratia gaiti ez leukee zubek legezkuaq diru berezkorik eruan biarko, edo beintzat ez odol-aterarik egin Osagille nausi Medikuben izena emoten jakeenak ikusi, ta onek agindu artian".

Len sendakintzan, batez be sasi sendakintzan bedar asko erabilten

zan. Ara emen olako zerbait baieztuten daben bertso bat, PERU ABAR-KA'tik jaso:

Pasmo bedarrak biarko dira
Eragosteko pasmua,
Orma bedarrak gozatuteko
Banatu yatzun albua.

Orduko denporetan Euskal Erriko langintzetan nebarmentarikoa burdingintza zan. Lau laguneko aldrea, su ta garretan, lurrari be darda-rea ataraten eutsen ots artean, gizonen itxura barik, brus andiak jantzita, moruak baiño baltzagoako arpegiak izerdi lamatan zituela, lotarako txan-datuaz, jarduten eben.

"Peru'k.—Maisu Juan: zer uste zenduban emen ediro? ¿Gizon ondo apaindubak? Begiratu egiezu ondo buruti biatsetara: eztabe agiri ez begi, ez betulerik baltzaren baltzaz: ederrak dira maurubak oneen aldian. Kapela igartu ta erdikin bat buruban, zapi kedartu bat bekoki erdiraño izerdija artu ta subaren berotasuna arinduteko. Obrera uts, idu-nian lotuba; ezta zer eskatu jakerik, ez kalzerdi, ez abarka, ez ta prak-rik bere. Oera etzuteko ta jagiteko eztaukee nekerik zer artu". "Erdu neugaz oneen oetokija ta oia ikustera. Eztozu ikusiko ez uarkarik, ez etzun-toki jaso ta adardunik. Lurraren gañian lastamarraga bat estalki zantarragaz, ta burko ez obia. ¿Zer deritxu?".

Olagizonen jan edana azalduten berba oneik esaten ditu Peru'k:

"M. J.—Eta ¿ze jaten dabe?

P.—Ikatzgiñak baiño obia. Beteten dabee sabela ogi beratu ta ondo koipetuaz, otuten jakeenian ta ezdozu zuk iños jan gauza gozuagorik. Esku atz ta ezpanak bere miazkauko zendukez gozuaren gozoz. ¿Nun illten da oletan baiño sesin-gei edo idi gizendubagorik? Andikijak eurak datoz nosbait olara beste zeregin baga, oneen lapikuan ogija beratu ta koipetuta jatera; eta esan darue euren etxeetan sesin ta urdai ederrakaz lapikua eginarren, ezin dabeela ain gauza gozorik jan; ta neuregango dator au, sutegiko ikatz ondo erriaz gar baga irakiten dabelako emengo lapikuak geldi geldi gañezik egin baga. Gizategijan dauke mai iminerra-za. Saldia artuten da katillubaz, aragija txikindu ta aoratuten da atzamar Jangoikuak emonikuakaz; ura edaten da galletiaz, au da lau lau bizi izatia ta asmo baga".

"M. J. Eta ¿Eztabee ardaorik edaten?"

P.—Ez egunoro ta gitxiago bere. Asteazkenian dauke edanaldi bat ola-jaunaren lepora, ta nos edo nos, zu ta ni orain legez etorrita zerbait emoten deutseenian euren izenian edateko".

Olak askontzat ziran irabazi-bide ondorengo berbetatik ateratzen danez:

"M. J.—Eta ¿ze on jatorko Bizkaijari ola onetarik?"

P.—¿Ori itanduko zenduke? ¿Zer egingo neuskijue nik neure basuetako abe bizijai, olarik ezpalego? ¿Badakutsuz ainbeste baso ain eder-to jantzizak? Igaroko baziña Bizkai guztiko beresi ta mendijetara, etzen-duce esango ainbeste egur ebagi leitekiala. Gizon bakotxeko, zeinbat milla aritx, arte, pago, kastaña? Bada azkoriak inausten ditu, ta subak daruaz eurrez legez. Dirianak, etxe-sukaldetan biar dirian apur bat batzubez ostian, burdiñatuten dira esaterako, ta sartuten dabee zidar, ta urre asko. ¿Zeinbat itzañak ikatza olara eruaten, errenterijetatik mia ekarten, burdiña bera eraasten? Eta ¿zeinbat ola-gizonak eurak? Eta ¿zenbait enparetan jakee ola-jaunai gauzaak zuzen badabilz? Ezta Bizkaijan arraa bete lur alperrik galduten; besterik ezpada, tokirik agorre-nian billatuten da iraurkina, ta egiten da simaur edo satsa lurraren on-garriztat". Piñurik ez dau aitatuten. Egon ez kontixu.

* * *

Peru'k azaltzen daben ondorengo eungintza lanak neure amari sarritan entzundako upiña dakast burura; euna egiteko liñua artzeko ereiten eben azia.

"—Txomin; pozik egongo zara orain iru alkondaran jaube ba zara-ta.

—¿Nundik iru alkondara?

—Bai Txomin; soiñian daukazun zirki markije

erosiko deutzudan barrije
ta kutxan azije".

Iru alkondara eukazala? Eukan bakarra be, a zirki markije ¿zela-koa ete zan!

PERU ABARKA idatzi zan denporetako euskaldun baserritarrak eurak euren lanez egindako euna be eukiten ei eben; ta azia erein eta

milla modutako lanen ondoren euna gelditzen zan arterañoiko gora bera guztiak azaltzen deutzaz Peru'k Maisu Juan'eri. Ta oraindik guztia argia-go ikusi daian, ezpatariak, liñuaren kontuak zeatz-meatz adierazoten di-tuan bertsuak abesten ditue.

Kantatu dagiguzan
Linuaren penak
Ezpata oneen otsian
Izanik latsenak;

Alkar ondo artuta,
Soñuba neurturik,
Gorputzeko nekia
Isteko arindurik.

Itxura danez azia erein ta alkondara biurtu arte oso-osorik lanak emakumeenak ziran; lan asko neketsuak baiña euskaldun neskatilla gaz-teak, aldran, kontu kontari ta kanta kantari pozik egiten eben.

Euskaldun neskatillak
Nekiak arturik,
Eztabe onetako
Gizonen biarrik;

Eurak dira erella
Lino gijarijak,
Eunla ta jostun
Ta gorularijak.

Ta gaia alboan lagatea badabe, bertsoak aitatu doguzan ezkerro one-tzaz zerbait esan daidan.

PERU ABARKA'n agertzen dan bertso pilloa, edozer gaitakoak, guz-tiak euskera jator ta garbian egiñak dira. Bear bada, baserri giroko kon-tuak euskera garbiz azaltzea erreza dala esango dau norbaitek; baiña gure bertsolarien bertsoak orko antzeko gaiak egiñak izan arren berbeta mordoilloa ikusten da eurretan. Aldi bateko bertso zar saila eskuetan artzen badogu errez oartuko gara diñoadanaz. Txirrita'k eta, ez dauke ola-ko euskera garbirik.

BITXI ATALTXUAK

PERU ABARKA liburuan aitatutea merezi daben kontu polit ta bi-
txi naikoa irakurten da ta geienak olantxe aitatu utsa egiñaz, edo azal-
pen txiki batzukaz ona aldatzen doguz.

Iñorgaitik marmarrean edo txarto esatea ez jakon atsegin Peru'ri,
"Abagadune txito erazkua da illunzeta ta apal orduraño sutondoko ingu-
ruban berba egiteko, iñori ezetan ikutu baga. Nire etxian ez da entzuten
dongarorik lagunaren bizieraren gañian. ¿Zek sartu biar gaitu inoren
gauzeetan?

* * *

Siñiskeriak. Azeriak errez atrapauten zituen bategaitik Maisu
Juan'ek diño: "Alakorik bada, enkantubak daukaz ta pamerialak ta las-
ter atrapauko dabe, inkisizinoera eruateko".

* * *

Justiziakoak zorrak ordaindu eragiten. "Ikusi ditut nosbait idijak
korteetati atera ta salduten euren pagurako, arrantza batian isten zitu-
bela idi jaubeak".

* * *

Agurra. Ez darabil "Kaxo" edo euskaldun itxurako agur berbarik.
Ta gizonak izan arren alkarrri musua emoten dautse.

"¿O aspaldiko Joanis! ¿Bizi zara? Ondo etorrija izan zaitiala.
¿Nor dozu lagun ori?... O Txergori! Emoidazu apa laztan bat".

* * *

Erlojurik ez al euken baserrietan?

"M. J.—¿Nundi dakizu emen ze ordu dan erlojurik ezpadago, en-
zuten bere ezpada elexakua?

P.—Baserrijetan daukaguz igargarri asko egunez ta gabaz, ta zuzen-
nago gabiltz gu ordubetan, erri barrubetakuak baño".

* * *

Pozik artuko eben areik gaurko boligrafua.

"Peru, esaidazu arren ostera bersua, ta aterako ditut papera ta
tinteruba beti aldian darabildazan legez, eskribiduko dot aztu eztakidan".

Dirua. Zidarrezko dirua aitatuten dau ta urrezkoa be erabilliko eben
kontixu. Gure denboran be ezagutu izan da zidarrezkoa España'n eta
bere mendeko lurraldetan. Balio be ederto balio eban ogerlekoak, baiña
alako iru-laurek zelako pixua sakelean? Orixe, iru-lau ogerleko gitxik
euki al izaten ebela.

"Pagau deuste bisitako errial zidarra".

* * *


Txarriagaitik diñoana. "Gurasotzat artuten dirianai edo aituteko,
deituten jakee apua, ta parkaziñua eskatu baga, ezin emon deutsee ne-
kezale prestubak onelango izenik".

Txakurraz. "Eutsi bada makilla bat larrapastuta jausi etzaitian, ta
baserri txakurren batek usigi etzaitzan. Makilliak bildurtuten ditu, bes-
tela badakije atzetai bestela baitakuan oratuten ta osatuteko, biarko zen-
duke bere ulia; bada esaeria da: Txakurak egiñiko zaurija osatuten da
txakurraren uliaz".

* * *

Txakurren kontu orregaz emon deiodan azkena PERU ABARKA'ko
orrialdetan irakurritakoak ona aldatzeari. Bear bada beste norbaitek ango
beste kontutxuren batzutan be begia ipiñiko leuke, baiña nire ustez one-
txek dira ango kontagarrienak. Jakiña, berbeta edo gramatika aldetik
begiratuta oraindik lan au baiño askotaz andiagoa egiteko ainbat gai
daukaz. Baiña ori beste baterako edo beste batentzat lagaten dogu. Le-
kuona'tar Manuel abade agurgarriaren omenez idazlan luze bat eskatu
dauskuenean auxe egitea bururatu jaku; erreza dalako (ia guztia beste-
tik jazoa) ta kontu politak diralako, PERU ABARKA irakurri ez dabenen-
tzat beñiepein.

Ta amaitzeko; Jangoikoak bizi luzea emon deiola Lekuona gure
maisu argiari.



Berastegi, 1958 (?). Lekuona jauna, eliz-aterpean, azterketan.



Berastegi, 1969-III-27. San Sebastian baselizetxea, ezin utzi, ere, aztertu gabe.



Irun, 1972. Santa Elena baselizetxean azterketak egin-garaiez. «Erroma»tarren garaieko zenbait zar-gauz azaldu ziran. Esker-eskuira: Atauri, Tomas.-Barandiarán, Ignacio (azterketari-buru).
- Lekuona jauna. - Barandiarán, dar José Migel. - Elosegui' tar J.



Berastegi, 1960 (?). Ezker-eskuira: Lekuona jauna, Laborde jauna, Urrestarazu jauna, Aldazabal jauna ta Abaunz, jauna.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- II -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Oyartzuarren oyartzunak

LEIZAOLA'TAR JOSU MIRENA

Lekuona adiskidea Oyartzun'en jayo zan urte ayetan ¿zer zan erri ori guretzat, Donostiyako kaletar umeentzat? Ez burnibidetik, Zarautz aldera, Irun aldera edo Tolosa aldera juanaz ikusten etzan erri bat; orduko Errenderirañoeko edo Ernanirañoeko tranbietan ere agertzen etzi-tzaiguna. Urbilleko ala ere genekagun erri bat.

Gure Gaztelu-mendira piska bat iyotzean berealaxe ikusten genitun Aya-Arriaren arrizko iru agiñ ain ezagunak. Sorkaldean, zerua jateko egiñak bailiran, antzean.

Eta "arri" oyen pean, onuzko aldean, illun egiten zitzaigun zulo zabal batean zegoala erri ori esaten ziguten.

¿Zulo illuna? Bai-zera.

Gaztetzen asiya, ni, erdi-donostiar erdi-usurbildar naizena, beste ustekabeko zerbaitez oartu nitzan. Gure erri-aldean eguzkiya beti Ayako-Arrietatik, Oyartzun'go gañean, agertzen zala eta agertzen dala. Ta ¿nolako egun-sentiyak ikusi ditudan, pake aundiyenean, oyezan etzinda negoela ere, Usurbil'ko Oa edo San Esteban auzo artatik! Mirarizkoak.

Baita ere, oso goiztar Donosti'tik Bilbao'ra burnibidez ni joala.

Zeruaren goiz-gorri ayek ez ditut aztuko. Guziyak Oyartzun'go zeruan.

Nik, oyartzuarraren oyartzunak Oñati'n Euzko-Ikaskuntzen lenengo Batzar aundiyen, 1918'garren urtean edo, entzun nituan. Ordurako, Lekuona gure au Gazteiz'en euskal-gayetan ari zan. Ez dakit lenagoxio ez ote "La métrica vasca" itzaldi sakon bat emana zeukan. Beintzat, Batzarra ta itzaldiya garai batekoak egiten zaizkit gogoan.

Eta arrezkero beti lanean ari izan dalako, izugarrizko lan sailla osatu dualakoan nago. Euskal-lan oyen izen-errenkada'renbat bearko litzake emen nunbait jarri.

Nolako langille eta zenbait gauza berri erakutsi dizkigun arrigarritzkoa da.

Ez naiz ni ori zeaztutzen ibilliko nunbait. Bai, ordea, nere lanekin zerikusi duten alde bat beintzat ikutuko.

"La métrica vasca" orretan Lekuona'k euskal-olerkiyan erromatarren olerki-era ezagungarriya dala esaten zuan: itz-otsak (silaba'k) luzeak edo laburrak eratuaz olerkiyaren neurkera osatzen dutela neurtitz bakoitzean izkera biyak.

Ez eztabaidarik sortu nayaz, baña ni nere aldetik nere lan guztiyetan iritzi ori alde batera utzita sayatu izan naiz, irakurri nazutenak ondo dakizuen bezela.

Gaur, ez omenaldiz, garai egoki bat dalako baño, nolabait Lekuona'ren alde izango litzaken zerbait emen ipintzera nua.

Ustekabez, ain egoki, azkeneko egunetan bururatu zait. Ez da itz-otsekin lotzen oartu bear detana. Bai, ordea, latindarren eta gure olerkien artean lokarri egiten duan zerbait.

Nere lanen artean ba da bat *amaikadun* neurtitza euskal-olertiyan mendez-mende nola agertu dan erakusten duana. Etxepare baño lenagotik, XIV gizalditik gaurdaño.

Ba, euskaldunen artean edo euzkotarren artean, bederatzi mendez aurretik amaikadun neurtitza latíñez Prudenzio'k erabili zuan gogoragarri dan "Peristephanon" olerki-gutunean. VI'garren olerkiyan *irukotan* dabilki 162 aldiz, beste iñorekin nastu gabe.

Ara, gu sartzen gaituen ango iruko bat:

Exultare tribus libet patronis,
quorum praesidio fovemur omnes
terrarum populi Pyrenearum.

(Zorionekoak gera iru aldeze
goyen lagun izateaz
Añamendi-lurretako erri guziak).

Oartu dezadan Labieru'ko illarriyarena eta Ozaeta'ko Santxa'ren olerkiyak irukotan daudela eta amaikaduna badabilkitela XIV eta XV'garren gizaldietan.

Ta, latíñezko oyen ondorean ¿zer?

Gure erriyan bertan birartekorik arkitzea baliteke latíñezko besteren bat edo batzuek.

Latíña'tik sortutako izkuntzetan, berriz, izanak dira tartean.

Ara, egun oetan neri gertatua. Adiskide batek, margoz ederki egin-

dako bidai-txartel bat bialdu dit. Donostiya'ko Gazteluaren atze-aldean —Santa Klara ta Igeldo ere ikusten dirala— itxasoaren uain izugarri batek orma jotzen duala eta ormaren esku-toki edo karela guztiz apurtu eta urak eramana luze-luzean ikusten da.

Artu ta beareala gogoratu zait amairugarren mendean egindako olerki aundi batean, trobadore zan G. Anelier'ek, Donostiya ere Alfonso VIII Kastilla'ko (Gaztela'ko) erregeak beretzat Gipuzkoarekin artu zuala esateko, neurtitz au —*amaikaduna*— eratu zuala:

E San Sebastian, on es la mar batent (1)
(Eta Donostiya, itxasoak jotzen dun lekuan).

Itxasoarean asarrea lerro abetara ekartzeakoan ezin ixillean utzi oyartzuarrari bere bizitzaren erdiyan nolako ekaitzak jo ziyon, euskaldun erriyarekin batean. Gogorak jasan bear izan zituan.

Etzan, ordea, lan egitetik atzeratu.

Bere oyartzunak aurretik eta bere oyartzunak gero ere euskaldunen zereginetan ari izan dala erakutsi digute.

Gai ugarienetaoak dira. Esate baterako:

euskeraren aurrerapenerako, eta abek Euskaltzaindira eraman dute;
euskal-olertiya gaitzat artuaz, bai olerkiyak egiñaz ("Milla euskal olerki eder", Onaindia'ren gutun ederrean nornaik edo ikusi dezaken bezela), bai euskal-olertiya bera zoko illunetatik edo ez ezagutuenetik ateriaz;

euskal-oiiturak ere argitan jarriaz, *tobera'tik* asita Gaboneko-
etaraño;

euskal edestiyan jakingarri diran ainbeste gauza billatu ta zabal-
tzeaz;

euskal ertilari zarren lanak-eta erakutsiaz; gutxienez.

¿Nork, ba, ain zabal euskaldunen gogo-lantzea ezagun arazi?

Oyartzuar onen oyartzunak neregana maiz eldu dira eta nere bilaketetan argi eginkorrek beti izan. Itxurazko gauza txiki-txiki batekin aditzera emango det au.

(1) Ez da, ala ere, ziur amaikaduna au izatea amabidunen artean dator eta. Ez da amaikadun bakarra danetara, an bertan. Ikusi Iruñaz ari dala:

Al borc de San Cernin, on es leialtatz
(San Zernin auzora, zintzotasunekora).

Edesti gayetan al izan detan guzietan ari izandu eta izaten naiz. Ez edestiña zerbait gogoko zaidalako (ots, edesti irudituak ez ditut ainbeste maite), gure jatorriyan eta joeretan gure aurrekoak zer utzi diguten jakitea bearreko bezela artzen detalako. Gu geren artean nola batera etortzea edo ekartzea zeregin aundi bat izan zait beti eta laguntzarik aundiyena euskaldunen edestiya ondo ezagutzearekin izan det eta daukat. Edesti berri-berriya ta edesti zar-zarra eta tartekoa zeatz-zeatz eta sakon argitzen sayatzen naiz ba.

Lekuona adiskidearen lanak ortan asko lagundu naute. Gauza gutxi ezagun batean nola, ara emen.

"Del Oyarzun antiguo" gutuna oso pozgarri izan zait. Urte gutxi da eskuratu nuela. Bertan, 304'garren orrialdetik aurrera dagon oyarzuarren izen-lerrokada —1535'g. urtekoa— ikusi nuanean berealaxe izen batzuek gogoan jaso nituan: Estebeko (4 aldiz gutxienenez), Martieko ta Joanikot. Izen oyek Oyarzun'en XVI-garren gizaldiyan agertzeta atsegin zitzaidan.

Egiya, XIV-garren gizaldiyan, Naparroa'ko jauregiyan gizasemeak atzizki orrekin azaltzen dira beti, *Mitxelko* esate baterako; XV-garrenean berriz *Juanikote* Butro'ko semea zana, Bizkayan.

Abetan, guztitan *-ko* atzizkiyak *txikiya* edo *txiki* esan nai dute.

Esanai ortakoa dala atzizki ori XVI-garren mendetik ona argi esana da. 1596'garren urtean Iruñan azaldutako "Esaera-zar" gutunean onela dator itzultzearekin batera, X'garren mendeko Naparroko erregin baten izenari erantsita:

306. Totacoje mirabe prestu Totica, sirvienta que vale mucho,
gauza guichietara guertu. aparejada para pocas cosas.

Beraz, Estebeko oyarzuar oyek oso ongi etorriyak izan dira nerretzat.

Badamazkit berrogeitamar urterenbat Eneko ta Oneka, Naparroako lenengo edo izan ziran errege eta erregiñaren izenak euskal sustrayezko ote diran atzetik nabillela eta. Eragozpen bat edo beste arkitzen nituen nere burutapen bidean.

Au zan lenengoa. Izen bi oyek bi *n'*kin idatzizyak arki aro zarretan. Eta egiya da Enneko'tik, Yeñego bitartekoz artuta, Iñigo sortu dala. Era berean (baño tartekorik ez det iñun ikusi) Onneka'ren ondorena Iñiga dala esan da askotan.

Nik ez nuan nere buruan artzen ori ain egiazko bezela.

Beste galerazpen bezela euskeraz Onneko bear zalakoan nengoen. Eta ez nun onelakorik ikusten.

Zalantza abetan nengoala, gerozko urteetan bi izen oyei laguntza ematera beste iru etorri izan dira. Iru abetan *-ko* atzizkiya eta aurretik dauzkaten itzak askoz garbiyago datozte.

Guztioyen artean itzak eta esanayak berez kidetzen dira nerretzat. Abek dira bostak:

Eneko,
Oneka, Oneko,
Obeko,
Osako,
Gaizko.

¿Bost izen abek *-ko* atzizkiyaren aurretik *ene, on, obe, oso, eta gaiz* itzak jarrita egiñak daudela esan al diteke? ¿Eta gaztelaniz edo gazteleraz bost izenak onela izatea:

Miito,
Buenita, Buenito,
Mejorcito,
Enterito,
Malito?

Bayezkoan gelditu bearke bagiñake, izen oyek edo nola atera diran garbi jartzea etzait neri ain gauza zalla iruditzen.

Ez det uste beste izkeretan —izkera nik ondo ezagutuetan beintzat— onelako izen sail bat dagoanik edo. Ontaz, baño, zerbaiten antza igartzeko beste au bururatzen zait.

Neronek, 1930'garren urtean, "Euzkadi" izparringiyan agertu izan nuan aidetzako euskal-itzak erabilliyak izan zirala Ebro ibayaren egoaldean giza-izan bezela: aita, ama, seme, anaia, arreba, amunna, osaba arkitu nituen eta. Batzuetan abizen (sendi-izen) bezela, bestetan gizon edo emakume batentzet. E. b.: Garcia Anaya eta Annaia Sarracinez.

Sendi-izen bezela onelakoak frantzeraz ibilliyak izanak eta gaur ere ibiltzen dira: *le général Frere*, M. Habib Deloncle beintzat ezagutzen ditugu. Gizon edo emakume batentzat, ordea, ez det orrelakorik arkitu.

¿Nola ba euskaldunak bost izen oyek aukeratu, asmatu? Neretzat, aurraren jayotzan sortutako goraberak ekarri dituzte bostetik azkeneko laurak. Bestea ere aurraren jayotzari lotua dago.

Aur bat jayo ta bertan, ikusten danean, bai amari, aitari edo etxe-ko edozeini, ¿nola ¡En...netxo! biyotzetik espafietara ez etorri? IX ta XI'garren mendeen arteko garai artan, ordea, *-txo* baño oituagoa zan *-ko* nunbait. Orduko gizon eta emakumeen izenak lirake guzti oyek.

Oneko edo *Oneka*'rena ori bezin egokiya izango zan "¡On...neko!", amari oñaze eta nekerik gabe jayotzean etorritako aurrari esatea berez zetorkiyon.

Bai ta *Obeko*, jayotze errexaz gañera, aurra semea edo alaba nayagoa zala gertaera izatean. (Izen ontaz ,oar bat: *Obenna*, emakume baten izena bezela, Berzeo'ren "Vida de Sancto Domingo de Silos" olerkiyan 637'garrengo laukoan agertzen da).

Osako aurretik edo auzoan aur makal edo zerbait (ao-sabaia e. b.) gabeko jayotza bat izan danean atzetik etorriyari jarritako izen bezela.

Gaizko, berriz, oñaze eta bildurretan jayotako umeari "¡Gaizko...! or zaude, ala ere, azkenean!" esan zitekeyen.

Izen oyetako batzuek nere "La frontera vasca contra moros" lantxoan aitatu nituan. Geyenak edo, Menéndez Pidal'en "Documentos lingüísticos del Norte de España"n ateriak ziran. Arrezkero, beste idazle eta billakatzalle ezagun batzuetatik gero ta geyagotan etorri zaizkit: Mitxelena'ren "Textos arcaicos vascos", Sánchez Albornoz'en "Despoblación y repoblación del valle del Duero", Zierbide'ren "Fontes linguae Vasconum", 1970'en n.º 6, Jaurgain'en "La Vasconie", P. Marca'ren "Histoire de Bearn" eta orrelakoetatik artuak ditut.

Osako, Mitxelena'ren TAV, 952'g. urtekoa bezela dator.

Zierbide'k *Gaizko* Gaisko idatzita dakar, 1136'g. urtekoa bezela. (FLV., 1970, 295'garren orrialdean).

Azkeneko onen lanetik, izen-sailla geitzeko bidea artuko nuke. Batez ere bi giza-izen jasoko nituzke: *Belko* (Belcho) ¿moreno, negrete? 290'g. orrialdean; *Ochoco* Moylle, Marco Ochoco'ren ondoan, 289'garrenean.

¿Zer ote dan Otxoko au? Erderaz Lobito, baño esan nai izango lukeana *illetsu*, aurrak ille ugariekin jayo izanatik artuta, otxo'aren ille bat ere gutxi ez dala esaten dala oartz.

Onekez (279'g. orrialdean) eta *Onekiz* (281'garrenean) ere ongi etorriyak dira lantxo onetan.

Abekin, Zierbide'ren lana oso atsegingarri izan zaidala esan nai det.

Ala ere, zerbait zuzendu bear lukela oartzera nua. Zierbide'entzat Gaizko de Filera, Lérida-aldeetik etorritako norbait izaki. Baña ez, nik "Euzkadi"n 1929'garren urtean idatzi nuan ("El libro de la Cadena del Concejo de Jaca" gutunetik artuta) Filera Sangüesa'tik bertan mairu'en kontrako gaztelu bat Sancho Ramirez'en denboran Jaka'ko Elizbilzean izendatzen zala; andik ba Gaizko de Filera Tudela-aldera juana, bera edo bere aita, mairu'en erri-alde au Naparroko erregeak kendu ziyenean, Zierbide'k irakurritako paperaren ogei urtez aurretik. Filera'n guda-ekinaldi gogor bat izan zan 1308'garren urtean edo, Luis-Hutin Nafarroako errege zala.

Jarri ditudan burutapen abek, Oyartzun'go Estebeko len aitatuak berrituak dira.

Zuri, ba, Lekuona adiskideari, dagokizu orain lerro abetan jarritakoaren jarraipena jartzea. Zuri eta irakurle guziei.

20-Urrillak-1976'g. urtean

Otamendi'tar Iñaki geure olerkari bikañari

LIZARRAGA'TAR H.

AMONA XARRAN KANTUE...

1
"Tuñkurrun-tuñku
tuñkutuna :
tuñkurrun-tuñku
tuñkue...".

Amona xarra
—ezpañen parra—
kantaz dantzatzen
kuitxue...

2
Ego-aizea
me-mea.
Amonan kantu-
-lertzea...

"Aur onen begi,
ire arpegi...
Aman irudi
betea!".

.....
"Tuñkurrun-tuñku
tuñku-tuna,
tuñkurrun-tunku
maitea!".

3
"Loa, seme, lo
ixilik.
Badut gaur goxo

ugarik...
Jekitzekoan
altzoan
eman bearko
zuri nik".

4
Kunkulun-kunku
intxaurrak.
Egoak dantzan
adarrak...
"Amalau-zanko
gañean dago
entzuten zure
negarrak".

5
"Loa, seme, lo
ixilik.
Umerik badek
politik,
muxu-artean
goiz-arratsean
ire amonak
zebiltzik".
.....
"Tuñkurrun-tunku
tuñku-tuna,
ez egin neri
negarrik".

6
 "Zapi zuria
 zikindu,
 zure negarrak
 egin du.
 Malkoei begira,
 zenenak dira?
 amak galdetu
 bear du...".

 "Tuñkurrun-tuñku
 tuñku-tuna"
 amona xarrak
 diardu...

7
 "Auzokoari
 esan nik:
 nereak ez du
 negarrik.
 Lo, maite; aita
 laixter da
 keizez beteta
 zelaitik".

8
 "Entzuten badu
 "txint" ere

1
 Goiko soro afen lertzea...
 Garirik mardulen eltzea.
 Neskatz apain bat, ufats geldi,
 sororantz bañenak auste.

jarriko zaigu
 aserre.
 Loa, maite, lo
 egin gaurkoan:
 goiko muñoan
 sorgiñak daude
 begire...

9
 "Tuñkurrun-tuñku
 tuñkue...
 Artu du loa,
 gaixue!
 Noizpait... apai
 jartzera noa.
 Egizu loa
 naikue..."

10
 Intxaur adarrak
 gelditu dire.
 Dantzan bakarrik
 kuitxue...
 Egoak urrun,
 "tuñkurrun-tunkun"
 amona xarran
 kantue...

AUR-MIÑ

2
 Sagastiko sagar gaztiak
 punta-puntan dantzan lorea.
 Neskatz apain; udaberriak
 eman ziñan ba loratzea...

3
 Min diñat-min bizi-barnean.
 Garirik mardulen eltzea...
 Neskato: noizako irean
 izango diñagu gauzea...?

4
 Gariak bilduta; sagarrak
 gañean atsedeen eziña...
 Neskato; sagartxo ireak
 kir-kir-kir mamian ler-miña!

5
 Goiko soro afen lertzea;
 gariak bilduta etxea.
 Neskatz apain; etxerantz geldi...
 Aur-miña barnean daukea.

6
 "Bil nadin ixilik
 bil nadin nerera".
 Jendea badator
 lanetik etxera.
 Eguzki gordetzen
 "Gaztelu" atzera.
 Argiak egin du...
 Betor illun-bera!

7
 Neskati gazteak
 barnean ler-miña;
 gorputzen ikara
 estutzeko aña...

Gariak ixillik...
 Gauaren berdiña...!
 Neskari jun zaio
 atsedeen eziña.

8
 Piu-pi, pi-pi-ri,
 txoria kabitik;
 maite-iripaía
 zerion aotik...
 argiz bete ditun
 sagar da ariztik...
 Añaren eskuak
 amaren kolkotik!

9
 "Bil nadin ixilik
 bil nadin nerera".
 Jendea badao
 etxetik lanera...
 "Aur onen beaía
 nere bulaíera".
 Txoria kantari
 sasitik sasira.

10
 Añaren ama
 ixilik...
 Amaren aña
 poz-pozik.
 Garia goí...
 Sagarak geldi...
 Egoak danak
 jo zetik.

Lekuona, euskel-iturri

LOIDI'TAR PABEN

Nere biotz-gogoak
nai lukean bezin
txori-abots ederrez
kanta nai, ta ezin...
Gaitz dalarik, egin bait diot zin.
Nezakean bidetik
naiz ta gogor ekin,
Lekuona'ri nola
ordaindu itzekin
damaigun ainbat euskal-etekin..?

Biotzez geiago naiz
adimenez baiño;
oinkari ona gogoz,
adi-argiz laiño.
Ez izan ni Bilintx, ez Otaño..!
Elburua deika det
—Atoz oneraiño..!
Jardun-bideak ez nau
ase oraindaiño.
Argi, zatozkit lagun goraiño..!

Ezin uka ziteken
egi agiria:
Gutxitzen ari zala
euskel-barrutia,
arrotz-odolarekin nasia.
Beti etsaien mende
zan gure nagia,
Euskera iltzen eta
ixilik erria.
Au etsipen ikaragarria..!

Makurtu zarra bait da
Euskerak duena;
bide igaro-gaitza,
sasitua dena,
galtzeraiño biziaren sena.
Ala baiña, orra or
iturri gardena,
euskal-egarriaren
asegarriena.
Lekuona du bere izena.

Oyartzun-Ibarreko
ur-begi orona,
Aitor'en mezulari
danez Lekuona,
aberri-mintzoa du txit ona.
Ale-arritik ura
garbi dariona
loratzen ari zaigu
zelai ta sakona.
Gorrotagarri zaio egona.

Esna-ordu, zala ta,
gaindurik eziña,
biziki jaso zuan
euskel-ikurriña,
inguruan sortuz atsegiña.
Zitzaz mintzo-legean
jaioterri-miña,
egundoko lana du
geroztik egiña.
Beti lanpetua ta gordiña.

Izkututan bezela,
ixilikan beraz,
sortu ta piztu zenun
gure Kardaberaz,
zori-gaiztokoaren tankeraz.

Ikasi nai zuanak
zurekin euskeraz,
jolasak utzi bear,
ez genduan erraz...
Erdera kurpilletan, gu leraz.

Ala ta guziz etzan
moteldu Bazkuna,
astero berrituaz
indartu genduna,
iritxiko ba giñan urruna.
Aberasgarri bait zan
zurekin jarduna;
batean idatzi ta,
bestean entzuna,
irakasle oberik ez duna.

Kardebarz'tik dator
erne-min beroa,
txingurri-lana bezin
ixilikakoa,
garo-usai artean jaioa.

An ikasiak duten
aurrera-gogoa
Euskera orraztuaz
girotzen dijoa
Eliza'ren barru ta kanpoa.

Errekak ugaltzen du
baso ta belardi,
belarrak artaldea,
Euskera'k Euzkadi.
Guztiok dezagula bein adi..!

Larre gorriak orain
dute zuzper-aldi;
zimel egon diranak
gurean aspaldi,
euskeraz dariote izardi.

Orra Euskera zarra
erneberritua,
zuk egurastu eta
ongarriz landua,
erriak egin dezan batua.
Lotsetan gorri zanak
jaso du burua,
ikusiz uzta onek
dakarren ondua,
bai eta ere zeiniek bildua.

Xirriparen ur-junak
pir-pir dijoala,
ornitzen du errotik
landare argala,
edertuaz inguru zabala
Lekuona-Iturri'k,
ari-ariz ala,
baratzak loratuaz,
ugaldu dezala
euskel-ariztiaren itzala.

Eten gabea bait da
bere maixu-lana;
eskolatuen maillan
gaiñ-artuz pixkana,
jaso digu elerti etzana.
Eskutik garamazki
Euskerarengana,
barne-girotzearren
uko ezin dana:
Amari zor diogun laztana.

Batu-eziñiak dira
gaua ta eguna;
ez da Gaztelera'ren
ezkon-eraztuna
Aitor'en izkuntzak bear duna.
Auzi orretan bilduz
gure nortasuna,
zutik jarri zenduan
erri euskalduna,
pizkunde-indarrez diarduna.

Oia oztu ta gero,
txarraldiz ostera,
erasoak artuta
murgil da Euskera
sukarretan gora eta bera.

Ito-larritik laister
dezagun atera,
grina guziarekin
saiatuko gera,
Lekuona, zurekin batera.

Esna dezagun beingoz
ajolakabea.
Utikan aspaldiko
gogo-illunpea,
dena galdua dala ustea.
Utzi jauntxokeri ta
maltzur atzipea...
Garbi esku emanaz
ez al da ohea
euskaldunen arteko pakea..?

ESKEINZA

Zelaien apaingarri
sagarra loretan;
tolareak egarri,
ardatza neketan;
euskel-jario gorri patsetan...
Salda berriak, larri,
lertzen upeletan;
edaleak elkarri
bertso berrietan...
Lekuona'ren aintza kantetan.


Upeletan geiena,
begiz joa det nik
sagardorik onena,
baldin ba da onik,
Euskera'k dariona zugandik.
Torizu gaur omena,
aipamenez beinik;
topa-itzez aurrena
egin dezagun klink,
zure txoxberri degun ortatik.



Elduaian, 1959-II-20. Santa Kruz basilizatxera iritxi baño leentxeago, atseden pixka artuz; malda pikoa baita ara goraño igotzekoa.



*Goyatz (?) 1960
(?). Lekuona jauna, eskuira, Abaunz eta Arandia jaunekin eta laborde, M' ren emaztearekin.*



*Fagollaga-Ernani, 1961(?).
Olazar aipatuaren ondaki-
nei begira ..*

*Andoain, 1966-II-6. Aita Larra-
mendi aipatuaren «Caragorri» jaiio-
tetxean, ango bizilagunekin eta
adiskide batzuekin (Aita Zavala
jesulagun tolosarra ta Laborde,
M. senar-emazteak).*



Gaurko gaztediaren burrukaldia

MAURO, ESTIBALIZ'KOA

1

Madird'en, ikastera,
etorri-ta, emen,
nago tripak jaten:
Alperrikan denbora
bai-det orain galtzen.
Nola ikastetxeak
itxi-ta dauzkaten
Ixkanbilla gogorrak
dirade sortutzen.
Ez dakit zer ikasi
bear detan aurtent!

2

Naiko maltzur ba-dabill
gaur gure atzetik,
agoa zabalik:
Loxintzaz euskaldunok
lilluratu nairik.
Euzko gazte naizela
jakin ezkeroztik,
Amaika sortu zaizkit
nik ez dakit nundik.
Nola jokatu bear
jakin nai nuke nik!

3

Axari ta otsoak,
zertaz gure galde
orain zabilzate:
Naspill ortan guretzat
gauz onik bai ote.
Itz legunak asmatzen
azkarrak zerate,
Itz emana ordea
eziñ zuek bete.
Euskaldunok zuentzat
etsaiak gerade.

4

Ezker-eskuin aldetik
ondo zapaldu-ta
gabiltz samindu-ta:
Zuen jokabidea
ez gaude aztu-ta.
Gorri edo txuriak,
jantziz aldatu-ta
Berdintsu zeratela
esango nuke-ta:
Zuen artean egiñ
ortaz txapelketa!

Garbi erantzun nai-ta,
Guztiok or konpon,
Agur Mari Anton!
Zuekin elkartzeko
nere zai ez egon.
Entzun nere esana,
gazte edo gizon,
Euzko sena zaarrak
begira zer dion:
Gure alde bizirik
iñork ez du "emon".

Erri-alde begira
—nor lego artantxe—
bizi naiz oraintxe:
Gorputzez emen baiñan
gogoz beti antxe.
Nola detan biziki
amets nere etxe,
Itzuliko nintzake
nagon bezelaxe.
Sor lekuan bizi-ta
ill arte bertantxe!

Sorgiñak Arranomendian

MUJIKATAR TENE

Garai artan, ez zan Donosti'tik Bilbo'rako bidezabalik (carreterarik) geroago egiñaz dira. Augatik beste toki geienetan bezela gure mendi, mendixko, ta lurraldeak ziran, bestean gizonak naaztu gabe, pakean eta lanaren bidez alkartuak. Onela Itziar'tik Deba'ra bitartean mendi bideak basetxez ingurutuak ziran zein- baiño zein alaiagoak. Itziar'a ta itxasora begira aien artean Olloki, iru bizitzakin: "Goikoa, erdikoa, ta azpikoa".

"Erdikoa", aitaldetik, nere aitaren jaiotetxea, ta bertan sei senide artean gazteena. Nere aiton-amonak "Ollaki erdikoa" maizten zuan, baiña andik urbil dagon Arranomendi'ren jabe. Mendi ontan artaldea zuten eta baita artaldearen txabola.

Sei senideren artean bigarrena, alabatzat asi zuten nere aiton-amonak, guraso gabea zanen errukiz, alabatzat artua zuten. Asi ta izena eman, besteen artean alderatua izan ez zedin. Ain zan zintzo, langille ta ona, sendi guziak maite zuan Erramunatxo. Urteak joan ziran, eta Erramunatxo neska gazte polit eta lanari emanaz, bere gain zuan artaldearen ardura. Eguna zabaldu orduko Arranomendi'n zan ardiai txabola irikitzen. Ordua igertzeko zerura begitu oi zuan, eta bai igerri ere. Baiña bein loaldi luze bat egin ondoren jeiki, leiotik Andutz aldera oi bezela begitzeko... Lañotxu illuna zan, ala ta guzti iruditu zetaion Andutz barrenean, ur-azalean, egunsentiko argiak ditz egiten zuala. Ene! Eguna!! Azkar jantzi, ta iñork sumatu gabe, etxetik irten, eta ardieta abiatu zan. Olloki'ko soilletan bera, Arranomendi'ko barren sakonera eldu arte. Bildutzen azi zan... Etzirudin egunsentia. Inundik argirik ez... Mendi ondoan Aitzuri... Baiña etzuan ikusten... Itxas egalean urak aitzean "plast, plast"... besterik. Etzan bildurtia Erramunatxo baiña larritzen asi zan. Ardi txabola bertantxe, baiña ara juateko adorerik ez...

Ontan, gaiñ igarrian orbel igarrak pauso zarata... erabat Kerisa bat bere ondotik igaro, ta erabat Itziar'ko erlojuak "tan... tan... tan..."

Jesus!!!... Gabeko amabiak...!!! Sorgiñak etxera igesi juaten

diran ordua...!!! Basakaturik azkarrena baño azkarrago igo izan lenengo eldu zuan zuaitz batean gora, gonak urratu ta balaunak zartatuaz... Erramunatxo gaxoa zugatz gañean abarrai alduaz geldi-geldi sorgiñak sumatu ez zezan. Bai etzuan ezeren zaratarik entzuten... Denbora pixka bat igarota berriro lengo zarata ta lengo kerisa... Ene Itziar'ko Ama! Gorde nazazu!...

Artan, geroago ezeren zaratarik ez. Berak nai baño nekezago, baño noizbait asi zan eguna argitzen geruago ta argiago. Asi zan Erramunatxo lasatzen. Zugaitzetik jetxi ta artu zuan Arranomendi'ko bide-txiorra ardieta joateko. Txabolara eldu zaneko, ardiak, luze iritzita "bee!!! beee!!! beee!!!" azi ziran.

Eguna joan eta eguna etorri, udazkena eldu zan. Auzoak, artoa etxeratu zuten. Mandiotan pillatuta ipiñiaz Gero, bein etxe baten, bein bestean, ausoetako gazteak artaburu pilloaren inguruan jarri, ta gau bat izaten naikoa, zegon pilloa zuritzeko. Lan ura jolas bat izaten zan. Ipuñak, parragarriak, bertsoak elkarri, ta gezur edo egi, milla kontu parregarri. Etxeko-andreak gaztaña erreak, gaztaia ta sagardo ematen zien. Bein, Olloki'tik urre zegon etxe "Akerbarro" etxean zan artozuriketa, ta beste asko bezela an zan Erramunatxo lagun artean. Sorgin kontuak atera zituzten. Batzuk, sorgiñik etzala, besteak baietz ari ziran. Orduan etxeko semeak esan zuan lenago etzuala sorginetan zinisten, baiña orain baietz, ba berari Arranomendi'n irten ziola batek. Gabeko amabietan toki artan zebillen emakumea etzala parte onekua, ta zugatz batera igota egon zala. Erramunatxo'k galdetu zion noiz zan, eta mutillak erantzun zuan gau-arrantzuan izan zala Aitzurin eta etxerakoan. Arranomendi barrenean garisumako gau batean. —Neu nintzan— aitortu Erramonatxo'k, kereisa beltza ikusi nuanean gabeko amabietan, sorgiña zalakoan bildurturik, gaba zugatz batera igota pasa nuan".

Ango parreak, angu algarak, alakorik izan omen zan urte artan Akerbarro'ko artazuriketan.

Imanol Lekuona jaun argiari

MUNIATEGI'TAR SABIN

Gizatasunezko ekintza elburukor, otzanez, urteetako gorabera, uztarripe aztunean, euskerearen alorak azterturik, etengabean garatu zara betikozko soindura illeziñez. Begi argien dirdira biotzberatsu, alaiez, zure masaillak anpolai gerezi edo, marrubi mamitsu, zuri-gorrien udaberritar edergaiez, bizitzazko aurpegi aingerukorrena dirudi. Itzaldi aberasgarri ta idazlan iakintsuetan emaitu zara egunoroko eskeintza onaren erriaganako egintzakizun sendagarritsuetan. Aldi batez Euskaltzaindiaren lendakari izana ta, beti, Iankoaren ta Euskalerra minberatuaren onerako, argitu nairik gure mintzo laztana.

II

Beraz, ar ezazu bai, nire olerkari agurra, zure lorratzak iarraituz egokitasun apalez danon artean, gogoz, aberriaganako itzalez, berbizturik betikoz gure mintzoa eta lurra. Bideberako ibillaldir neketsu, astun ontan, obarizat, gugana bedi... Oi, bizitzazko argi! egiazko sugar alkargarriz, erria iasoko duen azkatasun eguzki bizikor, maitagarri ori! Naikun loretsu au uztatu bedi aletza betean, zorioneko ardo ta ógi, alkar-lan zoragarritz maitezko izerdiz bustiriko euskal alorrean. Ta, izan bedi gure Erria, Erri —egiazko argi—: egintzaz, izaeraz, iatorrizko gogo, muin biziz, mundura begira artez... eskuak emanik alkarri!!

Gure billaketa-lana

OLAZAR'TAR MARTIN

BILLAKETA-LANA PREMIÑAZKOA

Gure On Manuel, askotariko lanak astia itzi dautsoen neurrian beintzat, billatzaillea izan dogu eta bere adimena onetan zorrotza ta arduratua izan da. Berak, edozelako giza-lanak bere aurrean ikusi dituanen, beti egiten ditu olako itaunak: Nozkoa ete da? Nork egiña? Zertarako? Zelan? Noren ereduz? Ta olakoak.

Eta bide onetik joian.

Aurrerapena nai daben erriak, billatzailleak ugari ta ondo ordainduak izaten dabez. Txalogarriak erri oneik eta olako gizonak!

Beste erri asko dira billaketarako ardurarik edo laguntzarik ez daukenak. Eta gure Erri onetan, ardurea izan ba'da be, laguntza aundirik ez da izan beintzat. Barruak orretara bultzatuta eta ezelako sari barik egin bear izan dabe lan au, orain arte egin dabenak. Eta ez leuke orrelan izan bear.

Erri zarra garala sarritan entzun dogu eta errez sinisten dogu, naiz ta txikia.

Erriaren zartasun onek, benetako nortasuna zaindu gura ba'dogu, billaketa arduratua eskatzen dausku.

Giza-bidez, erri oso aberatsa gara eta esango doguzen gaietan zer billatu asko daukagu. Billaketa-lan ikaragarria daukagu ba, egiteko. Orrelan bakarrik lortuko dogu geure nortasuna ondo zeaztutea eta garan lakoak giza aurrean agertzea. Orrelan baiño ez dogu jakingo zelan eta norantza jo bear dauan gure erriak.

BILLAKETA-LANA GAITXA

Ez da erreza, gaurko gure Erri txiki onen barruan, billaketa-lan au. Erria txikia, bai, baiña gai batzutan zabala.

Ez al diardue, gaur egun eta iñoz baiño beroago, Georgia'tarrakaz izkuntzaz eta endaz doguzan senidetahunak aztertzen?

Ez dogu entzun, antxiña ez dala, Ipar-Ameriketari gure izkuntzaren asterrenak aurkitu dituela, idatziak gainera?

Txikia bai gure Erria, baiña jakintza-saillan sakona ta zabala, billaketarako landa aundia benetan. Eta billatzaillak, orain-artean beintzat, ez ugariak. Asko izan be ez gara ta!

Gure idatziak, egia esan, berandu agertu ziran. Ori ta gusti be, alor zabal bat dauka or billaketeak. Eta beste gai askotan, gure billatzaillak iñork baiño urriñago jo bear izaten dabe.

IKASTETXE NAGUSIA LAGUNTZAILLE

Billaketa-lana egiteko, irakaskintzaren gorengo maillea zan bearrezkoa, eta mailla onetara gure ikasleak eldu zeitezari erreztasuna bear zan.

Konturatu zelako billaketa-lan ospetsuak egin ziran Bergara'ko Ikastetxe nagusiak zirauan aldian!

Baiña euskaldunentzat ikas-mailla au oso urrin egon da oraintsura arte.

Gaur urreratu jaku, baiña beste urrintasun tamalgarri bat dauko oraindiño: Euskaltasunetik urrin daukagula!

Deustu'n, esaterako, kondaira, lege ta izkuntza-aldean egiten da zerbait. Gure billaketearen saillan maixu-lan txiki asko egin dira eta batzuk, zori onez, euskeraz be bai. Geiegi erabilten ete dan arlo ori esaten eben, orain urte batzuk, ango irakasleak, gaurkokeri uts bat ez ete zan.

Eta, oraintxe asteko dan ikas-urte barrirako, pozez entzun dogu beste au be: Aurten euskerearen ikasketea, eta euskeraz, bere azken-maillara iñño elduko ete dan.

Baiña Deustu'ko Ikastetxe Nagusiak Euskal-Ikastetxe Nagusia izateko asko bear dau oraindiño.

Edozelan be, billatzaillak an-or-emen asko erein dira aspaldion, eta giroa lagun dala, uzta ugaria itxaron geinke.

BILLAKETA-LANDEA, ZABALA

Billaketearen munduak, zabalera izugarria dauka eta sailla askotan banatzen da: Gaiso-billaketea, gaur biziarena deritxaguna aurrerengo dala; Pisi eta Kimika-gaiak, atomoaren edo kiziaren arazoa lenen dogula; "gene"en arazoa, giza-jatorria obetzeko...

Mundu zabalean ugari dira olaño lanak egiten diarduen jakitun eta billatzaillak eta euren artean, euskaldunak be, lana egin bearko dabe.

Gutzat arduragarriagoak dira geure Erriari begira egin bear doguzan lanak, geuk egiten ez ba'doguz beste iñork egingo ez dituanak eta geuk beste iñork baiño obeto egin geinkezenak, ain zuzen be.

Antropoloji edo giza-iztiaren saillako billaketak dira, geienak. Ikusi dagigun zeintzuk diran, banaka.

IZKUNTZAN

Gure izkuntzeak billaketearen premiña aundia dauka. Beti izan dau eta gaurko bateratze-giro onetan inoz baiño geiago.

Euskerearen kondaira, esaterako, pizka bat eta abots-aldean, Mitxelena'k billatu dau, baiña arlo ori be asko sakondu bear da eta joskerearen, idazkerearen eta iztegiaren arloak aztertu barik dagoz. Edozelan, ez da ixiltzekoa Azkue'ren eta beste idazle batzuan lana iztegi-saillan.

Gure eliztiak, gramatikeak, erri-izkuntzea zeaztu nai ba dau, lan itzala dauka egiteko. Zenbat aberastasun eder dagon Errian, ixillean eta iñork begiratu barik, billatzaillaren begi zorrotzen zain.

Euskal-eliztia beste izkuntza batzuenagaz konparatutea be ondo bearezko lana dogu, erri-maillan baiño geigo ikasteetako goi-maillan. Orretarako izkuntzalariak ugari ta sakonak sortu bear doguz.

Izkelki-izti edo dialektoloji-saillan, zerbait egin da, ezin ukatu, baiña gure euskerearen erri-berbetak dauken aberastasunari urrik be ez dautsagu emon. Or dago gure euskalki-iztia mantarretan eta or, baita, aberastasun izugarriak neurtu bagako baso zabal baten diran zugatzen antzera.

Aspaldion, lentxuagotik, izkelkien lur-irudi txortak asko egin dira

baiña gu olako lan bat egitetik urrin gagozala esan lei, naiz zelai onetan bedar orlegi ta guri batzuk agiri.

Eta toki-izenak, toponimoak, Euskalerrriaren bazter guztietan ain ugari agiri diran lora margotsuak, iñok ez ditu bear litzaken lez batu, taldetu ta barren-barreneko esanguraz argitu. Eta ez Euskalerrrian bakarrik, euskaldunak lenago bizi ziran tokietan eta euskerea galdu daberen lurraldeetan be olako asko ta asko aurkitu daikegu, Merino Urrutia'k Errijoja-aldean egin dauan lana aitzu barik.

Toki-izenen billatze onek euskerearen kondairea ikusteko be argitasuna ugari emongo leuke: Izen asko eta atzizki asko aurkituko gendukez or, gaur egun galduta daukaguzanak eta inguruko erriakaz izan ditugun artu-emonak argitzeko be ez litzake laguntza txikerra izango.

Toki-izenen antzera esan bear, giza izenai, antroponimoai, buruz.

EDER-LANETAN

Askotariko eder-lanetan agertzen dau erriak bere nortasuna geien eta erri zapalduak orretan be alienaziñoaren, iñortzearen, arriskua izaten dabe.

Euskalerrrian lan ederrik agirienak eksojonoak eta erbestean sortuak doguz: Gure torreak, irudiak, margazkiak eta olakoak, euskal-kutsu gitxi dauke. Eta au ez jaku guri bakarrik jazo, arlo onetan laterri-arteko giroak indar aundia izan dau beti. Gogoratu esaterako erromaniku edo gotiku-tankereak Europa guztian izan eban zabaltasuna edo berbizkunde, ber-jaiotzearen giroa.

Baiña Giro europar orren parean, izan da beste erri-lan bat ederti inguruan, euskaldunak bere nortasuna agertu dauan giroa. Esaterako baserriak egikeran, illarrietan, erlejiño-egintzetarako tresnetan, lanabasetan... Emen daukagu beste alor edo kanpo zabal bat eta billaketa-alde-tik oso gitxi ikutua.

Billaketa orrek, gure eder-lanak nondik nora jo bear dauan jakiteko, bidea erakutsiko leuskigu zalantza barik.

Zerbait egin dogu onetan be euskaldunok, baiña oso gitxi, Oteizak, esaterako. Billatzaillentzat ba dago lana or.

KONDAIRAN

Billatzaillentzat saillarik aundiena eta zabalena kondairea dala uste dot. Arlo onetan izan dira billatzaillerik trebeenak, baiña egin dan lana oso laburra da oraindiño.

Leizak eta kobak aztertzen lan aundia egin dau Barandiaran'ek, eta ba ditu jaraitzaileak be. Or ba dago lana non egin billatzaillentzat.

Triku-arriak eta olakoak be aztertu dira ugari, artzaiñen eta nekazareen aldia ezagutzeko. Agertu diran ondakiñak eta asterranak, eta agertu leitekezenak, billatzaillentzat lana naikoa emongo dabe.

Sendien kondairea argitzeko, "heráldica" edo abizenen eta ikurdien arloan be egin dira lan batzuk, azkenez Kerexeta'k, baiña lan onek be aurrerapena bear dau beste lurralde batzukaz batera lan egiñaz.

Euskalerrriko erri askotan izan dabe indar berezia "kofradiak" edo anaidiak, euren santuak, baso-eleizak, lur-jabetasunak eta olakoak dituela. Onetan ezelako billaketarik ez da egin, eta bear-bearrekoa dogu, illun-une asko argitzeko.

Eskualde bakoitzak bere buruaren jabetasuna izan dau gure kondaيران, baiña mille urte batzutan illun, oso illun agertzen da oraindiño kondaira ori. Oso gitxi dakigu, esaterako, erromatarraz, edo godoakaz, edo arabiarraz edo gaztelarraz edo, aurrerago joanda, iberoraz edo zeltakaz edo akitania'tarrakaz edo ligurakaz izan doguzan artu-emonai buruz, bai euskaldun lez, baita eskualde bakoitza lez.

Gure legedi zarra eta antxiñako oiturak, argitzeko dagoz.

Erritxu bakoitzak, al dan neurrian, bere kondairearen laburpena jakiteko erea izan bear leuke. Eta au be egin barik dago. Esaterako, Iturriza'k agertzen dituan jakingarri laburrak ziurtasuna ta oiñarria bear leuke.

Gure ekonomiak, zerbait egin ba'da be, billatzaileak eta gero erriarentzat azaltzaileak bear ditu.

Euskaldunen lanaren kondaira berezia egiteko dago eta jakingarri apur batzuk baiño ez dakiguz.

ERESEAN

Erri eres eta abes-zalea gurea, bat izatekotan.

Onetan be inbestigatzailleak ba dauke zeregiña: Erri-abestiak batu ta aztertu eta gure musikalariak eta operagilleak edo euren balioa neurtu.

Gaurko abeslari ta jotzailleen artean be asmetan doguz eztabaidak: Euskal-eresa bakarrik erabilli ala eres orokorrean sartu ta olakoak. Alkartzel ori bear dan lez egiteko, argitasuna bear dabe.

Eredu bat nai izateakotan ez begie aitzu gure billatzailleak Azkue'ren lana eta berak egin zituan gertaketa sakonak.

Kondairan ezkegita geratu barik, sakondu, obetu ta ugaritu dagigun gure eresa.

DANTZETAN

Antxiña esana da Auñamendi inguruan dantzatzen dauan erria dala Euskalerrria.

Askotariko dantzak izan ditu gure Erriak, asabakandik artuak. Baiña dantza-mota asko, bear ba'da, gure baserri bazterretan aitzuta edo erdi aitzuta izango dira eta inbestigatzailleen, billatzailleen begi zurrari itxaroten egon daitezke.

Izan dira lentxuagotik olako billatzailleak eta batzailleak, gogoratu dagigun esaterako, Larramendi'ren "Coreografía", liburu oso gitxi eza-gutua. Eta gero be, izan dira olako ardurea artu dabenak.

Arlo onetan be billaketa-lan sakon batek asko aurkituko leukela uste dot.

Eta gure dantzak barrizkunde bat izango leukee. Barrizkundera, aitzuta dagozan dantza barriak gure enparantzetara urtengo litzakezelako. Barrizkundera, billatzailleak gure dantzen trebetasuna ta berezitasuna zertan dagon agertuaz, dantza barriak sortzeko erak emongo leukezelako.

Erri dantzari baten jatortasuna kondairan ilda geratuko ete da? Ez ete dira igidura barriak eta erri-kutsuaren barruan sortuko?

JOLASETAN

Jolasak eta jokoak ugari izan dira gure errietan.

Umeen jolasak lenengo. Gure txiki-aroan izan genduzan jolasak, trebetasun aundi bakoak eta umeak baiño asetuten ez dabezenak, ez dauke zertan galdu.

Egiten da onetan be zerbait, izen bat gogoratzeko, Aita Onaindia'ren liburua aitaturko dogu. Baiña Euskalerrri osoan oraindiño olako jolas asko izan daitezke.

Eta umeentzat joko barriak be asmatu bear leukeez gure billatzailleak edo euren lankideak.

Esate baterako, eta au ez da umeen jolas-arlokoa, gure antxiñatiko mus-jokoaren kondairarik edo araudi zusterrezkorik eta joko lez dauan garrantziaren ikasketarik iñoz egin ete da? Ba leiteke.

Alfonso X'ak ajedrez-jokoaren ikasketea egin eban, baiña guk gure jolas eta jokoai garrantzi gitxiago emoten ete dautsegun nago.

Euskal-kirolak be ba dauke olako zerbaiten premiñea. Gure Jolu (Jose Luis Iriarte)'k atera dau oraintsu liburu eder bat. Baiña kirol guzti oneik nondik sortuak, nozkoak, zelakoak, euren garrantzia ta olakoak asko sakondu barik dagoz. Esaterako: estropadak, aizkolaritza, idi-demak, arri-jasoteak ta olakoak.

EDESTI ZARRETAN

Gure asaben nortasuna ta izakerea, erlejiñoa ta siniskeria, orduko jazoerak eta bizibideak agertzeko, biderik ziurrena eta ia bakarra ordutik gaur arte agoz etorritako edestiak dira.

Erri guztiak izaten ditue euren edesti zarrak eta edesti orreik sarritan eleberrietara eta abestietara sartu dira. Gogoratu Alemania'ko Nibelungoak edo Europa'ko Iparraldeko Sagak edo Eskozia'tarren eta Zelten Osian edo India'ko Mahabarata ta Ramayana eta Omero'ren olerkiak, eta zenbat olako!

Gure erria onetan oso aberatsa izan da eta inbestigatzailleak be izan ditu, Barandiaran eta bere taldea onetan maixu doguzela. Baiña ba dauke or gure billatzaille gazteak non billatu, non konparatu, non sakondu, non aztertu... non lan egin.

ETXEETAN

Etxeak garrantzi aundia izan dau euskaldunen bizitzan eta kondairan. Ori argi agertu dauskue Barandiaran'en billaketak. Alan be, ez dot uste billaketa ori amaituta dagonik.

Etxegintzan eta urigintzan egin dan billaketea azalekoagoa dala esan lei. Gure urietan eta erritxueta, batez be Naparroa'n izan diran arri-lantzeak eta etxe-egiteak ikasi dira. Baiña or agertzen da gitxien euskaldunen izaerea. Lan orreik kanpotik etorritako aldi-tankeren menpean dagoz, geienez.

Guk geure etxeak zelan egin ditugun eta zein alditakoak diran geiegi sakondu barik dago.

Egin dira gai onetzaz be liburuak, baiña monografi ederrak egin leikezela, oraindiño, ez dot zalantzarik: Euskalerriko etxeak, kanpo ta barru ikusi, toki bakoitxean zelakoak diran agertu, lekurik lekura daukazen aldeak zergaitik diran adiazoz, gaurtik aurrera, mundu barri onetan, gure etxeak zelakoak izan bear leuken esan, urietan etxeak zelan alkartu bear leitekezan agertu... Or be geure nortasuna galdu barik gaurko mundura sartu gaitez.

LAN ETA LANABASETAN

Lana, bizitzako lege ziuira dogu eta erri guztiak bakoitxak bere erara lan egin bearra izan dabe. Gureak be bai.

Baiña lanak gure kondairan aldaketa izugarria izan dau.

Kondaira-zaleak billatu bearko dabe zeintzuk ziran gure antxiñako lan-erak: Artzaintza non eta noz sortu zan, nekazaritza nondik eta zelan agertu zan, eiztaritza ta abelgintzaren kondairea emen; industri txikia: olak, liñagiñak, errotariak, gaztagiñak, gatzgiñak, zurginiñak, zapatagiñak, tresnagiñak, eroaleak, bidegiñak, arotzak, otzaraginak, eta zenbat olako lan-era euskalerrian garrantzia izan dabenak eta guk gogoratu be egiten ez doguzanak!

Eta gero, gizaldi bat dala, industri aundia etorri zanean izan zan aldaketa aundia eta arrezkero sortu dira lan-era ta bizibide barriak.

Gure lan alkatuak zelakoak izan bear dauan be antropologoak aztertu bear leuke.

Lanabasak edo lanerako tramankuluak be gizonaren izaerea eta trebestasuna edo zurtasuna ondo agertzen dabe.

Billaketa sakon eta zabal batek zenbat eta zenbat tramankulu zar agertuko leukezan! Bear ba'da oraindiño gure basetxe bazterretan ainbeste izango dira ixiltasunean eta autsez estalita, laster galtzeko arriskuan.

Eta gaurko lanabasetara biurtzen ba'dogu gure billaketa-lana, munduan zerbait esateko eskubidea izango genduke euskaldunok, orretarako diran lantegiak ugari doguzen ezkerero.

SALDU-EROSIAN

Munduan iñongo erririk ez da bakarrik bizi izan, beste batzukaz artu-emonak izan ditue eta ez gitxien saldu-erosian.

Kondaira-mailla bakoitxean non erosi dogun eta nori saldu dautsagun argi jakin bear dogu.

Gure Erriak zer ugari izan dauan eta zeren premiña izan dauan ikasi bear dogu. Salneurriak zelakoak izan diran ez dogu aitzu bear.

Alde batetik erri-barruko komertzioa eta sal-erosketea, bestetik albo-erriak izan doguzan artu-emonak: Orra or billaketarako arlo sakon eta ederra.

Esaterako, noz Gaztelagaz artu-emonak, noz itxasoz eta zergaitik. Aduanak non eta zergaitik.

EUSKAL-FILOSOFIAN

Gorputzaren izakereak alan eskatzen daualako edo inguruko gizarteak orretara bultzatu daualako, errialde bakoitxak bere pentsa-muiña izaten dau eta pentsa-muin ori izkuntzearen aldeetan agertzen dau. Oso argi ta ederto agertu eban gai au guda-aurrean IBAR edo Mokoroa jaunak.

Salbatore MITXELENA'ren Unamuno ta Abendats liburua irakurri dauanak, errez ikusiko dau idazle trebe onek zelan billatzen ditun pentsalari ospetsuaren barru-barruan euskal-endearen berezitasun batzuk.

Baiña zein da euskaldunen "filosofia" berezia? Zein da gure pentsakerak dauken jokera barrutikoa? Orra or galdera sakona, orra or billaketarako arlo aukerakoa.

Eta nondik atera pentsakera orreik? Zein billabidea?

Izkuntzea, kondairea, lana, politikea, esaera zarrak, idazti zarrak, jolasak... dana kontuan dala egin bearko dogu billaketa interesgarri ori eta or billatu ta aurkituko doguz gizonak beti egin ditun galderai zor jakezan erantzunak: Zer da izatea? Zer da egia? Zer da edertasuna? Zer da ona ta txarra? Zer da gizona? Zer da mundua? Zer da Jaungo-

koa? Zer da geroko bizitzea? Olako galderai euskaldunak erantzun berezia damotse.

Gogoratu Lazkao'ko Anes'en "Euskalerrria ta eriotza".

EUSKAL-TEOLOJIAN

Teolojiak bere zusterak Idazti Deunean daukaz eta Idazti Deuna ez da Euskaldunak idatzia, Sortaldeko gizon goitik argituak baiño.

Orregaitik, arinkeriz neure ustez, batzuk gaur egun esaten dabe Kristau-Erlejiñoa euskaltasunaren kaltean sartu zala gure Errira. Gai oneri buruz KARDABERAZ aldizkarian idatzi neban oraintsu.

Aldizkarietan be izan dira gai oneri buruz eztabaidak. Oraintsu agertu dau zerbait GOIZ-ARGI'n Txalintxo'k.

Entzun dogu, baita JAUNAREN DEA aldizkaria arduratu dala aurretantzean euskal teolojia erriari azaltzeko, eta gai orretan oso jakintsu diranak lankide dirala.

Teolojia, oiñarri-oiñarriko gaietan, mundu guztian bat da. Ori bai. Baiña oiñarri orrein gaiñean eregiten dan etxea ezbarðiña izaten sortaldean eta sartaldean, iparraldean eta egoaldean.

Dokma ez diran gauza asko eta asko, geienak, sartzen dira teolojia. Ala erromatarren antzera sortu dan Eleiza au eta eredu agiri au, Idazti Deunetik atera leikezan bakarrak dirala sinistu bear ete dogu?

Orduan, ba dauke gure teologoak non billatu, eta ez arlo txikia. Oiñarriko galdera, au izango litzake: Zelan alkartu Kristo'ren irakatsiak eta gure Erriaren petsa-muiña? Zelan izan batera Kristau ta euskaldun?

Erantzunak emoteko, lentxoago azertu bearreko agertu dogun euskal-filosofia kontuan euki bearko genduke, Grezia'tarren eta Erroma'tarren filosofia oiñarri zala lengo gizatzea edo alkartzea egin zan lez.

Ez uste izan arako malabar-oikunen gorabera garratza, rito edo oikune utsen goraberea izan zanik: Auxe arazoa berau zan orduan be.

Eta ez aitzu Afrika'ko mixiolarien aurka, 30 bat urte dirala, esan zanak ez eukala ezelako ziorik: Europa'ko kulturea eroaten ei eben lur-areitara kristautasunaz batera, eta angokulturak zapaldu.

Nok ez daki orixe berori egin ebela, tamalez, Colon'egaz eta geroago Ameriketara joan ziran mixiolariak.

Ba dauke ba, teologo euskaldunak non billatu eta non lan egin.

LANDARA TA ABERE IZTIAN

Gizonak beti izaten dau, eta izan bear dau, bere inguruko izakiak ezagutzeko ta maitatzeko gurari bizia.

Lurra bera ezagutzean dauke gure billatzailleak non billatu, lur-azalak azertuaz eta, aldizka, bakoitxa bere maillan ezarriaz. Gai onetan egiten da gaur egun lan eta agertzen diran EUSKO-LUR edo orrelako liburuak ederki agertzen dabez olako gaiak, baiña zabala da gaia eta non billatu asko dauka.

Bizidunak arduratzen dabe geiago gure gizakia, bizidunentzat eta batez be pizti ta abereentzat izketan be era bereziak dituala.

Abere-iztian billaketak bear doguz, gure lur-gaiñean diran bizidun guztiak ezagutu ta taldetuaz.

Antxiña ez dala KARDABERAZ-taldeak argitaratu eban LARRAÑAGA'ren Landare-iztia. Ez dot uste billaketa-lan sakona danik, esku-liburu egokia baiño.

GIZA-SOIÑEAN

Enda bakoitxak bere berezitasunak izaten ditu, baiña guk euskaldunok olako billaketarik egiten dogunean, laster esaten dauskue endakerian sartu garala. Izan dira gure artean endakeri-zale batzuk, baiña ori be errez parkatzeko lako larkeria da eta orregaitik ezin geinkez endabillaketak alde batera itzi.

UNESCO'k egin eban enden taldeketan, mundu guztiko zazpi enden artean bat, euskaldunena dala diño.

Enda-zale jakintsu batek, Euskalerriko bazter bat dan ikastetxe baten azterketa bat egin eban eta gorputz-erea azertuaz utsik egin barik igarri eban zeintzuk ziran euskaldunak eta zeintzuk ez.

Ezagunak dira, Bilbo'ko osagille ospetsua dan Goti'tar José Luis'ek egin ditun-odol-azterketak eta argi-argi ikusi eban euskaldunen odolaren berezitasuna, antzeko odolik munduan be ez dagola ia, erakutsiaz.

Ez dogu esan gura munduko endarik onena garala. Olakorik ez! "Chauvin"keri guztiak dira aspergarriak, baiña geure berezitasunak jaki-

teko eta zaintzeko eta indartzeko eskubidea be iñork ez al dausku ukatuko.

Or dago ba, billatzaillentzat beste arlo jakingarri bat.

POLITIKAN

Sarri entzun dogu euskaldunak ez garala politikariak eta orrexe-gaitik izan garala erri baztertua munduko errien alkartzean.

Eta eritxi orrek ba dauka egi-antza, Santxo aundiaren aldia konturatu ezean, iñoz ez gara izan erri alkartua eta erri batua. Eta alde orretan be ez geu bakarrik beste erri batzukaz baiño. Edozelan be, Naparroa izan da Erroma'tarren laterrikeria geien beragandu dauana. Bear be bai, arerioak urren zituan eta.

Orduan, politikea Erroma'tarren antzeko laterriak sortzea ba'da, eskaldunok politikan oso laburrak izan gara.

Baiña euskaldunok politikeari buruz izan dogun eritxia ez da ori. Euskaldunentzat politikea betik asten da: gizona, sendia eta erria edo ibarra edo auzoa oiñarri dirala; eta gorengo maillea, batzarretan ibarrak alkartzea izan zan, eskualdeak iñoz alkartu barik. Eskualde bakoitxak, bere legeak, bere izketea, eta bere buruaren jabetasuna eukazela.

Eta eskualde barruan, orduan iñon ez egoalako demokrazi garbia, ederra ta zoragarria, berba utsean oiñarritua, lege idatzirik bear ez zala.

Ona emen, eskal-gizona ezagutzeko, billatzailléen eskuetan itzi bear dogun gai zoragarria: Zelan sortu zan politika eder ori? Iñondik artua ala berton sortua? Non eta zelan beteten zan?

Gaur batasuna, politikan be bai, bearrezkoa agertzen da. Zelan egin batasun ori geure nortasuna ta politika-joko eder berezia galdu barik?

GIZARTE-AUZIAN

Politika-arazoaren antzera, lan-arazoak be alkartu bearra dauka. Ortik sortu ziran Laba-Aundiak. Baiña inguru orretan sortu dan giroa ez da euskaldun giroa, or ezin da bizi euskalduna euskaldun lez. Euskaldunak lantegi txikiak izan ditue eta an agertu euren berezitasuna.

Baiña gaur orrelan ezin jarraitu. Zer orduan? Kapitalismora jo? Komunismoa edo Marxismoa onartu? Ez dot uste guretzat bide egokiak

diranik. Guk gizona, eta banaka edo sendian onartu dogu. Kooperatibetan edo autojesteñoan edo geienez be kojesteñoaren inguruan bideak billatu bearko doguz.

Esan begie billatzaillak, euskaldunak zelan lanerako alkartu diran kondairan, zelan bizi izan diran gaurko alkartze-giro baragarri onetan eta izan daiteken gerorako bide jatorra ta egokia.

LIBURU-ZARREN ARGITALPENETAN

Euskaldunak gitxi idatzi dogula esaten dabe eta ondo esana da.

Baiña ONAINDIA'K idazten diarduan Elertiaren Kondairea kontuan artzen ba'dogu len baiño eretxi argiagoa izango dogu eta gure literaturia ez dala ain urria ikusiko dogu.

Sailla onetan billatzaillak lan gitxi, oso gitxi, egiten dabe Euskalerrian, Guztiz be, zenbat liburu zar edo Klasiku daukaguz argitalpen kritikuak eginda? Oso gitxi.

Eta liburu klasiku oneik argitaratzen dabezanak be, idazkerea ta joskerea gaurkotuta idazten dabez, erriak bide okerrak artu ez dagizan edo. Lan ona da ori be. Baiña textu kritikuak bear doguz, izkuntzaren kondairea argitzeko. Idazleak eurak idatzi zituen lez idatzitako liburuak, ezertxu be aldatu barik, bear doguz.

Lan au zeatz eta arduraz egin bearko dabe gure billatzaillak, orretarako mundu guztian erabilten dan trebetasuna edo teknikea bide dala. Egundoko poztasunaz irakurriko gendukez olako liburuak.

KRISTIÑAUTASUNAREN KONDAIRAN

Azkenez, gure kristiñautasuna nondik eta noz etorria dan azertu bear dogu. Or illuntatasun aundi bat daukagu gure kondairan eta billatzaillak lan aundirik ez dabela egin uste dot. Erreza be ez da izango bear ba'da.

Nik bide batzuk ikusten dodaz.

Morga'ko arri idatzia, latinez, laugarren gizaldikoa, kristiñauak idatzia, izan leiteke argitxu bat.

Gure eleiza ta baso-eleiza guztien inguruan egin daitekezan billaketak.

Euskalerrian antxiñatik sartuta dagozen santuak, nondik etorriak diran eta zein errialdetan goratzen diran. Esaterako, Lorentzo deunaren erazpena nondik sartu zan? Kaligurri'tik ala Lion-aldetik? Martin Deunarena, nondik? Altolin Deunarena? Ain ugariak dira santu oneik dituen eleizak!

Santu batzuk bertan Euskalerrria'n sortuak eta "kanonizatuak" ez ete doguz? Santimamiñe ta Donemiliane, esaterako. Lekuona berak be onetzaz zer esan asko izango leukela uste dot.

Gai onetan Lekaide-etxeen billaketea be egin bearuko litzake. Jakiña da onein garrantzi aundia kristautasuna sartzean eta "abade" edo "apaiz" izenak ortik etorriak dirala ba dakigu. Alkar-lekaideak eta bakar-lekaideak non izan ziran eta zer egin eben aztertzeak argitasun aundia emon-go leuke gai onetan.

AZKENA

Billatzaillea dogu gure On Manuel Lekuona, billatzaille zurra ta zorrotza, billatzaille jakin-zalea. Bide zabal eta bearrezko onetan berak urratsak argi itzi dauskuz. Jarraitu dagiogun. Goi-maillera jaso dagigun gure kultura ta jakintzea.

Arloa zabala da.

Langilleak ugaritu beitez.

1976-IX-5.

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- II -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Don Manuel eta euskal-liturjia *

OÑATIBIA'TAR IÑAKI

II'garren Batikano'ko Elizbatzar Nagusia dala bide, ba-dira bi urte liturji-elizkizunetan euskera darabilkigula. Euskal liturjia sortzen ari zaigu, alajañana! Ustegabeko zoriona, gure euskerari egokitu zaiona! Nork igerri ortik letorkioken indar berria?

Asiera eman besterik etzaio egin lanari, egia esan. Lan gaitza, orrekin Elizak euskaldunoi ezarri diguna. Baiño bear diran beso-buruak ez dira paltatuko, Jainkoak lagun. Naiz ixil-lana izan, nork ez daki egin-kizun ontan lenengoetako langille bat dugula Don Manuel? Eskuardean zituan beste lan asko utzi ta or ari zaigu, zain da muin, eginbear ontan lanean.

Donostia'ko Gotzai jaunak etzuan, noski, buruauste aundirik izango Don Manuel aukeratzekoan. Lan ontarakoxe jaioa ta lan ontarakoxe bere bizi guzian gertutzen ibillia dirudi.

Liturji-euskerak errikoa bear du izan: errexa, goxua, laua, erriaren biotza ikutuko dun euskera. Olaxekoa da, ba, iñorena izatezkeroz, Don Manuel'ek biribildu dun euskera. Zer nolako aldi ona izan dun gure erriak, orren garrantzi aundiko lan baterako, Don Manuel bezelako gizon bat prest eukitzearekin.

Liturji-tekstoak ez dira ixillean norberarentzat irakurtzeko, elizbatzarretan oiuzkatzeko baizik. Onek izkera berexi bat eskatzen du. Bertsolariak dira, noski, ontan maixu, eta "Literatura oral"-gaietan maixuen maixu Don Manuel.

Zati batzuek, liturjian, kantatzeko dira. Ezin aaztu auxe teksto oiek euskeratzekoan, gero itzak doñuarekin ondo elkartuko ba'dira. Musikarako sensibildadea bearuko du izan liturji-euskeratzalleak. Lekuona'

* Oartzun'go elizan, 1967-IV-24'an, euskaldun apaizek Don Manuel'eri eskeiñi genion omenaldian irakurritako itzalditxoa.

tarrak beintzat ba-dute musika, kantu ta bertsuetarako alako doai bere-xi bat.

Erriaren biotza ikutuko dun euskera bear dugu, gure erria Jainkoarekin artu-eman gozo batean sartuko ba'da. Ortarako ez da erriaren izkuntza eta bere gramatika jakitea aski; erriaren anima eta biotza ere ezagutu bear. Zertan ibilli da beti Don Manuel, gure erriaren kondaira, oitura zaarrak, erti-lanak, siniste ta jokoak, euskal kultura, euskal anima, saiets batetik eta bestetik aztertu naiean ezik?

Eliz-otoitzak latinez daude, ordea; eta Idazti deunak, jatorriz, bazuek grekoz eta besteak eberkeraz idatziak dituzute. Iru izkuntza oiek jakitea bearrezkoa, liturji-tekstoak bezela euskeratzekotan. Eta orra, ain xuxen Don Manuel'ek, latina nola ez, baiño baita greku eta ebreara ere, jakin ezik, besteai erakusten jarduna dugu urteetan. Nork esan zezakean gerra-aurreko urte aietan, Gasteiz'ko seminarioan guri izkuntza oiek erakusten zizkigunean, gaurko lan ontarako baliatu bear ziotenik!

Euskal umanista dugu Don Manuel: alde askotako jakinduriaren jabe. Artea dala, musika dala, izkuntza dala, literatura dala, folklorea dala, historia dala. Dana etorri zaio ondo. Liturji-teksto zaarrak gaurko izkuntzetan jartzea arte-lan bat da, eder-lana. Aitortu bearra dago: liturji-euskeratzalleak arte-lan bikain bat eratzen ari dira pixkan-pixkan. Ez al da ala jaiero elizetan entzuten dugun euskera xamur, garbi, giar, errex, errikoia? Ba-dakit ez dala gizon baten lana; gizon trebe sail aundi xamar bat diardula lanean. Baiño, ala ere, ezin ukatu euskal liturji berri onek Don Manuel'en kutsua dariola ixkin guzietatik.

Euskal liturji berriari buruz, euskera aldetik, gauza eder asko esan leizke, noski. Ni ez nauzute, ordea, ortarako gauza. Naiago dut bizpairu itz esan liturjia aldetik. Eta egindako lana aztertu baiño, naiago dut etorkizunari begiratu: modu ontako euskal liturji berriak gure erriaren Jainko-bizitza zenbaiteraño ondu eta aberastu lezaken. Eta ori Don Manuel eta bere kidekoak zirikatu naiean bezela. Pixka bateko lana bait'dute esku artean; lan ixilla gainera, izen-gabekoa. Jainkoari eskerrak, Don Manuel oraindik gordin ikusten dugu. Emango al dizkio Goiko Jaunak urte ugari, lan eder au goxo-goxo amaitu dezan.

Zer da liturjia? Jainkoak bere erriarekin dun artu-eman. Elkar-izketa bat bezela da: Jainkoa eta bere erria elkarrekin izketan. Onela dio II'garren Batikano'ko Elizbatzar Nagusiak: "Liturjian Jainkoak be-

re erriari itz egiten dio; Kristo'k Berri ona iragartzen segitzen du. Erriak, berriz, bere aldetik, Jainkoari erantzun egiten dio kantuz eta otoitzez" (Const. lit., art. 33). Entzun-erantzun ontan, artu-eman ontan dago kristau erriaren egizko aberastasuna. Goitik berako bidean, Jainkoaren itz eta doaiak. Betik gorako bidean, gizonaren erantzun leiala. Bi joera oietan du erabiltzen dan izkuntzak berebiziko garrantzia.

1) Lendabizi, goitik berako bidean. Emendik aurrera, liturji-elizkizunetan, orain arte baiño Jainkoaren itz ugariagoa emateko asmoa artu du Elizak. Jainkoaren itzez ondo ornitutako maia jarri nai digu igandero-igandero, iru-lau urte buruan Idazti deun osoa ausnartu al izateko moduan.

Eta ori, zuzen-zuzenean erriaren izkuntzan, euskeraz. Biblia'ko mundu aberatsa artez-arte euskaldun belarri-biotzetara. A zer aberastasuna! Izkuntzaren bitartez gureganatzen bait'ditugu kanpoko aberastasunak. Zenbat eta gureagoa izkuntza, orduan eta gureagoak egiten ditugu jasotzen ditugun aberastasunak.

Amaldeko izkuntza, barne-muin, odol-mami dugu. Izkuntza ortan datozkigun Jainkoaren itzak ere odol-mami biurtuko zaizkigu errez barne-muinetan. Euskal kristau-kultura berri bat, kristau-mentalidade berri bat sortzeko zorian daukagu, liturji-itzulpenei esker.

Ontan lanean dabilzanok gogoan artu bitzate Lerin'go Bizente doatsuaren itz auek: "Zaindu ezazu ondo zure esku utzi duten gordairua... Famili-ondasuna da; familiko danon eskuetara iritxi bear duna. Urrea jaso al duzu? Urrea pasa zuk ere bestiei. Zuri esker, gure asaba zarrak, ulertu gabe, ainbeste maitatzen zutena, gaurko gizadiak ulertu al izango du".

2) Bigarren, betik gorako bidean ere, gizonak Jainkoaren itzari erantzutekoan, izkuntzak liturjian garrantzi aundia du. Erantzun betea bear du izan gizonak Jainkoari ematen dion erantzunak. Barren osoa Jaunaren aurrean ixurtzea: bai al da opari goxoagorik? Ortarako tajuzko izkuntza bear du gizonak. Landareak, barrenean daraman udaberria, gorde eziñik, kanpora loretan lertzen dun bezela, Jainkoaren itzak kristauen biotzetan sortzen dun bizi berria ezpainetan lore biurtu bear zaie. Eta euskaldunontzat euskerak bakarrik egin lezake ori. Euskera bait'da Baiona'ko Gotzai batek zionez, "sentimendu sakonenen eta barnekoenen mintzaira". Liturji-euskeratzalleek asko egin lezateke, gure

euskera, Jainkoarekin mintzatzeko, geroago eta izkuntza egokiagoa biurtzen.

Orra ba, Eliza eta Euskalerraren alde beste eginkizun asko bete ondoren, Don Manuel'ek orain eskuartean daukan egiteko ederra: bere erritarrak Jainkoarekin elkar-izketa goxo batean jarri ta utzi. Apaiz baten bizitzak, batez ere Don Manuel apaizaren bizitzak izan al zezakean erremate bikaiñagorik?

Mikelats

Ipuia

OÑATIBIA'TAR YON

Euskal ipuitegiko erregiña zan MARI. Almen eta bikaintasunez beterik zegoen emakumea zan. Txindoki'ko arkaitz-zulo batean bizi zan, bañan Euskalerriko beste arkaitz-zuloetara joateko, maiz irtetzen zan andik.

Euskalerrri zabalean zeuden arpe oyetako bakoitza MARI'ren Erregintegia'ren zati bat zan, eta bertan urrezko errediza ta ontziak zituztela, MARI'ren senide,, morroi eta mirabe asko bizi ziran, danak bere serbitzari biurturik.

MAJU bere senarra zan eta arengandik bi seme izan zituen: BETA-RRABIO ta MIKELATS. Biak oso argiak ziran. Zarrena, BETARRABIO, ez zan gauzak ariñ edo presaka artzen zituena, lasai ta patxaran baizik, bañan esku artean zituen arazoei ardura eman eta erabaki arte, beti etengabe ziarduna. MIKELATS, berriz, pizkorra zan gogotik, bizia eta mutil kozkorra zan ezkeroztik bere biurritasuna beti agirian zeukana.

MARI bera oso almen aundikoa zan, onerako bezela txarrerako, bada berak maite zituen jendeak, adibidez, agorte larri batean arkitzen ba-ziran, or bidaliko zien euri-jasarik gozoena euren lurrak ur preskoaz ase zitezen. Eta ala berean, bere etsayak ondatu nai ba-zituen, errukirik gabe an igorriko zien bazterrak larrutu zezazkien arri-erasorik gogorrena.

Ala ta guztiz ere, MARI ain altsua izan arren, bere bi semeen eziketa ez zuen bere gain artu nai izan, eta garai ayetan inguru guztian ospetsu-ospetsua zan DEABRUA'ren ikastolara bidali zituen.

Bi semeak ikastolan artu baño len, baldintza gogor bat jarri zion DEABRUA'k MARI'ri. Eta auxe zan; alegia, ikastolako ikasketa ta eziketak amaitzean, bi ikasleetako bat DEABRUA'ren morroi gelditu bearra.

Alaxe, ikastaro danak bukatu zituztenean, zotz egin zuten bi anayak DEABRUA'rekin nor gelditu erabaki zezaten. Eta zoritxarra gazteena-ren gain jausi zan; MIKELATS'eri suertatu zitzayon betirako DEABRUA'

ren morroi gelditzeko zori makurra. Oso itun eta naigabetsu gelditu zan anai gaztea, eta ori ikusi ta errukiturik, aren orde z ATARRABIO'k bere burua eskeñi zuen DEABRUA'ren mende gelditu zedin.

Bi anayak elkar aditu, gazteena mundura irten eta BETARRABIO, aurrerantzarako, DEABRUA'ren morroi biurtua gelditu zan.

Andik aldi luze batera, aspertu zanean, DEABRUA'ren menpetik iges egin al izan zuen BETARRABIO'k, bañan ariñeketan zijoala, DEABRUA'k ikusi, yautzi egin eta BETARRABIO'ren itzala atzapparretan atzeman eta aren jabe gelditu zan betirako.

BETARRABIO'k iges egin ziolako, ikaslerik gabe, oso naigabetua gelditu zan DEABRUA, bañan, alare, aguro samar artu zuen etsia, eta bereala, asmo berri bat euki zuen: bi anayetan gazteena, MIKELATS, berriro bereganatzeko gogo bizia sortu zitayon bere asmoetarako gazteena askoz ere geyago atsegin bai zitayon. Izan ere oso txikitandik bai zan biurria eta gaiztakeriak nola egingo beti asmaketan zebillena; eta gañera tximixta bezin pizkor eta bizia zalako, DEABRUA'k Euskalerrria'n egin nai zituen asmoetarako bear-bearrezkoa iruditzen zitayon MIKELATS.

Urte batzun buruan, egun batez, lur ontako bizikeraz aspertu ta nora jo ez zekiela zebillen MIKELATS, eta artan, bide bazter batean DEABRUA'ri oso egokiera ona iruditu zitayon eta berealako batean bere ikastolara biurtu zedin, arrigarritzko eskeintzak egin zizkion, eta bereziki, bere jakintza aundia oso-osorik erakutsiko ziola, agindu zion, MIKELATS'eri.

A! Ori bai! MIKELATS'eri konbeni zitayon DEABRUA'ren jakintza aundiaren jabe izatea, orrela gizonen artean errez lortu al izango bai zituen bere kutizi ta naikeri guztiak. Beraz, bereala jarri zan aren esanetara ta berriro antxe zegoen MIKELATS ikasle zintzo biurturik.

Ikaskayak lenengo egunetik asi ziran. Bañan, jakiña, DEABRUA maltzurren errege ber-bera izanik, ez zion MIKELATS'eri esan nai izan zein zan bere elburu nagusia, eta asiera artan, bere ikasleak pozik artuko zituen gayak bakarrik erakusten zizkion: gizon eta emakumeen auleriak, lendabizi; gero, baten asmoetara edozein gauza erakartzeko bideak: dirua, zurikeria, itz-limurak eta abar. Eta orrela, jakinduri berri ta onurakorrez ikaslea bete zuenean, orduantxe asi zitayon DEABRUA bere elburu nagusia agertzen: EUSKALDUNAK SAKABANATZEA!

Berealako batean, MIKELATS'ek ez zuen ulertu asmoaren arrazoya, bañan DEABRUA irakasle ta bera ikasle ziran ezker, ark bere arrazoyak

izango zituela-ta ez zuen geyegirik aztertu nai izan irakaslearen asmo nagusi ori.

—Bigira zak, MIKELATS. Aspalditik nabillek nere asmo orreri ekitokotan, bañan eztiat arkitzen alako zerbait, alegia, ondorenak ongi ta errez emango zizkidanik. Eta orregatik, ea laguntzen idaken, MIKELATS; ea zer asmatu dezakegun euskaldun arrayo oyek nastu ta elkarren aurka jartzeko.

—Irakasle, eztut uste ezer asmatu bear danik ortarako, beti elkarri mutur-joka ari dira-ta. Ez al 'ttuzu ikusten gizaldiz-gizaldi ba-dutela guda-tzarren bat beti elkarren artean?

—Bai, ori egia duk, bañan azken-aldi ontan... etzekiat, iñoiz baño elkartuagoak ote dauden natxiok. Len "zuriak" "gorriekin" ez itukan ezerengatik elkartuko, bañan azkeneko urte abetan, elkarrekin Bizkaya'n guda egin zuten ezkeroztik oso ongi batuak ikusten dizkiat, geyegi elkartuak, eta ori gauza txarra duk nere eginkizunerako. Ea, mutill, ea nolazpaiteko asmo onen bat ematen didaken, eorrek ere urte batzuk egin dituk euskaldunen artean eta onezkero ederki ezagutzen bai dituk.

—Ea, irakasle, ea zer iruditzen zaizun. Begira, azken-aldi ontan "Marxixmua" da modan jartzen ari dan zerbait, eta ez al litzake ori ona izango zuk nai duzun borroka ori sortzeko?

—Bai, zera! Marxixmua frakasu bat besterik eztuk gizonen artean!

—Zergatik, maixu?

—Gizon guztiak aberatsak izan nai dutelako! Orregatik eztuk asmo ori gizonen biotzetan itxasten, eta askoz gutxiago euskaldunen artean, beti dirua nola egingo pentsatzen bai zeudek.

—Nik bestela uste nuen, bada, irakasle. Langilleak nagusien aurka gogotik dabilta, gero! Opor edo uelgak-eta egiten asiak dira.

—Bai, uelga ederrak, oyenak! "Alako egunean EZ joan lanera". "EZ joan zinetara". "Ez erosi ezer merkatuan"... Bai, esandako egun artan ez dituk merkatura joango euren atxuak, bañan aurreko egunetan, danak arrapataka, ortxe joango zaizkik janari ta edariak urrengo egun askotarako eroatera, dendak ustutzerano... Ez, MIKELATS, ez, "Marxixmua" eztuk gizonen biotzak irabazteko egiña; jendeak indarkeriz menderatzeko... geyenez!

Une batez, ixilik eta oldozkun gelditu ziran biak; ez bata eta ez besteak, ez zuten mintziorik txikiena egiten. Bañan alako batean, tximixt-indarrez jantzi ba-litz bezela jeiki zan DEABRUA, eta esanaz:

—Ba-diat! Ba-diat euskaldunak elkarren aurka jarriko ditun "zera"!

—Bai, ote?

—Bai, motell! Txorakeri bat zirudik, bañan izugarriak egin ditza-
ken uskeria duk!

—Zer da, ba, gauz arrigarri ori?

—Ori duk! Arrigarria! Eta eorri ere bat-batean arrituko au. Eta
"zera" ori... "zera" duk: H.

—H? Eta uste al duzu otsik ere ez dun izki orrekin egin dezake-
zunik miraririk?

—Bereala igarriko diok! Auufii! Poz-pozik niagok, MIKELATS. Aurreko urte ta gizaldietan sortu arazi zizkitekera guda ta kalteak baño indar geyagokoak izango dituk izki uts orrek sortu araziko dizkiken nas-
ketak. Ikusten natxiok... Auuufiii!!

—Nik eztut, bada, orrela ikusten... Alare, zu DEABRUA zera ta
zuk ala ikusten ba-duzu...

—Bai, MIKELATS, ik ere nik bezela uste izan eta ikusiko duk. Eta
Euskalerrri'ra i bidaliko aut nere ordezkari!

—Zuk dana ain argi ikusten baldin ba-duzu eta zu alako almen
aundien jabe izanik, zergatik ez zera zerorre joaten Euskaldunak nastera?

—Ori ezin ditekek! Ez al duk ikusten, ba, ni asiko ba-nintz H
bearrezkoa zayela-ta esaten, aurkakoak bereala esan dezatekela H DEA-
BRUA'ren asmakizun bat dala ta errez ondatuko lutekela nere asmoa?

—Bueno, gorde ezazu zure DEABRU-itxura ta azaldu zaitzake beste
Euskaldun jator baten antzera.

—Ez, MIKELATS, ez! Ori ezin daitekera duk... Isatsa, bai, gorde
nezakek galtzetan, bañan adarrak..., nola gorde ta estali?

—Moztu itzazu!

—Ez, orixe!!!

—Zergatik ez, ba?

—Nork zekik? Agian nere adarretan bai zegok nere almen guz-
tien sustraya...

—Eztakit, ba, eztakit; ain uskeria dan H orrekin eztakit nik nola
bete dezakedan zure asmo aundi ori: Euskaldunak sakabanatu! Ezta
txantxetako gauza, eta batez ere iñoiz baño elkartuagoak dauden garai
ontan...

—Oso erreza izango zaik; ikusiko duk, MIKELATS! Ik egin zak
nere esana eta etzai zalla izango.

Beriro, une batez ixildu egin ziran. DEABRUA pentsakizun latzetan
sartu zan, bere sakonean ausnartzen bezela, ta MIKELATS, berriz, ezer
asmatzeko gai ez zala, DEABRUA'ri begira-begira. Andik pixka batera,
DEABRUA'k jaso zuen bere burua ta lan-asmoa edo ekintza-asmoa nola
eraman zitekean esaten asi zan poliki-poliki:

—Ara, MIKELATS. Ire lanari Goyerri aldean eman bear diok asie-
ra. Ango Euskaldunak pizkorrak dituk, oso kementsuak, bañan baita
naiko egogogorak ere. Azken aldi ontan, gañera, gizartea dala-ta etsia
arturik bezela zeudek eta edozelako ekintza berri bateri eltzeko amorra-
tzen. Beraz, oa lurralde artara eta andik asi adi ire ereintza ortan.

—Bañan neronek ikusi ezpadezaket H'ren ondasunik, nolatan adi-
petu eta nereganatu ditzaket ango jendeak?

—Ez adi beldurtu; eztuk ekintzan asi besterik, eta aldi bakoitzean
nik bidaliko diat bear duken argitasun guztia.

—Ongi dago, DEABRU JAUNA. Itsu-itsuan beteko dut zure esana.

—Ori duk, MIKELATS! Orrela, ba-oake nai dukenean!

MIKELATS arkaitz-zulo batetik, MURUMENDI izeneko arpetik irten
zan Euskalerrri'ra; eta ain zuzen, GOYERRI'ko lurralde ber-berara. Len-
dik egindako ezaguntzak asko zituen eta oso erreza izan zitzaion
ango Euskaldunekin artu-emanetan sartzea. Bere zeregiña irristatsu ta
laban samarra iruditzen zitzaion, kontuz asi zan bertako egoera az-
tertzen.

Egia, DEABRUA'k berak esan zionez, inguru ayetako Euskaldunak
zearo etsipetuak zeuden. Erriketa edo poitika gayetatik asi ta elizako
egoerarengatik oso aspertuak zeudela, bereala konturatu zan MIKELATS.
Eta giza-egoera ortan, gazteak ziran geyenik, eta eurekin batera... apaiz-
zak, apaiz eta praille gazteak, apaizgayak eta praillebearrak... Bere ekin-
tzan asteko, beraz, oso egokiera ona zeukala ta ustez bete zan MIKELATS.

Erriaren egoera jausi ori zala ta gizartean, gogorki, maiz mintzatzen
zana, LEANDRO zan, eta arengana zuzendu zituen lendabizi bere urratsak
inpernuko ikasle gazteak.

Egun artan, lantegitik irten berria zan LEANDRO, eta oso nazkatua
zatorrela errez igartzen zitzaion arpegian. Ardandegi batean sartu zan
eta aren ondotik MIKELATS. Aspalditik biak ezagunak ziran eta elka-
rriketarako bidea erreza izan zitzaion DEABRUA'ren ordezkariari.

—Kaixo, Leandro. Zer modu?

—Kaixo, Mikelats! Nun abil? Aspaldi duk azkeneko ikusi indudala!

—Ortxe, ikasketa berri batzuk egiten ari izan nauk atzerrian...

—Ikasketak... Mundu zerri ontan merezi ote dik ikasketarik egi-teak? Oraintxe zearo nazkatua natxiok, eta ikasten sayatzea bezela, lana ere egitea alperrikakoa ez ote dan, aspalditik oartu-ta jarria nauk.

—Ez, mutil, ez adi ain lur jo-ta gelditu! Oraindik asko zeukagu eginbearra Euskalerrria'n!

—Asko! Bai, noski! Dana! Dana zeukagu egiteko!

—Gauza... zera duk, alegia, asmo berritan sartzea. Ortik zetoze, eraberritzearekin batera, erriaren pizkunde ta indarrak!

—Etzekiat, Mikelats... Eta ez diat uste neke berririk artzeak merezi dunik...

—Ara, Leandro, nerone ere egoera ortaraño jausia egona nauk, bañan asmo berriak artu-ta zearo aldaturik arkitzen diat nere burua; ekintzarako eraberriturik!

—Jakina, zerbaiteri ekitekotan..., berria dan zerbaiteri ekin bear...

—Ara asmo bat. I izkuntza-zalea aiz. Or duk aukera...

—Bai, gai ortan amaika amets egiña nauk... Euskaldun danontzat izkuntza bat! Izkuntzaren batasunean erri bat...

—Ori duk! Bañan ekintza berri orreri ikur berri bat, ezaugarri berri bat eman bear diok, bestela lengoan gaudek, lengo bide beretan, bide zarretan. Eta Euskalerrria'n orain berri-kutsuko ekintzak bear dizkiagu!

—Euskaldunak bide berean, egundaño partez danak batuak eta pakean arkitu al izatea, bai al duk gauza berriagorik?

—Bai, ongi diok, bañan pakean etzegok piperrik, eta piperrik gabe eztuk erria aizkatzerik, eta gutxiago suspertzerik!

—Daitekena duk ori ere; arrazoi duk... Bañan zer nolako ikur edo ezaugarri izango ukek ori?

—Nik zer esango nitek, ba, Leandro? Agian uskeri bat...

—Uskeri bat... Errez diok, bañan zer?

—Zer esango nitek? Adibidez..., euskeraz idazterakoan H sartzea, agian...

—Bañan Goyerri alde ontan etzeukagu H erabiltzeko oiturik, orde!

—Obe! Orrela sortuko lituzkek, ba, bi alderdi berealaxe: ALDEKOAK eta AURKAKOAK! Bi alderdiak su ta gar ekingo ziotek bakoitzak bere aldetik... eta dana izkuntzaren onerako!

—Ori duk, Mikelats. Eta orain ulertzen diat. Eztuk atarramentu txarra atera! Gaur bertatik ekingo zioat asmoaren zabalkundeari, eta bereala H'ren arazo au aipatzera niak batzarretan.

Elkarri hostekoa eman eta urren arte agur egiñaz banatu ziran, LEANDRO pozik, izkuntzaren aldeko asmo berri bat zeramalako, eta MIKELATS, berriz, areago, bere eginkizunari asiera emanaz, gero su-garretan biurtuko zan txingarra piztua zeukalako.

Murumendi'ko arkaitz-zuloa utsik zegoen garai artan, MARI bere serbitzari ta guzti Gorbe'ra joana bai zan. Beraz, Murumendi'runtz abiatu zan MIKELATS, aldi artan DEABRUA'rekin euki bear zituen bille-
ra ta elkarrizketatarako toki ori bai zuten aukeratua.

Murumendi'n gora ats aundiz igo zan MIKELATS; aspaldian mendietan ibilli gabea zan eta arkaitz-zuloraño bide-zigor malkorrek neke puska bat eman zion. Alare, sarrerako arkaitz-aulkian jarri ta bereala baretu zitzaion atsa. Orduan, arkaitz-zuloan sartu ta txistu luze bat egin zuen. DEABRUA'k entzun eta bereala zan ikaslearekin batera. Begirakune batez aguro aski igarri zion bere ordezkariak berri onak zekarzkiola.

—Zer, MIKELATS? Berri onak?

—Bai, MAIXU, oso berri onak! Goyerri'ko mutillik ekintzaleena neregianatu dut.

—Nor duk bera?

—Mendibe'ko Leandro.

—Eztuk aukera txarra egin, ekintzale purrakatua baituk bera! Eta nor geyago limurtu duk?

—Iñorrez... Asiera ona, asierarik onena eman diodala-ta aurrerako urratsak sendoago eman ditzadan, zure aolku billa etorri natzaizu.

—Motell, motell, MIKELATS, eztuk ain izutia izan bear. Asmo ona duk esku artean eta beti garaille irtengo aizelaren ziurtasuna euki bear duk gogoan! Arrayua!

—Bai, bañan, MAIXU, bai al dakizu, alegia, nere lenengo garaipen orrek aurrerantzean zuurragoa izan bear nukean ardura sortu arazi didala? Orregatik, ba, elkarrizketa berri baten bearra sumatu dut.

—Ederki zegok, MIKELATS. Eta egia esan, esku artean zeukagun eginkizunak arretarik aundiena merezi dik. Eta bertan zuurrak, ajola

aundidunak, maltzurkerian maltzurrenak izan bear diagu; ori duk! Eta batez ere maltzur jokatu bear diagu, edozertan etsairik gogorrenak sortzen bai dituk.

—Orregatik, bada, etorri natzaizu... Aolku berri billa...

—Ongi ari aiz. Beraz, ire H'ren zabalkundea onuratsua ta eman-korrena izan dadin, H berari ezaugarri batzuk jarri bear zizkiogu: jendeak errezago erakarriko dituzten berezitasunak. Alegia..., alegia..., GAZTEEN zerbait dala... AURRERAKOYA dala...

—Uste al duzu ezaugarri oyek naiko indar euki dezatekela, MAIXU?

—Naiko indar? Bai, alazankua! Ez al duk ikusten mundu txoro ori dana utsalkezik betea dagola? Alaxe berean, gizonik burutsuenak ere. Nornai zegok lur ontan utsalkeziaren pipiaz joa!

—Bai? Eta adibidez..., nortuk?

—Danak, motell, danak! Danak agertu nai ditek GAZTE! Danak azaldu nai ditek GAZTEEN alderdian, ezpaitik inork zartzerik nai! Eta beste aldetik, dan-danak zeuzkatek beren buruak AURRERAKOI! ATZERAKOI ez izatearen lots duk edonor. Beraz, or dauzkak H'ren bi ezaugarri nagusiak: GAZTE ta AURRERAKOI!

—Bañan egi-egitan eta ziñetan eztira bere-berezko ezaugarriak, ordea...

—Etzayok jaramonik egin orreri! Ba-zekiagu ori eztala ala. Bañan ze ajola guri? Gezurra, berez —naiz-eta gezur larria izan— bein eta berriz esanaz, EGI biurtzen duk geyenentzat. Eta etzakela egundafio aztu arau ikaragarri ori.

—Ederki, MAIXU. Eta norengandik asi naiteke?

—Edonorengandik! Len ere esan diat GAZTE ta AURRERAKOI, bi ezaugarri oyen jabe izan eta bizi nai dutela danak lur kaxkariñ ontan. Apaizak... Ene!!! Gaurko apaizak izango dituk lendabizi itxatxiko diranak bixka goxo ortan. Jakintsuak ere bai, motell, jakintsuak ere ezin iges egin ziotek GAZTE ta AURRERAKOI izenen sare estuari... Ekin, MIKELATS, irea duk-eta garaipena!

Zearo adipeturik irten zan MIKELATS ikustaldi artatik. Murumendi'ko aldapa malkorrek egan bezela igaro zituen. Bere ekintzaren aldeko izkillurik onenen jabe zala xinixturik zijoan, itxaropen osoa berekin zeukala.

Orain arteko MIKELATS'en adiskide ta ekintzako lurralde Goyerri euki du, bañan bere asmoaren ereintza arrigarrizko eran barreatzen asi

zan; ba-zirudin orrelako borroka baten egarriz zegoela Euskaldun jendea. Ikastoletan ere alor bigun errexa arkitu zuen bere ereintzarako, eta bai bere kolkorako esan ere MIKELATS'ek: "Ekintzatan IKUR bat eukitzeak ba-dik bere arrazoya, arranoak ezpaitu!".

Eta apaizen artean, gazteak izan ziran inpernuko ordezkariaren xedera errezenik makurtu ziranak. Izan ere, gazte-aro, matxinada aldi ta iraultza-giro ortan, nola gelditu zitezkean kanpoan, eurek elizaren barruan iraultza bat lortu nayeian ba-zebiltzan?

Yakintza-gayetan, euskal literatura barrutian —naiz-eta ain gazteak ez izan!— alor oyetan zebiltzanak ere izan ziran gazteen ekintza ortaz lilluratutakoak, eta asko izan ziran arau egoki bat, arrazoirik gabeko arrazoya arkitu zutenak gazteen ugolde ortan sartzeko. Orrelaxe arkitu zuten beren gezurrezko goiburua: "Arrazoi biologikoa...!!".

Egunetik egunera garaipenak ugaritzen ari zitzaizkion MIKELATS'eri. Berez ari zan azi ta gizentzen bere ekintza; iya-iya ez zuen alegin aundirik egin bearrik ere. Orregatik, noizik-beinka Murumendi'n DEABRUA'rekin eukitzen zituen elkarrizketak guztiz legun eta pozgarriak izaten ziran.

Alare, ixilka, bere baitan kezka aundi xamar bat zeraman MIKELATS'ek. Aspaldi ortan elizara joateari utzia izan arren, aldizka ta ixil-mixilka elizkizun batzuetara joaten zan eta... ura naigabea! Elizetan zerabilten euskerak ez zuen oraindik bere asmoaren usairik ere artu. Apaizaren bat edo beste —bakoitza bere aldetik— ba-ziran euskera-iraultza eliz barruan egin nayez sayatzen ziranak, bañan ez zuen inondik ere arkitzen euskeraren zelai naro ta gozo artan sartzeko zirrikiturik. MIKELATS'en uzta arrigarria izan zan ordurarte, bañan eliz-barrutietan zegoen euskeraren egoerataz oldoztu utsak lotsa ematen zion. Orregatik, Murumendi'n DEABRUA'rekin elkartzen zan bakoitzean beldur-beldurrez egoten zan, ark gai ortaz noiz galde egingo zion ikaraz. Zorionez, ez zion egundafio ezer galdetu, bañan, alare, kezka bizia zeraman beregan.

Eta kezka ori buruauste biurtzen asi zitzayon, eta buruausteak nekea zekarkion. Euskalerrri osoan lortzen ari zan garaipenak ez zioten batere arintzen liturji-euskerak sortu zion astuntasuna. Egunez bezela gabez, ori zan bere eginkizuneko kezka larria: Liturji-euskera... Liturji-euskera... Nola arkitu bertan sartzeko zirrikitua?

Alako batean, itxuraz batere garrantzirik gabeko berri bat irakurri zuen izparringian. Eta auxe zan: "Monseñor Gordoki Euskalerrri'rako

Gotzai berria". Irakurri berri ortan, albiste orrek ez zion ezere zirkiniñik egin; ez otz eta ez bero utzi zuen MIKELATS, liturji-euskerak ez bai zuen orregatik aldakuntzarik nabaituko. Eta izan ere alaxe gertatu zan: Lengo bide ber-beratik elizako euskera... Orrela, gero ta kezkatia go, egunetik egunera ta urduriago zebillen DEABRUA'ren ikasle zintzo ta pizkorra.

Alare, buruauste ortan ezin egonik zebillela, egun batez, argi izpi bat agertu zitzayola iruditu zitzayon MIKELATS'eri. Erne jarri... ta bai! Argi izpi apala ez ezik dizdiratsua zala oartu ta itxaropena ere lagun zetorkion.

Zer ote? Zer-nolakoa ote argi ori? Zertan zatzan itxaropena? Irri-par egin zuen bere baitan... eta galde egin ere bai bere buruari: "Zer-gatik ez nindukan konturatu ain garrantzi aundiko xeetasun ortaz?". Eta galdera ori egiñarekin batera, ezpañak millikatu zituen, abere basatiak arrapakia bere atzaparretan ba-leuke lez... Gaztea bai da Euskalerrirako izendatua izan dan Gotzaya; gaztea... Eta xeetasun ori aski izan zan MIKELATS itxaropentsu jartzeko.

Eta jakiña, aurrez-aurre azaldu zitzayon egokiera bikañari ekiteko esku ona, eskurik onena bear zuen ezker, arretarik aundienaz asi zan aztertzen eta ikasten Gordoki Gotzayaren nortasuna... Gaztea, leenik...; asko zan ori. Eraberri-zalea eliz-ekintza ta lan-asmoetan...; askoz ere geyago zan ori. Eta dagoanerako bide berritan sartzeko ikutu-mugituak egiten asia ere ba-zan...; eta uste baño geyago zan ori MIKELATS'en jokabidea errezteko...

Ikuspegia zearo argitsu zeukan, beraz, bañan ez zan orregatik itsutu ta trakeski abiatu; arduraz eta emeki, ordea. Eta orrela zebillela, asmorik onena bururatu zitzayon bere jo-muga lortzeko: "Euskaltzaingoa buru-berotu ta berekin zeraman maltzurkerizko jokabidea eskeintzea". Berealako batean eta errez elkartu ziran bi indarrak, eralguntza bera ere irrikiz ibilli ondoren, osorik berantetsia bai zegoen elizako izkuntz-soroaren jabe izateko.

MIKELATS'en jokabideak ez zuen utsik egin! Gaztearen limurtzea, uste izan bezela gertatu zan. Eta egun negargarri batez, erriari ezer galdetu gabe ta bere gogo zapalduaz, H sartua gelditu zan eliz-liburuetan...

Liturji-idazkietan H sartu ba-zan, sartu zan! Zer zan an sortu zan ixkanbilla! Ordurarte kristau zintzo, danak elkartuak ibilli ziranak, eta eliz-gizonen esanetara garbi jokatzen zutenak, asalatu egin ziran eliz-

-liburuak H'z orbanduak ikusi zituztenean. Eliz barruan zegoen pakea urratua gelditu zan... Elizaren babes gozoa osorik ayenatu zan, asarre-leku biurturik...

Uraxe izan zan MIKELATS'en gurendarik bikañena! Eta ori ikusirik, pozari nola eutsi eziniñik zebillen arrezkero. Eta bere baitan, kolkorako algara egiñaz, ala zion: "Garaitza ori lortzeko, ni bezelako sinismenik gabeko batzuek parte artu izanak ematen zidak oraindik poz aundiagoa. Arrazoi zian, bai, DEABRUA'k... To!! Eta oraindik berak etzekiak nere garaipenik aundienaren berri! Ba-niak usu-arrayo Murumendira!".

Murumendi'n gora zijoala, oñetan egoak eta bularrean Mirandao-la'ko auspoak zeuzkala iruditzen zitzayon; egundaño ez bai zuen alako arintasunik nabaitu bere gorputzean. Iritxi da Murumendi-arkaitz-zuloko atadira, oi zueneko txistua egin eta eupateko izugarri baten ondoren, sekulan bere eztarritik irten ez zan bezelako irrintzi luze ta dardaratsua jaurti zuen.

Aguro aski ta arnas estuturik agertu da DEABRUA. Dana arriturik eta begietan ere galdera agirian daukala:

—Bañan, MIKELATS, zer dakark gaur onelako deadarrekin?

—Exeri zaite arkatz kozkor ortan, zerorre ere arri biurturik geldituko zera-ta.

Exeri ta jakin-miñez galdetzen dio:

—Bañan, motell, zer dakark? Ona ala txarra?

—Ona, guztiz ona, gure asmoetan etzegoen berri aundia!!

—Esaidak, ba, lenbailen, oraintxe jakin-miñez kizkaltzen naxiok-eta.

—Eutsi ondo arkaitzari eta zabaldu belarri-zuloak. Zer dan? Bada... zorieko H dalako ori kristauen liburuetan betirako sartu dudala!

—Zer diok? Egia al duk entzuten diatena? Edo ametsetan al nabillek?

—Etzaude ametsetn, egitan haizik! Eta ikusiko ba-zendu nolako ixkanbillak eta asarreak sortu diran Euskalerrirako eliz guztietan? Asko dira dagoanerako elizkizunetara joateari utzi diotenak, danak zapuzturik!

—I aiz mutilla, i, MIKELATS! Egundaño ez zitzaidaken bururatuko ere orrelakorik! Ezin diat ulertu ere zertaz baliatu aizen onelako garai-pide aundia lortzeko! Garaipenik aundiena, neronek ere nere maltzur-

keri guztiaz lortu al izango ez niken añekoa! I aiz mutilla, MIKELATS! Eta emendik aurrera neri IKA itz egiteko baimena ematen diat!

Zoro antzera jarri ziran biok eta besarkada basati bat elkarri emanaz, dantza ero, akelar-dantza nastu batean ibilli ziran puska batean. Ondoren, izerdi-patsetan zeudela, gertaera aundi ura ospatzeko, dozenerdi bat Errijoja Zarreko ardo botillak atera zituen DEABRUA'k bere apaldegitik. Eta eten gabe topaka ari ziran kantari:

"Ik neri,
nik iri,
topa egiñaz
elkarri..."

...etziran gelditu ardo-botil ayek danak usturarte, eta azkenean, biak mozkor-errail egiñak, Murumendi'ko arkaitz-zulo ondoan lotan zerraldo gelditu ziran...

Liturji-liburuetan H sartze orrek poz eta atseginez bete zituen H-zaleak, eta gertaera gogoangarri ori ospatzeko, Euskaltzaingo Elkarrearen gain gelditu zan egitaraua. Eta ospakizunen artean, billera-nagusi ta berezi batean MIKELATS Euskaltzaingo'ko OHOREZKO-KIDE izendatzea izan zan. Bazkide berriari eskeñitako bazkari aundi bat euki zuten bukaeran, bertan MIKELATS'en zuertasuna, zuri ta zalutasuna odehyetaraño jasoaz.

Bazkari aundi orren ondoren, Euskaltzaingo'ko buruzagiak bille-ratxo berezi batera deitu zuten MIKELATS, eta an intsentsuzko goralmek bere alde berriro aizatu ta lendakari Arantzamendi jaunak bere betiko leguntasunez auxe adierazi zion:

—MIKELATS agurgarria, gure il-edo-biziko ekiñal ontan, ba-dakizu mesederik aundiena zor dizugula, bañan gure jardun neketsu onek amaya loratsua izan dezan, oraindik beste mesede aundisko bat zuri eskatu bearrean arkitzen gaituzu.

MIKELATS arriturik gelditu ta bere baitan esan zuen: "Beste mesede aundisko bat? Egin diatena ez al duk, ba, aski?" Alare, goralmenezko intsentsu artean erdi zorabiatua arkitzen zan oraindik eta eskatuko ziotena errez eskuratu al izango zuela-ta ustez beterik esan zion:

—Euskaltzaingo'ko jaun agurgarriak, mintza zaitezte, eta zaudete ziur nere almen guztiak zuen serbitzurako dauzkatela.

Lendakariak bere okotza pallakatu, eztul txiki batez eztarria garbitu ta... onela mintzatu zitzaion:

—Zure anai BETARRABIO'ri buruz da...

Bere anai BETARRABIO'ren izena entzun zuenerako, arpegia zeoro aldatu zitzaion MIKELATS'eri. Zuri-zuri jarri ta ordurarte ain legun zerabilkien mingaña arrontoteldu zitzaion.

—Nere... a... nai... BETA... RRA... BIO, dio... zute?

—Bai. Guk bezin ongi dakizu zeñen gogor eta setatsu dabillen bere euskal ekintzetan. Ezten biurtzen zaizkio itzak! Ezpata, bere luma! Ezin neurtu alako kalteak egiten dizkigu bere izketa ta ibilleratan. Orregatik, nola edo ala limurtu bearra dugu... Eta eginkizun ortarako, nor zu baño egokiagorik? Bere anaya zera ta ongi ezagutzen duzu. Beraz, zure esku zume ta samurretan utzi nai dugu arlo ori.

Lendakariaren izketa bitartean, bere onera etorri al izan zan MIKELATS. Arnasa sakonki artu, bere MAIXUA'rengan ustea jarri ta erabakiz mintzo zitzaion:

—Nere gain geldi bedi eginkizun ori. Eta bitartean zuek, jaun agurgarriok, usterik onenaz bete zaitezte, zuen batzarkide berri onek bere almenik berezienak erabiliko dituela jakiz.

Biltzarra amaitu ta MIKELATS bakarrik gelditu zanean, eta bere anai BETARRABIO'taz oroitzen asi, ez zuen arronka aundirik bere baitan. Bere anaya zarragoa izan eta euskera-arlotan edozein bezin ekintzale zalako, oso begiramen aundiaz ikusten zuen. Eta ortaz gañera, bi anayak DEABRUA'ren ikasle izan ondoren, MIKELATS'eri inpernuan gelditzea suertatu, eta naigabezko ordu artan, anai BETARRABIO errukiturik, DEABRUA'ren mende betirako gelditzea bere burua eskeñi zuelako, izugarriko errespetua zion.

Ori dana orrela izanik, Euskaltzaingo'ak eman zion eginkizuna guztiz neketsua zeritzayon. Ez zan, noski, jolasa bere gain artu zuen lana. Alare, egunetan bere baitan borroka zallean ibilli ta gero, anayarengana nola urbildu asmaketan ibilli, al zuen eran aderez bete ta an abiatu zan bere zeregiña betetzera.

Anai gaztea aurrez-aurre ikustearekin asko arritu zan BETARRABIO, aldi luzea igaro bai zan azkenekoz elkar ikusi zuten ezkerotik.

—Kontxo, MIKELATS! Zer dala-ta i gaur onera? Ongi al ago?

—Bai, arras ongi, ta i?

—Baita ere... Azken aldi ontan bai al duk amaren berririk?

—Ez, bada aspalditxo ontan ez diat ikusi, bañan ba-zekiat onik dagola, beti bezela mendirik-mendi dabillega entzun bai diat.

MARI'k, bere aldetik, ez zeukan bere bi semeen berri zuzenik, lu-rean bizitzen jarri ziran ezkerotik, eta batez ere euskeraren joerak dirala-ta buru-belarri bai ziarzuten beren ekinaletan. Eta bi anayak ere ez elkar ikustea ez zan arritzeko gauza, bakoitza bestearengandik ixuri ez berdiñetan bai zebillen.

Asitako elkarrizketa ortan, arretarik aundienaz abiatu zan MIKELATS, berak uste baño geyago jakin bai zezakean BETARRABIO'k. Orregatik, bada, MIKELATS kontu geyegirekin zebillela oartuaz, bekozko illun samarrez ekin zion anai zarrenak.

—Oraindik ez didak esan zerk ekarri aun neregana, bañan antz ematen zioat, azken aldi ontan zertan eta noekin abillen bai bai zekiat.

—Bai, noski, bañan neronek ere ederki zekiat ire urratsen berri. Ez goazik batera, bañan biok gabiltzak gure arbasoen izkuntz zarraren alde.

—Ongi diok, MIKELATS, alegia, biok euskeraren alde ari gerala, bañan ala izan-ta ere edozein bide ona dala al deritzaik?

—Zergatik ez?

—Gauz bat duk euskeraren alde jardutea, eta bestea izkuntza aitzakitzat artu ta elkarren aurka jartzea! Eta ori ezin daitekek inolaz ere ontzat artu!

—Ori eztuk ain ximpleki esan daitekena, danok izkuntzaren betikotasunaren alde gabiltzak-eta!

—Nola ibilli zindezteke euskeraren betikotasunaren alde, baldin eta gure izkera aoan duten aleak elkarren aurka jartzeko elburua besterik ezpaduzute?

—Izkuntza bere zarrean uzten ba-diagu, berez zijoak iltzera. Eraberritu baten bearra zeukak, eta ortan ari gaituk.

—Gauz bat duk izkuntza indar berritu nai izatea ta ortarako esperimentuak egitea, bañan oraindik zoritu gabea dagon izkera berria, egoki iruditzen al zaik ume-gorrien aotan jartzea?

—Tira, BETARRABIO, etzakela gauza bere onetik atera, guztiok gabiltzak-eta asmorik onenaz.

—Begira zak, MIKELATS, ez nazakela atera nere onetik! Ze uste duk, eztakitela, adibidez, nortzuk ibilli zeraten liturji-izkera aitzaki artu

ta erri osoa sakabanatzen? Gure ama MARI'ren izena oroituaz, arren, ixildu adi, bestela...

—Eorre ere, BETARRABIO, euskeraren alde jo-ta-kea ibilli arren, ez diat ikusten ire aldetik alako borondate on-onik...

—Zer diok? Zer adierazi nai didak?

—Euskaltzaingo'koa izan —eta aizen bezela— eta ark esku artean dauzkan il edo-biziko arazoetan ez sartzea, jator jokatzera dala uste al duk? Zergaitik ez dituk uzten irekoikeriak eta zergatik ez aiz jartzen eurekin batera lanean?

Azkeneko galdera oyek BETARRABIO'k entzun zituenean, Euskaltzaingoaren aurka pillaturik zeuzkan arrazoi gogorrak banaka-banaka jaurtitzeko eran sutu zan, bañan bereala bere barrena baretuaz, aspalditik buruan zeukan jokabideataz gogoratu zan, eta une batez oldozkun egon ondoren, irripar bat gurutzatu zan bi anayen artean, eta zarrenak patxaraz esan zuen:

—Arrazoi duk, MIKELATS, ik oar arazi didak, alegia, nerone ere ez nabillela ain zuzen...

—Beraz, ik ere Euskaltzaingo'koen lankide izan bearke ukela aitortzen al didak?

—Bai, aitortzen diat, eta nere jokabideak bestelakoak izango dirala ere agintzen diat.

—Beraz, aren batzarretara joateko gertu al ago?

—Bai... Noiz duk urrengo billera?

—Datorren ostiralean.

—Ongi zegok; an izango nauk. Eta nai ba-duk elkarrekin joango gaituk bertara.

—Pozik, BETARRABIO!

Bai, arrayuak ezpaitu! Pozik gelditu zan MIKELATS bere anayaren erabakiarekin, eta astirik galdu gabe, berri ori ematera joan zan Euskaltzaingo'ra. Ango euskaldunak, arrituaz gañera, etziran gutxi poztu, aspalditik zebilkiten borroka latza beren gogora bukatzera zijoala-ta ustez bete bai ziran.

Esandako ostirala iritxi zan. Euskaltzaingo'ko billera ortan oi ez bezelako urduria nabaitzen zan, eta aspalditxoko billeratan baño bazkide geyago agertu ere. MARI'ren bi semeak eldu ziranerako, batzarra asteko garaya zan. Arrera ezin-da-obeia egin zieten. Irriparrak gozoak inguruan. MIKELATS'en taldeko batzuk ere an zeuden, bañan ez pozik,

ordurarte ain ekintzale izan zana beste alderako biurgunea artu ote zuen-ta kezketan zeuden...

Asi zan billera. Betiko oar, eskutitz irakurtze, liburu aipatze, esker emate ta abar... Orduan, idazkariak eguneko ariari jarrayera emanaz, esan zuen:

—Eta orain, BETARRABIO'ren txostena entzungo dugu.

Aulkitik altxa ta bere lenengo itzak adiskidetasunezkoak izan ziran, azken aldiko lan ugariak goraldiaz. Eta bereala abotsa pixka bat goratuaz, zekarren txostena irakurtzen asi zan:

"Jaun ojoragarriok...". Lenengo bi itz oyeke entzun zituztenerako arritu ta erne jarri ziran maiburuko gizonak. Eta berriro ATARRABIO'k: "Jaun ojoragarriok: Gure jerri jumil jontan...". Itz oyeke uste gabeko ukaldi bat bezela izan ziran entzuleentzat. Idazkaria erne jarri zan lenaz gañera ta begiak zorrotzurik... Lendakaria, berriz, ille-zipotzak trikuarenak baño zutikago... Eta entzuleak ixilik eta adi... BETARRABIO'k berriro:

"Gure jerri jumil jonek jonenbeste hirauten ba-du...".

Batzarra bat batean lertu zan, BETARRABIO'ren lagunak algarari eman zioten. Beste taldekoak asarreari... Idazkaria zutitu ta asarre bizian.

—Adarra jotzera etxera!! —eta BETARRABIO'k patxara ederrean:

—Barkatu, bañan nere txostena irakurtzeko eskubidean nagokizu... (BETARRABIO'k lendakariari begiratu ta onek buruaren keñuz, "bayetz". Idazkaria bere asarrea ezin disimulaturik, bañan berriro exeri zan...). Eta izlariak berriro ekiten dio bere txostenari:

"Gure jerri jumil jonek jonenbeste jiraun ajal dezake...".

Ikaragarria izan zan ango lertzea! Idazkariarekin bat egin ziran bazkide asko gelaren erdira irten eta galerazi egin nai izan zuten BETARRABIO'ren itzaldia... Taldetxo bat, berriz, izlariaren alde oyuka... Eta BETARRABIO'k bere abotsa sendotuaz:

—Zuek H idazteko bezela, guk eskubide berdiña dugu H oguztekoa, esatekoa!

Ixkanbilla geitu egin zan. Batzarkideak ez zeuden amur ematekotan. Itz zakarrak eta zemai gaiztoak nunaitik irtetzen ziran. Izlariak bere abotsa trinkotuaz, galde egin zion lendakariari:

—H oguzteko eskubiderik bai al dut ala ez? —Ixkanbilla aundia-go oraindik... Lendakariak ezin altxa bere abotsa ta buruaren keñuz,

"bayetz". Andik aurrera an ez zegoen onik eta Euskaltzaingoa'ren denboretan iñoiz gertatu gabea igaro bear izan zuen egun artan: Billera oraindik bukatu ez ta itxi bearra...

Eta bitarte ortan, MIKELATS bazter batean, dana lots eta ixil, zer esan edo egin ez zekiela. Bere anai BETARRABIO'k era artan ikusi zue-nean, arritu egin zan, bañan ez zuen orregatik asmo onik euki nai, maltzurkeriaren errege zan DEABRUA'ren alde zebillela ongi bai zekien.

Danak kalera irten ziran; bakoitzak al zuen bezela... BETARRABIO'ren lagunak aspaldiko partez farrez billeratik... Besteak bekozko illunez, amorru bizitan... Inguru artan ez zegoen giro ta BETARRABIO'k etxe alderuntz artu zuen; anaya ondolik, berarekin bat egiña zegoela adierazi naye. Orduan anai zarrenak:

—Ikusten al duk? Umorea zuen aurka zegok, bañan... gure alde. Eta umorerik gabe etzegok iñora joaterik... Bestetik, irria ta farra ondolik daramazkizutela, zuen jokabidean nola iraun dezakezutela uste duzute?

BETARRABIO'ren esaldi bakoitzaren ondolik, "Bai... Bai..." zion anai gazteak. Euskaltzaingo billera artan zerbaitek gogor jo zuela zirudin MIKELATS'ek... Alare, ez zan geyegi piyatzan anai zarrena...

—Ikusi duk, MIKELATS. Zuek idatzi ditzakezute nai ainbat H, bañan ogutzi, esan... EZ!

—Bai..., bai...

—Kontu egin zak, karriketetan H bear bezelako indar guztiaz izketan asiko giñakela... Eta zer? Lotsaren lotsez, irrigarri biurtuko gendukela gure izkuntza gaxoa. Besterik ez!

Eta "Bai..., bai..." esatea besterik ez ba-lu bezela. Anai zarrena etxean utzi ta bere bidean jarraitu zuen.

Nekez, asperturik bezela igo zan MIKELATS Murumendi'n gora... Atsak ere ez ziola bear bezela laguntzen zirudin... Azkenean —ez nai bezin aguro—, iritxi zan arkaitz-zuloko atadira..., bañan ez zeukan bestetan bezela oyu egiteko kemenik, ez adorerik.

Ordurako DEABRUA itxoiten zeukan, eta MIKELATS tankera artan ikusteak arritu ta bereala kezkatu zuen. Mutilla ixilik... Irakaslea, berriz, bere ikaslea goitik bera aztertzen... Azkenean, muturra zorrotzuaz, galde:

—Zer, MIKELATS, okerren bat gertatu al zaik gaurko billera ortan? —eta mutillak illun antzean yardietsi:

- Oker ez ezik, lotsagarri...
 —Nolaz?
 —Nere anai BETARRABIO'k izugarrikeri bat asmatu ta egin ziguk...
 —Izkillu berriren bat?
 —Bai, MAIXU, izkillurik okerre... IRRIA'rena...
 —Mmmm... Eztuk onena...

Gertatutako guztia al zuen bezela adierazi zion DEABRUA'ri. Alare, deabrua deabru izanik, ez zan kizkurto; bere ikaslearen egoerak, ordea, kezka ematen zion, zearo apal, uzkur eta aul arkitzen bai zuen. Lenda-bizi, Inpernuko gela nagusira eramane eta ats berria eman nairik, gozo ta berotasunez mintzatu zitzaion, bañan alperrik; orrela ez zuen ikaslea pizkortzerik. Gero, izkera aldatuaz, gogorxeago eta tinko itz egiten asi zan... Alare, alperrik... Orduan, begiak inpernuko garrez pizturik, tximixtaren orratzez mintza zan. Bañan MIKELATS bere artan, ezereztua... eta BETARRABIO gogoan zeukala... MAIXUA sutu zan eta birao artean, asarre bizian eta ukabillari ekiñaz, izugarritzko zemayak jaurti zizkion.

Bañan MIKELATS ez zan ezereen beldur zemai guztiak entzun arren, DEABRUA'k iñoren bizia kentzeko almenik ez zeukala bai bai zekien. Ikasleak ongi-ongi ikasia zeukan, alegia, baten bizitza EMALLEAK baka-rrik laburtu zezakeala... Beraz, ez zan batere ikaratzan... Beste aldetik, ordea, anayarengana nola itzuli ta aren lagun eta lankide nola biurtu zitekean ezin asmaturik, galdera bat itxatxi zitzaion:

—Nere anai BETARRABIO'ri nola xinixta arazi berarekin zintzo jokatu nai dudala?

Gogaeta oyetan murgildurik zegoela, alako batean, bazter batean, BETARRABIO'ren itzala, DEABRUA'ren menpetasunetik iges egiterakoan, aren atzaparretan geldtu zan itzala ikusi zuen. Eta uraxe ezaugarriarik onena! Itzal artaz jabetu ta anayari ematea aski zuen zintzotasunaren ezaugarri bezela... Bai, orixe egin bearra zeukan, eta bere sentsuak tinkotuaz, erne ta adi jarri zan MIKELATS.

Eta DEABRUA ixtanpatez oyertu zan egokiera batean, raust!!! yau-tzi sendo bat egin, anayaren itzala artu ta kanpoan zegoen, geyago DEABRUA'ren beldurrik gabe ta aren atzaparretatik betirako aske.

Astirik galdu gabe bere anayarengana joan zan. Apal agertu zan anai gaztea, eta aurrerantzerako bere alde, berarekin bat egiñik euskera jatorraren alde jokatu zuela ziñ egiñaz.

Alare, anai zarrena ayeruz, fidekaitz agertu zitzaion:

—Itzak onak dituk, anai, bañan ezin aut onartu zuri-zuri ta gure izkuntzari egin dizkiozuten ainbeste ta ainbeste kalte bat-batean azturik.

—Ziñetan natorkik, BETARRABIO!!

—Nola etorri aitekek ziñetan, baldin-eta DEABRU ber-berarekin elkaturik ba-abil?

—Lotura danak autsi dizkiat berarekin... eta emen zakart ezaugarria.

—Ze ezaugarri?

—Ara ortxe. Begira zak...

—Nere ITZALA!! Nolatan, MIKELATS?

—Areistian lapurtu zioat! Iretzat!

—Ene anai maite MIKELATS! Au duk poza ta arintasuna eman didakena! Zearo askatu nauk!!

BETARRABIO egin zan berriro eta betirako bere ITZALAREN jabe ta besarkada luze batean estutu zuten elkar bi anayak. Gero, MIKELATS'ek biotz-miñez beterik esan zion.

—Naigabe bat —eta ura aundiena!— zeukat biotzaren erdian... Ire aurka ainbeste kalte egiña...

—Aztu itzak joandakoak, orain euskeraren berpizkundearen alde elkarrekin bai geudek. Eta jakin zak uste baño legunago lortu al izango dugula berpizte ori. Eta gañera, azkeneko biltzar berezi ta gogoangarri artan argi gelditu zan bezela, UMORE ona gurekin eta IRRIA besteekin zeudek. Laster gaztetxo berriak, ezereen grifñarik gabekoak etorri ta auzia bere tokira eramango ditek, ainbeste petralkeri gure euskeragandik betirako uxatuaz.

Olerkiak

OTAMENDI'TAR IÑAKI

ELORRI...!

(Nere sorosle bati)

Otzikarak gonapean
basoko zugaitz soilak...
Etixerik ez du oraindik
zelaietan kirkillak.

Gallurretara igesi
"Negu" agure xarra...
Soñekoaren txuria!
gorputzaren igarra!

Errekaldean saratsak
udaberri-lurriña...
Adarretan elorriak,
pepitaren ler-miña.

Masusta narru-bixitan,
arantz-txuri loretan;
alerik izango balitz
elorri-adarretan!

Udazkena masail-ori,
mami biguñez soña zuri...
Iñularrean tontorretik
Eguzki'ren begiak irri.

Bide-ertzetan mizpira,
iri nengoan, ba, begira;
ale mardula zetorkiguk
elorri-txuriren gerrira.

Arrats gorriren gorria,
aletan dek elorria.

1936-2-11

GIZA-ADINAK (1)

SEASKA TA UEA

(KABIA)

Aziak, landara gordiña
(Berezkoa izan ark sor-miña)...
Udazkenerako azitan,
lore izana udaberritan.

"Tringulun-trangulum, Maria,
auxe, bai, ume guria!"
Seaskatxoari eragiñez
aitona kaska-zuria.

Kulun-kulun, uea txintxilik
seaska zarrak adarretik...
Kolko beltzeko illuna dute
seaska uheak erditik.

Larrondoko keriza loretan txirri;
arego bide-baztarretan elorri.
Baso-zokotik kabi-lanetan txori...
Aitari zerutik izar bat etorri.

(1) Lekeitio'n, VII'gn. Euzko-Olerti-Egunean zillarrezko abarra irabazia.

Biotza nik egarri...
(Argizai subera).
Muxu-gorri bat nuan
neretzat aukera.
Kabia egin genduan
txoriaren era;
lorea etorri da
gure baratzera.

AURRA

Gexal-mexal eguzkia txeletan...
Larrosa-morgillak usaia muñetan.
Arpegi-borobil, argi begietan,
adimen lo-zorro jaio-berrietan.

Kima berriko orritxoaren begi...
Ostotan naro, zugaitza orlegi...
Izango al-du or loreak abegi,
amaren biotzeko ametsen egi!

Gogape-sapaian laño-izpirik ez...
Oskarbi zana-antzo azi-izarrez.
Etorkizunaren luberri ezea
aldiak apainduren digu landarez.

"Potxolo-potxolin...
noiz arte augun
iñork ere ez jakin...
"Geroa" zebillek
jolasen irekin...
Nor izango aizen
galde, ea dakin?...
Iri esanda ere
izketan ik ezin.

Mâlera arteko aurrearen negarra!
Bertara danean, aren irri-parra!
Uxarka topa du amaren bularra,
itoka, zuka-zuka edan-bearra!

Amaren altzoak pozaren kilima...
Ler-zori pepitan udalengo kima,
zugaitz-zañetako ezoa edari...
Orla miztu oi-dio umeak amari.

Mingañak ixillik, begiak izketan;
poza dabil dantzari bion biotzetan;
"pa" du, dariola, amak ezpañetan,
bai goxo egona magal epeletan.

UMEA

Urrena danarentzat
seaskako azpi,
paxa eta korpiño,
oial eta zapi...

Prakak soñean ditu,
txulodun, zer-gerta,
ez bait-dizu amatxok
guzirako beta.

Oñez bai omen-dabil;
"popatxok" bazkaltzen;
(goizeko terrala
Eguzkik urratzen)
belarriak idiki,
mingaiña askatzen;
argi zeuden begiak
geiago argitzen.

Zabaltzen agoan larrosa gorria,
usaiean goxo, eze dek orria...
"Bizi" Jaun argiaren lurrin-irria;
lo aizela, gotzon; esnai, biurria.
Zuzen dagizkite amaren mezoak;
ixilka noizik-bein baita jan gozoak;
arto erein-berria ala oi-du usoak;
ume bakunaren lenengo lausoak.

Amaren kolkotik, aitaren lepora,
apalondoa oi beraren ondora...
Su-ondoko loa kantaren lelora!
Amets izutia dek ire albora.

GAZTEA

Lo bi eginda gazte, mutil koskorra,
"sasoiak" bere esku duan alorra...
Aizeak darabilen buru ameskorra,
egoiak oi dun ez ostoa txigorra.

Lerintzen agoan marrubi gizona;
matralleko gorri krabeliñarena;
kili-kili dek ire biotz-barrena,
atxamarka dabillen norbaiterena.

Pagopeko itzala eguzki-galdetan!
bazkalondoko loa ire oñetan!
"burrin-burrin" dabil eltxoa aidetan:
Kutuna: mun-egin diñat ametsetan.

Illunabarreko egunaren eri!
Intz-malkoa zeriok ire begiari...
Artalde mardula beka eskortara...
Ene maiteño: oiekin jun oi-zara.

Artalde-aurretik ille ori, kixkur...
Esku oien txurik ba'zirudik elur.
Begi-urdin, muxu-gorri, soñia lerden:
i bezain ederrik iñorik bai al-den?

Atzo iñularrean goldan ni sorotik;
Borda'ra ijean i goiko bidetik...
Ura kili-zarrara nere biotzetik!
Noiz izango aunat gure sukaldetik?

GIZONA

Arrio-gurdiaren irrintzi mirriña...
Matutietan, Elizako txilina...
Eztaia baserri-bidean barrena...
Bai parre gozoa etxeko-andrena!

Ezkon-berrien alkar-izketa xamur!
Muxurk-aleak mamian dizu exur:
laiak sororako, baratzean atxur...
Aitona su-ondoan aularen kixkur.

Zugaitz zarraren adaska trinkoa:
gordin dek gerrian altzuma ezkoa.
Gizonaren buru aize-gabekoa...
ale mardula dek belaunekoa.

Egurretan aiz gaur, izerdi kopetan...
Mendi malkarretik biar belarretan;
udaberri-goizez soroak goldetan,
babea erruz dek ire eskuetan.

Azala lakatza, begia zorrotza;
xamurra dek, baña, oraindik biotza;
aurraren aita, emaztearen abotsa:
ixillik artutako muxuren otsa.

ZARRA

Udalengo orria, berde gordiña...
Urri-aldean, oriaren gorriña...
Elurrak jantzi dizu tontor-erpiña.
Gizonak buruan txuriaren miña.

Egonaren-egon, tximurtzen sagarra...
Mamian zabilkion erioeren arra...
Gerria gogortu, okertzen bizkarra...
Kaskazuri orri jun zaio indarra.

Buruge soroan zut arto-zuztarra...
Balantzaka agoan lasto belarra,
ez dek ikusiko udalen berrian
kantari jeikiren dan euzkiren parra.

Adarretik lurrera osto igarra,
erreka-ondoan dek illobi-baztarra...
(ugolde ugerrak azalean aparra)
elurraren azpian laixter il-bearra!

Aitona lotara, ler-ondo itzalera,
(goroldioa zetorrek ire aldera):
Gurutze Donearen magal bigunera:
ixillik darion lelo xamurrera.

1936-II-12

ELURTAROAN

Pinpoilka aidean maluta...
(odeiatatik amildu-ta)...
dar-dar atean otz-ikara...
elurra, berriz, mara-mara.

Txuria lurraren txapela...
Maite det su-ondo epela.

Elur-izararen limuri;
neguaren soñeko txuri.
Ximurrik ez dun biotz zabala
nere begietan iduri.

Elur-ondorengo gezala,
tarteka dager lur-azala...
Lizunak orla zikintzen du
lausorik ez dun biotz mazala.

1936-4-24.

ARGI-EGIN

Eguzki Amandre'ren
larria ta lotsa:
pagotan nastu zaio
urrezko mototsa.

Masail biok gorri,
piperra, bezela...
Mendi-atean bait-du
orrazi zimela.

Sakonetan degu gabaren itzala...
gabaren kalpar, ipar-laño gexala.

Dulunka bidean ardien arrana...
Larre mardulean izan du zer-jana
eguzki-galdatan axpean etzana...
Mendira dedilla pake-zale dana.

Arkuma beeka amaren atzetik...
Isetsa dantzatzuz maiz da errapetik...
Artzai gaztea guzien aurretik;
zuzen daramazki bear dan bidetik.

Mutilla xaloa! gorputza liraña!
(Eder udaberriz oi-dan lez larraña).
(Mardul udazkenaren aleak aña)...
Lizunak ez du ikutu orren ezpaña.

Tapa-tapa... urritz-xarba ezkerrean.
Xurru-murrua da bide-baztarrean...
So-egin-eta, begien aurrean
Andre Gazte elorri-gañean.

Jaungoikoaren Ama!
gure Erregiña!
Txuri zun soñekoa
(Aingeruk egiña).
Artzaia belauniko:
Aren atsegiña!
Zertxobait esan nai-ta
itz-egin-eziña.

Gorrotoak jana zegoen euskalduna
(Gabak ala oi-du, arratsez eguna);
biotz aiera ta begien illuna...
Ezin-ikusia bai dala ituna!
Ezpain-ertzetatik bitsa zeriola...
Baserriak erre, ta nun-nai odola...
Euskalerrria negarrez zegola
ortxe dator Ama, pake dariola.

Elorri-arantza bizi-bidetan...
Biotz apalaren lorak arantzetan...
Illargia dir-dir Mari'ren oñetan.
Argi-egin euskoen biotz-begietan.

193...-3-19

TXURRUT

Txuri basoan sagardo-aparra...
 Upelari dario barra-barra...
 Barrena pizteko ba'dek indarra...
 Ik dakarkiguk ortzetara parra.

Txurrut bat, txurrut bi, oi-dan bezela...
 Erdi-utsik zegok oraindik sabela.
 Eskutan pitxarra, aurrez upela...
 ez dekan, orratio, ur epela!

Pizten ari zait begitan lorea,
 azaltzen matrallera kolorea;
 apurren bat berotu da labea...
 Aupa, mutillak, au dek umorea!

Pitxar bat, pitxar bi, ezpañak kantari;
 doñura, berriz, besoak dantzari...
 Antzik ezin diot eman ezeri...
 Gauzak gertatzen zaizkio gizonari!

Atsok bezin are itza eta pitza...
 Eskutan daukat ate onen giltza...
 Zutitu nairik, ezinka gabilta,
 upelak ere dantzan al-dabiltza?

1937-3-7

AITA!

Zingirako izagan
 rak-rak zan igela...
 Illerri-atean ni,
 eskuan txapela.

Buruko tximak arro
 zebillen egoia...
 Barruan orrela nik
 aitaren oroia.

.....
 Lerdoia aurrez-aurre,
 kixkur osto-adarrak;
 ortxe eraikia du
 etxea negarrak.

Lerraren kukulutik
 adi zegon gaba,
 obietan losa
 illen ugazaba.

Ixilla iltegian,
 loak irazana...
 Atean aitu nuan
 aretxen laztana.

.....
 Buruko tximak arro
 zebillen egoia...
 Barruan orrela nik
 aitaren oroia.

.....
 Iñularrean xagu-xarra
 gau beltzaranen geznari,
 altzoan niñula ordutik
 asten zitzaidan kantari.

Kea zerion tximinitik,
 su-galdaren arnasa...
 Illatiren atzaparretan
 iruindako matasa.

Kerizetan eskiasuak
 udaberriz aberaska...
 Atsekigo ni su-ondoan
 aitaren itzak miazka.

Muxua eskeinka bizarrez,
ziztatzen zidan okotza...
Begiko dirdaiez arego
zastatzen nere biotza.

Ezari-ezarian arratsez
kandua gallurretara...
Loa zetorkidan aitagan
malguki begietara.

.....
Gurutz-aurrean belauniko
ezpañak mar-mar otoia,
nere barruan ernai zegon
aita zanaren oroia.

.....
Eguna atarian,
begitan makarra,
goxoa zeritzadan
loaren galtzarra.

Leio-zirriztutik
eguzkiak kiri...
Arek uxatu loa
begititik neri.

Amona ikulluan
olloai purraka...
Gona-atzetik zuan
aldra karaka.

"Aita" oiu-egin nun,
"Aitatxo" birritan...
Erantzunik ez, berriz,
nere belarritan.

.....
Gurutz-aurrean belauniko,
ezpañak mar-mar otoia,
nere barruan erne zegon
aita zanaren oroia.

.....
Dunbatekoa añubean;
arin atzetik oiartzuna...
Aritz-ondoan luze-luze,
zauri zetzan euskalduna.

Odola zerion bor-borka,
(Alaxe ura iturritik);
zerurontz kea dijoan lez,
lurriña odol-zauritik.

Beso bat zeatz sakailduta,
borobil zuloa keietan...
Oñazearen muxoa zuan
gizajoak ezpañetan.

Bai garratza aren azken-agurra!
ura oiu samñaren luzea!
Igitai-aoak oian beltzean
zurtoiñetik jo dun garo ezea.

.....
Zakurrak zaunka atean,
amatxok negar sukaldean;
aita illotzik dakarte
lau gudarien artean.
Okotzetik xintxillik odol-tanta;
zikin zirtzillez soñean txamarra...
Zuri eskuturrean atzaparra...
Itxumustuko barruren zarrara.

Buztiñetan blai zituan oskiak,
belaun-koskoltarañoko loa;
adi-adi berari nengokiola,
zotiñak eten zidan otoia.

Begi beltxargak erdi-zabal,
aurtxo logalea bait-litza...
Jaungoikoa ta Lege Zarra
izan omen-zun azken-itza.

.....
 Lurrean luze ar-lau otza,
 ertzetan gordin belarra...
 Morkotzak aoan alea lez
 begi lausotan negarra.

1937-9-30

MAITEA

Usoak usu egaz moltsotan...
 Txantxangorri pixpira illetan...
 Negu beltzaren kiñu maltzurra?
 ozkamiña dute biotzetan.
 Udazkenaren egoi-zantzura

soroetan arbiren erne-miña...
 Biotz-barruan aize-dofiura
 kilika narabilnan sorgiña!
 Aize-begiaren ari meak
 ille-matazean ditun jostari...
 Irudiaren izpiak orrela
 zeragionen ene biotzari.

.....
 Idiei-aida joan-ninjoala
 belar-printzetan intzaren oxkira...
 Ipar-zantzuren atzapar ezeak
 neri atxamarka ari al-dira?

Saratsa-aldean altxumak lore,
 bor-borka iturritik ur-aria...
 Artoa erne-min, gordin garia...
 Soñeko txuriz Borda'n madaria.

Idiei-aida joan-nijoala
 bidean dilinka asto-arrana.
 Zein ote-da? bai ote-da? Ondoren
 Borda-txuriko neska beltxerana.

Kulunka-kulunka, asto-gañean,
 ota-lorea aizetan bezela...
 Egun-sentiren argi-izpitan
 ire irripar-zantzuren zimela! (?).

Zer unan begietan, sorgin orrek...
 Oxñean Euzki'k galdu dun printza
 totel-motel... ortzetan galdu niñan
 biotzmuñean erne niñan mintza.

.....
 Gauak lur-azala egazpean
 lokak txita artzen dun bezela,
 oean logale nentzanean,
 leio-zulotik aize epela.

"Lo" amandrearen besoetan,
 ura ametsaren poz-ikara!...
 Par-irriz joan-giñoazen biok
 alkarren besotik Elizara.

Altza lerdnaren muin-erroak
 erreka-altzotik ur-txurruxta...
 Oian beltzeko krabelin orrek
 ez al-didan egingo purruxta!

Arta-gerrian, txuikin gordiñan
 arta-bururen ale berria...
 Adi-adi natzaidanean
 ezpañetara dun par-irria.

Sudurra ttiki, matralla bete,
 keriz-alearen bai-litza.
 Añubeko latsaren pol-pola,
 neretzat ire aoko itza.

Eder kolkoa —ura txokoa!—
 pil-pil xoragarrian bularra...
 Umoren-umoz jaulkika datzan
 adar-besoetako sagarra.

Egunaren nir-nir listorra lez,
ire begi beltzaren dirdira...
Zorabioaren mizta gaiztoa
sartzen eidan biotz-mamira.

Gerría mea, trinko zankoak,
muñoan ezo dagon lizarra...
lo kuluxkaren kabi barean
izanen al-diñat ire galtzarra?

1937-10-2

LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
- II -
KARDABERAZ-BAZKUNA. 1977

Cultura Pirenaica

THALAMAS LABANDIBAR, JUAN

Ya en el cuaternario medio aparece la presencia humana en el ambiente pirenaico, en medio de una fauna representada por el mamut, el rinoceronte lanudo, el ciervo, el reno y el oso de las cavernas, sin que por ello desaparecieran los felinos y las hienas. Instrumentos toscos de cuarcita, correspondientes a las épocas chelense, achelesense y musteriense se han hallado en las cavernas del Ariège y otras zonas pirenaicas. También han aparecido huesos humanos pertenecientes a la raza Neanderthal que vivía cerca de los lechos de hielo de la última extensión glacial.

Después de la retirada de los últimos glaciares, el clima se hizo más seco y frío en los Pirineos, dando nacimiento a una vegetación forestal de gran exuberancia. Ya entonces comenzaron a predominar los animales herbívoros, como los caballos salvajes, ciertos bóvidos, los bisontes, sin que por ello desaparecieran los mamuts y los elefantes. Especies carnívoras como el león, los osos y los lobos hallaban fácil alimento gracias a las manadas de los herbívoros. Asimismo, el zorro azul, el oso gris y el reno no dejaron de abundar en toda la cadena pirenaica, en una época en que las cavernas eran habitadas por razas nuevas de un grado de civilización más avanzado que la del hombre Neanderthalense. Sus armas son de una factura perfecta y se destacan como excelentes artistas, no sólo en sus grabados sobre marfil y hueso, sino también en sus pinturas en negro de carbón u ocre, sobre las paredes de los lugares subterráneos en que hallaban abrigo.

Los vestigios de esa civilización avanzada fueron hallados en Aurignac, estación prehistórica enclavada en una zona determinada del Pirineo y ha dado su nombre al "Auriñacense", o sea, a un tipo de cultura del paleolítico superior. La raza humana correspondiente a la cultura auriñacense pertenecía a la que se denomina de Grimaldi, semejante a la de ciertas poblaciones del África del Sur, tipo negroide que no ha dejado trazas en el fondo racial de las poblaciones pirenaicas actuales. En cambio, no cabe decir lo mismo del hombre de Cro-Magnon que se

destacó en la cultura magdaleniense, propia de los cazadores de renos, cultura denominada franco-cantábrica. Se trataba de unas poblaciones que, a la vez que se dedicaban a la caza para el sustento diario, supieron mostrarse artistas consumados, ya que muestras indelebles de su gran pericia se encuentran en las cavernas de la Dordogne, el Quercy, el País Vasco y las provincias de Santander y Asturias.

Las pinturas de las cavernas de Marsoulas pueden rivalizar con las de Altamira, y de la misma época son los grandes bisontes de arcilla existentes en la caverna de Tuc-d'Audoubert, así como la famosa pintura del hechicero disfrazado de reno que se halla en lo más profundo de la caverna de Montespan. La raza del hombre de Cro-Magnon sobrevive actualmente en el Pirineo con sus características propias, al lado de otros tipos humanos, braquicéfalos, más bajos de estatura y rechonchos.

Al frío seco del paleolítico superior sucedió un clima más templado y húmedo, con la consecuencia de que el reno se alejó hacia las zonas nórdicas de nuestro continente y la vegetación adquirió un desarrollo hasta entonces desconocido. Surge entonces la era neolítica con una civilización más sedentaria, concedora del laboreo de las tierras y la domesticación de ciertos animales. Los monumentos megalíticos que aparecen en toda la Europa occidental, remedan las cavernas al aire libre, siendo lugares de enterramiento, y las primeras chozas de madera, habitáculos rudimentarios, dan cobijo, cuando menos de noche, a las familias.

Tema controvertido es y será el saber si la transición de una Era a otra se efectuó en el Pirineo sin hiato, sin solución de continuidad, es decir, si el neolítico fue el término de una evolución que se efectuó *in situ*. Resultaría muy aventurado negar que en el epipaleolítico o en el aziliense, y también en los comienzos del neolítico, no se hubieran dado movimientos de pueblos en sus migraciones y que éstas no hubieran alcanzado el Pirineo. Lo que cabe afirmar es que pueblos de tipo braquicéfalo venidos del Este de Europa y de Asia se mezclaron con los dolocéfalos del paleolítico superior, sin que toda vez éstos llegaran a desaparecer, sino más bien consiguieron crear un tipo de civilización con personalidad propia, en medio de unas condiciones de existencia totalmente nuevas y con una fauna y modalidades de trabajo desconocidas en épocas anteriores.

Después de la civilización del reno, los pirenaicos se entregaron a

una vida pastoril, en medio de rebaños de cabras y de ovejas, adoptando más tarde rudimentos de agricultura. Tampoco dejaron de esforzarse por levantar monumentos megalíticos, dólmenes y menhires, propios de la civilización agraria europea. Por otra parte, la civilización almeriense o tarthésica que se formó en el Sudeste de España, tuvo su influjo bienhechor en todo el ambiente pirenaico, gracias al conocimiento y explotación de los metales y la utilización de los jarros o vasos campaniformes, así como el perfeccionamiento de sus flechas, demás armas e instrumentos líticos.

Se ha podido comprobar que en todos los valles pirenaicos los villorrios o *vici* existían ya anteriormente a la venida de los romanos, teniendo un origen que alcanza cuando menos la edad del hierro. Esos villorrios se hallaban cerca de ciertos lugares fortificados donde, en caso de apuro, las gentes pudieran hallar medios de defensa. En algunos de esos lugares se ha perpetuado el nombre de *Camp de Cesar*, pero en el lenguaje popular se les conoce por *mauto*, *mautefo*, *tuco*, *turon*. También se les denomina *castela*, *castera*, derivados del latino *castellum*. Todo demuestra que los pirenaicos poseían una verdadera habilidad en la construcción de tales lugares fortificados, los cuales, en ciertos casos, podían parangonarse con las *oppida* o castros romanos, por sus dimensiones y los materiales utilizados. La mayoría de los castros pirenaicos presentan una forma circular u ovalada, protegidos por barreras y rodeados de una fila de fosas en lo más abrupto de una pendiente muy difícil de escalar.

Esos campamentos venían a ser lugares de refugio para los habitantes del entorno, cuando se daban luchas intestinas entre las tribus vecinas. En su recinto solía habitar un poblado con su reyezuelo, jefe de tribu, y en él tenía lugar, los días de mercado, el intercambio de mercancías, así como ciertas ceremonias religiosas, con sus festejos, para honrar a los genios protectores o héroes de la tribu, simbolizados por bloques de roca, verdaderas piedras sagradas, objeto de ofrendas y libaciones. Ciertas fosas cavadas junto a las piedras sagradas, demuestran que también se hacían sacrificios cruentos de animales e incluso de seres humanos, de un modo especial la inmolación de prisioneros, después de cada batalla.

La característica de la ocupación ibérica, desde Andalucía hasta el Ródano, sin excluir algunos territorios aquitanos, fue la fundación de

villas, cuyas trazas aparecen en los numerosos *iri-berri*, "villas nuevas", que constituían su apelación. En cuanto a los celtas, más de una vez otorgaron el nombre de *Lugdunum* a las villas que hacían las veces de cabeza de partido. Así vemos que Saint-Bernard de Comminges, ciudad fortificada y capital federal de los *Garunni*, llevaba el nombre céltico de *Lugdunum*, cuyo significado viene a ser "lugar elevado o collado luminoso", ya que *Lug* era el dios céltico de la luz diurna.

* * *

En la edad del hierro los valles pirenaicos se hallaban muy poblados, hasta el punto de que se admite que entonces las zonas más internas del Pirineo tuvieron una población más densa que en la actualidad. Lo mismo cabe decir de las zonas adyacentes a la cadena pirenaica. Los establecimientos humanos y los cultivos se extendían sobre todo hacia las alturas, desde el momento que muchos poblados radicaban entre los 800 y 1.200 metros de altitud. Se practicaba la incineración de los muertos. La urna funeraria aparece en el centro de un conjunto de piedras o recubierta de una losa, y a su lado se colocaban armas, collares, fíbulas y otros objetos de adorno. Las armas llevaban trazas de la primera edad del hierro: espada corta, puñal con antenas, dardo de una sola pieza y la famosa jabalina, *soliferreum*, denominada así por los romanos. El material hallado en las tumbas de incineración pertenece a la época post-Halstática, importado, tanto en Aquitania como en otras zonas de la península ibérica, por las primeras invasiones célticas, en los siglos VII y VI, anteriores a J. C.

Huesos de animales y residuos comestibles hacen ver que se ofrecían al difunto los alimentos necesarios para el caminar de su doble o alma hacia la región celeste. Por otra parte, si se tiene presente que las tumbas se colocaban en las encrucijadas de caminos, hay que admitir que el culto de los muertos desempeñó un papel muy importante en la mente de los pirenaicos, los cuales, a no dudarlo, serían maestros tan consumados como los vascones y los cántabros en los cantos improvisados para honrar a sus difuntos.

Hasta tiempos muy recientes el culto de los antepasados ha constituido, en toda la cadena pirenaica, el lazo primordial de todas las instituciones sociales y políticas, arrancando de la familia troncal, para la

cual la casa equivale al templo donde se rinde culto a las almas de los difuntos, alrededor del fuego del hogar, verdadero genio doméstico. Por otra parte, ciertos recintos circulares que, como el de Hout-Arrouy, en el valle de Larboust, abarca nada menos que 448 monolitos, con una circunferencia de 443 metros, demuestran muy a las claras que las grandes asambleas político-religiosas se efectuaban junto a las tumbas de los antepasados, práctica que subsistió después de la implantación del cristianismo, ya que las *vesnaus* y también los *biltzarres* y *batzarres* tenían lugar en el interior de las iglesias, en cuyo recinto se enterraba a los muertos.

Los monumentos religiosos hallados en la cadena pirenaica demuestran que se trata de simples altares votivos, erigidos en campo abierto, a cielo descubierto, para honrar a algún genio o divinidad protectora. Las estelas dedicadas a *Abellion*, *Leheren*, *Erge* y otras divinidades, han sido descubiertas en lugares elevados donde, más tarde, en no pocos casos, fueron erigidas las ermitas dedicadas a los misterios cristianos, a San Miguel u otros santos de marcada devoción popular. Resultaba lógico que a falta de templos y de imágenes, las gentes expresaran su religiosidad valiéndose de piedras, árboles o simples troncos para localizar en ellos a sus genios tutelares. Por otra parte, el culto se manifestaba también en favor de las fuerzas de la Naturaleza, por ejemplo, junto a ciertos manantiales, considerados como de gran provecho por la calidad de sus aguas o sus virtudes curativas. Hasta tiempos recientes ha sido corriente que al pasar las personas delante de ciertos lugares considerados como sagrados, se detuvieran un instante para hacer una breve plegaria u ofrecer una rama de árbol a una piedra que no siempre coincidía con una sepultura.

Las pocas imágenes que se han hallado, siempre de un estilo rudimentario y tosco, son de una época muy anterior a la dominación romana. En muchos casos, las representaciones no van más allá de los atributos de ciertas divinidades: un palo, una lanza, una bolsa. No faltan símbolos gráficos que se refieren al culto solar y otras divinidades astrales: la swástica, discos, ruedas, asteriscos. En algún que otro menhir aparece un esbozo de escultura, simbolizando fuerzas que rebasan al ser humano y se imponen de un modo reverencial.

En las zonas de Luchon se han descubierto ciertos megalitos que se caracterizan por la presencia de ciertas cavidades redondeadas, cuya des-

tinación antigua se desconoce. Los arqueólogos franceses denominan *cupules* esos orificios, y se da el caso de que un gran bloque denominado popularmente por *Lailhon dets pourics*, lleva nada menos que 98 cavidades de ese género. Es de hacer notar que ese bloque pertenece al conjunto de un cromlech conocido por *peyrolade*. Podían servir esas cavidades, o bien para verter los líquidos que convenían a cierto género de libaciones, o bien para recibir el agua de lluvia que luego se utilizaría como agua lustral.

Antes de que surgiera la costumbre de los ex-votos junto a los lugares sagrados, se hacían ofrendas de frutas, flores y animales. Hasta hace muy poco se ha mantenido la costumbre de lanzar monedas a ciertos manantiales y también al interior de algunas ermitas dedicadas a santos protectores. En la intención de los donantes, se pide lluvia en tiempo de sequía o se expresa el reconocimiento por alguna gracia recibida. El talismán más considerado para la protección de las casas ha sido el hacha de piedra tallada o pulimentada, "piedra de rayo", costumbre que ha sobrevivido con las hachas de acero, cuyo filo se coloca en el umbral de las viviendas para protegerse contra los peligros del rayo.

No se admite que el druidismo penetrara en zonas pirenaicas ni aquitanas en cuanto clase social, como tampoco lo hizo entre los celtas de España ni de Italia. Pero la agorería y otras formas de aruspicios y adivinación, en particular, la que se cifra en el vuelo de los pájaros, debió de florecer, de acuerdo con cierta forma de emotividad muy propia de gentes que habitan en la montaña.

* * *

Según Sacaze, ilustre investigador de la antigua religión de los pueblos pirenaicos y subpirenaicos, la divinidad que beneficiaba de un culto muy generalizado era *Abellion*, cuyo nombre, al parecer, presenta ciertas afinidades con *Apolo* y *Belennus*, siendo este último apelativo el que correspondía a la divinidad solar de los celtas de las Galias. Son numerosos los altares votivos dedicados a *Abellion* que han sido hallados en localidades como Luchon, Couserans y otras zonas de Aquitania. En cuanto a la diosa *Belisama*, venía a ser la páredra o compañera del dios solar *Abellionis*. Se trataría, según Lizop, de una muy antigua divi-

nidad indígena que recibió un nombre céltico, antes de que fuese asimilada a la Minerva romana.

El culto lunar distaba mucho de ser desconocido a lo largo de la cadena pirenaica, de modo muy especial durante las fiestas nocturnas de los plenilunios. Juntamente con *Abellion*, la divinidad selénica *Ilumnus*, *Ilumis* fue la que mayor extensión y arraigo tuvo en el fervor de los pirenaicos. No solamente ese término corresponde al euskérico *illune*, que hoy se emplea para significar la oscuridad nocturna, siendo su etimología "el momento de *il*, la luna", sino que en una de las lápidas aparece la forma compuesta de *Asto Illumo deo*, poniendo en evidencia una doble terminología lunar, expresión de dos estratos culturales superpuestos. Conviene señalar que el término de *aste* subsiste en el euskera hablado de hoy, con la significación de "semana", pero habiendo tenido originariamente el alcance de período o fase lunar, cual lo señaló debidamente Arturo Campión.

En las inscripciones latino-aquitanas, el dios Marte va identificado con *Leheren*, y también con *Erge*, *Dabus* y *Arixon*. La variedad de vocablos pertenecientes a una misma divinidad, hace ver la facilidad con que, en el ambiente pirenaico, los grandes dioses adquirirían un carácter local o tópico. Solamente en la localidad de Ardiège se ha conseguido poner al descubierto diecisiete inscripciones dedicadas a *Marte-Leheren* o simplemente a *Leheren* a secas. De ahí se ha deducido que esa localidad fue un gran centro donde se tributaba un culto muy especial al dios de la guerra, al cual, como es bien sabido, se le hacían gran número de sacrificios de prisioneros y caballos, después de cada batalla.

En lo que respecta a la etimología de *Leheren*, Luchaire opina que deriva del euskérico *ler*, *leher*, cuyo significado es aplastar, vencer, rendir, mientras que Lizop cree que corresponde a *leben*, "el primero", cosa que no va en contra de la posición primordial que Marte ocupaba en las condiciones siempre combativas de las gentes de la antigüedad, tanto en el Pirineo, como fuera de él.

Existen también inscripciones dedicadas a *Illumberri*, *Illumberri-xus* que, al parecer, se refieren de modo muy directo a la luna nueva, *Illun berri* en euskera. En cuanto a *Iluro* cabe admitir que fuese un genio tópico, protector de poblaciones como Louron, Oloron y otras, y que el término de *ilur* tuviese que ver con *ili*, *iri*, *uri*, cuyo significado euskérico es poblado, ciudad, villa.

Existen inscripciones dedicadas a genios denominados *Larraso*, *Lurgar*, *Lurberri* enraizados en *lur*, *lar* que, en la lengua vasca, se refieren a pastizal y tierras labrantías, lo cual denuncia una vida pastoril y algún tanto agrícola. En cuanto a *Idiatte*, genio venerado en St. Pé d'Ardet, enraizado en *idi*, "buey", indica su carácter de protector del ganado mayor, y variante de ese apelativo puede ser la inscripción correspondiente a *Edelat* que se conserva en el museo de Toulouse.

Y ya con el ganado lanar, parecen tener relación las inscripciones de *Aherbelteso* (*aker beltz*, "macho cabrío negro"), *Ele*, *Ilixo*, emparentados con *eli*, "rebaño", *Arixo* —de *ari abarri*, "carnero"— y *Erditse*, de *erditu*, "nacer, parir".

Con los bosques y, de un modo muy especial, con el haya y el roble, van identificados los genios de *Bassat*, *Deo Fago*, *Garri*, *Garre*. En cuanto a *Baigorri* se ha interpretado por *beigorri*, coincidiendo con *abelgorri*, término que actualmente se aplica al ganado vacuno en general. Creemos que no es desechable la opinión de quienes ven en *baigorri* el nombre que pudo corresponder a *ibai gorri*, manantial o riachuelo ferruginoso, considerado en tantos lugares como "fuente de la salud". Si la inscripción de *Baios* correspondiese a una expresión mítica de *ibai*, podría verse un numen o genio equivalente a un Tritón eúskaro-pirenaico.

* * *

Actualmente no se admite en el campo de la prehistoria la hipótesis de "un pueblo de los dólmenes", como si la construcción de esos monumentos, a veces gigantescos, fuese la manifestación elocuente del establecimiento o paso de gentes de una misma raza, lo cual no quiere decir que no haya existido una cierta comunidad de cultura que se hubiese transmitido por etapas hacia focos secundarios de difusión en el tiempo y el espacio. La presencia del cobre, al lado de objetos de oro, plata y bronce, permite situar esa civilización megalítica en el Eneolítico.

Por orden cronológico, los megalitos caucásicos y palestinos coinciden con los comienzos del tercer milenio, mientras que los de Lusitania remontarían a la primera mitad del segundo milenio, hacia 2800, o sea, a una época en que la península ibérica tenía ya, por vía marítima, relaciones con el Oriente. Este foco secundario parece haberse dividido en dos corrientes: una que se dirigió hacia las costas africanas,

desde Marruecos hasta Trípoli, y la otra que subió hacia el Norte, llegando al Pirineo y a la Armórica o Bretaña francesa actual. Se admite que en la segunda mitad del segundo milenio esa gran cultura megalítica marcó su influjo en ambas vertientes de la cadena pirenaica.

Las zonas nórdicas de Europa constituyen un foco receptor más tardío en lo que a esa cultura megalítica se refiere y cabe reconocer que los megalitos de la Alemania septentrional muestran grandes semejanzas con los de Irlanda y Escandinavia. Es de hacer notar que la cultura dolménica no alcanzó el Sur de Alemania, ni Hungría, ni la Europa central.

Juntamente con esa cultura se propagaron en los Pirineos los vasos campaniformes. En la avenida cubierta de Taillan, en los Bajos Pirineos, se han hallado varios tipos de vasos con el fondo redondeado, a veces con asas y un cierto número de pies o soportes muy pequeños. En el Ariège y la Haute Garonne han aparecido no pocos vasos de tipo marcadamente campaniforme. Sobre este particular son de interés las enseñanzas de J. M. de Barandiarán, cuando dice que los elementos extraños más importantes, incorporados a la cultura pirenaica del eneolítico son: la arquitectura dolménica, el vaso campaniforme, el tipo de puntas de flecha y el uso del cobre llegados por influjo de la cultura de Almería, así como los tipos de hachas de piedra y de cobre y bronce, importados de los pueblos septentrionales.

Los dólmenes de las zonas pirenaicas se hallan constituidos por amplias losas calcáreas, que recubren sepulturas con depósitos de flechas y lanzas de sílex, puntas de huesos aplastadas o redondeadas. En la época dolménica se generalizaron las puntas de flecha pediculares, a veces bastante largas y con pequeños dientes de sierra; ornamentos de perlas de hueso, de jade y de ámbar, van acompañados de huesos grabados; aparecen también conchas agujereadas, perlas redondas u ovoides, anillos de cobre, de bronce y placas del mismo metal, sin que falten tampoco dientes agujereados de bueyes, jabalíes y osos pardos.

Además de lugar de enterramiento, el dolmen venía a ser algo así como un esbozo de templo solar, ya que su orientación de Este a Oeste, coincide con la del curso del astro del día. Los cadáveres eran inhumados en posición horizontal, con la cabeza en el lado de occidente y los pies hacia el oriente. No pocos dólmenes fueron erigidos en collados y puertos, en general, en lugares de convergencia de vías naturales y tam-

bién de comunicación entre varios poblados. La importancia atribuida a las encrucijadas con relación al culto de los muertos, ha sobrevivido hasta nuestros días, pues en ellas se quemaba el colchón del difunto, se sacaban respuestas, deteniéndose la comitiva fúnebre como respondiendo a un auténtico rito.

Otra característica muy importante de la civilización dolménica es el culto de la diosa madre. En efecto, son innumerables las estatuitas que se han hallado representando a esa divinidad y de las cuales suministran una amplia información F. M. Bergounioux y André Glory. Se trata en general de figuritas muy estilizadas: en su silueta rectangular, se destacan la nariz alargada y dos puntos que marcan los ojos; la boca aparece simplemente insinuada y los senos se muestran en relieve, siendo el hacha el único atributo que les acompaña. En el Mediodía de Francia se muestra esa figura esculpida en monolitos que alcanzan a veces una altura de cuatro metros y medio y un peso de 900 kilos. La famosa "déesse jaune" que se encuentra en la caverna de Ussat, en el Ariège, es suficientemente elocuente para dar a entender la significación genésica que tuvo ese culto con relación a todos los seres vivientes y al orden creado en su conjunto. En el País Vasco, tanto la literatura oral, como la toponimia revelan el culto de la *Ma* como el que más consistencia ha presentado a través de las edades.

El percatarse del hecho de que una gran comunidad de creencias, verdaderamente ecuménica, existió a lo largo del eneolítico, desde las orillas del Tigris, el Asia Menor, las islas del Mar Egeo, hasta los países escandinavos, pasando por Italia, España y Francia, no deja de ser sorprendente. La realidad es que se impuso en zonas bien determinadas del mundo euroasiático el culto de gran divinidad femenina, la *Mah*, que hoy, entre los indúes, continúa siendo venerada en ciertas grutas y cavernas, en su calidad de divinidad ctónica, cuya eficacia genésica lo abarca todo.

Por otra parte, esa divinidad, además de la fertilidad del mundo y el nacimiento de los seres vivientes, propicia y favorece el destino de las almas de los difuntos en ultratumba. Donde mayor esplendor adquirió esa forma de religión fue en la isla de Creta a partir del Micénico antiguo III (2400-2100 a. de J.C.). Los santuarios erigidos en honor de esa divinidad se hallaban muchas veces en altos lugares, debido a que ella reina, no sólo en las profundidades, sino también en los cielos.

La figura del hacha se vislumbra, inscrita, grabada o en relieve, en no pocos dólmenes; por estilización, el mango se presenta con signo pediforme. Tampoco es raro que dentro de las sepulturas existan hachas de piedra, a veces agujereadas, con miras a ser utilizadas como amuletos. Teniendo presente que ese instrumento reforzaba y vigorizaba la fuerza muscular del hombre, no es extraño que su culto fuese asociado al de los muertos en las sepulturas eneolíticas, simbolizando la supervivencia, es decir, la idea de poder vencer a la misma muerte.

El culto solar, propio de la edad del bronce, tuvo su expresión plástica en los discos radiados. Las imponentes ruinas de Stonehenge que pueden contemplarse en la llanura de Salisbury, en Inglaterra, así como las famosas avenidas de Carnac, en la Bretaña francesa, con sus 3.000 monolitos alineados en múltiples filas orientadas hacia el punto en el cual aparece el sol en el solsticio de verano, son testimonios más que elocuentes de lo que representó el culto del astro del día en el Occidente europeo, incluyendo, claro es, toda la cadena pirenaica, donde la festividad de los dos solsticios, en ocasión de la Navidades y el día de San Juan, continúa despertando los sentimientos más alegres y joviales de todo el año. El hombre es hijo de la luz y la desea ardientemente para él y los suyos en este mundo y en el otro: *et lux perpetua luceat eis*.

* * *

A D. Angel Ballarín Cornell se le debe la publicación de una obra, tan sustanciosa como amena, sobre la etnología de los Pirineos centrales, en la cual pone de relieve ante todo el hecho de que para los antiguos moradores pirenaicos "la cresta de la cordillera carecía de cierta significación especial, ya que, para el que llegaba a lo alto, sólo era el punto donde terminaba la cuesta arriba y comenzaba el descenso. Todo era montaña; las aguas no separaban nada. Los congostos están en la salida de los valles hacia el llano". Lo único que ha interesado al pirenaico ha sido poder conservar sus modos de vida tradicionales que ni los romanos, ni los celtas, ni los godos pudieron alterar, porque la vida del pastor, vieja de milenios, no admitía grandes variaciones: "Las parras de cerdos, las manadas de vacuno, los rebaños de cabras y ovejas del tiempo de Ulises, mil años antes de Jesucristo, eran gobernados como los que pastaban en nuestras montañas veinte siglos después".

En los tiempos protohistóricos, cuando las tierras cultivables eran raras, los productos naturales: bellotas, avellanas, moras, endrines, fram-buesas, escaramujos, etc., fueron de suma importancia, así como la caza de carnes para el alimento y pieles para vestido, calzado y tocado. Durante siglos la riqueza principal radicaba en el ganado, y el pastor fue el personaje más destacado. Luego, gracias a la extensión de la tierra labrada, el campesino se impone en el marco de una solidaridad vecinal que se manifiesta, no sólo en momentos de peligro, sino también en obras de interés general, en la ayuda a los desvalidos, así como en los regocijos y fiestas populares y en las ceremonias religiosas.

En el marco de la etnología pirenaica, el señor Ballarín se fija en el simple palo. Desde que supo adelgazar la punta del palo, hasta que lo transformó en arco, transcurrieron muchos siglos. El hombre prehistórico fue descubriendo muy lentamente, por tanteos, las múltiples utilidades que representa el palo como adyuvante e instrumento de trabajo: apoyándose en su cayado, el pastor puede vigilar de pie durante horas su rebaño, puede sujetar o transportar una res, colgar y mover objetos de gran peso, defender o atacar. Pudo el palo convertirse en lanza y en el temible dardo ibérico, largo de tres pies. Las primeras chozas se construyeron con el palo aguzado con el ramaje, cubierto de barro. La *collada* o pinga es el palo apoyado sobre los hombros que incluso las mujeres utilizaban para acarrear el agua con pozales colgados de los extremos. Como arma arrojadiza, empuñándola, se adquiere la destreza necesaria para alcanzar el fin que se desea. De ahí el refrán benasqués: *per cuca u per can, no está mal un tócho a la man* (por alimaña o por perro, es conveniente llevar un palo en la mano).

Del palo salió el gancho, de gran utilidad para apresar una res, ahorrando molestias al ganado. Del primitivo arado cabe decir que fue un fuerte gancho de madera, tirado por una yunta de bueyes. Para la siembra todavía hoy en los huertos se utiliza el palo para hacer agujeros y depositar la semilla de las plantas. El *betillo* viene a ser un palo de la altura del hombre y grueso como el brazo que el pirenaico ha sabido utilizar para la construcción de las *arcadas* o defensas para los pasos de madera sobre las corrientes y para las paredes que cierran las fincas.

La construcción de la palanca, apretando con las manos el palo hacia abajo, o tirando en el sentido de la gravedad, para conseguir le-

vantar un cuerpo, así como el invento del arco observando la elasticidad de ciertos palos, fueron el punto de partida de un gran progreso para el cazador y el guerrero. Con el palo curvado y la flecha se podía alcanzar una pieza o un hombre a distancia.

La reduerta viene a ser la atadura que se consigue con el tronco y las ramas de un abedul, sauce, avellano u otra planta arbórea flexible. Se utiliza la *reduerta* para atar los haces de leña, de abozos, de rama. Cuando se intercalan unas a otras varias *reduertas*, se consigue una fuerte soga de cuatro o cinco metros, para atar las cargas de hierba, procedimiento que se ha utilizado en el ámbito pirenaico hasta principios de siglo. El *benselló* es la atadura que se hace retorciendo hierbas o paja. A su vez, el *armellón* es la *reduerta* formando anillo, vilorta, que se emplea para sujetar los palos clavados en el suelo, aprisionando los *barrerres*, o varasetos. Cuando se colocan dos *armellons* uno dentro de otro, se obtiene la *traba* o maniota, que sirve para sujetar un animal por las manos.

El medio de transporte muy anterior al carro con ruedas, fue la narria, el *estiraso* pirenaico. Ya que hasta el primer cuarto del siglo actual la carretera no penetró en los valles altos, no podían existir vehículos rodados. De ahí que el único medio de transporte fuese el *estiraso*, que en euskera se denomina *lera*. Por otra parte, aunque no era desconocida la simple carretilla, era más frecuente utilizar las parihuelas o angarillas, *carcamo*, debido a lo muy accidentado del terreno.

La narria pirenaica consiste en un sólido cajón montado sobre un trineo. Las dos piezas que tocan el suelo son de madera muy dura y reemplazables. El destinado al arrastre de grandes piedras o de otros cuerpos voluminosos y pesados, está formado de un solo tronco ahorquillado. Ambos son de gran solidez. Existe otro medio de transporte que utiliza el pastor pirenaico, cuando lleva una res a cuestras. El animal va horizontalmente acostado sobre los hombros y la parte superior de la espalda, pero, a fin de que el montañés guarde las manos libres, ata las patas del animal y las hace subir a la frente, que es donde hace presión todo el peso del animal. Ese fue el procedimiento que Ulises empleaba cuando se dedicaba a la caza del ciervo en los dominios de Circe: "Rompo unas ramas de mimbrera, las tuerzo y, formando una atadura de varios codos, ato fuertemente las patas del monstruoso animal. Cargo sobre mi cuello este fardo, excesivamente pesado para llevarlo sobre un

solo hombro, y marchó hacia la orilla, apoyado en mi lanza. Al llegar, echo la carga delante de mi navío". En el léxico pirenaico, ese medio de transporte lleva el nombre de *a guiña*, y es el que emplea el cazador benasqués cuando baja los *ixarsos*, sarríos o cabras monteses, desde las crestas donde suele cobrarlos, "llevando la escopeta en la mano, en lugar de la lanza, y quedándose la otra libre, para agarrarse, si fuera preciso".

La cabaña o choza fue la primitiva forma de vivienda que el montañés utilizó durante muchos siglos. Primitivamente, la construcción de tales refugios se efectuó al arrimo de las rocas y de grandes piedras, antes de que se estableciera la cabaña fija, cuya construcción con piedra seca, piedra natural, tomada tal cual la naturaleza la ofrece, sin argamasa que la una. Este procedimiento continúa empleándose en el Pirineo para cierre de fincas, contención de tierras o construcción de cabañas: "Hace falta para ejercerlo, fuerza, golpe de vista y una intuición especial para encontrar la posición adecuada, porque esta piedra que no bien colocado de este lado, encajará, a veces, del otro; para calcular el centro de gravedad de cada bloque, porque la obra ha de ajustarse a sí misma, por su propio peso, con el menor relleno posible".

Por *cobarcho* se entiende en el lenguaje pirenaico el refugio natural donde poder abrigarse en caso necesario. En cuanto a la cabaña primitiva, su forma era rectangular, no ya circular, como la de los iberos. El único espacio libre es el de la entrada, y su techumbre es de dos vertientes, con inclinación suficiente y de forma que no pueda subir el ganado sobre ella. Para que no penetre el viento, se rellenan los intersticios de las paredes con tierra, la cual también se coloca encima de los maderos del techo dispuestos a vía justa; unas losas formando superficie continua hacen que puedan correr las aguas sobre el tejado. Junto a la puerta, el fuego, y en el lado opuesto una rama de pino, *pimarra*, que aísla de la tierra. Luego vino el empedrado del suelo de la choza y la necesidad de elevar algún tanto sobre el suelo la cama o yacija.

Según el señor Ballarín, ese espacio cubierto hubo de servir, durante mucho tiempo, de cocina, comedor y taller durante el día, especialmente en invierno, y de dormitorio en la noche a los que no dormían al calor del ganado, y luego, siguiendo la evolución, "se acabó por destinar la planta baja a los animales y aperos, habilitándose otro espa-

cio destinado a habitación: lo cual, con el tiempo, dio el tipo de "casa pobre", que ha llegado hasta nuestros días".

Entre los recipientes adaptados a las más diversas necesidades, el más valioso es, indudablemente, el vaso, sustituto del hueco de la mano y del cráneo humano, el del enemigo, utilizados por el hombre primitivo. Muchísimo antes que las vasijas de barro, tejidas con mimbres recubiertos de barro, la madera fue el material del cual se valieron los pirenaicos para fabricar la *escuella*, o gran escudilla de madera, "plato y vaso a la vez, en el que han comido y bebido los montañeses durante siglos". Dato curioso es que en las mesas de la Edad Media, gruesas y espesas tablas, se practicaban huecos, a modo de *escuelles*, y cada cual se instalaba frente al suyo, que le servía de plato.

Las pieles de los animales han demostrado su gran eficacia y provecho para el transporte de líquidos. Tanto los *bots*, "odres", como los *botes*, "botas", por su solidez y poco peso, son los recipientes ideales para la montaña. Los odres, apropiados para el transporte a lomo, se emplean allí donde no ha llegado el tránsito rodado. En cuanto a la *mochila* o zurrón, de piel de oveja, sirve para llevar las provisiones del pastor. En ella la bota se conserva fresca. "Por sus buenas cualidades, no la cambia por ningún morral, saco ni bolsa de los que le ofrece la industria".

El ir descalzos, "gastando de lo suyo", fue algo corriente entre la gente del campo, como lo es en las regiones del mundo subdesarrollado. El calzado más rústico y primitivo en el ámbito pirenaico fue la abarca, muy corriente hasta hace dos o tres décadas. Su confección no es complicada, pero debe ajustarse a ciertas normas para que mantenga su flexibilidad, y su atadura, llamada *abarquera*, no "muerda", es decir, deje de producir ciertas molestias, difíciles de aguantar. El material empleado suele ser la piel sin curtir de una res mayor, cortada en rectángulos.

Para circular por la nieve la abarca se completa con la *arrufia*, piel de cordero, suavizada con lana, con la cual se envuelve el pie y las piernas hasta la rodilla, en condiciones de que la lana permanezca en el interior. Gracias a la *arrufia*, se puede andar por la nieve sin mojarse y, lo que es mejor todavía, sin sentir frío en los pies.

El señor Ballarín destaca el hecho de que la abarca fue un calzado utilizado ya en tiempos lejanos por los iberos y, mucho más tarde, quedó como apelativo o mote al rey Sancho II de Navarra, "Sancho Abarca",

debido a que, "hallándose combatiendo contra los normandos en el norte de la cordillera pirenaica, hizo calzar a sus tropas con abarcas y *arrufies*, para enfrentarlas con el moro Hafsum que se hallaba sitiando a Pamplona".

El zueco, hecho de un trozo de madera ahuecada, ha sido utilizado en tiempo de lluvia o nieve, completado por la *consola*, ancha tira de badana que, formando brida, "cubre el borde anterior de la abertura del zueco, sujeta éste al empeine y evita que dicho borde haga daño al andar".

El lenguaje de las campanas y de las esquilas, ha tenido en la vida de los valles un doble alcance, es decir, religioso y económico. Ante la ausencia de relojes, la voz de la campana anuncia el alba, el *medía* —mediodía— y el anochecer, toque de queda, de *almes* —ánimas— y avemarías, momento en que se invita a entrar en el poblado. El toque a rebato informa de un incendio u otro peligro inmediato. Toques diferentes anuncian si la misa es rezada, mayor o solemne, y tres volteos, interrumpidos por repiqueteos, se hacen oír en la víspera de las grandes fiestas. Para el bautizo de un niño, dos campanas menores anuncian la ceremonia, haciendo oír en primer lugar un timbre más alto que otro: *No ye nena, que ye nen*; en el caso contrario, si el timbre más bajo se hace oír en primer lugar: *No ye nen, que ye nena*, o sea, se anuncia el bautizo de una niña.

El sonido de la esquila denuncia las circunstancias en que vive y se mueve el ganado: en la montaña señala su situación exacta, y en la cuadra, advierte si el animal se lame, se rasca o se impacienta. El sonido conjunto de las esquilas hace que el *ramat* de vacas avance resueltamente hacia los pastos, a no ser que la familia del dueño esté en duelo, en cuyo caso "el rebaño desfila silencioso y triste, privado del lenguaje de las esquilas". Las esquilas no tienen un nombre propio como las campanas, pero por su tamaño y forma poseen su individualidad y empleo determinado. Su tamaño puede ser de diez a cuarenta centímetros de longitud y su forma, cilíndrica o también ventruda o prismática. Las de mayor tamaño corresponden a los machos cabríos, como rectores que son del rebaño, mientras que las más pequeñas pertenecen a las cabras y ovejas; *les craboneres* son las cilíndricas mayores, de sonido de campana; la *esquilla de yegua* posee la misma forma, pero más reducida, mientras que la *picarda*, de tamaño mediano, corresponde a los carneros

y cabras. La esquila ventruda, de sonido profundo, es el *truco*, zumba, mientras que el *truquet* es de forma más reducida, destinada a los carneros. El *cuartiso*, y otro de tamaño más pequeño, la *talaca* o *matraca*, tienen una forma sensiblemente prismática y "suenan a caldero batido". Las más pequeñas, *esquelles*, "forman entre todas un conjunto uniforme, una sonería continua, un chorro de sonido de un solo tono".

La caza que tradicionalmente perdura en el Pirineo es la de los *ixarsos* o gamuzas. Puede el cazador dedicarse a ella por cuenta propia, o sea individualmente, con gran acopio de paciencia, buena pierna y excelente vista, pues el medio de defensa principal del animal, es la huída. Pero existe otra forma de cazar, que ofrece mayores atractivos, y es la *resaca*, o sea, el ojeo, sin perros. En ella intervienen los ojeadores, *els resacadós*, y los tiradores. Los primeros siguen un itinerario apropiado, "sin acortarlo por ahorrarse trabajo". Les corresponde hacer una larga caminata, en movimiento combinado, escalando cimas, asomándose a brechas, disparando, para obligar a los *ixarsos* a mover y marchar en dirección determinada. Los lugares y emplazamientos que corresponden a los apostaderos se denominan *paranzas*, y les corresponde seguir los consejos de "no fumar, no moverse, no dejarse ver y, sobre todo, serenidad cuando los *ixarsos* lleguen, porque estos animales, con su prodigiosa rapidez, sus saltos inverosímiles..., producen, al llegar, un aturrido apresuramiento, al que la mayoría de los cazadores, sólo consiguen sobreponerse después de repetidas experiencias". Y es que, de repente, lo mismo pueden presentarse, ante los tiradores, tres, siete, diez o más sarrios, apuntando hacia el *paso*, produciendo un ruido de conchas o de casquillos que se verterían deprisa". Después del tiroteo, la *crabada* salta "como volada por una mina" y no queda ni rastro de *ixarso*. Después de explorar el terreno, se encuentran varias piezas muertas. Los ojeadores se encargarán de bajar a *guñña* las piezas cobradas, a las que sacarán las tripas en el primer arroyo, para aligerar el peso. El día siguiente se hará el reparto equitativo de la carne y se subastarán las pieles entre los del grupo, "excepto la más hermosa, que será "precisamente" la de la pieza cobrada por el Ciudadano, para que éste la lleve, como trofeo, a la ciudad".

La asadura —*freixura*— se excluye del reparto general y se reserva para una comida en común. Es posible que esa "comunidad con las entrañas de la víctima", sea algo que recuerda ciertos ritos ancestrales. En todo caso, se trata de una regocijada reunión, una *lisara* o cuchipanda,

opíparo banquete, denominado también *freixura*. Es el momento en que los comensales, a la vez que dan rienda suelta a su alegría, ponen de manifiesto sus grandes conocimientos cinegéticos en lo que a la caza de sarrios se refiere. "Los comentarios se prolongan durante horas, evocando un sin fin de casos que revelan la índole de los *ixarros*, su extraordinaria vitalidad o sus costumbres. Se evoca la encarnizada lucha de los machos en la época de los celos, el apego que la hembra recién parida siente por su cabritillo, a quien no abandona ni en los momentos de máximo peligro, o también la extraña conducta de *els soles*, los machos viejos que frecuentan en su abandono, con insistencia suicida, un mismo lugar, no temen acercarse al poblado, o penetran, a pastar, tierras de cultivo, como una vulgar cabra doméstica".

De la religiosidad propia de los valles pirenaicos, dice D. Angel Ballarín que era muy intensa y se traducía en las devociones a un cierto número de santos que tenían sus correspondientes ermitas, a las cuales estaban adscritos otros tantos ermitaños, los cuales desempeñaban, bajo el punto de vista social, funciones muy diversas y útiles: informaban sobre asuntos de interés general, como el estado de los caminos, el aspecto de la cosecha en los distintos pueblos, las transacciones importantes, los precios de mercancías y ganados, los daños causados por las tormentas, la aparición de alguna epidemia, la muerte ocurrida o la boda celebrada en tal o cual "casa buena", etc. También asumía en ciertos casos el papel del *aponderador-casamentero*, o sea que después de "tantear el terreno", "hacía rodar la conversación hasta llevarla, como por azar, al asunto deseado, y, sin manifestar especial interés, dejaba caer la especie, aprovechando la presencia de tercera persona, para hablar, por tabla, indirectamente con los padres. Cuando el asunto llegaba a feliz término, el ermitaño no faltaba a la boda, ni dejaba de recibir su recompensa".

La mayoría de las ermitas desaparecieron durante las guerras del siglo pasado, y ya no quedan más que sus ruinas sobre el terreno. La profusión de las ermitas fue debida a que, anteriormente a la implantación del cristianismo, se rendía culto en lugares determinados a las fuerzas de la Naturaleza. También respondía la presencia de ciertas ermitas en puntos estratégicos, para servir de refugio y protección a los caminantes. Por otra parte, no puede negarse que las ermitas fueron un medio de relación entre las gentes del valle. En días determinados atraían

a los vecinos de distintos pueblos, "hermanando la ceremonia religiosa con la alegría profana, gracias a lo cual los jóvenes se conocían y las personas mayores mantenían con sus prolongadas charlas, viejas amistades e incluso podían tratar de sus negocios".

NOTAS BIBLIOGRAFICAS

Sobra decir que el libro de R. LIZOP, *Le Comminges et le Couseran avant la domination romaine*, constituye una obra clásica para el conocimiento de los orígenes de las más antiguas poblaciones del Pirineo. Por otra parte, las anotaciones y comentarios de Lizop sobre los datos suministrados por Sacaze acerca de las antiguas divinidades y genios propios de las creencias de los pirenaicos, son muy dignas de tener en cuenta, debido a su conocimiento de la lengua vasca y a la posibilidad que ello representa para establecer ciertas interpretaciones en no pocos casos ajustadas.

Acerca de la gran cultura megalítica y su significación europea, nos hemos inspirado en la obra de EM. BERGOUNIOUX y ANDRE GLORY, *Les premiers hommes, Précis d'Anthropologie préhistorique* (Toulouse, 1943, *Le Mégalithique*, págs. 356-392). Los puntos de vista de estos autores franceses coinciden con los de HUGO OBERMAIER, catedrático que fue de la Universidad de Madrid, en su obra *El hombre prehistórico y los orígenes de la humanidad* (Madrid, 1932, pp. 176 y ss.).

El estudio de J. M. BARANDIARAN sobre *El hombre primitivo en el país vasco* (San Sebastián, 1934), resulta indispensable para ver la conexión de las culturas prehistóricas que se sucedieron en nuestro suelo con las que se dieron en las demás zonas pirenaicas. Cuando hace el recuento de las zonas dolménicas descubiertas en territorio vasco, alcanza hasta la fecha en que se publicó el libro, o sea, unos cuarenta años (pp. 65-66). Desde entonces el número conocido de tales monumentos ha crecido considerablemente, y mérito incuestionable del distinguido investigador tolosarra, Jesús Elósegui, es el haber dado cuenta de ello en una serie de trabajos que van señalados en la parte interior de la cubierta de su libro titulado *Las minas de cobre de Aralar* (Colec. "Estudios", n.º 2, de la Sdad. Guipuzcoana de Publicaciones, de San Sebastián).

Recientemente han aparecido en versión castellana dos obras de LOUIS CHARPENTIER: *Los Gigantes y el misterio de los Orígenes* y *El misterio vasco*, las cuales pueden inducir al lector a aceptar conclusiones que nada tienen que ver con las de los auténticos investigadores de la prehistoria y la etnología. Sos-tener a estas alturas que hubo "un pueblo de dólmenes", identificar totalmente el vasco con el hombre de Cro-Magnon, ver en los poblados centrados en el nombre de *Lugdunum*, no ya la presencia de los celtas, sino de los ligures, y hacer de éstos los descendientes de los Gigantes que sobrevivieron a la catástrofe de la Atlántida, podrá ser muy novedoso incluso novelesco y comercial, pero también se presta para el lector a un confucionismo total.

No cabe decir lo mismo del estudio de ANGEL BALLARIN CORNEL, *Civilización pirenaica*, que reúne una serie de estudios que fueron publicados en la *Revista de Dialectología y Tradiciones populares*, del Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Aunque los datos reunidos se ciñen al valle de Benasque, puede decirse que sus observaciones valen para lo que entendemos por cultura pirenaica, en su conjunto. Su valor etnográfico es de primera mano, pues, además de la reseña de las costumbres y modos de vida, el señalar y dar a conocer no pocos refranes, dichos y leyendas del Pirineo, otorga a su obra un interés de psicología social, a cuya amenidad se añade un auténtico valor folklórico. El único fallo del libro radica en la interpretación de la toponimia pirenaica, debido al desconocimiento del euskera. Así, al señalar la significación del Aneto, no se puede evitar de parangonarlo con el Anie (pico de), Aniz (pueblo de Navarra) y menos todavía con Anitua...

Andoain, Berrozpe

TOLEDO'TAR NEKANE

Lekuona'tar Manuel Jauna'ri maitasunez.

Aspaldi ontan ixilik dagon izena. Bai, Andoainen, antxen, kaletxikiko biotzean arkitzen da gaur ere azaletik leengo ta oraingo "Dorre Etxe", bere soro, zelai, ta mendi, Buruntza mendia alboan duala.

Etxe onen kondairaren berri inork baño obeto emango digu Lekuona'tar Manuel Jaunak, kondaira biltzalle jatorra, jakintsua, ta Gipuzkoako etxe zaarren eta oraingoen berri ondo dakianak.

Orretzaz gañera, ez zituan ogei urte alperrik igaro Berrozpen, bertako eliz aitor-leku, eta... Andoainen bizi diranakin itz egiten ba-dezute laister esango dizute: Berrozpeko leengo ta oraingo berri ondona, Lekuona'tar Manuel Jaunak emango dizute.

Loreillak ogei ta amaika, 1845 garren urtea, beraz, orain dala 131 urte, jaio zan Berrozpen, Barriola Zipitria'tar Juana Joxepa, ta egun berean bataiatu zuten, Martin Deunaren Eliz Nagusian, gaur daukan ponte bertan.

Zazpi urte arte aiton-amonakin bizitu zan. Zazpi urte zituala, gura-soakin Tolosa'ra bizitzera joan zan.

Tolosa'n Ollangor'ko iturrira joaten omen zan, udaberrian, Ama Birjina'rentzat loreak biltzera. Lagunakin alkartu ta bixiketari jolasten zan, bañan, beti, eliz eta otoitz kutsuakin.

Larunbatero Ama onen izenean bere buruari zerbait ukatzen zion.

Tolosa'n bizi zalarik, zuzendari ta aitorle Barriola'tar Martin Jauna izan zuan. Orduan, Tolosa'ko Erruki-Etxeko Kapillau zan Barriola'tar Jauna. Geroago, Anoeta'ko Erretore. Apaiz onek biotzak ezagutzeko almen eta argia omen zituan. Juanita'rena urte aietan beintzat, ondo ezagutu zuan.

Juanita'k txikitandik Jauna artzeko gose aundia, bañan orduko legetan amabi urterarte artzerik ez. Alako egarria sumatuta, gure Jauna

artzeko baimena, eman zion Barriola'tar Martin Jaunak Juana Joxepari. Txikitandik zeruko gauzetaz iñoren lotsik gabe itz egiten zuan, naiz askok par egin. Ajola gutxi zion, goratua edo beratua izateak, dana berdin zitzaion ta...

Garai artan, jakiña, euskeraz bikaiñ itz egiten zuan, ta ez da arri-zekoa beste izkuntzarik ez jakitea. Ori orrela dala ta, ez jo gure Ama Kandida ez jakintsua, ta azkarra ez zala, ori neri ez esan. Euskaldun bezela inguruan zer nolako jende daukan ikusi arte ixilla. Ba-dago gero ere itz egiteko garaia ta...

Gure Juana Joxepa'ren barrena ikusi nai nuke, ta berak zeramazkin kezkek nereak bezelaxe artu. Gazte asko zala bere erria utzi ta Burgos bidea artu zuanean, aren barrungo miña, nai ta nai ez aundia izan bear zuan. Iñor ezagutzen ez zuan lur aldera, izkuntza berri bat ikasi bearra. Asmo batzuek barruan eta asmo oiek aurrera eramateko, Jaunaren zale-tasunak gañez egiten zion, eta laister antz eman zioten onbidetsu, ta apala zala. Itz erdi bat naikoa, egin bear zuana egiteko. Beti alai, irri parrera zeriola.

Burgos'en sei urte egin zituan, aldirik luzeena, Sabater Jaunen etxean. Onen alaba Estrella ta gure Juanita, bi aizpa bezin maite izan zuten alkar.

Beartsuentzat oso errukiorra zan; eta jan billa etortzen zizaizkion guztientzat bear año jan ez bazuen ugaritu egiten zitzaion.

Egunero eltzetxo batean, bere dirutik, eskaleentzat jana maniatzen zuan. Bein batean, etxeko sukaldariak, traba egiten ziola ta, eltze ura apal batera txokoratu zion, Juana Joxepa bere garaian billa joan zanean, eta... "arritzekoa" apalean bear bezela egosi ta gozatua arkitu zuan. Sukaldariari txintik ere esan gabe.

Garai artan Kastilla aldian legorti aundia, ta Juana Joxepa'ri otoitz egiteko eskatu zion bere aitorleak: Juanita'k erantzun zion: Eskatu arren, ez digu euririk egingo. Nola diozu ori? Eskaleentzat eskeñi dizkiot nere irabaziak, guzti, guztiak Jauna'ri, neronentzat ez dezaket ezer erosi. Oñetakoak puskatuta dauzkat; eta euria asten ba-du busti egingo naiz, busti egingo nintzake, eta gure jaunak erruki aundia didanez, nik oñetako berriak izan bitartean ez du euririk egingo.

Aitorleak nunbaitetik sortu zizkion oñetakoak, eta etxeko andreakin irten bear izan zuan batean, oñetako berrik jantzi zituan. Eguraldi

ederra zalarik, aterkia artzeko alegindu zitzaion etxeko andreari, euria etorriko zala ta...

Irten ziran. Andik laister euria asi zan.

Bai, Kandida Ama, xinismen osoz bizi zan. Xinismen indartsu ori, izan ez bazuan, ez zuan indarririk izango, goitik zetorkion asmoa aurrera eramateko.

Bere bizitza, jaiot-erria utzi ta Kastilla aldera joan da nola arkitu ote zan azaldu nai nuke nere, ta bere iritziz. Ori euskaldun batek baka-ririk ulertu lezakela uste det. Landare gazte bat bere etxekoetatik urruti, bere erria utzi, ta erbestera...

Zer esan? Ez ote zuan emen Barriola'tar Martin Jaunak uts egin? Bear bezela ez ote zion lagundu, goiko, eta bereak egindako asmoak aurrera eramaten? Euskaldun batek Salamanka'ra joan bear al zuan lekaimeen sortzalle izateko?

Dana dala antxen sortu zuan, an bota zituan oiñ-arriak. Andik asiko zitzaizkion eragozpen gogorak, ez bearrak, Goikoaren naiak bere egin, da aurrera jarraitzeko.

Bere bizitza idatzita dago, erderaz, eta euskaratua Munita'tar Iña-ke'k. Onek ogei ta zazpi urte egin zituan Txina'n, eta an zegoala euske-ratu zuan; urte guztioietan egondu zan azaldu gabe, argitaratu gabe, bañan bigarren nagusi izentatu zutenean, orduan lan ura, erderatik itzul-tze ura, idatzi, liburuxka batean eta azalduazan, aurretik Lekuona'tar Manuel Jaunak irakurri, ta bear zan orrazketa eman zion, eta gaur emen-txen daukagu "Izar baten dizdira". Izen ori ezarri zioten. Sarrerako itzak ere Lekuona Jaunarenak ditugu.

Zenbat olako egin ote du Lekuona Jaunak, ixil ixillean bat eta besteari Itzulketak, orrazketak, eta ez dakit zenbat laguntza geiago... Goikoak bakarrik jakingo ditu noski. Eskerrik asko batekin utzi ta. Askotan ori gabe ere...

BIZITZA BATEN ALDIAK

- 1845—Orrillaren 31'ean Zipitria Barriola'tar Juana Josepa "Berrospe" etxean, Andoañ'en jaiotzen da, eta Martin Donearen eliz nagusian bataiatu.
- 1862—Jaunaren deia.
Burgos... Valladolid.
- 1869—Elizaren txertu berri bat. Jesusen Kandida izango da zure izena. Jesusen Alabak izango dira zure alabak.
- 1871—Salamankan. Sortzez Garbiko Amaren babesean, lenengo Jaungoikozko oñarriak... Jaunaren aintzarako eta gizonen onerako.
- 1873—Lenengo ziñ eskeintza... eta Lekaimedi baten asiera.
- 1874—Bide berriak: Gaztediaren eziketa, erakuste, ikastetxe...
- 1892—Eliz barrutiko baietza.
- 1902—Aita Santuaren baietza.
- 1911—Zuaitzaren adar berriak. Brasil, Txina, Japon, Ameriketa, Filipinas.
- 1912—Abuztuaren 9'an Salamankan eriotza. Alaba zintzoa bere Aitaren eskuetan.
- 1942—Eliz barrutiko lanak aldare bidean.
- 1957—Erromak aurrerapena ematen dio.

Beraz nere iritziak ez dakit nola azalduko diran, bañan asi naizen ezkeror emen dihoaz.

Leenengo esango det nolakoa zan Kandida Ama: Bere irudiaren buruz "Garzia Alkaldek" (Jesuita) auxe dio: Gorputzez sendoa, luze xamarra, ongi eratua bizkorra, liraña, larru azal gorriantza, "euskalerriko neska gazteen antzera) osasuntsua. Naiz ta bere burua laztasun eta ilduraz akitu arren, iraun zion bere izaera arek.

Nola nai ta ere euskaldun emakume zentzuduna, zertara zijoan zekiena, naiz ikusi zer eragozpen arkituko zituan bidean, Jaunaren nai aurrera eramateko prest zegoena. Euskaldun izateak bakarrik zer, eta zenbat ikusi ote zuan?

Bere lenbiziko aizpetan, bat bazuan, jakintza aldetik, ikasi, ta agiria zuana, ordurako, asteko, etorkizuna emango ziona. Jakinduriari begiratuta, gizon bezela ala esan zitekian. Bañan arek ikusi zuanean danen artean bera bakarrik zala bear zan "Agiri"edo "titulo" zuana, arro xamar jarri, ta besteak gutxitu naiean, eta kristau onari dagokion bezela jokutzen ez zularik, Kandida Amaren bideak nola ez ziran oiek, baizik eta Jaungoikoarenak, erabaki zuan berari esatea, alkarte artan jarraitu nai ba-zuan apaltasuna, alkar maitasuna, leenago zegoala, asko jakitea baño. Jakinduria bai, maitasuna, ta besteen ongi naiakin. Maitasuna aurrena, besteren ongi naiakin, Kristoren bidea, ta jakinduria bigaren. Bere "Agiri" ta guzi etxera bialdu zuan.

Jaunaren laguntzakin asiera eman zitzaion goiko deiaren erantzunari. Lekaimedi bizikera berria. Sinismen aundiko emakumea. Seaskatik ikasi zuan sinisten, sinismen argia, Jesusen eskuetan jartzen zituan esku arteko gauza guztiak, beti pozik, naiz ta bere burua urratuta egon.

Euskaldun izateak ekarri zizkion lanak ez ziran txantxetakoak, bera gutxitu, ez jakintzat jo, baztertu naia. Sortzalle izateko argitasunak berak bakarrik izan. Ez bai zan gizonen lana, goikoarena baizik. Or egon Koxka! Jaungoikoaren indarrakin, argiak, eta berak ematen zion almenakin, ikusiak ikusi aurrera.

Ongi zekian bakoitzak zer zebilkian bere barruan, ostopoak jartzeko, lagundu bearrean. Alaz guztiz ere, ona zabalduaz bere inguruan, biotz aundi ta zabalakin, barkatuaz, ondo artuaz bakoitza.

Atzerrian, arpegi berriakin, ango oiturakin, berea ez zan izkuntzakin. Kandida Ama Ikusten zaitut urratuta, ta askotan arkituko ziñan lur jota. Zure sinismena ain aundia zan, ain sendoa, Jaunarekin dana banezake, ta... Aurrera.

Tolosa'ko etxeakin ere ikusi ziñun zureak. Salamanka'tik beti deika esanaz: Or artu dezun lan ori utzi ta zatoz onuntza. Zure erantzuna auxe zan. Jaunak nai du etxe au arri sendoakin egitea, ez da bai da guztien aurka, patxarakin, poliki, poliki asi degun lana aurrera eraman bear degu, beraz, ez naiz joango emendik alik eta gauzak ondo antolatuak ikusi arte.

Dirurik ez langilleak ordaintzeko, bañan alaz ere, orrela esaten zuan: Jaunak nai du etxe au egitea, ta dirua azalduko da nunbaitetik. Estu aldi aundiak ikusi zituan, asi zuan lana aurrera eramateko.

Sortzalle, Jesusen Alaben Oñ-Arri izateko nai ta nai ez Jaungoi-

koaren laguntza bear Kandida Amak, bestela ez dago orrelako eragozpenari Aren laguntza gabe ezer egiterik.

Lekaimen lana izango da irakaskintza, ta berakin eziketa. Garai-ean, garaikoa. Batez ere bere asmoetan zan Kristau ikas bidea erakustea. Erri aundi ta txikietan, bearra arkitzen zan tokietan. Ikastetxeak umez ugaritzen ikusten zituanean, bere biotza pozez betetzen zan, kristau bidea erakusteko egokiera ikusten zualako.

Ordaindu gabe joaten ziran taldeko ikasleak eunka asi ziren. Bai poza ta atsegiña Kandida Amarentzat, talde aiek agian, leen ezagutu gabeko Jaungoikoa ta Ama Birjiña orain gurtzen ikusten zitualarik. Oroipen auek pozgarri zitzaizkion Kandida Amari. Zailtasunetan eusle; eta bere aizpentzat artutako lanetan pizkortzalle.

Orduan ere gaur bezela gobernu buru Kastelar izenean, egun bi barru jesuitak irtetzeko agindua artu zuten. Orratx berriz zuzendari zurtz gure Kandida Ama. Saminduak egon arren, arrigarria izan zan Kandida Amaren sendotasuna, eta eramana. Jainko maitasunez zeukan biotz artatik jalki zitzaizkion itzak. Gertakizun guztiak Jainkoaren aintza eta gizonen onerako izan ziran.

Elkarte bizitzan eragozpen aundiak izan zituan, erdeldunak beti euskaldunak baño gorago jartzen zitziatzkion. Bañan bera bakarrik izan Sortzalle, berak bakarrik ortarako bear ziran argiak, berak bakarrik zer ezarri bear zuen zekina. Ez bai zan gizon jakintsuen lana, baizik, Jaungoikoaren goi eragitea ta bere naia betetzea.

Egia esan bear badet pozik ikusiko nintzake Salamanka'n dagon gorde lekutik aterako ba-lituzkete orrenbeste eskutitz, bai, Kandida Amarenak, baita ere bere zuzendari zan Herranz Aitarenak (au jesuita zan) Kondaira osoa argitaratu gure Juana Joxepa'ren berri ondo jakin dezagun. Etsai asko, Goiko laguntza gañez. Aren laguntzari eskerrak. Iritxi-ko al da noizbait gure artera kondaira orren askatasuna.

Bere buruarentzako gogorra, besteentzako xamurra. Ala dio aizpa bateri: Nunbait janean ez zuan nai neurrik, lan egin bear dan ezker.

Au ezin diteke. Janarientzat neurri ori jartzerik ez det nai. Lan egiteko ematen dana jan, ez auleriz gaxotu, lan egiteko kemena galdurik. Suleitzeko beltzak orixe nai du. Ene! alaba: jan, bañan ez det esan nai zere buruari zerbait ukatzerik. Ulertzen al didazu? Gauz asko esateko gelditzen dira. Agertu nai nukena da euskaldun izaeragatik eramán zituán lanak.

Batzar-aldia sortu zuanetik, Berrogei urte bizitu zan, ta gauza arrigarria benetan. Sei urtetik sei urtera batzar buru egiten zituzten billerak irixten ziran, berritzeko asmoakin. Naiz ta asko izan bere aurka zituana, aukeratzeko ordua irixten zanean, Zer? Kandida Ama izentatzen zuten beti, beti, oso, osorik. Ludi ontako ez zan zerbait ikusten zuten nunbait bere-gan.

Euskalduna, ez jakiña, atzeratua ta ez dakit zenbat gauza geiago, bañan egitako garaian, ikusten zuten egiazko kemen, almen Jaungoikozkoak, euskaldun zentzua, begi argia, ta barruak ikusten zituana.

Zer geiago bear da gure Andoaindar dan Juana Joxepa aldarera eramateko? Ortarako ere lanean ari dira Erroma'n.

Kandida Amaren berri iñork baño obeto bere berri emango dizute Lekuona'tar Manuel Jaunak. Ogei urtean Andoain'en bizitu dan ezker, Berrozpe'ko kondairaren berri, Jesusen Alaben berri ere orrenbeste urtean aztarna asko, ikasi, ikusi bear asko izan bai ditu, berrogei urteak, eun urteak, eta ez dakit zenbat gauza geiago igaro diran urte eder oietan. Eskerrik asko Lekuona Jauna danagatik.

Apaizgaiarena. ⁽¹⁾ Aurtxoarena

SUKIA'TAR GOTZON

BASERRI BIDEAN

Maite diat baserri-bidea
biurrika dirudin sugea.

Intxaur esne-zur bi
alkarren begira,
erreka urdiñak
agertzen ez dira.
Soro, zelai; sagar-
kimuak ortzira...
arnariak berriz,
nere baserrira.

Baserri-bide,
Baserri.
Zeru bazterra
iduri.
Ire oroimen
eziñen
nire barrenak
aantzi.

Urrundu nitxoan
noizpait iregandik
egun-senti erne
gogoan oraindik...
Sukalde bazterren

Amona bakarrik,
Gaxo! sarri nire
galdezka geroztik.

Ama, nere dena
Isil antolatzen
begiak noizean
nere gain ezartzen.
Ezer utzi ote...?
ez da gogoratzen...
Amonak gordeta
gaztaia giltzapen

Atzetik ba-dator
Aitona alderoka
ñir ñirrez begiak
ezpañak dardarka :
—Ba-al oakit utsik
baserria utzita,
orbelak basoan,
sagarrak elduta?

Atera zorian
odolak zaiñetik
malko bi urrena
jario begitik,

(1) Lekeitio'n (1936-VI-28) VII'gn. Euzko-Olerti-Egunean, ohorezko aipa irabazia. Gaurko egunez, egillea, Compostela'ko Santiago'n, Gon-gotzai agurgarri dagona.

—Jarrai zak jarraitu
jaunaren bidetik
etxea bañan len
Jaungoikoa baitik.
Laztan niñun gero
negarrez,

neguak galtzeko
ikarez.
Larogei urteak
beteak
zituan enara
garaiez...

AURTZOARENA

Landaretxo-landare
berria,
Jainkok gure baratzan
jarria!
Gizon batek araultsi
azia,
zeru goitik etorri
ebia,
sortu zaigu, noizpaiten,
—egia...!—
aingerutxo bat guri
guria!
Ume onen arpegi
bizia!...
Izarra dirudien
begia...
Jango nuke, ai, balitz
ogia!

Gau ta egun lo dago
umea.
Auxen da, au, loz ezin
asea!
Titia eman, eta
pakea!
Begira dezaioten
batea!

...Anka xabalak, beatz
luxea;
musu borobil bete
betea;
gorputz ximela, ezpain
lorea;
ille bel-beltxa, arnas
barea;
Ez naiz aspertzen
begiratzea!

...Zikintzen bazaio atze
aurrea,
zapi txuriak urre
"kolorea"...
Usai au ez da berri-
ketea!

Amona ba dator
korrika, par-parrez.
Eman dio muxu
bat, jipoi bearrez.
Umea ala ere
negar ta negarrez,
aldatu naiz
itz gabe, esanez.

Oitikan amatxok
begiraten dio.
Alaban malkoak
malko dakarkio.
Ezin-egon larri
bat sortu zaio.
Egingo lioke
ezer aal-balio!

Artu du amonak,
geldi, magalian;
korpino aska,
ta larru bixian,
eskallua bezela,
utzi du udian.

...Malkorik ez dago
amaren begian.

.....
Zapi txuritan
guri-guri
umea...
—Ekarri amona,
biotz ori
onea!
Nere titian
ugariki
esnea;
"Tori"! ez ba dezu nai,
gañezka
dijea...

Asi da, zuku-zuku,
umea.

(Txikitxoarentzat
amaren bularra,
ez ote dan nago,

orain, zail xamarra.
Naiago bildotxak,
aazteko bearra,
zelaien datorren
bigarren belarra).

...Eran da lo, lo
berriz ere
naikoa.
Amaren begi
esnai, erne,
gaxoa,
alaba dagon auntsa
dijoa.

...Amonaren beatzak,
geldi-geldi,
dabilte
kuitxo.

.....
Bataiatu degu
bataio udetan.
Gatz pixkat ezarri
zaio ezpañetan,
Belarrik iriki
Itza entzun dezan.
Belauneko jarri
bear nuke bertan!

Oñioz iurtzi
bizkar okozpeak,
besoan eultsi-
az aitapunteak.
Ura bota dio
or dan Abadeak.
Etxe bat du emen
Irutasun Berak!

"Aitaren, Semearen..."
 Zenen miraria!
 Jaungoikoz bete zait
 nere aur txikia.
 Azaletik illun.
 Barrendik, Argia.
 Tori, ba, enetxo,
 muxu bat aundia...!
 ...Lizarra'ko baserrin
 danok jai.
 Aurtxoa lotan, ama

ere bai.
 Amona, ixil-ixillik,
 kui-zai.
 Kezka zorrotz bat sortzen
 zait noiz-nai.
 Begira nagokio
 umeai...
 Zer izan bear dun ba-
 neki, ai!...
 Jaungoikoak dakiña
 jakin nai...!

Zaldibi'ko euskeraren bizi-indarra 1934'an eta gaur

("LINGUISTICA CHARTA" BATERAKO EGIGAIK)

SUKIA'TAR JOXE MARI

Lekuona'tar Imanol jaunaren Omenaldiari bait leiokela-ta zuekin dezute, orain berrogei ta bi urte jaio ta lotaratutako lantxo au... On Imanolen bide batzuei jarraituz, nik ere ene erritxo maiteari artu nion izkuntz-arnas neurriak dituzute; garai aldi artakoak, ain zuzen!...

Beraz, gure Euskera xaarrak, ainbeste zor dion Irakasle edo Mai-xuari; gaur-egun, oranidik, Euskerari bizi-arnas-giroa zintzo ta ederrenen zaintzen dion apaiz jatorrari, nere erri-arnas agerketa auxe, biotz-biotzez.

On Imanolen euskal-sena Euskera jatorraren zaiñ-zaiñetikoa, usaia errez entzuten zaiona ezik, Euzkadi osoaren ezaugarri duguna!...

Ta nola ez bada!, euskal edesti-edertietan ere maixu izan da!... Euskaldun eta euskaltzale bait dittu bere buru argi ta biotz xamurra!...

Erri txikiek ere aundien babes eta bizi-lagun direnez, ez bada gaitzetsi zure ikasle ta zuri ainbeste zor dizun onen omen-printzatxo auek.

Galderadi-arian egindako ene lantxo, aldaketarik gabe diajoakizu, argiz jazte onetan!

I AURRE GALDERAK:

1.—Zaldibi, Txindoki magalean gordetako errietan azitxuenetako bat dezu. Iparraldetik Altzaga ta Aramak mugatzen dute; Egoaldetik Ataun eta Aralar mediak; sortaldetik berriz Gaintza ta Abaltzisketak neurtzen dute, ta Lazkano ta Ordiziak sartaldetik.

Itxaso-azaletik 164'64 neurkinez goitik du arnas. Eta 12'80 aneurkin laukitu bere lurraldeak. Eta, bere 233 sendietan 1.700 biztanle inguru. Ta, 233 sendi oietatik, 31 artantza utsetik bizi diranak; 106 ba-

serritar utsak; eta 32 sendi, baserriaz gañera, ardiak dituztenak; gañetikoak kaletar-utsak; batzuek langilleak, txurrutegiak dauzkatena beste batzuek, eta abar...

Gaurdaño, bide-zabal bat besterik ez dauka: Ordiziatik erri-atarira zartzen dana bera. Oraintxe, ia-ian dute Zaldibi lurretatik Gaintzera iriki dana ere. Au Lizarraga-baserri aldamenetik ebaki da: Zaldibiko eliz-ataritik 1'50 aneurkin inguru, goiti-betik.

Ori orrela ta, joan dan urtean, Gipuzkoako Aldundiak oniritzia emanik du, Zaldibi güenetik Larraitzara beste bide-zabal bat irikitzea; oniritzia bakarrik ezetz, neurtu ta mugatua ere bai. Datorren Udaberrian asera ematekotan, noski.

Ibaiak: Ibaietan aziena Ayestaran aldetik barrena sartzten dana, aldamenetatik eskeintzen zaizkion ainbesteren urez aseta. Errian barrena ordurako, zerbait azirik agertzen zaigu. Erri atari-atarian, edaten dattu Urtsuerrekatako urak, berriz. Amundarain ibaia deritzazio ta Oriakin Arama ta Ordizia mugetan elkartzten zaigu. Bitartean, tximist-indar-etxe batzuek astintzen dattu, alaitu ere bai Zaldibiko Erri ta baserrietako gau-illunpeak.

Burni-bideak: Burni-biderik ez du Zaldibik bere lurretan. Gertue-neko geltoki edo eztazioa Ordiziakoa.

Aldamenetako erri-azitxuena: Ordizia, Beasain, Lazkano, Ataun, Tolosa ere ez aini urruti, —20 aneurkiñetara—, ta Donosti bera ere 40 aneurkin ingurura.

2.—*Lantegiak*: Lantegi izenekorik ez du Zaldibik, oraindik. Baldin, izena baleioke: "La Carpintería Mecánica de Ignacio Irastorza", deritzana: lau langille jakiñakin eta lan-aldietan beste zenbaitzuekikoa.

Gañerantzean, Beasaingo lantegi aundia dijoan tximist indarraren etxean ere beste zazpi langille jakiñak badira. Bi errementari ere bai: oietarik bat perratzailea, —aita-semeaz gañera lengille bat beti eukitzen dutenak—; bestea bakarrik, berriz, tresna zuzendu ta berritzen (baserri-lan tresnak zuzentzen) diarduna.

Errian lan dioten langilleak danak erritarrak dira. Eunen bat langille joaten ziran Beasaingo lantegietara, 1930'gn urtera arte. Gaur, ordea, ogeien bat besterik ez, lana urritu zalako; beste ogeikoen bat ere badabiltz Itxasondoko arrubietan; Ordizian ere bai beste zeinbait. Oietaz gañera, beste eunen bat gertu ibilliko dira neskame, morroi ta langille, Donosti la beste al duten errietan.

3. *Udaran*: Arrotz gutxi izan oi da Zaldibin: danera seien bat sendi, ta geienak donostiarrak. Joan-etorriian, berriz, asko-askorik ez bada ere, banaka batzuek bai, ta, erdeldunak izateko, naikoa.

II ETXEAN:

4. Zalditbik 233 sendi dituala esan dut. Oietatik 95 kaletarrak dira. Baserritarrak beraz, ortik gorakoak. Edota 1.700 biztanleetatik 400'en bat kaletarrak, eta baserritarrak beste 1.300'ak.

5.—*IZKUNTZA-BIDEAK*: Bost etxeetan nabarmenki mintzatzen dira erderaz, —geiegi alegia—, Euskerea dakienak izateko. Oietatik bi etxeetan, —maixunean eta beste aberats batenean—, gurasoak ez dakitelako (naiz gizonezkoak bakarrik izan euskeraz ez dakitenak). Oien emazteak, bata erritarra ta bestea ordiziarra bait dittugu. Ala ta guztiz ere oien umeak Euskera ondo dakitenak dittugu, erderaz mintza arren.

Ikusten danez, kale etxeak dittugu biak!... Eta beste, erderaz mintzatzen diranen, iru etxeetan, errezago zaielako, edota, Euskerea baiño ederrago jotzen dutelako erdera... Oiek orrela ta beste geiagok ere egiñen luteke: "Euskerak ezertarako indarrik ez dualako", pozik baztar-turik..., baiñan, ez jakin erderaz, nunbait, eta Euskeraz egin bear!...

6.—Urtean, amarren bat ume irtetzen dira erritik at erderaz ikas-tera: batzuek Napar aldera (Billafrankara, Olitera... eta...), ta beste batzuek Araba aldera, berriz.

Orretaz gañera, Negu garaian, askok bialtzen dituzte beren umeak Ordiziako ta Beasaingo lekaide-lekaime ikastoletara, erdera erakustea-rran...

Baserritar zenbait, euskaldun jatorrak izanagatik, erderarik jakin gabe, etxetik ezin irten litekela diote. Orrelako euskaltzalei baiezkua adierazitzea, benetan, gauza zailla...

III KALEAN:

7.—Naiz kale gorrian, naiz eta baserrian, Euskerea da gaurko Zaldibiko mintzaera. Ta ori, egunek dittuan ordu guzietan. Erderaz diardu-tenak, leen esandako oietaz gañera, apaizak eta kanpotarren batzuek besterik ez.

Salgai-eskeintzale edo biajante-ak dituzulakoen batzuek etortzen diranean, saltokiren batean ere entzun oi dezu erdera apur bat, ez bait dute euskerarik jakiten geienak, bestela izlari bikaiñ eta mingaiñ xamur oiek...

Zaldibin, gaur-gaur bezela, erdera ondo dakitenik konta ala dira, oso gutxi... Erdizka ta arrastaka ibiltzeko lain dakitenak ere ez asko, —oso banakak—, eta batere ez dakitenak geienak. Aurrera ere lagun dezala gure Jainkoak giro orri eusten.

8.—Beraz, erderak nabarmenki ittotako alderdirik ez du, gaur, oraindik, gure Zaldibik, baiñan zerbait asi naiekoa bai, azken aldera esanen dut zein eta zergatik.

9.—Ume —jolasik geienak—, danak ez sartzeagatik, euskerazkoak dittugu, naiz erderazko batzuek ere asiak izan agertzen. Jakiña..., kanpo-errietan izan diran ume ta neskame ta... gañetikoak... Zerbait ekarri bear bada ta orrelako jakinduriak ekartzen dizkigute.

Zaldibin, amar urtez beekoetan, ziur esan gentzake, erdera ulertzen duanik ez dagoela; ortik gorakoen artean ere banaka-bakana batzuek besterik ez. Neskatilla gazteak, —"señoritik"—, batez ere, naiz eta itz bi besterik ez jakiñ, atsegiñ izaten dute dakitena, besteai adierazteko, azaltzea.

Gizon-emakumeak beti euskeraz mintzatzen dira Zaldibin.

IV ELIZAN:

10.—Eleizan egiten diran itzaldi guziak euskeraz izaten dira. Erderaz irakurtzen dana, —euskerarik ez daramenean—, Gotzai jaunaren idaztia oi da. Ta irakurri ondoren, apaiz jaunak euskeraz adierazten die entzuleei zer esan nai duan irakurgaiak, bestela ez bait lirazke jabetuko ezertzaz.

11.—Kristau Ikasbidea euskeraz erakusten da ta Ikasbide berritik; ala ta guttiz ere, ume bat edo beste balitezke, oraindik, Ikasbide zaarren jarraitzalle izatea, etxekoei berri ori begi onetik sartu etzaielako. Tamalez, badira ordea, —naiz ez apaizen gogotik—, lau edo bost sendietako guraso, Euskeran aziak arren, semeak erdera bakarrik jakitea

naiago lutekenak, eta, jakiña, oien umeak Kristau-ikasbidea erderaz ikasi bearrean arkitzen dira, guraso agintepean.

Orregatik, sei umetxo bakarrik dira erderaz ikasten dutenak Kristau-Ikasbidea. Baiñan, egia esateko, sei oietatik batek bakarrik ere ez dute ulertzen zer ikasten duten. Guraso bakartxo oiek ara nola ixten dizkien beren seme gaixoei Jainko-maitasun agiri-bideak eta, uste ez duten atea iriki gorroto bideei. Jainkoak barka deiela, zerbait ustekoak arren, ezjakintasunak aukeratzten dizkien bide kaxkar oiek!...

Nun, eta Kristau Ikasbidean ala jaiña!... Jainkoak orretarako emaniko eskubiderik ote gizonak?... Jainko bideari..., maitasun bideari langak jartzea ez da, zer da ori? Euskera, gure izkuntz eder eta maiteari egiten dioten zitalkeria, gero, beren seme-alaba ta Jainkoak ez deiela, zaartzaroon, negarrez garbitu azin.

12.—Bederatziurrenak bezelaxe, ill osoko eleizkizunak ere euskerazkoak izan oi ditu Zaldibik.

13.—Eliz-abesti geienak ere euskerazkoak. Baiñan, urte gutxiz onuztik, erderazkoak ere jaulkitzen asi dira, noizik eta beiñ.

14. Erderaz, elizjai bat bakarrik ere ez da egiten Zaldibiko errian, oraingoz.

Mezetako azken AGUR MARIK ere berdin: beti euskeraz.

V IKASTOLETAN:

15.—Maixu ta Maixtra, biak dira euskeraz ez dakitenak. Maixu jaunak amalau urte zaar badamazki errian, baiñan, bere ikasleekin artu-eman izateko biderik iriki gabekoa, oraindik! Avila aldekoa da ta "bertan goxo" egin diguna. Zaldibiko ume ta gurasoei naiko ulergaitz gertatzen zaie orren erakusbideak. Eta orren aurreko beste biak ere erdaldun utsak izan zituan gure Erriak...:

Maixtra etorri zala, badira zazpi urte. Naparra berez; euskerarik batere etzekiena, baiñan, poliki-poliki, ari zaigu apurtxo baten jabe egiten; asi ere bai zertxo bat mintzatzen, —senarra erritarra bait du.

Baiñan, Jainkoari esker, bi ikastola oien aldamentean badegu beste irugarren bat: Erriak jarritakoa. (Ikastola onetan, umeak, illean, gutxi edo geiago, zerbait ordaindu bearra dute). Ta bertako maixu edo maix-

trea—, geienetan maixtrea izandu da, ta oraingoa ere bai—, beti euskalduna izan da ta, naiz erderazko idaztietatik arren, euskeraz erakutxi izandu du beti.

16.—Beste leen esan ditugun ikastoletan, euskeraz mintzatzea galaraztua ez dago, —zertan egon bearrik ere ez berriz—, maixuak beinere egingo ez dualako. Idaztiak ere zein izkuntzetakoak litezken esan bearrikan ez, beraz.

Izandu da ordea, garaia, euskeraz ez egitea ezik, debekatuta egondu zana: "Primo de Rivera'ren Dictadura" edo agintekeripean. "Anillo" baten bidez, billatzen ziran euskeraz egiten zutenak... Danak izaten ziralara anillopean zigortutakoak esan bearrik ez, noski; bestelako izkuntzarik etzekitelako... Ortarañoxe oinpetu ta zapaldurik bizi izandu da gure ele ta izkuntz maite: Euskera gaixoa!

VI ERRI-ETXEETAN:

17.—Udal-batzar, epaitegi ta onelako beste tokietan ere, Euskera ibilli oi da erri onetan. Batzar-agiriak, ordea, erderan jasotzen dituzte. Euskerak ez ote ainbeste kemen edo egi-agiri indarririk?

18.—Ostatu ta txurruategietan, Euskera utsa entzuten da, itzen batzuek..., iñoiz edo beñi, erderaz naiz.

19.—Antzerkiak, euskerazkoak eta euskeraz beti. Itzaldi edo mitifietan, abertzaleak beti euskeraz eta karlixtak, erdizka: erdia euskeraz eta beste erdia erderaz, —orañ artekoan, beintzat.

20.—Eusko-Etxean, —erriarentzat: Batzokia—, beti euskera ibiltzen da, ta utsik egin gabe, ala ere. Karlixta edo "tradicionalista" "Circulua-n" geiena euskeraz, aldizka, naiz erdera erabili, batez ere badakitelera erakutsi nai duten neskatz gazteen artean.

Bestelako elkartetza guzietan Euskera izaten dala, esan bearrik ez dago.

21.—Gaurdaño, naiz zaldibitar lekaide-lekaime ugari ibilli, munduan zear, Zaldibiñ ez degu Lekaide-Lekaime etxerik, ez eta ikastolik.

OARRA

Gero esateko utzitakoari buruz zertxo bat orain: Zaldibiko erdera —zaletasunaren ageri antzeko zerbait.

Orañ aztian, esan dizuedan bezela, Zaldibik, erderak nabarmenki jotako alderdirik ez duala, baiñan zerbait asia bai. Geienbat erderari atea irikitzen asi zaion alderdia "BEKO-KALE" deritzaiona. Zaldibitarren "dotorentxoena" bertan bizi diralako? Erdera dakitenak ez-dakitenak baiño aundiagotzat jotzen dituztelako edo azkarragotzat? Euskera aitzakian, beste zerbait oinperatu nai dutelako? Euskotar-abertzaletza baiño espainitarrena gogotagoko jotzen dutelako? Errez al da gauza orri zaiñak billatzen?

Errepublika edo Erri-agintetza etorri zan ezkeroz, eta, batez ere, Euzkadiko anai-asarretasuna sortu zitzaigunetik, erderak egoak zabaldu nai dittu, egatu ere ortxe, baserrietako goi-gaillurrak kilimatutzeko asmo osoakin nunbait... Gazte taldea dala geienbat erdera darabilkina, esan bearrik ez, eta oietan geienbat neskatzak!...

Atarramentu kaxkarra ta negargarria, benetan, jokaera onena, egi ordea! Gure asabe zarrak zer esango ote liguteke jokaerakeri onegatik!...

Guregandik aldenduko ote, noizpait, gure Euskera xaar eta kuttun maitea? Iritxiko ote gure baserri, ibai, mendi ta zelaietan Euskera entzungo ez dan garaia?

Aspaldi danik, Euskadik bazitun, —gaur Zaldibin bezelaxe—, euskera zeriola entzuten zitzaizkion beste erri ta mendi alderik... Orain, ordea, gure izkuntz goxoa, ainbeste totikan, bastar ederren izen, eriotz-izen besterik ez!...

Une onetan, Jauregitar Luis apaizak bere "BIOZKADAK" etan: "Bai Erri Gaxoa-"n diona datorkit ene burura:

"Euskal-Erria, Euskerik gabe,
bai Erri gaxoa!
Masti orritsu ederra baña
matsik gabekoa!,
Loretegian il eta agortu
dan iturritxoa!...

Baña zergatik? Zergatik ote
ene Jaungoikoa?
Noletan ote nai degu galdu
gure izen zintzoa?

Ai, gure Euskera t'oitura zarrak
igesi dijoaz!...
Bildur naiz laister ez ote geran
aztuko Jainkoaz!

Ixil ixilik, euskaldunok baztertu degulako, kaletik goora, mendira
dijoa gure Euskera xar maitea. Menditik nora joko ote du gaixoak!

* * *

Ori atzokoa, ta gaur zer? 1936'ko leiaketan, Lekeittion sarittutako
zaldibitar apaizgai olerkari, —ta orain Compostelako Gongotzai—, Su-
kiatar Gotzon argiak ara zer nola adierazten zuan, —bi urtez gero—,
orduko gure Euskeraren egoera:

Egonaren egon ximurtzen sagarra!...
Mamian dabilki eriren aarra!
Gerría gogortu, okertzen bizkarra!...
Kaska zuri orri jun zaio indarra!

Ordutik onera, gure Euskerak izan dituan erauntsiak!... Zenbat
urteen buruan aterpelari, arzulotako sagu ta pixtien antzera..., bizitze-
ko eskubiderik gabe!!!... Ala ere eskerrak barrengo aarra esnatu etzi-
tzaionik...

Bañan, 42 bi urte auetan, Zaldibik izan dituan aldaketak beste
esakuntz edo esan-nai giro bat ere agertzen digutela nago.

1950'tik onuntzko urte aldaketalariak, kanpotik erdeldunek ekarri
ezet, etxeok ere naiko erdeldundu dizkie Zaldibiri.

Onen urte gutxitan, nolaz orrenbeste? 1936'an, Españian sortu zan
elkarren arteko gudate etsaikor artan, gure Eukerari etsai aundiak jai-
o zitzazkion.

Gudaritzara jeiki ziranak, Errian sartu beziñ laxter, jarri zioten
maatilla gure Izkuntzari... Gudari etsai bat izan balitz ere ez geiago!...

Jokaera ura area, benetan! : erderakeritzaren ateak bakarrik zaba-
lik!... Eta zaldibitarrak, Euskal-Erriko beste erri ta errixkaetakoak be-
zelaxe, erderaz jantzi bear batak besteakin elkarbidetzeko...

Elizkizunak berak ere erderapean loturik utzi zizkioten gudari-agin-
tariak. Beraz, Zaldibiko Elizan, otoiak eta itzaldiak Erriak entzuten
etzuan izkuntzan eratuak bear!... Leenago eman degun, Zaldibiko iz-
kuntza giroan, pentsa besterik ez dago, nolako bildur-lañoa sartuko zuan
erabaki orrek... Euskalduna ta Euskera etsaitzat erabakiak gertatu bait
ziran... Izan ere, orduko gizonaren izatea aiñ baita gutxikoa gertatu
zan!...

Jainkoak barka ditzala gizonon astakeri ta ezbide aiak!... Giza-
tasun indarrez goitikoa izan bait zan, bolara artako, izkillu-kearen la-
ñoa!...

Orrelako eralariak Jainko Bera ere sokatikakoa zutelakoan bait
zeunden, garai arretan. Gaiztakeriak ez dakit, bañan ezjakintasunak za-
kuan lotuta, alegia, giza ta kristau-argitasunak!... Beraz, agintariak
Jainko-izenpe-itzaletik agindutakoa, nola ta nork gaitzetsi? Eskerrak
Jainkoa gizona baño leku geiagokoa degunik, leentxego edo gero-xego,
atzera bideak zuzentzen, laguntzeko, elkar-maitasun giro berrijator ba-
tean! Gauzak ez bait ziran orrela izateko jaiok! Noizpaitan, naiko
berandu bederen, egi-bideei iritxi zaie beren ordua.

TA, ZALDIBIKO BITARTE ORI?

Bitarte luze... ta motz... orretan, Zaldibiri ara zer jai o zitzazkion:
zortzi lantegi-ola, seireunen bat langilliei ogi-bide berri batzuek eskeñiaz.

Bañan, garaia badu bere giro ta Zaldibiri ere iritxi zitzazkion kan-
potar erdeldunen usai... Gizonak bear ogi, bizitzari eusteko, ta ogi-bi-
delari Zaldibira jo..., ango mendi-zelai, baserri ta kaleetan erdera irrix-
takatzerario.

Orretaz gañera gudate ta ondorengo gudarilari aldia luzatzeak,
erdera zerbait itsatsi ere bai zaldibitar gudarakiei, ta berdin aiak etxe-
koei...

Orrela, Zaldibiko kale ta baserrietan, barreatu ere bai erdel-izkun-
tza. Ta, erdel izkuntzarekin batean, erdel idaztiak eta irakurgaiak ere zer
esanik ez.

Beraz, gaur, Zaldibin, erdera, mendian gorako bidea arturik, agertzen zaigu.

1970'ko azterketak ara noraño mugatzen diguten: Garai orretan, Zaldibik 2.041 biztanle edo bizi-lagun agertzen dizkigu. Oietatik: 1.069 gizonezko ta 972 emakumezko;

314 euskeldun sendi ta 78 erdeldunenak;

322 eskolume euskeldun eta 131 erdeldun.

Ume eskoletan: 10 maixu-maixtra. Orietatik, lau maixtra umetxoentzat, ta larrientxoekin iru maixu mutilentzat, eta beste iru neskeentzat. Baiñan, amar maixu-maixtra oiek erdeldunak, edota euskeraz ez dakitenak.

Noizpait ere esnaatu bear eta, orain zazpi bat urte, erriko seme zintzo batzuek burutu-ta, agertu zan Zaldibin ere "GURASO-ELKARTEA", baita Euskera ta euskaldun giro ta oiturei sendotasun-bidea jartzen saiatu ere. Beroien alegiñak sortu-ta, Zaldibik baditu lau euskal Ikastola, beste ainbeste andereñoen eskuetan eraturik.

Gaur, —igazko ageriak—, 76 umetxoen irakasle dittuzute andereño oiek. Eta umetxo oien artean, bat bakatra erdeldun semerik. Ala ere badira erdeldunetan, euskaldunon eskubideak ta gure arrera ontzat ematen dituztenak. Datorren ikastaro berrian, erdeldunen seme geiago ere izanen direla diote, aditzera dutenez.

Eta, zergatik ez galde beste zenbaki batzuei ere beren esan naia, gure Euskera izkuntzari buruz, batez ere, atzo ta gaur Zaldibin sartutako ta sartzen diran irakurgaiei? :

1934'AN, ZALDIBIN IRAKURTZEN ZIRAN IRAKURGAIEEN IZEN ETA ZENBAKI :

Donostiko "El Pueblo Vasco" (eunkaria): 18 aste-egunetan, jaietan 50 ale.

Donostiko "El Día" (eunkaria): 14 aste-egunetan, jaietan 30 ale.

Donostiko "La Constancia" (eunkaria): 20 aste-egunetan, jaietan 26 ale.

Donostiko "La Voz de Guipúzcoa" (eunkaria): 4 aste-egunetan,

Donostiko "La Noticia" (eunkaria): 6 aste-egunetan.

Donostiko "Noticiero de Lunes" (astekaria): 6.

Donostiko "Argia" (astekaria): 25.

Donostiko "La Cruz" (astekaria): 18 aseratik, gero 6 bat bakarrik.

Bilboko "Euzkadi" (eunkaria): 2 aste ta jaietan.

Bilboko "La Gaceta del Norte" (eunkaria): 1 aste ta jaietan.

Bilboko "El Pueblo Vasco" (eunkaria): 1 aste ta jaietan.

EUSKAL-ERRITIK KANPOKOAK

Madrilgo "A.B.C." (eunkaria): 2 egunero.

Madrilgo "La Nación" (eunkaria): 6 egunero.

Madrilgo "Ahora" (eunkaria): 3 egunero.

Madrilgo "El Debate" (eunkaria): 5 egunero.

Madrilgo "Heraldo de Madrid" (eunkaria): 1 egunero.

Madrilgo "El Siglo Futuro" (eunkaria): 1 egunero.

Madrilgo "Estampa" (eunkaria): 2 egunero.

Madrilgo "Esto" (eunkaria): 1 egunero.

Madrilgo "Gracia y Justicia" (eunkaria): 1 egunero.

Madrilgo "Cruzado Español" (eunkaria): 9 egunero.

Madrilgo "Mundo Gráfico" (asterokoa): 3 egunero.

"El Boletín" de los de "Dios, Patria y Rey": 12 arpidedun.

ETA 1975'AN IRAKURTZEN ZIRANETAKO BATZUEK :

Donostiko "La Voz de España" (eunkaria): 72 aste-eguneta, 90 igandetan.

Donostiko "El Diario Vasco" (eunkaria): 82 aste-eguneta, 125 igandetan.

Donostiko "Hoja de Lunes": 100.

Donostiko "Unidad" (eunkaria): 12 (?).

Oietaz gañera, erritik at, lan-tegi-bideetan eta abar artzen dituztenak beste ogeikoen bat eguneroko. Oien tartean, baita ere: Bilboko "La Gaceta del Norte" ta "El Pueblo Vasco-Correo". Madrilgo "Ya", eta "Pueblo". Oietarik, ale bat edo beste bakarrik.

Beste dozenan bat ale asteroko ta aldizkari: "Cuadernos para el Diálogo", "Actualidad", "Codorniz", "Triunfo", "Cambio 16", "Sábado Gráfico", "Mensajero" del C. de J., "Familia Cristiana", "Redención", eta abarretik.

ETA BESTE ASTEKARI TA ALDIZKARI AUETATIK, BERRIZ :

- "Aranzazu", aldizkari-illerokoa: 100 artzalle.
 "Zeruko-Argia", aldizkari-asterokoa: 80 artzalle.
 "Goiz Argi", aldizkari-asterokoa: 15 artzalle.
 "Hola": 20 artzalle.
 "Semana": 20 artzalle.
 "Lecturas": 10 artzalle.
 "As": 10.
 "Pronto": 30.

Begien aurrean dago, beraz, atzotik gaurra, erdel irakurgaiei Zaldibin egin zaien arrera... Erdel-giroa ugaritu dala naiko...

Gaur-egun, eskubidetzen asirik degun gure Izkuntz maiteari ateak irikitzen asi zaizkio, ta batzu-batzuen egarriak indartu ere bai, itxaropen bideitxurretan, oraindik naiz intxaur ots gutxi...

Bañan, bitarte onetan, euskaldunon artean, bearrik ez gendukan puskatze bat ez ote degu sartu, izki jantzi-erantzi baten ezta-baidan?; berdiñ eta "Euskera Batua" edo "Euskera Osatua" diralakoen izenpeetan ere? Mingarriena leikena, erriak ulertzen ez digun joeratan sarturik ez ote? Izkuntza norena da: itzlari dugun erriarena ala maixulari nai dutenena?...

Gure zenbait astekari ta aldizkarik goserik ote Euskal Errien euskal giroan? Norako, orduan, gure Euskera? Erdelkada ta izki-burrukan eosi ta ikustoki edo museotara eramateko?

Erderaz ikasitako ainbatek, erderakadan damaiguten itzulpe-izkuntzak beñere ezin indartu gure Euskera; ta gutxiago, oraindik, bizittu izkuntz errikoia. Gure ikastoletan, —denetan ez arren, asko-askotan bai—, erakusten dan Euskera Batuan ikasten dutenak nola mintzatu beren etxeko gurasoekin? Naaste-borraste orrek ez ote ekarriko, pixkanan-pixkanan, erderara jotzea gure baserritarrak ere? Alde batetik, izkuntzkerak ta idazti ittoa ta ulergaitza, bestetik, erdera barra-barran nun-nai... Ta ori, gutxi ezik, erri txikitako ta Euskera bixkorren egiten dutenetako eskolameak erri azien ikastol-balladatarak, —erabakirik dutenez—, bada-ramazkite, laxter degula nago gure Euskera, latiniaren antzera: izkuntz eder eta arrigarria, bañan eriotzak ikustokietara sarturik!!!...

Nola-nai ere, eldurik ez ote dugu ordua, adar zaar oietan, gure

Euskeraren adar garbietan, txertatzeko indar-gazte berria, bañan, zugatz zaarraren belaunetan?...

Euskalkieie indarririk kendu gabe, osatu dezagun, beraz, eta jantzi Erri ta Iakintz-bideetarako gure Euskera maite-maitea; bere zaardade luzean bai bait du, oraindik, erdel-itx jaio-berrientzat esan eziñezko *au-go*zo.

Donostin 1976-VIII-15.

Apaiza errian ta aberrian

YURRE'TAR YULEN AITAK

I

XI Pio'k Txina'ko mixiolariei esan zien, "berak naiago zuela bertako apaiz bat, 50.000 katekumeno baiño".

Txina'n nengoen orduan.

Lenegotan, arritu ninduan XI Pio Aita Santuaren esaera orrek; eta banenbillen banenbillen, nolako edo alako adiarazpena eman bear zitzaion ezin ondo adituz...

Urteak yoan ta urteak etorri ziran.

Eta orra, *Mao Tse-tung* mixiolariak bota ta bota asten da; ta danak bota arte yarraitzen du, eztiola ifiori ere Txina'n gelditzea uzten.

Orduan asi nintzan XI Pio'ren esaerak barrutzen zuan egia autematen.

Orduan ikusi nuan, argi ta garbi, Aita Santuaren ikuspegia, luze ta egiazko ta bearrezko zala.

Ta gora ta gora egiten nion Aita Santuari.

II

Irugarren munduan nengoela zan ori.

Utzagun orain irugarren mundu ura ta etor gaitezen lenengo mundura, au da gure Euskalerrira.

Zer dan ta zer izan dan emen gurean, apaiza...

Nere bizitzako urte ezberdinetan izan dedan gertakizun ta gogoeta bat edo beste ekarriko diot irakurleari.

* * *

1908-garren inguruan zan. Arratia'ko Yurre'n 5 apaiz ziran: 4, erriaren serbitzurako; ta 5-garrena, organista ta monjen kapellau.

Garai areik "Arana-Goiri" k'k asmatu-rikoko euskal-izenen garaiak ziran...

Igande batez, meza nausiaren ondoan, andre zar batzu moltzoan, etxerantza zijoazten. Ta ni ere arein ondoan ninjoan.

Ona nola mar-mar-mar egiten zuten:

"Gaur zengatik ez du parrokoak berak irakurri obispoaren esku-titza...?"

("Cadena y Eleta" zan gotzaia. Ta eskutitz artan euskaldunei esaten zien, ezin zitezkeela erabili ta ipiñi "Arana-Goiri" ren euskal izenak umetxoen bataioetan).

"Besteetan parroko jaunak berak irakurtzen ditu gotzaiaren esku-titzak; ta gaur zengatik ez...?"

Orrela yoan ziran zati luzean mar-mar-marka.

Orduan ene ume-buruan, berez ta basa-loretxo bat bezela, burutazio au sortu zitzaidan:

"Parroko yauna "Arana-Goiri" ren euzkal izenen aldekoa bide da..."

* * *

Urte ura igaro-ta laster, nere erritik urrutira nintzan ta komentu batera sartu.

Berriz ere urteak yoan ta urteak etorri ziran.

Eta 1923-an, ikasteak amaitu-ta, nere errira nintzan. Orduan ere parroko berdiña zan.

Nere umezaroan baiño yende geiago arkitu nuan errian. Eta baita bat edo beste, erderaz egiten zuena ere: edo Bilbo'tik ibillia zala edo komentuen batean ikasten egona zala edo badakit nik edo eztakit nik zengatik, bazan bat edo beste erderaz egiten zuena.

Ala ere elizan euskeraz ta euskera utsez bakarrik egiten zan.

Parroko jaunak esaten zidanez: "Gu elizan erderaz asiko bagiña, bereala Euskerak indarra galduko luke errian ta aren ordeaz erderak irabazi". Egia andia.

Bainan elizan dana euskeraz egiten zan.

"Agur, Maria" esan oi zuan parroko jaunak errosarioan, "Ave, Maria" esan ordeaz.

Eta itzaldietan (iztun eder, dizdizaria zan) "Yosu" eta "Miren" izenak, ere, erabiltzen zituan noiz-peinka.

Eta bataioetan Iñaki ta Yon ta abar ere ipintzen zituan.

Goizetan, elizatik ateratzen zanean, ikusten zuan mutikoen bateri esaten zion, txakur txiki edo txakur andia eskura emanaz (ez naiz oroitzen oraintxe bietarik zein): "mutiko, ekarriko deustak neure periodikua...?"

Eta mutikoa galapan estankora. Eta "Euzkadi" egunkaria ematen zioten beti estankoran.

Batek edo bestek "bizkaitarra" zala, zion.

Bainan etzan ori. Biotz on-oneko gizona zala zan; erria maite-maite zuan biotzaren biotzetik; yende guztiekin txeratsu ta begitartetsu zan.

Ta ortik atera oi zuten erriko politikari batzuk, parrokoa "bizkaitarra" zala; bainan etzan ezertan ere sartzen. Jainko ta erlijio-maitasunak eragiten zion erria ta euskera maitatzera. Ori zan dana ta besterik ez...

* * *

Andik laster, berriz ere, urruti-urrutira yoan nintzan: oraingoan zorioneko Txina'ra ta betiko.

Ta an ere urteak yoan ta urteak etorri; ta orreikin batez, 1936-grn urtea ere etorri zan, guda madarikatu ura ekarri zigun urtea.

Orduan ere parroko berdiña zan Yurre'n.

Eta yoan egin bear izan zuan erritik.

Ta Frantzi'tik zear ta Beljika barrena ibilli bear izan zuan nekez, naigabez ta miñez eramanaz erbesteko bizitza. Eta urteen zama aztuna ere eraman bearrez...!!

Andik atzerritik bere illoba Dima'ko "Soloeta" Kaputxino Mixiolariari Txina'ra idazten zion, neretzako ere goraintzi andiak emanaz.

Eskutitz areitatik erraz igartzen genduen, euskaldun erbestetuek zeramaten gurutzeta ta benetango bizitza neketsua ta latza...!!

Gazteiz'ko gotzaia fiadore atera ta dei egin zien munduan zebiltzen euskotar apaizei.

Eta arako nere parrokoa, ere, itzuli zan Yurre'ko bere parrokiara.

Eta itzuli-ta ere, errira etorberri ziran garaile bat edo bestek, asko sufriazi zioten.

* * *

Bainan berriz ere urteak yoan ta urteak etorri ziran. Eta neroni, ere, Txina'tik Euskalerrira etorri nintzan.

Txori bateri arrika egin oi diotenean, dagoen zugaitzetik iges egi-ten du ta urrutiagoko beste zugaitz batera yoan oi da.

"Mao Tse-tung"ek Txina'tik mixiolari guztiok, indarkeriz, bota ginduzen bata bestearen ondoan; eta bakoitza aal zuen lekura etorri giñan.

Yurre'ra nintzan; bainan etzegoen parroko berdiña.

Etzegoen; bainan oraindik badago ta beti ere egongo da.

Elizako ezker aldeko orman, "Sortzez Garbiaren" aldare ondo-ondoan, ona ezarririk idazkun au izki anditan:

HILARIO SOLOETA
 ABADÉ AGURGARRIA, 1945'KO
 GABONILLAREN 15'AN IL ZAN,
 TA BERE AZURRAK ELEXA
 ONETARA ALDATU ZIRAN,
 1964'KO URRILLAREN 25'N.

G. B.

Ta idazkun orren azpian illobia ta barruan aren azur santuak.

Elizatik kanpora berriz, zugaitz baten azpian ta elizaren ondoan, arri landuzko aga eder bat ta gaiñean aren arrizko giza-irudia, aren buru-bularretakoa.

Onen erdiko arpegian izki andiz onela:

MONSEÑOR HILARIO DE SOLOETA

Eskui aldean, euskeraz, onela:

YURRE'KO ERRIAK 57 URTEAN
 IZAN ZAN BERE ARTZAI ONARI.

Ezker aldean berriz, erderaz, onela:

EL PUEBLO AGRADECIDO
 A SU PASTOR
 BUENO Y FIEL

* * *

Nik yakin-naiez beterik, erriko apaizari galdetu nion: "lan oneik burutzeko, nork eman du dirua... Udaletxeak...??"

Eta erriko apaizak bereala:

"Zer diok, mutil. Ez al dakik ba nola ibilli zoan au mundutik barena, Ezpaña'n zorigaiztoko guda ura asi zanetik...?"

"Ez al dakik, nor izan zoan au...?"

"Pozik udaletxea isilik egon izan danean ta ola gobernadoreak debekatu izan ez dualako...".

"Erriko yendeak eman du dirua".

Ainbat on egin ziolako ta 57 urtetan parrokan alako maitasunez serbitu izan ziolako, erriak goretsi zuan apaiz on-ona ta betiko oorea eman zion...

* * *

Zorionak "Lekuona" yaunari omenaldi egitea, gogoratu zaitzuen yaun agurgarrioi.

Erriak ezpaldin badaki bere gizon goresgarriak goratzen ta aintzatzen, ez du "Erri"-izenik merezi.

Omenaldi au egitean, aintza ematen diozute ori ondo merezi-ta daukanari, baita gure Erriari ere adibide ta ikaspide onuratsua irakatsi diozute.

Zorionak bioz-biotzez.

Platon-en atal bat, Lekuon zaarraren Omenaldirako

ZAITEGI ETA PLAZAOLA'TAR IOKIN

- POLO-k:** Zuk bezala, Sokrate, etzenuke are naiago izango errian zuk uste duzunik egiteko zilegi izatea, ala, ez izatea, ezta etzenuke inor bekaiztuko, berak uste duena il, naiz on-rasunak kendu, naiz ziegan uzkaldu egiten ikus lezazu-kenean.
- SOKRATE-k:** Zuzenki ala zuzengabe esaten ote duzu?
- POLO-k:** Biotatik zernai egin badeza, ez ote litzateke biotara be-kaizgarri izango?
- SOKRATE-k:** Ongi mintza zaitetz, Polo.
- POLO-k:** Zer ba?
- SOKRATE-k:** Oparagari eztirenak, ezta zorigaiztokoak ere eztitugu be-kaiztu bearrik, errukitu baino.
- POLO-k:** Zer? Itz eginez aipatzen nituen gizon aiek orrelakoak direla uste ote duzu?
- SOKRATE-k:** Nola ez ba?
- POLO-k:** Zuzen ileraziz, berak uste dezakena ilerazten duena zo-rigaiztoko ta errukigarri dela uste ote duzu?
- SOKRATE-k:** Nik neuk ez beinik-bein, eztela opagarri baizik.
- POLO-k:** Ez aal zenuen oraintsu esaten zorigaiztoko dela?
- SOKRATE-k:** Bai, zuzengabe ilerazten duena beinik-bein, lagun, baita errukigarri ere gainera. Zuzen ilerazten duena, berriz, eztela opagarri.
- POLO-k:** Nonbait zuzengabe il dena, beinik-bein, errukigarri ta zorigaiztoko da.
- SOKRATE-k:** Erailea baino gutxiago, Polo, ta zuzen iltzen dutena baino gutxiago.
- POLO-k:** Nola ori, Sokrate?
- SOKRATE-k:** Orrelaxe, zuzengabekeria egitea gaitzik andien bezala baita.

- POLO-k: Ori ote da andien? Zuzengabekeria iasatea ez ote da andiago?
- SOKRATE-k: Ez orixe!
- POLO-k: Zuk, beraz, zuzengabekeria iasatea naiago izango ote zenuke zuzengabekeria egitea baino?
- SOKRATE-k: Enuke opa nik beinik-bein ez bata ta ez bestea; baina, biotatik baten bearrean izango balitz, zuzengabekeria iasatea naiago nuke egitea baino.
- POLO-k: Zuk, beraz, ez aal zenuke onartuko tiranu izaterik?
- SOKRATE-k: Ez, tiranu izatea nik esaten dudana esan badezazu, beinik-bein.
- POLO-k: Alabaina, leengoa bera esaten dut nik beinik-bein: errian uste dezaken uraxe egitea zilegi izatea, alegia, il, erbesterratu ta buruak ematen dion edozer egin.
- SOKRATE-k: Zoriontsu orrek, begira solasa autsi ni mintzatzean. Baldin agoran mukurru beterik ledinean, esku-aizto bat galzarpean artuta au esango banizu: "Polo, nolabaiteko indarra ta tiranutza arrigarria nereganatu dut ain zuzen: beraz, emen ikusten dituzun gizonen arteko norbait berealakoan il bearra dukela uste badezat, uste dezakedan ori ila izango litzateke; ta orietako norbaiti burua apurtu bear zaiola uste badezat, berealakoan apurtuta izango da, ta soinekörrik zarrastatu, zarrastatuta izango litzaioteke: erri ontan onelako aalmen andia baitut". Baldin zuri, sinetsi-ezinean zinateken orri esku-aiztoa erakutsiko banizu, ikusi-ala au edo esango zenuke, nonbait: "Sokrate, orrela izango luke aalmen andirik edonork; uste izan dezakezun edozein etxe, Atenai-tarren itsas-ontzitegiak, iru-arrauneko potinak eta erriaren eta erritar soilen itsas-ontziak oro satan errez gero". Orixe besterik ezpaita aal andirik izatea, alegia, berak uste izaten duena egitea. Ala, zer derizkiozu?
- POLO-k: Orretara ez noski, beinik-bein.
- SOKRATE-k: Orrelako indarra irazitzen duen esanenik ba ote daukazu?
- POLO-k: Bai nik beinik-bein.

- SOKRATE-k: Zer ba? Esan.
- POLO-k: Orretara egiten duena zigortatua izaten da ezin-beste.
- SOKRATE-k: Eta zigortatua izatea ez ote da txar?
- POLO-k: Erabat.
- SOKRATE-k: Lagun arrigarria, aalmen andia dela agertzen zaizu berri ere, baldin uste duena egiten duenari onerakorik egitea badatxekio ta on dela: orixe da, dirudienez, aalmen andia izatea. Ezperen, aalmen txar eta txikia izatea da. Azter dezagun ori oraindik: besterik ez aal dugu aitortu? Alegia, batzutan orain esaten genituenok egitea obe dela, ots, iltzea, gizonak erbesterratzea, ontanunak kentzea ta beste batzutan ez.
- POLO-k: Erabat.
- SOKRATE-k: Eta ori zuk eta biok aitortuta dugu, dirudienez.
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Noizbait oriek egitea obe dela esaten ote duzu zuk? Esan, ezar ezazu mugarri bat.
- POLO-k: Zeuk, Sokrate, erantzun orixe.
- SOKRATE-k: Nik neuk orain ere auxe esaten dut, Polo, nigandik entzutea atseginago bazaizu: norbaitek oriek zuzenki egin ditzanean, obe direla, ta zuzengabe egin ditzanean, txar.
- POLO-k: Zu gezurtatzea zail da, beinik-bein, Sokrate: baina, ez-tuzula egirik esaten ez aal lizuke egiztatuko aur bategere?
- SOKRATE-k: Aurrari eskerrik asko egingo nioke nik, eta berdin zuri ere, nerau gezurtatu ta zozokerietatik aldenduko baninduzu. Baina, etzaitetz neka adiskide bati on egitez, gezurta baizik.
- POLO-k: Zu gezurtatzeko, Sokrate, ezta aspaldiko gertariak bategere ekarri bearrik. Atzo ta egungo gertariak zu gezurtarazteko aski izango lirateke ta zuzengabe egiten duen gizonik asko zoriontsu dela erakusteko.
- SOKRATE-k: Nolako gertariak?
- POLO-k: Ez aal duzu Arkelao ori, Perdika-ren semea, Makedonia-n agintari ikusten?
- SOKRATE-k: Ikus ezpadezat, badantzut beinik-bein.

- POLO-k:** Zoriontsu, ala zorigaiztoko dela uste ote duzu?
- SOKRATE-k:** Eztakit arean, Polo, ezpainaiz oraindik gizon arekin egokitu.
- POLO-k:** Zer ba? Arekin egokituta ezagutuko zenuke, ta beste-la emendik bertatik ezin ezagun ote duzu zoriontsu denik?
- SOKRATE-k:** Ala Tzeu, ez noski.
- POLO-k:** Ezagun da, Sokrate, ezta errege andia bera ere eztakizula zoriontsu den esango duzuna.
- SOKRATE-k:** Eta egia esango dut beinik-bein, ezpaitakit nola den eziketari ta zuzenari buruz.
- POLO-k:** Zer ba? Ortan ote da zorion osoa ala?
- SOKRATE-k:** Neronek diodanez beinik-bein, Polo: eder eta on diren gizon-emakumeak zoriontsu direla esaten baitut, eta zuzengabea ta galgarria, zorigaiztoko.
- POLO-k:** Beraz, zure izpideak dakarrenez, Arkelao ori zorigaiztoko ote da?
- SOKRATE-k:** Zuzengabe badadi beinik-bein, adiskide.
- POLO-k:** Alabaina, zuzengabe nola ezta izango? Orain daukan agintaritzarako etzegokion batere eskubiderik, Alketu Perdika anaiearen iopu zen andrearen seme izaki, ta zuzenbidezkoak dakarrenez, Alketu-ren iopu zen, eta zuzen egin nai izan balu, Alketu-ren iopu izan bear zuzkeen eta zoriontsu izan zitakeen, zure izpideak dakarrenez. Orain, berriz, arrigarrero zorigaiztoko bezala gertatu da, zuzengabekeriari andienak egin dituen zgero. Leenik beraren iaun eta osaba Alketu etorrierazi egin zuen, Perdika-k berari kendu zion agintaritza eman-go ziolakoan; arrotz bezala etxeratu, ta ura ta aren seme Alexander, beraren lengusu ta ia adinkidea moxkortu, gurdira egotzi ta gauaz eramanki, lepoak moztu ta biak estali egin zituen. Bidegabekeriok eginda, etzen oartzen bera zorigaiztokoan bilakatu zenik eta etzen bera damutu, baina, gerotxoago anaiea, Perdika-ren seme iatorra, zazpi urteko-edo aurra zuzenbidez agintari gertatua zuzenez azi ta ari agintaritza emanik, etzuen zoriontsu gertatu nai izan, baina osin batetara egotzi ta

- ito egin zuen; gero, Kleopatre aren amari auxe esan zion: antzara baten atzetik ibilki, osinean erori ta bertan il egin zela. Ara orain, Makedonia-n direnen artean zuzengabekeriari andienak egin dituen zgero, Makedoniar guzien artean zorigaiztokoan da, ez-baina zoriontsuen, eta berdin Atenai-tarren artean edonork, zeugandik asita, naiago izango luke beste edozein Makedoniar gertatu, Arkelao baino.
- SOKRATE-k:** Eta izketaren asieratik, Polo, zerau goratu egin zaitut nik, erretorikan ongi ikasia zarela uste baitut, elkarriketan ari izaten, berriz, zabartuxe zarela. Eta orain aur batek gezurtatuko nindukeen izpide eder ori duzu, zuk irizten duzunez, nerau ere zeuk oraintxe, izpide orrekin gezurtaturik naukakezulakoan, zuzengabekeriari egiten duena, ezin daitekela zoriontsu-izan esaten baitut. Nondik-nora lagun on orrek? Zuk esaten dituzunekin beinik-bein batere ezpainatorkizu batera.
- POLO-k:** Ezpaituzu nai izaten, nik esaten dudana bezala zuk uste izan-arren.
- SOKRATE-k:** Nerau erretorika bidez gezurtarazten saiatzen baitzara, zoriontsu ori, auzitegietan nagusi direnek gezurtarazten duten bezala. An batzuk besteak gezurtarazten dituztela uste izaten baitute, esan ditzaketan itzen lekuko asko ta izen onekoak ekar ditzatenean eta aurkakorik dioena bat bakarra, edo bat ere aurkezten eztuenean. Egiztabide ori, berriz, egiarekiko ezertan aintzat ez artzekoa izaten da: batzutan askoren eta zerbait direla uste dutenen gezurrezko lekukotasunek eraginda, norbait ilgai ioten dute. Ain zuzen, orain zerorrek esaten dituzunei buruz Atenai-tar eta atzerritar guzitsuek zurekin batera esango lukete, egiarik esaten ez tudan bezala nere aurka lekukoak aurkezterik nai izango bazeneza. Nai izanez gero, lekuko izango zenituzke Nikia Nikeratu-ren semea ta arekin batera anaieak orien iru-zangoak urrenez-urren zutik dira Dionisio-ren iauretxean; or izango zenuke Aristokrate, Skellio-ren semea, nai izango bazenu, arena da Delfo-n dagoen eskeintzari ederra; nai

izango bazenu, Perikel-en etxe osoa, edo emengoen artean aukeratu nai izan zenezakeen beste edozein etxe-koak.

Baina nerau bakarrik izan arren, enatorkizu zure esanetara, nerau ezpainauzu beartzen zuk, nere aurka gezurrezko lekuko asko aurkeztuz nerau ontasunetik eta egiatik egozten saiatu baizik. Nik, berriz, esaten ditudanei buruz batera etortzen zeran lekuko bakarra aurkeztu ezik, darabilgun elkarrizketari buru emateko, ez tudala aintzat artzeko batere egiztabiderik azaldu irizten dut. Ezta zuk ere, nere iritziz, baldin ni bat-bakarra izaki, zure lekuko izatera gertatzen ezpanatzaizu, ta beste guziok agur eginda ioaten utz ezpaditzazu. Izan ere bada ikuspide- era ori, zuk eta beste askok irizten duzuen bezalakoa: baita besterik ere bada, nik irizten dudau au. Elkarren artean alderatuta, azter ditzagun biok zertan daitezken bestelako. Eztabaidaka darabilzki- gun zerak, ezpaitira inola ere gauza txikiak, gutxi gorabeera oriei buruz iakitea ederrenik eta ez-iakitea itsu- sienik baizik. Orien zera nagusia ontan baitatza: zoriontsu nor den eta nor ezten ezagutzean, ala, ez-eza- gutzean.

Orain darabilgun elkarrizketa aurrenik auxe da: zuzengabekeriarik egin eta zuzengabe dena, gizon zoriontsu dela bezala irizten duzu zuk, Arkelao zuzengabe dela ta zoriontsu berriz irizten duzunez gero. Orretaz besterik uste duzula gogoan izan ote dezakegu?

POLO-k: Egin-eginean, beinik-bein.

SOKRATE-k: Ori ezina dela esaten dut nik berriz. Gauza bakar orixe eztabaidaka baitarabilgu. Demagun: zuzengabekeriarik egiten duena zoriontsu izango ote da beraz, minik eta zigorrik gerta balekizkio?

POLO-k: Ez orixe beinik-bein, zorigaiztokoan orrelaxe izango litzatekenez gero.

SOKRATE-k: Alabaina, zuzengabe egiten duena beraz, berari ordain- bearrik gerta ezpalekio, zoriontsu izango ote da, zure itzak dakarrenez?

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Nere usteak dakarrenez, berriz, Polo, zuzengabekeriarik egiten duena ta zuzengabea orobat zorigaiztoko dira, baina, zorigaiztoago errurik ordain eztezana ezta zigorrik gerta ezta zuzengabe egiten duena, zorigaizto- ezago, berriz, errua ordain dezana ta Iainkrek eta gizonek zigor dezatena.

POLO-k: Sokrate, gauza bakanak esateari ekiten diozu, beinik-bein.

SOKRATE-k: Aaleginak aalegin saiatuko naiz beinik-bein, zu ere, nerekin oriek esatera egin zaitezken, lagun, zerau adiskide irizten baitzaitut. Oraingotan auxe da banantzen gaituena: begira ezazu zuk ere. Nonbait aurrekoetan, zuzengabekeriarik iasatea baino txarrago dela zuzengabekeriarik egitea, esan nuen nik.

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Zuk, berriz, zuzengabekeriarik iasatea.

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Eta zuzengabe egiten dutenak zorigaiztoko direla esaten nuen nik, eta zuk gezurtarazi egin nauzu.

POLO-k: Bai, ala Tzeu!

SOKRATE-k: Polo, zuk irizten duzun bezala, beinik-bein.

POLO-k: Egia iritzita beinik-bein.

SOKRATE-k: Bear bada. Zuk, berriz, zoriontsu direla zuzengabe egiten dutenak beinik-bein, ordanik eman ezpalezate.

POLO-k: Erabat.

SOKRATE-k: Nik, berriz, oriek beinik-bein zorigaiztokoan direla esaten dut eta zuzenbidezkoa ordaintzen dutenak, gutxiago. Ori ere gezurtatu nai ote duzu?

POLO-k: Alabaina, ori gezurtaraztea oraindik ura baino zailago da, Sokrate.

SOKRATE-k: Ez arean, Polo, ezina baizik; egundaino egia gezurtarazi-ezina baita.

POLO-k: Nola diozu? Baldin gizon bat zuzengabe eginaz, tiranutza baten aurka azpi-iokoa egiten atzeman balezate, ta atzeman-ala, biurritu ta ebaki, begiak erre ta beste asko, andi ta edonolako indarkeriatan gorriak eraman-

da gero, beraren seme-alabak eta emaztea oinaze berdinetan min artzen ikusita gero, azkenik makilaz zeatu ta gurutziltzatu egiten dute, naiz erretxinez uieldu erretxeko. Iges eginda, tiranu gertatu, errian agintari izan, bizitzarte osoan nai zukeenik eginda, bekaizgarri izaki ta erritar eta beste atzerritarrek zoriontsu iritzita baino, ura beste orretara ote zitekeen zoriontsuago? Oriek gezurtatu ezinak direla esaten ote dituzu?

SOKRATE-k: Txorimalo batez izutu egiten nauzu, Polo iator orrek, eta ez gezurtatu, arestian lekukoak emanda bezala. Dena dela, oroi zakizkit gauza txiki batez: tiranutza aren aurka azpi-iokoa egiten zuzengabe ari zela esan ote duzu?

POLO-k: Bai, noski.

SOKRATE-k: Zoriontsuago elirateke egundaino izango orietako ez bata ta ez bestea, ots, zuzengabe tiranutzaz iabetu dena ez, ezta zigortua izan eztena ere, biok zorigaiztoko izaki, zoriontsuagorik ezin baitateke izan ez bata ta ez bestea. Benetan zorigaiztoago iges egin eta tiranu gertatu dena. Zer da ori, Polo? Farre egiten ote duzu? Beste gezurta-biderik ote da ori, norbaitek zer-edo-zer esan dezanean, aren lepotik farre egin, gezurtatu gabe?

POLO-k: Etzarela gezurtarazia irizten ote duzu, Sokrate, gizonen arteko inork esango elituzkenak esan ditzazunean? Beraz, galde iezaiozu aurrean duzun edonori.

SOKRATE-k: Polo, enauzu politikolari orietakorik, eta igaz zotz eginda aolku-batzarreko egokitu nintzen, Atenai'ko Bosteun aolkulari-batzarra, eta leinuak nausi aldia zuelarik, eta neuk autatu bearra izan nuenean, farraz ler gaizto eragin nuen, ezpainekien aukeragaia ezartzen. Orain ez ieza dazu eska aurrean diranok auta dezatenik. Alabaina, oriek baino gezurtabide oberik ezpazeneuka, oraintsu esaten nizun bezala, neroni nere aldia utzita, neronek irizten dudan gezurtabideak nolakoak izan bear duen adierazteari ekingo nioke.

Nik esan ditzakedanen alderako lekuko bakar bat aurkezten dakit, nere itz lagun dateken beraxe, alegia,

geientsuak berriz agur eginda bertan bera uzten ditut. Eta bat-bakarrari autatu eragiten dakit, geientsuekin berriz eztut elkarrizketarik ere izaten. Begira, bada, gezurtabiderik eman nai izango zenukenentz, aldian bein nere galderak erantzunik.

Ni neu etsi-etsita bainago, zerorrek, neronek eta beste gizonek txarragotzat irizten dutela zuzengabekeriarik egiten duena, zuzengabekeriarik iasaten duena baino, ta zigortatua eztena zigortatua baino.

POLO-k: Nik, berriz, beinik-bein ezta neronek, ezta gizonen arteko beste inork ere. Zeuk orregaitino zuzengabekeriarik egin baino?

SOKRATE-k: Baita zuk ere beinik-bein, baita beste guziak ere.

POLO-k: Ezta urrik eman ere; ez nik, ez zuk, ezta beste inork ere baina.

SOKRATE-k: Erantzungo aal didazu?

POLO-k: Erabat. Zer esango ote duzun iakiteko irrikan bainago.

SOKRATE-k: Esan iezaidazu, bada, iakin dezakezun, asierandanik galde egiten nizuken bezala. Zeri derizkiozu txarrago zuzengabekeriarik egiteari, ala, zuzengabekeriarik iasateari, Polo?

POLO-k: Zuzengabekeria iasateari nik beinik-bein.

SOKRATE-k: Eta itsusiago zein ote da? Zuzengabekeriarik egitea, ala, zuzengabekeriarik iasatea? Erantzun ezazu.

POLO-k: Zuzengabekeriarik egitea.

SOKRATE-k: Txarrago ere bai beraz, benetan itsusiago badadi?

POLO-k: Ez orixe.

SOKRATE-k: Badakit: ezpaituzu irizten zuk, iduri duzunez, ederra ta ona, itsusia ta txarra berdin direnik.

POLO-k: Ez arean.

SOKRATE-k: Eta ori zergatik? Eder diren gauza guziak, adibidez, gorputzak, koloreak, izakerak, abotsak eta iarduerak, ederrak direla izentatzen dituzun bakoitzean, begiak ezeri itzuli gabe izentatzen ote dituzu? Adibidez, leenik eder diren gorputzak, beirak dakarren arakoxe bakoitzea onuragarri daitekenean, ez aal dituzu eder direla esaten, naiz, atseginen batetarako, baldin ikustean ikus-

leek begi-betegarri arkitu ta pozgarririk ar badezate? Oriek ezik, ba aal daukazu esatekorik gorputzaren edertasunari buruz?

POLO-k: Eztaukat arean.

SOKRATE-k: Ez aal dira beste guziak orretara izaten, izakerak eta koloreak, naiz nolabaiteko atseginen batez, naiz onura batez, naiz biotaz, ez aal dituzu edertzat aipatzen?

POLO-k: Nik bai beinik-bein.

SOKRATE-k: Ez aal da orrelaxe izaten abotsei buruz eta musikak dakarren denari buruz?

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Baita lege ta iarduerari dagokienez ere beinik-bein, ez-tira nonbait oriek ezik eder izaten, ots, naiz onuragarri izan, naiz atsegin izan, naiz biok batean izan.

POLO-k: Nik eztut uste beinik-bein.

SOKRATE-k: Ez aal da orrelaxe izaten iakinkizunen edertasuna ere?

POLO-k: Erabat. Eta orain beinik-bein ederki mugatu duzu, Sokrate, ederra atseginez eta onez mugaturik.

SOKRATE-k: Eta ez aal da itsusia aurkakoekin mugatzen, minez eta txarrez alegia?

POLO-k: Ezin bestez.

SOKRATE-k: Beraz bi gauza eder izaki, bata bestea baino ederrago dadinean, oriekiko naiz batez, naiz batera biotaz gainditurik ederrago dateke, ots, naiz atseginez, naiz onuraz, naiz batean biotaz.

POLO-k: Erabat beinik-bein.

SOKRATE-k: Eta bi gauza itsusi izaki, bata bestea baino itsusiago dadinean, naiz atsekabez, naiz txarrez garaiturik, itsusiago dateke: ala, ez aal da bearrezko?

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Eup, bada: nola esaten ote genuen oraintsu zuzengabekeriari egin eta zuzengabekeriari iasateari buruz? Ez ote zenuen esaten zuk, zuzengabekeriari iasatea txar-rago zela, zuzengabekeriari egitea, berriz, itsusiago zela?

POLO-k: Bai, orixe esaten nuen.

SOKRATE-k: Beraz, zuzengabekeriari iasatea baino itsusiago zuzen-

gabekeriari egitea badadi, naiz atsekabegarriago ote da, ta atsekabez, naiz txarrez, naiz batean biotaz garaiturik, izango ote litzateke itsusiago? Ori ere ez aal da bearrezko?

POLO-k: Zergatik ez ba?

SOKRATE-k: Azter dezagun leenik bada: atsekabez gainezago egiten ote da zuzengabekeriari egitea zuzengabekeriari iasatea baino? Ta zuzengabekeriari egiten dutenek atsekabeago izaten ote dute, zuzengabekeriari iasaten dutenek baino?

POLO-k: Ori inola ere ez beinik-bein, Sokrate.

SOKRATE-k: Beraz, eztitu gainak artzen atsekabeak.

POLO-k: Ez arean.

SOKRATE-k: Beraz, atsekabeak ezean, biak batera elukete oraindik garaituko.

POLO-k: Ezta ageri.

SOKRATE-k: Besterik gelditzen zaigu oraindik.

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Txarra.

POLO-k: Orrela dirudi.

SOKRATE-k: Beraz, txarrez gaindi baledi zuzengabekeriari egitea, txar-rago izango litzateke zuzengabekeriari iasatea baino.

POLO-k: Ezagun da.

SOKRATE-k: Aurreko aldian ez aal zeniguten zuk eta gizonik geienek besterik aitortzen, zuzengabekeriari egitea itsusiago zela zuzengabekeriari iasatea baino esaterakoan?

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Orain, berriz, txar-rago dela ageri da beinik-bein.

POLO-k: Orrela dirudi.

SOKRATE-k: Gutxiago denaren orde, txar-ragorik eta itsusiagorik naiago izango ote zenituzke zuk? Etzaitz erantzuteko bildur izan, Polo: ezpaitizu ezerk kalterik egingo. Baina, eman zakizkio izpideari zabal-zabal sendatzaile bati bezala ta erantzun ezazu, esan baietz, ala, ezetz galde-tzen dizudanari.

POLO-k: Baina enuke naiago izango, Sokrate.

- SOKRATE-k: Gizonen arteko beste inork?
- POLO-k: Izpide orrek dakarrenez beinik-bein eztut uste nik.
- SOKRATE-k: Beraz egia esaten nuen nik, ez nik, ez zuk, ezta gizonen arteko beste inork ere ezin zezakela naiago izan zuzengabekeriarik egin, zuzengabekeriarik iasan baino: izan ere, txarragorik baita.
- POLO-k: Agerian da.
- SOKRATE-k: Badakusazu, Polo, egiztabidearen ondoan egiztabidea alderaturik, eztutela ezertan irudikorik izan. Baina, zurekin nizaz beste guziek aitortuko dute; nerekin, berriz, aitortzen eta lekuko izaten zeu bat-bakarra izaki, aski zatzaizkit; eta neronek zeu bakarrik autatzen ikusita, besteei agur eginda, bertanbeera uzten ditut. Eta beude orrela oriek guretzat.
- Orren ondoren, berriz, bigarrenari buruzkoa eztabaidaka erabilki azter dezagun, alegia, zuzengabekeriarik egiten duenak zuzenbidezkoaz kitatzea gaitzik andien ote denentz, zuk uste duzun bezala, ala, ez kitatzea andiagotara: zuzengabekeriarik egiten duena zuzenbidezkoaz kitatzea ta zuzen zigortatzea bat-beraxe izentatzen ote duzu?
- POLO-k: Nik beinik-bein bai.
- SOKRATE-k: Zuzen diren bestean, zuzen diren guziak eztirela eder bezala esatekorik ba ote daukazu? Zeatz-meatz aztertuta gero, esan.
- POLO-k: Orixe uste dut nik, Sokrate.
- SOKRATE-k: Azter ezazu au ere oraindik: norbaitek zer-edo-zer egin badeza, ori egiten duenak ez ote du bearrezko iasapenik ere eragingo?
- POLO-k: Orixe uste dut nik beinik-bein.
- SOKRATE-k: Beraz, egin eragiten duen iasapen ori nolako, ez ote da alako izaten egin eragiten duena ere? Onetara esaten dut: baldin norbaitek io badeza, ez aal du bearrezko ioa izaten?
- POLO-k: Ezin bestez.

- SOKRATE-k: Eta gogor naiz laster io badeza, ioa ere ez aal da orrelakoxea izaten?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, ioarekin alako iasapena izaten ote du, ioak egin dezakena bezalakoa?
- POLO-k: Erabat beinik-bein.
- SOKRATE-k: Orobat norbaitek erre egin badeza, zer-edo-zer errea izatea bearrezko ote da?
- POLO-k: Zergatik ez ba?
- SOKRATE-k: Eta baldin gogor eta mingarri erre badeza, orrelako erreak dakioken erredura bezalakoa izango ote du?
- POLO-k: Erabat beinik-bein.
- SOKRATE-k: Norbaitek ebaki badeza ere, izpide berdina izango ote luke? Zer-edo-zer ebakitzen baita.
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Eta baldin ebakia andi beinik-bein, naiz sakon, naiz mingarri gerta baledi, ebakia lekioken ebakera bezalako iasango ote luke ebakia izan den alakoak?
- POLO-k: Agerian da.
- SOKRATE-k: Itz batez esateko, begira ea aitortzen ote duzumentz edozertaz esaten nuena oraintsu: alegia, egina egin dezakena nolako, iasapena iasatea orrelako.
- POLO-k: Bai, aitortzen dut.
- SOKRATE-k: Oriek aitortuta, berriz, zuzenbidezkoaz kitatzea zerbait iasatea, ala, egitea ote da?
- POLO-k: Jasatea noraezean, Sokrate.
- SOKRATE-k: Norbaitek eginda ote?
- POLO-k: Enura gabe. Zigortatzen duenak eginda.
- SOKRATE-k: Zuzen zigortatzen duenak, berriz, zuzen eta bidez zigortatzen ote du?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Zuzenbidezkoak egiten ote ditu, ala, ez?
- POLO-k: Zuzenbidezkoak.
- SOKRATE-k: Beraz, zigortatua denak, zuzenbidezkoaz kitatuz, zuzenbidezko iasaten ote du?
- POLO-k: Agerian da.

- SOKRATE-k: Nonbait zuzenbidezkoak eder direla ez ote dugu aitortu?
- POLO-k: Erabat beinik-bein.
- SOKRATE-k: Beraz, oriek egiten dituenak eder egiten du, baita iasaten duenak ere, zigortatuak alegia.
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Eder direnez gero, on ote dira? Atsegin eta onuragarri baitira.
- POLO-k: Ezin bestez.
- SOKRATE-k: Beraz, zuzenbidezkoaz kitaturik on iasaten ote du?
- POLO-k: Orrela dirudi.
- SOKRATE-k: Beraz, onuragarri ote dakiok?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, nik aieruz susmatzen dudana onura izaten ote du? Aren arima obe gertatzen ote da, zuzenbidez zigortatua denez gero?
- POLO-k: Egiaren antza du, beinik-bein.
- SOKRATE-k: Beraz, zuzenbidezkoaz kitatzen duenak arimako gaiztakeria kondu egiten ote du?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, gaitzik andiena kentzen ote du? Azter ezazu, onetara: gizon baten ontasun-antolaketan beste gaitzik ikusten ote duzu bear gorria baizik?
- POLO-k: Ez, bear gorria baizik.
- SOKRATE-k: Eta gorputzaren antolaketan zer? Ez aal zenituzke esango mazkalaldia, eritasuna, itxuskeria ta orrelakoak gaitzak direna?
- POLO-k: Nik neuk bai, beinik-bein.
- SOKRATE-k: Irizten ote duzu ariman nolabaiteko gaiztakeriarik badenik?
- POLO-k: Nola ez ba?
- SOKRATE-k: Gaiztakeria oriek zuzengabekeria, ez-iakitea, bildurra ta orrelakoak ez aal dituzu izentatzen?
- POLO-k: Erabat.
- SOKRATE-k: Beraz, aberastasunen, gorputzaren eta arimaren, iru zera izaki, iru gaiztakeria aipatzen ote duzu, bear gorria, eritasuna, zuzengabekeria, alegia?

- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Zein ote da utson arteko lotsagarrienik? Ez aal da zuzengabekeria, ta erabat esateko, arimaren gaiztakeria?
- POLO-k: Askozaz ere, beinik-bein.
- SOKRATE-k: Eta lotsagarrien badadi, baita txarrenik ere?
- POLO-k: Nolatarra esaten ote duzu, Sokrate?
- SOKRATE-k: Onetara: beti lotsagarrien den zerak, naiz atsekaberik, naiz kalterik, naiz batetik eta bestetik andienak aurkeztuz lotsagarrien izaten da, aurrekoetan aitortuetatik datorrenez.
- POLO-k: Erabat.
- SOKRATE-k: Ez aal dugu orain aitortu, zuzengabekeria ta arimaren orobateko gaiztakeria lotsagarrienik direla?
- POLO-k: Aitortu baitugu.
- SOKRATE-k: Ez aal da samingarrien izango, naiz saminez, naiz kaltez, naiz bataz eta bestez gainditurik lotsagarrienik izan ere?
- POLO-k: Ezin bestez.
- SOKRATE-k: Bear gorrian izatea ta eri izatea baino mingarriago ez aal da zuzengabe, neurrigabeko, bildurti ta ez-ikasi izatea?
- POLO-k: Nik neuk beinik-bein eztut uste, orietatik datorrenik beintzat, Sokrate.
- SOKRATE-k: Beraz, zerbaitetan gainez egiten du arimaren gaiztakeriak kalte anditan eta gaitz arrigarritan bezala besteak gainditurik, guzien arteko lotsagarrien izaten baita, saminetan beinik-bein eztenez gero, zure izpideak dakarren bezala.
- POLO-k: Agerian da.
- SOKRATE-k: Alabaina, benetan nonbait kalterik andienetan gainditzten duena beinik-bein, diranen arteko gaitzik andien izango litzateke.
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, zuzengabekeria, neurrigabekeria ta arimaren beste gaiztakeria diranen arteko gaitzik andienak ote dira?
- POLO-k: Ezagun da.

- SOKRATE-k: Bear gorria zein antzek kentzen ote du? Ez ote du dirularitzak kentzen?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Eta eritasuna zeinek? Ez ote du sendalaritzak?
- POLO-k: Noraezean.
- SOKRATE-k: Eta gaiztakeria ta zuzengabekeria zeinek? Irtenbiderik orretara ezpadezazu, begira ezazu onetara: gorputzetan eri direnak nora ta nortzuengana eramaten ote ditugu? Sendatzaileengana, Sokrate.
- POLO-k: Eta zuzengabekeriak eta neurrigabekeriak egiten dituztenak nora?
- POLO-k: Epaileengana esaten ote duzu?
- SOKRATE-k: Zuzenbidezkoaz kitatzeko?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, ez aal dute zuzenbidezko ezeinbat erabilita zigortatzen, zuzen zigortatzen dutenek?
- POLO-k: Agirian dago.
- SOKRATE-k: Beraz, dirularitzak bear gorria kendu egiten du, sendalaritzak, berriz, eritasuna ta zuzenbidezkoak neurrigabekeria ta zuzengabekeria.
- POLO-k: Orrela dirudi.
- SOKRATE-k: Eta orietako ederrena zein ote da?
- POLO-k: Zerena esaten ote duzu?
- SOKRATE-k: Dirularitza, sendatzailegintza, zuzenbidezkoa.
- POLO-k: Zuzenbidezkoa ta alde andiz izan ere, Sokrate.
- SOKRATE-k: Beraz, berorrek atseginik naiz onurarik, naiz biotatik andienak sortzen ote ditu, ederrenik denez gero?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, sendatzaileen menpean izatea atsegingarri ote da, ta sendatzaileen eskumenean direnak pozik egoten ote dira?
- POLO-k: Nik neuk eztut uste, beinik-bein.
- SOKRATE-k: Baina, onuragarri da beinik-bein: ez ote?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Gaitz andirik kentzen baita, oinazepean iraun eta sendatu, onuragarri dakioken bestean.
- POLO-k: Zalantzarik gabe.

- SOKRATE-k: Beraz, gorputzari buruz gizon bat zoriotsuen orrela izango ote litzateke sendatzaileen axolapean egonda, ala, eritasun-asierarik ere ez izanda?
- POLO-k: Ezagun da, eritasunik izateke.
- SOKRATE-k: Ezpailitzateke ori zorion izango, dirudienez, gaitzik kentzea alegia, asieratik ez artzea baino.
- POLO-k: Izan ere, orrelaxe da.
- SOKRATE-k: Zer? Naiz gorputzean, naiz ariman gaitzen bat daukaten biren artean nor ote da zorigaiztoago, sendatzaileen axolapean egon eta gaitza kentzen duena, ala, sendatzaile baten eskumenean izateke, gaitzak daukana? Sendatzailearen axolapean egoten eztena, nere iritzian.
- POLO-k: Sendatzailearen axolapean egoten eztena, nere iritzian.
- SOKRATE-k: Zuzenbidezkoaz kitatzeak ez aal du gaitzik andiena kentzen, gaiztakeria alegia?
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Zentzarazi nonbait eta zuzenago egiten baitu zuzenbidezkoak, gaiztakeriaren sendakuntza gertatuta.
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, zoriotsuenik ariman gaiztakeriarik eztaukana da, gaitzik andiena ori dela agertu zaigunez gero.
- POLO-k: Ezagun da.
- SOKRATE-k: Bigarren nonbait gaitza kendu duena.
- POLO-k: Orrela dirudi.
- SOKRATE-k: Eta ori akarrak onartu, gaitzetsi, ta zuzenbidezkoaz kitatzen dena izaten da.
- POLO-k: Bai.
- SOKRATE-k: Beraz, bizitzarterik txarrena zuzengabekeria euki ta kentzen ez tuenak eramaten du.
- POLO-k: Agerian dago.
- SOKRATE-k: Ori ez aal da gertatzen zuzengabekeriarik andienak egin eta zuzengabekeriarik andiena erabiliz, alderen alde bete dezakenarekin, akarrak onartu gabe, zigortatua izateke, ezta zuzenbidezkoaz kitatu gabe, zuk esaten duzun Arkelao-k, eta beste tiranu, iztun eta agintariak egiten duten bezala?
- POLO-k: Orrela dirudi.
- SOKRATE-k: Ori egiten dutenek gutxi gora beera onelakoturik iza-

ten dira : baldin norbaitek eritasunik andienak iota, sendatzaileei gorputzari buruzko utsen zuzenbidezkoaz kitatu gabe, ezta sendatzaileen axolapean lotu gabe, erre ta ebaki egingo dutenen bildurrez izango litzateke ori mingarri dela-ta, aur bat bezala. Ala, zuk ere ez aal duzu orrela uste?

POLO-k: Nik ere orixe uste dut beinik-bein.

SOKRATE-k: Ez iakin beinik-bein, dirudienez, nolakoak diren soina-ren osasuna ta adorea. Arrixkatzen baitira, orain aitortu ditugunetatik datorrenez, alakokeriarik egiten eta zuzenbidezkoari iges eginda, Polo, ain mingarria dela ikusiarren, onuragarri dakiokenaren aurrean itsuturik gelditzen dira ta gorputz eriarekin baino arima eriarekin batera bizi izatea zein zoritxarrekoago den ez iakinki, ain zuzen arima usteldu, zuzengabe ta dongearekin. Ori dela-ta, aaleginak ero egiten dituzte zuzenbidezkoaz kitatu gabe, gaitzik andiena ez kendu ainakoan; eta ontasunak eta adiskideak antolatzen dituzte, itz egiten sarkorren nola gerta daitezken. Baldin guk egiak aitortuak badauzkagu, Polo, elkarrizketa onetatik gure gainera datozenak ez aal dituzu sumatzen? Ala, elkarrekin ondorioka atera ditzagun nai aal duzu?

POLO-k: Zuk uste baduzu beinik-bein.

SOKRATE-k: Zuzengabekeria ta zuzengabekeriari egitea gaitzik andien gertatzen ote dira?

POLO-k: Agerian dago beinik-bein.

SOKRATE-k: Bestalde, ez aal zaigu argitan agertu, gaitz orretatik kendu egiten dela beinik-bein zuzenbidezkoaz kitatuta?

POLO-k: Daitekena da.

SOKRATE-k: Eta kitatu gabe beinik-bein gaitza iraunkor gertatzen dela?

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Beraz, gaitzen anditasunean bigarrena zuzengabekeriari egitea da; zuzengabekeriari eginda, berriz, zuzenbidezkoaz ez kitatzea gaitz guzien artean andien eta leenen gertatzen da, izan ere.

POLO-k: Orren antza du.

SOKRATE-k: Ez aal zen orretaz gure eztabaida, adiskide? Zuk benetan Arkelao zoriontsu egiten zenuen, zuzengabekeriari andienak egin eta zuzenbidezkoaz batere kitatu gabe; nik, berriz, alderantzekorik irizten nuen, naiz Arkelao-k, naiz gizonen arteko beste edonork zuzengabekeriari egin eta zuzenbidezkoaz kitatu gabe, beste gizonen artean zorigaiztokoan izatea irabazten duela, ta beti zorigaiztoagoa dela zuzengabekeriari egiten duena, zuzengabekeriari iasaten duena baino, ta zuzenbidezkoaz kitatzen eztena kitatzen duena baino. Ez aal zen orixe nik esaten nuena?

POLO-k: Bai.

SOKRATE-k: Ez aal dago argiro egiazturik egia esaten nuela?

POLO-k: Agerian dago. (Gorgia izeneko elkarrizketatik).

«H», ikako aditz-iokoetan

ZATARAIN'DARR ANBROSI'K

Oihanarte'ren "Atsotitzak eta Neurtitzak" liburuan Alvarez jaunak aditz-jokoetako "h" letra jatorrizkotzat jotzen du, eta ez agertzeari "fenomenu" esaten dio. Gertabide au argitzea da txosten onen asmoa.

Ona Alvarez'en itzak :

"54.—Auko zori gaitzari, eta onari aiduru (Egon hakio tinko gaitzari, eta itxaron ona. "Auko" hori egon berboaren sint. bat da: hagio hagoko, aoko. Beste anitzetan bezela, eta Oihanarte ez da honetan bakarra, bigarren pertsonaren agintze-berboetan "H" dalakoa galdu egi-ten da).

"669.—Sentona, agorrilan bidez bahoia, uk eureki ekitakoa. [Sentona itza gaizki dago: sentoña da; ikus RIEB 4-231. Z.].

"N669.—"uk", baina "bahoia". Bestetan "oha" dator (61, 349). Aldera daitezke bestalde, atsotiz hau eta lehenago ikusitakoak (175, 584, eta 606 bereziki).

"Fenomenu hau, lehen hedatuago, normala izan da zubereraz gaur arta. Aski da, gonbarazio baterako, "Kantika espiritualak" arakatzea (1846).

"Har ditzagun "Jujamentiaz" eta "Iferniaz" parteak (20-21-22 orr.).

"Eta hauek ditugu: ikaraturen iz, hark ezariren ai, egonen iz, orhit adi, abilana, desabüsa adi, izana, ikharadi, izan adin, erregla itzak, Jesús-ek har ezan.

"Baina baita hauek ere: lotsa izan bahiz gizonarentzako, zühür bahiz.

"Lafonek oharrarazia du lege hau berau Etxepare-ren eta Leizarraga-ren izkribuetan (Ikus "Homenaje", I, 440)".

Garbi dago Alvarez'ek emen ikusi duan "fenomenua" zearo alde-rantziz gertatu dala, ots, ikako aditz-jokoetan "H" sartuberria dala, eta jatorriz ots-aldatze-gertaera bat besterik ez tala; gaztelaniz esateko "fenómeno fonético". Aipatzen dituanak "ba-" dudenak baitira.

Au garbienik 175 esaeran agertzen zaigu:

175.—Gaitza, hunki ator, bakar bahator.

Lenengoan *ator*, bigarreanean bi *a* oiek bereizteko *b* bat. Fonetismo utsa.

Ezta ere egia, naiz Lafon'ek esana izan' "H"rik eza aginte-jokoetan bakarrik agertzen danekoa; edozein jokotan agertzen baita. Alvarez'ek N669 oarpenean aipatzen dituan amaiketarik lau agintezkoak dira, eta zazpi bestelakoak. Ona Uhlenbeck'ek ontaz idatzia:

"Oft stehen im frz. bask. formen mit und ohne *b* im anlaut neben einander, wodurch ein starkes schwanken in der orthografie verursacht wird. (...) Im allgemeinen wird auch das *b*-praefix der 2 pers. sing. bei Liz. und Dech. weggelassen. Ich verzeichne z. b. *au* (Mt. 9, 22), *augu* (Mt. 25, 37 sqq.), *autela* (Mt. 4, 6), *eraüen* (Mt. 25, 27), *aiz* (Mt. 3, 14, 8, 29, 14, 33), *ezaiz* (Mt. 2, 6, 5, 26, 5, 33), *incén* (Mc. 14, 67), *ezatza-yo* (Mt. 7, 3), *atzaye* (Mt. 13, 10), *athor* (Mt. 8, 9, 14, 29, 19, 21), *arreit* (Mt. 8, 22, 9, 9, 19, 21), *ezago* (Mt. 22, 16), *atza* (Mc. 14, 37), *adi* (Mt. 2, 20, 5, 24, 6, 6, 9, 5, 9, 6), *adin* (Mt. 8, 8), *ezadin* (Mt. 5, 25), *ezadinqát* (Mt. 4, 6), *oha* (Mt. 8, 9), *ohá* (Mt. 8, 13, 18, 15, Mc. 1, 44, 7, 29) (...) Aus Dech. notiere ich *ıçaneniz*, *ıçan*, *eçan* (*beguireçan*), *agoen*, *adi*. Eine ausnahme ist der imperativ *habil* (bei Dech. und Liz Mt. 4, 10, 5, 24, 8, 4, 9, 6, 20, 14, 21, 28, Lc. 5, 24 und öfters), während im indicativ deselben verbums das *b* bei Liz. fehlt (...). Nach *ba*, *bai* wahrt Liz. das personalpraefix *b-*, vgl. *bahau* (Mt. 5, 29), *baihu* (Mt. 5, 41), *bahaiz* (Mt. 4, 3, 4, 6, 14, 28), *baheça* (Mt. 5, 39), *bahadi* (Mt. 5, 23), *bahaquian* (Mt. 25, 26), u. s. w. So hat auch Dech. *babiz*".

Euskeraz esanik: Iparr-euskalkietan maiz agertzen dira asieran "H" duden formak eta eztudenak alkarren ondoan, eta ortatik idazkeran aldakuntza edo zabukada aundiak sortzen dira. Bigarren pertsona bakararren h-aurreizkia ere Lizarraga'k eta Etxepare'k arauz kendu egiten dute. Arauz kontra *habil* aginte-jokoa agertzen da, baiña gertatze-jokoetan aditz ori Lizarraga'k "H"rik gabe dama. *Ba* eta *bai* ondoren "H" nor-aurrizkiari eutsi egiten dio Lizarraga'k, eta Etxepare'k ere *babiz* badu.

Ain zuzen ere' Alvarez'ek Lafon'i ikasirik diona alderantziz.

Oihanarte'ren esaeretan ediren ditudanak bi sailletan banatu ditut:

A.—*aginte-jokodunak*:

7.—Ago Janikoareko, Jainko dukek hireki.

33.—Arraika ahuntzari, agozke kaparrari.

61.—Atsoa lehia duna hiltzera? Oha atzerrira bizitzera.

103.—Bizi adi ongi onareki, eta ezadila alborota gaxtoareki.

139.—Eneko, atzeko hi hartzari, nik demadan ihesari.

219.—Haur maite haz aite, eztenara hig' aite.

226.—Helgaitz herenagati ezaizela ordeinatzeaz axolati.

213.—Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz, eta xazko arnoaz, eta atxeterrak bihoaz.

235.—Hil adi, alaba aite.

240.—Hiri zionat Alaba, adi ezan Alabaizuna.

398.—Prestatzen ezadila ari, gero burhasik eskatu behar itzau-keonari.

438.—Zori onari irekok athea, eta gaitzari auko beha.

543.—Aiz kortes guziekin, eta nabasi gutirekin.

545.—Ardi bilha adi, nahiz bake: otsoak jan ezake.

584.—Erregal' adi eure doiareki, et' utzak nekatzera zoroa bere thusto nahiareki.

668.—Sendo nahi dituka begiak? Lot itzak eure erhiak.

606.—Gaxtoen artean ezin biziz bahabila, oha bertze mundu baten bilha.

677.—Urthearekila, iragan dateeno, kexa ezadila.

690.—Eskerrak iztadan, zeren neure haziendari on daritzadan.

725.—Auko bihardrano.

795.—Idi berari adondora akio.

872.—Begira adi oldar bat aserreti, bethi ere ixilezko etsai gordeti.

877.—Emazte: ave-mariak joitean, aiz edo etxean edo ber bidean.

B.—*aginte-joko ezitranak*:

33.—(agozke).

219.—(aite(ke)).

148.—Errak egia, urka aite.

149.—Erradak noreki biz' izan, nik hiri gero nolako izan.

340.—Noren ari aiz? Lo datzanaren.

394.—Otso larrurik jauntz eztezala, entzun nahi ezpaduk otsoa izala.

398.—(itzaukeonari).

424.—(ezezaguke).

450.—Uhalde, nola aiz hola aberastu kolpe batez?—Traidore izatez.

545.—(ezake).

585.—Ezagutu nahi ut hobeki, adiskidetu bano lehen hireki.

606.—(bahabila).

669.—(bahoa).

756.—Ez ezaguanak egar ezala (Ez hazaguanak, jasan hazala; "hazagu" = ezagutzen hau, sint.) [Alvarez'en oarpena].

854.—Minez ago ander-aurena, eztun sendi neskatoena.

859.—Eztezala desohora ahal iroena xora.

865.—Sentona : agorriletan bidez bahoa, uk eskuetan ekitakoa.

873.—Zor hueneti deus ere hon duk kornatu bat ere.

Zalgitze'ren esaeretan :

15.—Arraika ahuntzari, baihagozke gapharrari.

17.—Begira adi ur baret, nihaur niaitek lasterreti.

35.—Ago neskaxia ago; ukhanen dun haritz edo phago.

77.—Kidia kidiareki, habil euriareki.

149.—Domingo, egik emazte, atzi lo, berak iratzar hiro.

184.—Haur maite haz aite, ezten ara higa aite.

Bela'ren esaeretan :

29.—Hil adi, laida adi.

Tartas/Jenkoaren manü saindiak euskaraz :

4.—Aita eta ama ohora itzak, bizi izan lüzezki.

5.—Gizon hiltzale ezitz izanen obraz, ez borondatez.

6.—Lutsurios ezitz izanen gorpitez, ez konsentimentuz.

Leizarraga/Euskal protestantismoa zer zen :

Zergatik haren sortzetik bertan, heriora ethorten aiz haren bizi-
tzearen historia guzia utzirik? (101 a).

iezantzat, gentzantzat (103).

Bainan zer aditzen duk hik, *eskuinaz* eta mintzo aizen jarten ho-
rrez? (108).

idoki audana (123) Aizen orhoit Sabbath-egunaz... trabailaturen aiz
(130) ZERUETAN AIZENA... (155) zeruetan aizena (157).

eskatzen aizen ogiaz... eskatzen atzaio (161).

Etxepare :

Doc. Christ. : gomenda adi (6 bertsoa, len. lerroa) orhit adi (6, 3)
ioan adi (7, 1) norekila mintzo izan (7, 4) han agoen (7, 4) orhit adi
(8, 1) Elizara izanian (9, 1) nola izan (11, 2) ezaiala (19, 4) nola huyen
guardatu (30, 3) ezin aite (38, 2) nahi ezukeyena (38, 3).

Hamar manam. : izena (1, 2) ohora itzak bizi izan luzeki (1, 4).

Iudi. gen. : bethi oha galduya; gomenda adi.

Mossen Bernat Etx. kantuya : iakin bahu (1, 1) egon ahal intzan-
den (1, 2) gaztigari intzan, orai adi gaztiga (18, 1) albaheça escusa (18,
3) gaztiga iro ihaurk berze guzia (19, 1).

Contrapas : Heuscara ialgui adi, oni intzan (2, 1) habil egon ba-
hiz (6, 1).

Garbi dago euskal aditzean ikako jokoetan jatorriz "H"rik etzala,
eta geroztik ots-gertaera utsez sartuak dirala oraiñ agertzen diranak.

Oihanarte'ren esaeretan hi, hik, hire, hireki 14 aldiz agertzen dira
7, 139, 141, 149, 231, 232, 234, 239, 240, 313, 335, 553, 621), eta
eure, eurei, eureari eureki 20 aldiz (59, 141, 168, 169, 349, 402, 458,
569, 573, 574, 578, 584, 598, 669, 672, 697, 870, 874). 141 esaeran
biak alkarren ondoan ditugu : Erakuts itzatak eure lagunak, nik gero
hiri eure athunak.

Ipuin lako gertaerak

ZUBIKARAI, AUGUSTIN

Errikoidasuna maitatzen erakutsi eustan "don Manuel" Lekuona jaunari, gaur be, bere gazetetan egun bakar batzutan ikasle izan nintzanean sartu eustan errespetua gogoratzen dala.

GOGORRA GERTATU DA ZUEN ERRIAN!

Illuntzea zan. Bederatziak inguru nire lanetik etxeratu nitzanean. Maia gertu egoan. Aparia be bai.

Nire "etxekoandreak" galdetu eustan: Gura dozu perretxiko batzuk ipintea?

—Perretxikuak?

—Zure lagunak bialdu ditu.

—Zeiñek?

—Ez dozu igarten?

—Ipini bat edo bi.

—Zeu bakarrik zagoz aparitarako ala?

Ez neutsen begiratu zelako ziran. Neskatilleak ba daki gauetan ez naizena olako zale ta ez zitun asko ipini. Zazpi edo zortzi giñan mairako ta txapa gañean erreta bana inguru. Ala, bat edo bestek erdi bana, beste batzuk bat eta erdiña jan genduzan.

Apal ondoren, emaztea lagun nebala, itxas ertzera joan nitzan aize pixkat artzera.

Amaika ta erdiak inguruan etxeratu nitzan.

—Junanton ikusi dozu?

—Ez.

—Estu dabil.

—Zegaitik?

—Bera ikusi barik oera ez joateko.

—Zer dala ta?

—Perretxikuak ez ei dira onak.

—E?

—Ala diño.

Emaztea ta ni alkarri begira geratu giñan.

—Nun dagoz besteak?

—Or, otzaran, ugari.

Begiratu, aztertu, usaiña artu, bat edo beste ebagi, zeetu, esnerik ete euken estutu...

Onetan niardula emen dator Junanton. Estu, larri, izerdi likiñetan.

—Ederra egin dogu!

—Zer ba?

—Ikusi dozuz perretxikuak?

—Oraintxe nabil ikusten.

—Ba dakizu zer diñon Buesa'ren liburuak? Irakurri, irakurri...

—Ba!

—Zer ba?

—Euron antzerakoetzaz begira zer diñon.

—Antzerakoak?

—Ziur zagoz jan dozuezanak antzerako orreitako ez dirala? Begiratu ondo perretxiko oneri. Erastun antzeko au, tukur ondoa... Begiratu! Ederra egin dogu! Nortzuk jan dozuez?

—Danok. Batzuk erdika, baiña, ikutu beintzat, danok.

Ez nago ni perretxiko oneik...

—Ez zaitetz naastuten asi. Ni itsu-itsu nago liburuak diñon orreita-koak dirala.

—Ala izatekotan zerbait sentiduko gendun.

—Ori da ba ain zuzen euron kakua. Ezer igarri ez eta sei ordura, edo amaseira, edo iru egunetara... ilkorrak. Ori, ilkorrak.

—Ezin lei ori.

—Ezet? Ez dozu irakurten ala? Irakurri egizu ondo!

Ta ekin barrero liburu irakurteari.

—Artu egizu esne otza, esan eustan albotik emazteak, burdintzaliagaz katillu bat beteten ziardula.

—Zetarako?

—Ona izaten ei da esnea olakoetan.

—Beti da ona esnea. Dsanga dsanga edan neban katillu bete.

—Umiei emongo dautset?

—Laga egiezue baketan.

—Zerbait egin bearko da, jardetsi eban Junanton'ek. Baketan laga? Auxe da biarra! Nundik asi orain? Bilbora juatea izango da onena.

—Bilbora zetan?

—Ez daigun denporarik galdu.

—Bertsuak atarako dauskuez.

—Olgetako gogoia daukazu? Umorea gañera?

—Zeuk jan dozuz ala?

—Ez kezkatu nigaz.

—Ni baiño obeto zagoz ala dala.

—Ez nagizu berotu.

—Ni neu ez nua Bilbora.

—Ez zaitetz olako izan. Irakurri egizu, baiña, ondo. Ez zara konturatzen edo ez dozu konturatu nai. Baiña irakurri egizu, egin, ondo. Ez zara konturatzen edo ez dozu konturatu nai. Baiña irakurri.

—Nork daki kaltegarri diran?

—Oraindik orretan? Ene ba da! Alaba ebillan perretxikoak garbitzen. Eskerrak bera zerbait konturatu dan. Esan orduko artu dot liburu ta...

—Nai dana gertatu dedilla.

—Ezin orrela gelditu. Ez zara zu bakarrik. Zure emaztea...

—Ez, nik ez dot jan, erantzun eban emazteak.

—Umeak eta...

—Kaltegarri ba litzakez ez ete eben onezkero zerbait igarri eragingo?

—Gogoratu zer gertatu zan Berriatu'n, gogoratu Iruña'n jaoa... Ezin geinke onetan gelditu.

Igo giñan umien lo gelara, goian lo egiten ebelako. Danak lo, nasai, luze, arnas baketsuan, bat edo beste irribarrezka...

—Ikusten?

—Orrek ez dauka ze ikusirik. Ez dozu irakurri, ba, sei ordura edo...

Egia esateko, ez nitzan bildutzen. Nik be ez nitun ondo ezagutzen perretxiku arek, baiña ez neutsen kaltegarri itxurarik artzen. Ikusi liburu bat, beste bat...

—Mesedez, ez daigun denporarik galdu. Guazen bixkor Bilbora. Itxartu danak, eskatu kotxe bat.

—Gizona, aurrez... Bilbao baiño lenago be zerbait billatu leike. Ibili ta ibili zuritu nindun osagille batengana joatera.

—Erriko bat ikusi daigun, ba, lenengoz. Gure lagun bat, bera be zalea da ta.

* * *

Amabi ta erdiak inguruan ba guaz Junanton eta ni, eskuan perretxiko batzuk artuta, don Alberto'ren etxera. Giro ederra. Oraindik balkoietan jente asko gau giroaren atsegiñez.

Jo atea osagillearen etxean eta erantzunik ez. Jo barriro, ta barriro, gitxienez amar bidar. Zabaldue ez.

Bekoak sentidu ginduezan eta ausartu ziran atea zabaltzen.

—Zerbait gertaten yatzue?

—Ez da ainbesterako, baiña medikua ikusi nai genduke.

—Lo gogorreko da ta deitu egiozue barriro. Nai dozue telefonotik deitzea erantzuten ete daben? Edo eskoba kirtenagaz goia jotea obe izango da bere oe inguruan...

Borondate oberik ezin. Jo batetik eta bestetik eta alako baten be sentidu gendun norbait ba etorrara atera. Bera zan.

—Zein da?

—Gu.

—Zein?

—Ni, Junanton, alkatea, ta au, Austin.

—Zer dakartzue?

—Ara... beti ebillan au esaten Iruzubieta baiño goratxuago edo-zenbat perretxiku ikusten zirala autobustetik, andik igarokeran, piñu landara sail baten. Ta gaur ekarri dodaz.

—Zelako dira?

—Ara... Paketea zabaldue orduko asi zan medikua begira ta usaika.

—Zer dauke oneik?

—Ikusi Buesa'k zer diñon bere liburuan.

Liburua artu ta perretxikuei begiratu. Betaurrekoak kendu ta barriro liburu ta perretxikuei begiratu. Beste betaurreko batzuk jantzi ta obeto irakurri...

—Nik uste dot... Urte asko dira, berrogeitik gora. Sasoi aretan Gernikan bizi nitzala, Gernika'tik Bermeo bideko zugazti ertzean, antzerako perretxikuak urteten ebela ta nago ta jan egiten zituen an.

—Ez ziran bardiñak izango. Oneik... begiratu liburuari.

—Bai, liburuak bai. Ala ta be... Ba dirudie bardiñak dirala. Zeiñek jan ditu ba?

—Onek. Eta bere semeak. Seik beintzat.

—Noiz apaldu dozue?

—Bederatzietan.

—Ia ordubatak dira. Iru ordu igaro dira. Onezkero jan ondorenak estean dagoz. Urdailleko garbitasun bat alperriko litzake. Estea garbitzeko emen erreztasun gitxi daukagu... Baiña. Nik ez dot uste...

—Ara, ni baietzean nago. Ta zortzi ordura edo amaseira...

—Ala ba litz egiña eginda dago.

—E?

—Gitxi gitxiago beintzat. Ni, zuen tokian, ba-da ezpadan, nai beste karabaña edo gatz urez betetako zerbait artu ta oera joango nitzake. Besterik... Nik, nire ustez... esango neuke ez dirala diñozuzan lakoak.

—Irakurri dau ondo?

—Ba daukat ori baiño liburu zeatzegoen bat. Etorri, sartu liburu gelara. Sartu giñan. Don Alberto'k iru-lau astiñaldi emon bere liburuei ta ezin aurkitu ain zuzen be nai gendunik.

Bera be larritzen asi zan. Berez estua zan ta orain estuago. Zerbait billatu nai ta ezin. Ementxe egon bear leukie nai ta ez... baiña ez egozan an.

—Zein demoniño ibiltan ete da ba nire liburuekin? Ain zuzen be arañegun...

Gero ta urduriago nire laguna. Osagilleak baretu nai, ala-alako itxaropen aizeen bat sortu nai.

—Ez zaitzeze estutu. Okerrik ez daitela agertu, ni ezetzean nago, baiña len esanda lez, karabaña artu ta ezer ba litz... ikusiko genduke. Laga egidazue frantzesezko liburu ori be ia zerbait ataraten dogun, premiña ba litz be.

Osagillearen etxetik nirera ba dagoz irureun bat metro. Barriro kezka ta izerdiak gorputza dardaratu ta gainduteko aiña.

—Ez nago nirean. Ez nagó. Bilbora joan bear gara, asi yatan Junanton.

—Ez dozu entzun zer esan daben medikuak?

—Nik dakidana ta zuk ukatu ezin zeinkena auxe da. Sei edo zortzi ordura traidoreak dirala perretxiku oneik.

Alkatea zan nire laguna ta Bizkaiko diputadua.

Agintaritzaren ardurak be zirikatu eban.

—Telefonotik itz egitera nua.

—Nora?

—Bilbora.

—Zeñeri?

—Diputasiñoko teknikoen bateri...

Asi izenak gogoratu nairik eta ezin. Idazkari nagusiari deitzea onena.

Bat batean, telefonistei aguro ibilteko eskatuz, deika asi zan.

—Emen, Junanton, Ondarroa'ko alkatea. Al dan ariñen erabagi bear dogu... Zoritxarreko gertaera bat, famili oso bat, zortzi lagun, perretxikoekin gaiztotuta, pozoituta... Buesa'k diñonez, iru lau ordu barru, zortzi ordura edo, ilkorrak dira perretxiko orreik. Bai, ilkorrak. Zein da bioloji gaietan or aurrean dabilena?

—Ez egiozu esan ainbesterik, gizon, albotik nik. Bildur zareala esatea, ondo da, dudako ete diran esatea, baiña gaitz eginda nor dago ba?, nik.

—Ixildu zu, garratz berak. Eta ekin barrero Bilbogaz. Ezin leike ezer egin? Nik baiña errezago izango dozu ortik norbai billatzea ta mesede, Jaungoikuagaitik, ia zerbait jakiten dogun. Argitasun edo nasaitasun pixkat... Laster arte. Emen egongo naz. Deitu batari edo besteari... zeuk dakizu, bai, baiña bixkor ibili.

Orduak aurrera ta gero ta larriago.

—Eskatu kotxe bat.

—Norako?

—Itxartu egizuz umeak, jantzi ta goazen Bilbora.

—Ez zagoz ondo!

—Ez daigun denporarik galdu.

—Ara, zortzi ordu ba dira, denpora ba daukagu gero be umeak eroateko ta ainbestetan alegintzen ba zara, biok joango gara lenengo.

Nire emazteak eta bereak, berea be nire etxera etorrita egoalako, ondo artu eben nire erantzuna.

Taxi bateri deitu ta bera etorri orduko Bilbotik deika ziran. Teknikoa erbestean egoala, baiña bere laguntzallearen kontsejuz, klinikaren batera joatea izango zala bidezkoena, perretxikuen analisisak-eta egin baiña len gora-berarik gertatekotan, leenago igaroko ziralako.

—Klinikaren batera? Basurto'ko ospitalera joatea ez ete obe, an geiago ikusiko eben-eta?, esan neban nik.

—Errazoa. Guazen edonora, denporarik galdu barik.

Sartu giñan taxisean.

Berez, irudimenaren indarrez-edo, sarri dakit janaria errez urdailletik kanporatzen.

Markiña baiña len, kotxeko kristala eratsi ta asi nitzan jaurtiten.

—Ez bildurtu, ez bildurtu onegaitik, esan neutsan. Borondatez dagoit au, iñoiz gertatzen yatan eran.

Baiña a ikusi ta nire laguna ez egoan nire esanak sinistuteko. Iru-zubietatik gora giñoiazala, txoferrari agindu eutsan: gelditu, gelditu emen. Jaurti argia, al dozun eran eta al zeinken bestean, baster orretara.

Ain zuzen be perretxikoak egozan tokiaren aurrez aurre gengoan. Baldarki, itsu-mustuan kotxetik urten, munan gora iru-lau metro txirris-tadaka igaro nai, oker edo makur al zan eran igo, ta emen dator esku-kada perretxikogaz. Eta len baiña kezka geiagoz:

—Egingo neuke Diputasiñoiko txoferrak, etxeratzekoan, emendik igarotean, batu egin dituala berak be, len baiña askoz gitxiako dagoz-ta. Nun billatu orain bera? Berak be Bilbora eroan eta jan ba ditu? Auxe da eguna!

Orrelaxe, gero ta irudimen illunagoak artegatzen ebela, eldu giñan Bilbora.

Erdi olgeta, erdi barrez, baiña barruko bildurra gaindu eziñik. Fede edo itxaropen batek arintzen ninduan. Gaurko teknikaz, ilkorrak izan da be, zerbait lortuko da beintzat, niñuan. Origaitik ez nitzan ainbeste larritzen.

Bilbora eldu ta zuzen Basurtora. Taxis'ari atean gelditu eragin ondoren, sartu giñan Ospitalean. Ez dakit zein atetatik. Kobaltoko bonba egoan tokira zuzen-zuzen. An egoan gizon bat mai gañean ta iru-lau lagun bere inguruan.

Pratikante bateri, ikusi orduko:

—Nun dago osagilleren bat?

—Zetarako?

—Perretxikuak gaitz eginda gatoz. Ta okerrena: Ondarroan gertatu dira beste sei.

Osagillea, gabetan arduradun egoten diranetakoa, itxuraz, lo egoan. Joan zan gora praktikantea. Jezarri giñan. Jezarri? Ormaetako agiri

ta paper guztiak irakurtera urreratzen zan Junanton urduri, egon eziñik. Minituak ordu beretzat eta niretzat be bai. Bost-sei igaro orduko, asi zan :

—Ba dator osagillea edo ez? Erantzunik ez artzean, didarka: Jakin egizue Ondarroa'ko alkatea naizala eta diputadua...

Beste iru-lau minutu ondoren agertu zan osagille gazte bat, begietako makarrak kentzen; oetik edo sofaren batetik etorran igarten zanez.

Pratikanteagaz jardunean, ixil-mixilka, unetxo bat igaro ondoren, guri begira ots egin eban:

Nortzuk dira emen perretxikoak kalte egindakoak?

Oso-osoan, soldaduzkan iru oin aurrera egin eta tinkotzen dan eran, bete-betea, lerdan-lerdan aurreratu zan Junanton eta bat batez:

Ni... ta au, ta onen semeak, beste bost edo sei.

—Ta? Zer euki dozue?

—Orainarte ezer ez.

—Ezer ez? Zelan dakizue ba kalte eginda zagozena?

—Perretxiko batzuk jan doguz, txarrik pentsatu barik, eta begira liburu onek zer diñon.

Osagillea irakurten asi zan. Bein eta barrero, eta barrero... Igarten yakon ez ekiala ezer gai ontaz, edo ta ez ekiala zer esan. Alako baten, zorrotz:

Nai dabena esan daiala liburu onek edo bere egilleak. Kaltegarriak izan ba lira, nai ta ez, zerbait igarri bearko zenduen.

Aizerik euki dozue?

—Ez.

—Larritasunik?

—Ez.

—Miñik?

—Gitxiago.

—Orzikararik! Izerdi otz eta likiñik?

—Ez.

—Jaurti dozue?

—Nik bai, baiña egia esateko ba daukat ortarako erreztasuna eta...

Osagilleak, bete-betea: Nik ezin nei ezer egin.

—Ezet?

—Geiago barik, ez.

Junanton gero ta estuago. Baiña irakurri... Sei ordura edo ama-seira...

—Nik gauza bat dakit, oiñarri lez. Kaltegarriak izan ezkeru zuen urdaillak zerbait igarriko ebela iru ordu aurretik, zerbait beintzat...

—Liburuak diñona egia balitz? Zeiñek erantzun bearko leuke? Zeiñengan litzakez egurrak?

Osagillea be oldozkor geratu zan Junanton'en urteera onegaz. Irakurri barrero...

—Lengoan nago. Nik egin neikena auxe da: Gura ba dozue... orri bat beteko dot eta sartu gaixotegiko gela batera ta itxaron oiean miñak edo zerbaitek jo arte.

—Miñak asi arte onela egon? Eta bitartean?

Alkarri begira geratu giñan Junanton eta ni. Seiña egiteko zai dagozan andrak ba giñateke be..., esan neutsan erdi burlaz baiña mintsu. Zai egon bear ba da naiago dot taxisean itxaron, oiean baiño. An ibili be egin geinke edo beste nunbaitera jo.

—Telefonotik itz egin neike?, asi zan Junanton.

—Or dozue.

—Listiña?

—Aurrean.

Izen bat billatu ta deitu... Emen Ondarroako alkatea eta diputadua...

Baiña itz egin bear ebana edo berak aukeratzen ebana, udaldiko oporretan.

Aren ordekoari deitu. Bardin. Irugarren bateri... ta a be ez etxean. Gero ta beroago.

—Ezin leike au. Danak kartzelan sartzea merezi leuke. Nai ta ez egon bearko dau emen, Bilbon, goizetan merkatuko igaliak eta janariak ikusi bearko dituana.

—Ez dakizue nor izan leiken bera?

Osagilleak sorbaldak jaso.

Andik edo emendik, batari deitu ta besteari ots, jakin gendun nor zan ortarako egoana. Bilbo'ko albaitero (beterinario) nausia.

Ordurako goizeko laurak ziran. Baiña ardurarik ez. Ots berari telefonotik. Emen Ondarroako alkatea eta diputadua. Eragin betiko leloari.

Beste alderdian ez egoan albaiterua bera, semea baiño. Zertzeladak eskatu zitun, aitagaz unetxo bat egin ondoren. Nun batutakoak ziran, zelakoak, ze koloreko...

—Aitak diño, orrelakoak izan ezkeru, ez dirala ain kaltegarri,

baiña orrela, geiagoko barik, erantzun zeatz bat emotea ez dala errez.

—Ez gindukez artuko?

—Orain? Egon, egon...

—Mesedez! Ondarroako alkatearen partez...

—Baietz. Etorri zaitzeze. Kaleko atea itxita egongo da. Jo tirriña eta neu jatsiko naz.

Osagillea be nasaitu zan pixkat, ardurea beste batek artzean.

—Atsegin artuko neuke gora-bera au zetan geratzen dan jakitean.

—Etorriko gara zer diñon jakin eraziten.

Laster giñan Tivoli kalean gure taxisagaz. Esanda lez gertatu zan dana.

Sartu giñan etxean. Junanton'ek ez eukazan perretxikoak aztuta lagateko. Eroan eban esku bete. Oñetakoak ez genduzan egoki ez txukun alfonbra artean ibilteko, batez be berak, Iruzubieta aldeko basak oraindik aldian erabillazalako.

Gela zabal batera eroan ginduzan. Gu an laga ta bitartean semea batetik bestera igarten gendun, aitaren esanak beteten, iru-lau aldiz baten sartu ta bestean urteten.

Orrek geiago estutzen eban Junanton.

—Orrenbeste joan etorri... emen gauza onik ez dago, iñoan berak, mara-mara jausten yakon izerdia kendu eziñik.

Alako baten emen dator albaitea bera, aita, pijama jantzian. Goitik bera begiratu euskun. Begiratu baita bere eskuetan ekarrean perretxikoei. Ixilik. Begiratu barrero ta buruari eragin. Begiekin itz egiten euskun zorrotz.

—Nor da oneik jan dituana?

—Nik bat gordiñik, Junanton'ek. Eta onek, eta bere semeak.

Bere osotasunak, irribarre errukitsu bat atara eutsan albaiteoari.

—Ez zaitzeze bildurtu. Ez dira pozoinduak.

—Benetan?

—Oneik batu dozuezan lekuan simaur ugari egongo zan?

—Bai.

—Barrengorriak dira. Ez dabe kolorerik artu ain zuzen be euria egin orduko bizi-bizi agertu diralako. Baiña ez dauke dudarik...

Iru-lau berba egin genduzan egi ta guzur. Eskerrak emoteko gogorapen barik urten giñan bere etxetik.

Barrero, aginduta lez, Basurto'ra. An egoan lengo osagillea, erdi lo.

—Ta?

—Jaunari eskerrak...

Ez euskun jarraitzen be laga. Eskillaretan gora asi zan gure jardunak eta esanak entzuteko asti ta gogo barik eta gure destaiñez.

Gaur oraindik, au gogoratzean, sarri uste izaten dot osagille aren-tzat adar jotzalle bi izan giñala.

Urten giñan kalera.

—Ondarroa'ra deituko dogu?

Baiña telefono tokiak itxita billatu genduzan.

Diputasiño etxearen aurretik igarokeran gelditu giñan. Tirriña jo orduko an etorran gau-zaindaria. Agurtzeko astirik be ez. Bera asi yakun illeta joten:

Ederra jaso da Ondarroa'n! Famili gaixua! Kartzelan sartzea me-rezi leuke beste ezaupide barik orrelako perretxikoak batzen dituenak. Gogorra da gero ori!

—Ez baiña, Jaunari eskerrak... ta emon areri be lengoei lako agerpena.

Ez giñan telefonoagaz gogoratu.

Aurrera. Kaletan zear ez gendun ezer ikusi. Kafetetxerik be ez zabalik. Emendik itz egitekotan, andik egingo gendulakoan, eldu giñan gure errira eguna argitzen asita gero.

Lo egozan etxean umeak. Emaztea ez.

—Ze barri dakartzue?

—Jaunari eskerrak... Eta emazteari be soltatu geuntsan gure diskoa.

Iñori ez aitatzekotan geratu giñan.

Zortziretan lanean nengoan, ezer gertatu ez ba litz lez, nire den-datxoan.

Zortzi ta erdiak inguruan emen datorkit bezeroa otzara bete perretxikokin.

—Gure zelaian egunotan urtenda egozan eta esan gendun bart: Arek jango lituzke ba oneik pozik be. Bitsa erabilliko dau arek ain ederrak ikustean!

Gure gabeko joan etorriko bardin bardiñak ziran.

Iribarre gozo bat egin neutsan Elordi'ko etxeoandre zabalari ta nire artean: Ez da nekeza adarra jotea!

Illuntze ordurako irribarreak eta zirikadak igarri nituzan adiskide batzuen artean.

Gizonak lapiko txiki gara izan be.

.....

Zer jazo zan?

Bilbaora juatean, autobusetik ikusten nituzan gure perretxikoak Iruzubieta aldean, errezkada luzean. Baiña autobusik ez da an gelditzen. Eta alkateari esan neutsan: Astero, bein edo birritan, Bilbao'ra joaten zara Diputasiñoiko kotxean. Antxe daukazuz, erraz batzeko eran, itxuraz perretxiko ederrak. Ta arek, zale amorratua zalako, batu ta batu otzara andi bete.

Arek ekarriak zirala-ta, ezagutzen be onentzat etsiten zan lez, ni, fede onean, begiratzan be ez nitzan alegindu.

Gero gerokuak.

Ni pekatari, bera pekatari, or konpon.

Alabak esanda liburua irakurri ebanean, bost sei il kaja, gure erriko kale-kurutzean gora, bata bestearen ondoren ikusten asi ei zan nire odolaren eta ondorengoan ondamendi. Orrek estutu eta itsutu.

Eta nik, Bilbo'ra joan ez ba giña, zoroetxan batera bera eroan bearrean ikusten neban, buruak eta kirioak, nerbioak gainduta.

Orra egia.

Aste barru ortan, sekula ez da, bost-sei lagunek ainbat perretxiko bialdu eusteazan. Bildurra kendu eragin nai? To!

GANTZERUAK IZAN DIRA

Ez Madrid'en, ez Bilbao'n eta ez Donosti'n.

Gure erritxoan, gure kaletan, gaur bertan. Ondarroa'n.

Txomin eta Peru ezagutzen?

Ba, biak, betiko antzera, eguerdi ondorengo lo apurra egin ondoren, aize pixkat artuz, ibai ertzetik ebiltzan, Arrigorriako bidean, txalupa barriei begira, bataren trebetasuna eta bestearen irabaziak kontu-kontari.

Bide barrian gora, astirotsu, Antzosolo inguruan, kotxe dotore bat, klaxona jotzen. Geratuko ete? Barrutik, eskuei eragiten, agurka, ezau-pide agiriak erakusten, iru gizon. Ez gazte ta ez zaar. Sasoi-sasoiko.

—Ezagutzen dozuz, ala, Txomin?

—Nik? Nundik? Zeuri deituko dautzue.

—Niri?

—Guk ez daukagu kanpua inor.

—Guretarrik be ez dago ba.

—Gerrateko ezagunen bat edo...

—Orreik? Gerratean ume izango ziran oraindik. Bizar askorik ez eben eukiko.

Kotxea geratu, jatsi ta emen dator bat, Peru'ri eskua luzatzen, lepoan jo, besarkatu ta kaixo osaba, kaixo osabaka!

—Osaba ni? Ez.

—Ez zara gogoratuten?

—Osaba ni? Zeiñena?

—Ez zara akordaten erbestean zein senide daukazun?

—Nik?

—Gogoratu ez? Zelan esan leike ori?

—Benetan, ez naiz konturatzen.

—Baiña osaba... nai ta ez bururatu bear.

—Zeuk esaten ez ba dozu...

—Nik esan? Ia, gogoratu osaba. Poztuko zara. Ba neukan gogua alkar ikusteko.

—Nik ez dakit ba.

—Itsu-mustuan artu zaitut eta...

—Ez daustazu sinistu naiko, baiña nik...

—Ba dakit sasoi baten asko maite ziñela, gerratek zerbait aaztuta bizita be. Jakiña, gerrateko gora-berak... Ia zenbat senide aldebanatu zituen..

—Orrek emoten dautsuzan zertzeladakin ezagutzen zaitula dirudi Peru, albotik Txomin'ek. Au zuentarren bat izango da.

—Besteren bategaz naastuta ez ba dabil...

—Besterik ez, osaba, zeu baiño... Nasaitu, egin gogoeta pixkat.

Alako baten, Espiritu Santuaren aizeak ikututa lez, gogoratu zan Peru bere arreba Idurre iñoiz erbestean ibilia zala ta bear ba da aren ondorengoan bat izan eikeala, edo...

—Nik ez dakit ba. Gure Idurre ibili zan aldiren baten ortik zear, baiña arek inor eukanik be...

—Ara ba! Ikusten? Gogoratu zara zeuen Idurregatz? Ori, ba-ori.

- Ene! Ta Idurre'ren norbait zara?
 —Itxurarik ez al daukat?
 —Ondo ondo begiratu ezkerero...
 —Ezetz?
 —Urte asko dira ikusi gendula be ta!
 —Danak esaten dauste ama berbera naizela.
 —Bai, esan lei zerbait. Itxura pixkat, ortara jarri ezkerero...
 —Bekokia ta muturra beinik bein zuentarrak.
 —Ez da errez igarten. Nik beintzat ondo tximurtuta ta baltzituta daukadaz.
 —Ba, ba, osaba, esakerak be gure amarenak daukazuz.
 —Sasoia zan konturatzen asteko!
 Ta barriro besarkatu, musuak emon ta alkarri lepokadaka estutu, eta...
 Txomin'ek, ezagutu ziralata, senitarteko gauzetan zetan sartu ez eukalata, berak be bostekoa estutu ta an laga zitun.
 Kotxeko beste biak be urreratu yakoezan.
 —Etxekuak? Ez doguz oraindik aitatu be. Etxean danak ondo?
 —Ondo, ondo.
 —Zenbat senide daukadaz?
 —Batek ba daki ori. Kata-kumeak aiña. Gu ugariak gara izan be ta!
 —Eta zuek?
 —Neu bakarrik. Zetarako geiago?
 —Ondo biziteko, ori obe.
 —Senideak osasunez egongo dira, ez?
 —Estul batzuk gora bera. Jakiña, beti estu.
 —Estu?
 —Negu baltza euki dogu ta!
 —Arrain gitxi?
 —Arrain eta guzti be ez da errez danak zaintzen. Ogi utsetan be ba dakizu zenbat bear dan? Amabi gara gero!
 —Amabi? Danak ezagutzen be...
 —Gaur ez beintzat. Baiña nai dozuz batzuk ezagutu?
 —Amona bizi da?
 —Erdi bizi. Igar igarra dago koitadea.
 —Naiko neuke ezagutu. Bein onera eldu ezkerero...

- An dago etxean. Beti itxaroten.
 —Zeñeri?
 —Bere orduari. Ia, aren kosteria erdi amaitu zan azpaldi.
 —Orrela euki amona? Gure ama bizi izan ba litz, beste amets bat sartuko eutsan.
 —Bera ez zan ba il?
 —Ez egizu aitatu be emen amaren konturik. Min bizia barriztuten yat gogoratu ta batera.
 —Orixe ba. A be ez zan emen gatzetako geratu.
 —Urruti daukazue etxea?
 —Ez. Iru minutu inguru oiñez. Laster.
 —Zeuona da?
 —Gurea? Esatea be! Erriko beartsuenak, ezpai barik geu izan eta etxe jaube?
 Orelaxe, kontu kontari, ba duaz etxera.
 Etxe utsa. Agureak eta mutillak nausi diranetako etxe giroa barruan.
 Arasa txiki bat sukaldean ta tresnak edozelan pillotu ta lagata. Txukuntasunik ez. Iru-lau aulki sukalde baltz eta illun baten aurrean eta mai zatar bat, lixiba urez erdi jana. Mai onduan exerita, bere bostean errezaten eta bere ixil-mixillean kontu kontari, bere arrenkura ta bizitzako gogoetak ezpan artean erabilten, andratxo argal jausi bat. Oker lotutako buruko zapiagaz ulea ondo batu barik, ezpanak urdin, ia ia ardau koloreko, begiak erre-erre, bekoki tximur, arpegi latz eta baltz... Nok zaindu ez dauken amonatxo zaar askoren antzeko.
 Ikaratu egin zan amonatxoa ainbeste gizon ikustean.
 —Ba dakizu, ama, zein dakartsudan?
 —Ene! Ainbeste gizon gure etxe baldras onetara?
 —Ez bildurtu, ama. Ezetz igarri zein dagon zure aurrean?
 —Neuri azkenak emoteko osagillea ez da izango, kontixu.
 —Bai zera be!
 —Batel zaarra dala ta zeuk neuri nasterik ez ekarri, e? Or geratuko da batelori ta konponduko zarie nai dozuen lez. Orain ez ipini niri asarrerik.
 —Ez, ama, ez. Zein dala? Ez da olako. Begiratu egiozu, begiratu ondo, ia igarten dautsazun.
 —Nik? Erdi ezagutu be ez zaituet zeuok egiten eta kanpotarrak eza-

gutu nik? Añatzen be ez nitzan egon, dakizun lez. Sekula emendik urten be ez.

—Ez dautsazu bekokian edo muturrean iñoren itxurarik artzen?

—Ba dakizu zuk ikusi be osta-osta egiten dodala orretarako.

—Ezin igarri be nor izan leiken?

—Nigaitik...

—Ez zara gogoratuten Idurregaz?

—Gogoratu ez? Gogoratuko ez naiz ba?

—Ba, aren semea. Zure illoba.

—E? Gure Idurre ezkondata egoan ala? Sekula paperik be ez eban orretarako eskatu.

—Amona, gaur paperak sobre dagoz. Erri txikietako gauza eta estukeriak dira orreik.

—Semerik eukanik be ez genkien-ta! Ai, ai, ai! Zelan ibili ete zan a! Baiña, txo-txo, ekatzu laztan eder bat. Ekatzu... Eta laztan eta musu, besarkada ta igortzi, barriro alkarren leian.

Etxean sartu orduko beste lagunak zirkulo guztiak ikusi zituezan. Kuadro bateri ikutu, ate orde zegoan izara ta zapiei eragin, zeenak jandako mai eta komoda zatarrei bultz edo ten eta kajoiak erdi zabaldu, ontzi ta poturik bakanenari be gainekoa jaso ta susmoa artu... Dan dana, ezer egingo ez ba eben lez, iñor konturatuteko aitzakirik eta biderik emon barik.

Gela illun bateko zapia be zearkatu eben ta norbait arnas zabalean lo egoala igarri ebenean barriro itxi.

Sukalderatu ziran barriro. Eta amonaren aurrean musu ta musu emon lurrunez eta euli kakaz betetako San Antonioren kuadro illunari; laztan eta laztan errosario andi batetik dindilizka egoan egurrezko kurutzeari.

Amonatxoak ikusi zitun.

—Ai oneik fede andiko gizonak! Ikusten da, ikusten da. Gaur ez dago orrelako asko.

—Guk bai, guk San Antoniogan sinismen itsua dogu.

—Bai guk be.

—Ta beste kuadro au? Zein da berau?

—Ori San Ramon Nonnato da. Ia ba, amabi seme eukiteko...

—Parkatu amona, baiña amabi semek ao asko daukez ta begi

geiegi. Oneri ez, oneri ez dautsagu musurik emongo. Au munduaren etsaia da, oneri buelta emongo dautsagu.

Esan eta egin, san Ramon gixajua, erdi-barrezka, erdi-irrika, ormarra begira laga eben.

Barriro ekin San Antonioren atzamarrekaz ikutu ta atzamarrak ezpantara eroanez, zarataz beteriko musuak emon eta ora pro nobis-ka.

—Zeintzuk dira ain fede oneko lagunok?

—Oneik? Eun edo tela egille onak dira eurok.

—Bai, gaur dirua egiteko fabrikantea izatea baiña obarik ez dago. Guk, gure denporetan, lau txori-txikigaitik egin doguzan lanak, ondo aberastu ditue orrelakoak.

—Amonatxo, guk be gure buru-austeak eukiten doguz. Ez txikiak be, erantzun eban tartetik batek.

—Diruarenak ez beñik-bein.

—Ezet? Egiten dana saltzen ez ba da...

—Gaur be zetan urten dogula uste dozu?

—Domekan? Ibilten segurutik. Basterrak ikusten.

—Ibili ta saltzen.

—Eunak saltzen?

—Salduko ba litz gaitz erdi. Kostu erdian emon bear sarri, gauzak kittutu be ez egiteko eran.

—Bai, osaba, diru apurrik euki ezkerro, seguru egon ganga ederra egingo zendukela gaur. Naiku da gainera nire senideak zariela jakitea. Olakorik! Zeinek uste izango eban ainbesterik?

—Nundik atara guk dirua?

—Ez illeta asko jo. Geiegirik ez beintzat.

—Illeta jo ez aurten euki dogun negu ondoren?

—Ba, ba... apurtxo bat ondo dago, baiña ainbeste be...

—Ai txotxo, zuk ez dakizu emengo barri. Gure Idurre'k, zure amak, arek bai. Arek ondo ekian, bera be beartsu jaijo ta amaika igaro bear izan ebalako.

—Osaba, pixkat sinistu leikela, baiña...

—Pixkat? Agirian dagoz emen ondasunak.

—Egia, nik oneikin urtetan dodanean, ez dot sekula diru premiñarik eukiten eta ez dakit dirurik be artzen aldian, izara batzuk saldu ondoren gastuetarako laster egiten dogulako. Baiña seguru egon, ezer erosten ba dautsezu, auzo guztia enbidiz beteko dozula.

—Ez diñot ezetzik. Baiña dirua kaku.

—Ikusten zelako izarak? Nun daukazuz olako izara zuri ederrak bost ogerlekotan?

—Bost ogerlekotan? Zelakuak dira eurok?, amonatxoak.

Izara zabaldu, esku artean erabili ta...

—Bost ogerleko benetan?

—Bai, bai. Emen ba daukazuez ala?

—Emen? Emen ez. Orixe ez. Emengo dendariak aberastuta dagoz.

—Ondo egiten dabe.

—Bai gure lepotik ez ba litz. Amaika lapurreta egiten dabe orreik.

—Alaxe da. Emen gitxienez ogei ogerleko, ogeta-amar ez ba dira.

Amonatxoa gero ta arduratsuago ta zaletsuago izarei begira.

—Luzeak dira.

—Bai, bai, metro bi.

—Ta zabalak.

—Guk ez dakigu laburrik egiten.

—Gaixo aldiren baterako be berebizikoak.

—Ba, amona... oraintxe baiño aukera obarik ez.

—Bai iñundik al ba neu. Ez daukazu ogeiko bat, Peru?

—Lenguak be artzeko daukadaz oraindik.

—Antxoa sasoiari zerbait geitxuagogaz be ordainduko neutzuke ba.

—Zetarako izarak?

—Okasiño bat egonda be... Zeuk beste zerbait erosi. Soiñeko bat be elitzakezu txarto etorriko.

Ats eta ats buruari Peru'k.

—Odoleko gaixoa daukazu, osaba. Nire ama be olakoxea zan. Beti illeta jöten.

—Ara, egi egia esango dautsut. Ba daukadaz zortzireun peseta, aur-tengo neguan lau bost aldara eragiñak gordeta ta ezin eskutatuta, oneik billatu ez egiezan be.

—Zortzireun? Ez zara damutuko eurok gastateagaz. Ziur egon. Guk zortzireunegaz, edozein tokitan lau millagaz baiño geiago emongo dautsugu. Kontu atara. Bost ogerleko balio ba dabe izarak, dendariak, euren aldetik, zortzi edo amar edo amabost irabazi naiko ditue. Nik bost ogerleko balio dabela esan dot, zerbait esateagaitik, ori fabrikako kostua be ez dalako, len esan dogun lez ataratearren, edo orain, senitarteko mesede bat lez.

Zenbat naiko zendukez? Lau zeuretzako ta lau amarentzat?

—Ba... Olako aukera ba dago...

Ta gure Peru gaixoa, oso osorik bere zortzireun pesetan billa, ainbeste buruauste ta nekez, premiña esturen baterako eskutatuta ta gordetako diruen billa.

—Soiñekoa egiteko kortea be zeuk nai aiñakoa aukeratuko dautsugu.

—Zetarako, baiña, emendik aurrera traje barria?

—Ez bildurtu. Bizi guztian gogoratuko zara zure illobeagaz.

—Guk be, berau gugaz dabillalako, mesede ori egin nai dautsugu. Kolore argia atsegin?

—Ez. Gure urtetan eta bein egiteko...

—Ara. Auxe egokia. Ez gara ibiliko emen ijitoen antzera emon eta kendu. Ikusi dogu benetan be negu gordiña igaro dozuela ta diruz me zabizela. Urrengo baten egingo dogu beste traturen bat. Gaur, soiñeko batek, merkenak be, iru edo lau milla peseta balio dabena ba dakizu. Guk korte au seireun pesetatan lagako dautsugu. Dakigulako geiagorik ez daukazula. Saltzea baiño erregalu egitea geiago da. Tori. Kotak kenduta ibiliko zara soiñekoa egin ondoren. Edonora joan eta ibilteko lotsarik ez dozu eukiko. Edozein ezkontza, edozein jai, edozein joan etorri...

Itzik egiteko tarterik be ez eban artu Peru'k. Emon zituzan bere lizundutako diruak.

—Izarak?

—Ekarri egizuz kotxetik.

—Ez zara gogoratuten azkenak len emon doguzana?

—Kontxo! Alaxe da benetan. Ez nitzan gogoratzen. Zer egin geinke orain? Ez kezkatu. Biar bertan bialduko dautsuguz. Biar illuntzerako emen eukiko dozuez.

—Bai osaba, nasai egon. Gure itza itza izaten da.

Berandu da ta ba guaz arin. Oraindik bide asko daukagu. Konturatu barik illuntzen da.

—Etxerako bialtzeko ez daukazu zerbait, Peru?, amonatxoak.

—Zer euki? Gurean ez.

—Ez dakit ba. Bein ezagutu illoba ta bertan esku utzik bialtzea be.

—Eskutukoren bat zeuk ez ba daukazu...

—Nik? Nundik? Min apurra, penatxoa eukiko neuke beste barik bialduta. Etxerako geure zerbait, etxeko zerbait...

—Ez kezkatu, amonatxo.

—Ain zuzen be gaur domeka da ta... ori jakin ba gendu... Urren-go zatozanean, aurrez deituta etorri.

—Olako gauzak eta ikustaldiak jakin barik obeto egiten dira, amona.

—Bai, alaxe da. Baiña arrain pixkat edo... Besterik ez ba da, emen dagozan lau berdelak eroan egizuz.

—Berdelei mu egingo dautse oneik. Lebatza izan ba litz be...

—Ia ba, gaur nun erosi be eztago. Fresko freskuak dira, garbituta dagoz, gatza be emonda dauke. Ia ba, beste egun bat gertatu ba litz edozeiñeri eskatu edo kentzeko be...

—Ez estutu. Borondatea naiku da.

—Etxekoak zerbait artu dagien be... Eroan, eroan lau berdelok. Paperik be ez daukagu batzeko ta... Amu batetik kordel txiki baten dindilizka obeto ez, Peru?

—Amona, gu hoteletan bizi gara ta oraindik etxerako egun bat edo bi bearko doguz. Itxi, laga berdelei.

—Gaur artutako lakoxeak dagoz. Sakatsa be gorri gorri dauke. Peruk eroango dautsuz kotxera.

Barriro musuak eta agurak. Eta amonaxoren malko bigunak.

Iru gizonak, atera urten orduko, kotxean sartu ta... agur... agur... ta atzamarrak ezpafiñetara eroanez musu ta biozkadak jaurtiten. Motorra arindu ta ru, arin egin be.

.....

—Or ba. Ez genkien gure Idurrek semerik eukanik be. Nun billatu dozu bera?

—Bidean.

—Zelan ezagutu zarie?

—Gu? Ba berak ni.

—Norbaitek esan dautsu?

—Ez jakin. Itxuratik edo... Aurrera joaizan ta Txomin eta ni ikusi gaituenean geratu dira.

—Gure Idurre... Nundik nora ibilli ete zan a? Sekula jakin ez. Orain nun bizi dirala esan dau?

—Ene! Ez gara orretan jardun. Itz eta itz, emoten al eban unerik ezer itaunduteko?

—Okasiño baten deitzeko be...

Dana dala, izarak bialtzen ba dauskuez, bestelako mesedea egingo dabe. Eta zuk, traje eder ori egiten dozunean... Zenbat metro ete daukaz? Jostunari be eskatu gero txatalak, beste edozer egiteko be... Ni neuk ikusmen gitxi daukat, baiña ekatzu tela ori, zelakoa ete dan konurtatzeko be...

Eee? Peru... soiñekoa, trajea egiteko ez dautsue saldu, ba? Emen... emen... gona laburrik egiteko be... amantal bat egiteko be... Zelako izena esan dau illobak?

—Ez dautsagu izenik entzun.

—Peru... Izarak noiz bialtzeko?

—Biar edo...

—Biar edo etzi... edo bein ere ez.

—E?

—Gure Idurren semea dala diñozu?

—Nik beste dakizu.

—Entzun ia...

—Itxura pixkat ba eukan, Ba eukan antza.

—Zeiñena? Zenbat urte gure Idurrek?

—Ni baiño gazteago zan, dakizunez, eta...

—Zuk irurogeta lau, a sei urte gazteago... arek berrogei ta amazortzi. Illoba orrek, itxuratan, eta aren tximurrak ez dabe ukatuten, berrogeitik gora...

—Idurre emen bizi izan zan ogeta amar urte inguruan neskatil. Emen ez eban semerik euki... Ene ba!

—Zer?

—Lapurrak ez ete ziran? Ez ete gantzeruak?

—Baita zera be. Ni arek ezagutu naben eran...

—Aita San Antonio! Itsuak argitzen ez dakizu ba? Eta neure Aita San Ramon...

Itzalduten asi zan Peru. Iruntsi eban zerbait. Itzik be esateko adore barik etenda gelditu zan, izerdi' likiñetan bekokia busti, berekautan aulduta aulki baten exeri, jausi...

Ta amonaxoa... Ai San Antonio! Ai neure Aita San Ramon! Zegaitik ipini ete zaitue ormara begira, atzekoz aurrera? Zuk emoten dozuzan seme bedeinkatuen bildur?

Ez izararik ta ez soñekorik. Ez dakizu zer egin eutsen Kataliñeri?
 Eta Kospari? Ene bada-ta! Ziur egon. Ez izararik eta ez trajerik!
 —Dirurik be ez.
 —Ez eta berdelik be. Berdel tristerik be ez! Ze apaldu be ez!
 Gantzeruak izan dira!!

A R K I B I D E A

AGUIRRE, CECILIO	
Lenengo egunetik maixu	7-8
AGIRRE'TAR KOLDO, "MIKELATS"	
Euskeraren aroak	9-21
APECECHEA PERURENA, JUAN	
Un texto inédito de Joaquín de Lizarraga sobre el sacerdocio (año 1803)	23-37
ARAMBARRI, SIMON'EK, "TXALINTXO"	
"Vir sapiens et probus"	39-40
ARISTIZABAL'DAR LUKEN	
Txantxetan Txarrantxetan	41-50
AROSTEGI'TAR JOAKIN	
Pir... pir... pir... .. .	51-55
ARRAZOLA, MADRE A.	
El escultor Domingo de Mendaraz en Villarreal de Urrechua	57-61
AYERBE, INOCENCIO "ARTXUETA'KO UNAIA"	
Aralar'ko aizeak. San Migel'ko aldareburua	63-68
BAZTARRIKA SAIZAR-BITORIA, J. M.	
Pío Baroja'ren "El cura de Monleón"	69-78
ESTOMBA, MANUEL	
Ama Xantalen	79-89
FERNANDEZ OGUETA, JESUS	
Don Manuel de Lecuona en Calahorra	91-92
GARMENDIA'TAR ION "ZELETA"	
"Xenpelar"	93-95

GAZTAÑAGA'TAR JESUS'EK	
Liturji-euskeralpenen kondaira	97-109
IÑARRA'TAR JOSE LUIS (†)	
Arrasate'ko apellido-abizen zaarrak	111-117
IRATZEDER	
IV.—Godor-Lahomor	119-125
IRIGOYEN'DAR TXOMIN'EK	
Parrokietako zinemak	127-130
"KAMIÑAZPI"	
Peru Abarka	131-143
LEIZAOLA'TAR JOSU MIRENA	
Oyartzuarren oyartzunak	145-151
LIZARRAGA'TAR H.	
Otamendi'tar Iñaki geure olerkari bikañari	153-155
LOIDI'TAR PABEN	
Lekuona, euskel-iturri	157-159
MAURO, ESTIBALIZ'KOA	
Gaurko gaztediaren burrukaldia	161-162
MUJIKATAR TENE	
Sorgiñak Arranomendian	163-164
MUNIAITEGI'TAR SABIN	
Imanol Lekuona jaun argiari	165
OLAZAR'TAR MARTIN	
Gure billaketa-lana	167-180
OÑATIBIA'TAR IÑAKI	
Don Manuel eta euskal-liturjia	181-184
OÑATIBIA'TAR YON	
Mikelats	185-203
OTAMENDI'TAR IÑAKI	
Olerkiak	205-220

THALAMAS LABANDIBAR, JUAN	
Cultura Pirenaica	221-240
TOLEDO'TAR NEKANE	
Andoain, Berrozpe	241-247
SUKIA'TAR GOTZON	
Apaizgaiarena. Aurtxoarena... ..	249-252
SUKIA'TAR JOXE MARI	
Zaldibi'ko euskeraren bizi-indarra 1934'an eta gaur ("Lingüística Charta" baterako egigaiak)	253-265
YURRE'TAR YULEN AITAK	
Apaiza errian ta aberrian	267-271
ZAITEGI ETA PLAZAOLA'TAR IOKIN	
Platon-en atal bat, Lekuona zaarraren Omenaldirako	273-291
ZATARAIN'DARR ANBROSI'K	
"H", ikako aditz-iokoetan	293-297
ZUBIKARAI, AUGUSTIN	
Ipuin lako gertaerak	299-320

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA - DEKO
Sarr 15.173/88
Gaia.
Tokia.

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1 KARDABERAZ, 1
(Zenbait idazle) 1971. 34 of
- 2 UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
(Marrezki ugariz omitua) ... 1973. 19 "
- 3 EUSKALERRI ZARREKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrinda) 1973. 19 "
- 4 KARDABERAZ, 2
1973. (Zenbait idazle) 1975. 110 "
- 5 KARDABERAZ, 3
1974. (Zenbait idazle) 1975. 147 "
- 6 AMEZKETA'KO PERNANDO
(Albizu ta Ayerdi'tar Anastasio) 1975. 77 "
- 7 KARDABERAZ, 4
1975. (Zenbait idazle) 1975. 84 "
- 8 "PAKEAREN-ERREGIÑA" - MEZA
(Pildain Araolaza'tar Joakin) 1974. 43 "
- 9 20 IPUI ETA... antzerkitxo bat ikastolarako
(A. Albisu) 1975. 145 "
- 10 KARDABERAZ, 5
1976. (Zenbait idazle) 1977. 109 "

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteiz'ko Aporizgaitegian. Euskeraren alde.

1936'an birrindua. 19' 0'an berpiztua.

Zertarako? Euskera jator batean, kristau-burubide barruan (esi zabalal lan egiteko.

Bazkideak (glizon ala emokume): bazkidetza irixteko sar-
rera-sariz, milla peseta ordaintzen dute. Iru bazkide
-mota dira gero:

- A) Urteko milla pesetako bazkide-saria ordaintzen dute-
nak. Kardaberaz "urterako" liburuxka, utsean-duan
jasoko dute. K. B.'k irarriak dituan eta Irarriko dituan
Idazkietatik, ala nai izanik, nai dituztenaz erosteko
eskubide dute, Irar-sariaz ordaindurik.
- B) Urteko bi milla pesetako bazkide saria ordaintzen
dutenak. Kardaberaz "urteroko" liburuxka, utsean
-duan jasoko dute. K. B.'k irarriko dituan idazkiak, Irar-
-sariaz ordaindurik, urteko milla peseta bitarteko
kopuruz ditezkenak jasotzeko eskubidea dute, ezer
geiago ordaindu gabe.
- D) Urteko bi milla pesetatik gorako bazkide-saria or-
daindu nai dutenak, Bazkunari guzizko ordaintzetan
berezikil lagundu nairik. Idazki banaketan ongi go-
goan izango ditu mota ontako bazkideak K. B.'k.

Arpidedunak Irartzen jungo diran idazkiak jasoko dituzte
aldiko aldian, jaso ala, arpidedun-sariaz ordaindurik.

KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo 83 - Tel. 55-11-40 - **TOLOSA**

